

**Jules Verne**

**Michel Strogoff**

**euskaratzailea: Karlos Zabala**

# HITZAURREA

«Gizona ozta-ozta ausartzen da Siberiako estepetan edo Asiaren erdialdeko lautadetan barneratzen; adoretuenak ere atzera egiten du Afrikako basamortuetan, Amerikako zelaietan; bipilenak ere amore ematen du Australiako lurralde zabaletan, poloetako izotzezko eremuetan. Ezin da pasa. Garraio bideak ez dira nahikoa. Beroa, gaixotasunak, indigenen basakeria oztopo gaindiezinak dira, eta ez bakarrik.»

Eta munduko azken bazter isolatu eta ezezagun haietara abiatu ziren esploratzaileak XIX. mendeko bigarren erdian. Eta halaxe egin zuen Jules Vernek ere bere pertsonaiekin: munduko alderdi arriskutsu haietara bidali, eta haien abenturak eskaini zizkien horrelako istorio bizen egarriz zeuden mendebaleko irakurleei.

Hatteras kapitaina ipar polora joan zen, Paganel geografoak Amerika zeharkatu zuen Grant kapitainaren bila, bai eta Australia eta Zeelanda Berria ere. Fergusson Afrikan barrena ibili zen globoan bost astez, eta Mikel Strogoffek eta César Cascabelek Siberia gurutzatu zuten, nor

bere bidetik. Baina harago ere badoaz Vernereren pertsonaiak.

Lidenbrock doktorea lurraren bihotzeraino jaitsi zen. Barbicane, Nicholl eta Ardan ilargira igo ziren. Aronax, Conseil eta Ned Land itsaspean ibili ziren hogeit mila legoaz, Nemo kapitainaren *Nautilus* ontzian.

Foiletoi gisa agertu ziren Vernereren istorioak aldizkari eta egunkarietan, eta jendeak irrikaz itxaroten zuen hurrengo kapitulua, hurrengo eleberria. Nora eramango ote gaitu hurrengo bidaian? Lilura agudo hedatu zen. Telegrama ugari iritsi ziren *Journal des Debats* aldizkarira, guk ere ilargira joan nahi dugula esanez. Alderdi guztietako egunkarietan laburpenak argitaratu ziren Phileas Foggek eta Passepartoutek mundu osoan barrena egiten ari ziren bidaia kontatzeko, irakurleak ezin baitziren egon itzulpenen zain; eta diru pila galantak eskaini zizkioten Vernereri nabigazio konpainiek bi pertsonaia horiek beren ontzietan itsasoratzearen truke.

Erabateko arrakasta bildu zuen Jules Vernek bere eleberrietan geografia eta zientzia jorratuz; baina bide luzea ibili behar izan zuen horra iritsi aurretik.

Izan ere, Jules Verne 1828ko otsailaren 8an Nantesen jaio zenean, ume hura bera bezala abokatua izango zela erabaki zuen haren aitak, Pierre Vernek. Kervegan kaleko balkoitik, ordea, bela ontziak ikusten zituen Jules txikiak, ibaian gora zihoazenak marearekin batera, eta portuan beste herrialde batzuen eta beste jende batzuen istorioak entzuten zituen elkarrizketetan.

Erromantisismo exotikoa pil-pilean zegoen garai hartan Frantzian, eta Chateaubrianden *Atala, edo bi basatien maitasuna basamortuan*, Bernardinen *Paul et Virginieren* amodio eztea, Fenimore Cooperren *azken mohikanoaren* istorioa irakurri zituen Vernek haurtzaroan.

Hamaika urterekin, posta ontzi batean itsasoratu zen Indiara joateko. Ontziak Paimbœufen egiten zuen geldialdiari esker harrapatu zuen aitak, eta Vernek bidaiak ametsetan baino ez zituela egingo agindu behar izan zuen. Koralezko lepokoa ekarri nahi zion Caroline lehengusinari, aitortu zuenez, hartaz maitemindua baitzegoen, kasu gutxi egiten bazion ere.

Vernek latina ikasi zuen eskolan, eta *Robinson Crusoe* irakurri. Zuzenbidea ikasi zuen Nan-

tesen eta Parisen, eta lehenengo vaudeville lanak idatzi. Ikasketak bukatu zituen, baina hauxe idatzi zion aitari: «Letretako karrera da komeni zaidan bakarra. Zure abokatu bulegoa gaizki joango litzateke nire eskuetan balego, porrot egingo luke».

Idazle izan nahi zuen, baina zer bide hartuko? Antzerkia? Eleberria? Zalantzan zegoela, Edgar Allan Poeren istorioak berriz irakurri eta erabaki bat hartu zuen: zientzia eta geografiaren eleberria egingo zuen. Jendea egunero harritzen zen asmakuntza berriekin: lurrun ontzia, trena, telegrafoa, argindarra, harako edo honako lurraldearen aurkikuntza... baina prentsa ilustratuan baidarik ez zen haien berri zabaltzen.

1857an ezkondu eta burtsako artekari lanean hasi zen, bizimodua ateratzeko. 1861ean haren seme bakarra jaio zen, Michel. Erabakia hartua zegoen, ordea. Bostetan jaiki eta hamarrek arte irakurtzen, idazten, oharrak hartzen aritu zen egunero, hainbat urtetan, ia ezer idatzi gabe. Lehenengo saioekin, dokumentatu beharra zuela konturatu zen, eta ezaguera entziklopedikoak bereganatzeari ekin zion.

Eta 1862an *Bost aste globoan* idatzi zuen. Argitaletxez argitaletxe ibili eta Pierre-Jules

Hetzelekin egin zuen topo, etsitzekotan zegoela. Hetzelek eskuizkribua irakurri, eta harreman ezin oparoagoa abiatu zen idazlearen eta argitaratzailearen artean. Liburua egundoko arrakastaz argitaratu zen, eta Hetzelek kontratua eskaini zion Vernerri: urtean bi liburu hogeitun urtean, edo berrogei liburu epe laburragoan, eta trukean hamar mila libera (mila eta bostehun euro, gutxi gorabehera) liburuko.

Eleberri genero berri bat sortu da. Vernek eta Hetzelek urrezko zaina aurkitu dute letretako meategian. Abenturazko eleberriak dira. Globoak, kanibalak, mapak, haitzuloak, kriptogramak, ekaitzak, uharteak, hotza, sumendiak, piratak, itsasontziak. Bidaia harrigarriak. Harrigarriak baina oinarri zientifikoarekin. Afrika globoz zeharkatzeko, hango haizeek nondik jotzen duten jakin behar. Ezin dira alde batera utzi fisikaren eta mekanikaren legeak, eta horixe kritikatu zion hain zuzen Vernek Poeri.

Vernerren eleberrien irazkia bidaia harrigarria da ia beti, pertsonaia karikaturizatu batzuek egiten dutena. Vaudeville klasikoaren ildotik ez da aldentzen, alde horretatik. Istorio sinpleak, pertsonaia lauak, psikologia tolesgabeak. Kontaketa arinak, didaktikoak, baikorrak. Eta bilbea, berriz,

deskribapen geografikoak, azalpen zientifikoak. Zenbat biztanle bizi diren halako hirian. Nolakoa den hango paisajea. Nola janzten diren harako herri hartakoak. Zenbateko indarra behar den bala erraldoi barne-huts bat Lurraren grabitate-tik ateratzeko. Nondik eta noiz bota behar den. Vernek arazo teknikoei aurre egin eta erantzuna ematen die, garai hartako ezaguerez baliaturik.

Laurogei bat literatur lan idatzi zituen Jules Vernek, eta hirurogei bat dira tankera horretako eleberriak, ospe handi-handikoak haietako asko: *Lurretik ilargira, Hiru errusiar eta hiru ingeles abenturak, Munduari itzulia laurogei egunetan, Uharte misterioitsua, Indieta beltzak, Hamabost urteko kapitaina, Bi urte oporretan, Urrezko sumendia, Munduaren azken muturreko faroa*. Besteak antzerki lanak eta obra geografikoak dira gehienak: *Frantziaren eta haren kolonien geografia ilustratua, Bidaia handien eta bidazti handien historia, Kristobal Kolon...*

Literaturak bete zuen Vernerren bizitza, eta, are gehiago, lehenengo arrakasta horretatik aurrera. Burtsa utzi zuen. 1872an Amiensera joan zen bizitzera. Lan eta lan beti. Jaramon gutxi egiten omen zion Honorineri, bere emazteari. Aberastu egin zen, baina ez, ordea, elebe-

rriengatik, antzerkirako bi egokitzapenengatik baizik: *Munduari itzulia laurogei egunetan* eta *Mikel Strogoff*. Arrakasta sekulakoa, *Mikel Strogoffek* batez ere. Parisen txano errusiarrak, kabiarra, eta Michel eta Nadia izenak modamodan jarri ziren. Semearekin arazo latzak. Baina idazteari inoiz ez zion utzi. Ia urte berean Hetzel eta ama hil zitzaizkion, eta iloba batek tiro eman eta herren utzi zuen betiko. Halere, bi edo hiru liburu urtero-urtero. Gaztetako umore bizia ozipindu zitzaion pixkaka, isil eta malenkoniatsu bihurtu arte. «Lanean ari ez naizenean, ez naiz bizirik sentitzen» esaten zuen. Arte eta kulturako zinegotzia izan zen, Amienseko udalean. Paul anaia maitea hil zitzaion. Ikusmena galdu, baina idazten segitu zuen testuak ahoz esanda, 1905eko martxoaren 24an hil zen arte. Mundu guztia jarri zuen dolutan haren heriotzak. Bost mila lagun baino gehiago agertu ziren haren hiletetara, estatu askotako enbaxadoreak, haien artean. Ez zegoen munduan idazle herrikoia gorik une hartan.

\* \* \*

*Bidaia harrigarriak* Vernek eta Hetzelek bat egin zutenean sortu ziren. Hetzelek Vernereren obra argitaratu baino askozaz gehiago egin zuen. Gidatu egin zuen, zuzendu, akuilatu, baita zentsuratu ere zenbaitetan. *Mikel Strogoffen* kasuan, esaterako, tsarraren izena (Alexandro II.a) ez aipatzeko eskatu zion, Vernereren liburu asko errusierara itzuliak zeuden-eta ordurako, eta beharbada ez zuten ongi hartuko.

Argitaratzailea hil ondorengo liburuetan bestelako ideiak agertzen dira: duda-mudan jartzen dira zientziaren eta teknikaren abantailak, ekologia goraipatzen da, kapitalismoa maiseatzen. Ideiak ez dira berriak, 1989. urtera arte argitaratu gabeko liburu batek adierazten duen bezala. *Paris XX. mendean* liburua 1863rako idatzia zuen Vernek. Nola irudikatu zuen Paris mende bat aurretik? Beiraz eta altzairuzko eraikin zeru-harraskariak, abiadura handiko trenak, errekuntzako motoredun ibilgailuak, ordenagailuak, fotokopiagailuak, mundu osoko komunikazio sarea. Eta gizona zorionaren bila eta materialismo ankerraren kontrako borrokan. Vernereren mezuak asko eta asko ustekabean harrapatu zituen. Ez zituen bada sakontasunik gabeko istorioak idazten gazteentzat?

1879an *Begum andre alargunaren bostehun milioiak* idatzi zuen. Sarrasin frantsesak eta Schultze alemaniarrek herentzia ikaragarria jaso eta hiri bana eraikitzeko erabiltzen dute. Frantsesak Franceville hiri lasai utopikoa egin du, baina alemaniarrek, berriz, armak fabrikatzeko lantegi erraldoi bat, Stahlstadt izenekoa (altzairuzko hiria). Eta bertan Franceville kolpe bakar batez erabat suntsitzeko arma fabrikatu dute. Nazismoa gogorarazten du Schultzek: arrazismoa, gizon-emakume ahulak akabatu nahia, agintari klase berria boterera. Hitlerrek debekatu egin zuen liburua, eta ez da harritzekoa.

1896an *Banderaren aurrean* argitaratu zuen. Jakintsu ero batek bi elementu elkartz mundua suntsitzeko adinako energia sor daitekeela aurkitu du.

Horrelako istorioak ere idatzi zituen, baina ez dira horiek ospea eta itzala eman zizkietenak.

\* \* \*

Izan ere, korapilo asko ageri zaizkigu Verne-  
ren pentsamolde eta nortasunaren inguruan.

Anarkista ote zen galdetu izan du batek baino gehiagok Nemo kapitainaren bandera beltzari begira.

«Itsas mailatik metro batzuk beherago ez dago giza araurik. Itsaspean baino ez dago independentzia! Han ez dago nagusirik! Han naiz ni libre!» diosku kapitainak, eta «independentzia» da haren azken hitza hil aurretik, Vernerren eskuizkribuan, «Jainkoa eta aberria» agertu arren azkenik, Hetzelek argitaratutako liburuan. Eta hori ez zuten izan desadostasun bakarra idazleak eta argitaratzaileak Nemo kapitaina zela eta.

Nemo, hasiera batean, poloniarra zen eta Errusiako tsarraren kontra egiten zuen borrokan, Poloniaren askatasunaren alde. Hetzelek, aldiz, esklabu salerosketaren kontra egin zezan nahi zuen, bestela Errusian liburuak debekatuko baitzuten, eta beste liburuen salmentak jaitsiko. Azkenean, ezkutuan gelditu ziren Nemo kapitainaren motibazioak *20.000 legoa itsaspean* liburuan, eta aurrerago baino ez zen sekretua agerian jarri, *Uharte misteriotsua* argitaratu zenean: Indiako printze bat da Ingalaterraren kontra borrokan diharduena eta laguntza eskaintzen diena askatasuna bilatzen duten herri guztiei.

Baina Nemo kapitaina alde batera utzita, Jules Verne ez zuen inoiz politikan parte handirik hartu, Amienseko zinegotzia izan bazen ere. Eta aukera izan zuen horretarako, bai 1848ko iraultzan, bai Parisko komunan, 1871n, Parisen egon baitzen bietan, baina borroka lekuetatik urrun. Azken mugimendu hori zela-eta, gainera, hauxe idatzi zuen: «Errepublika da anarkistekin zorrotz jokatzeko eskubidea daukan gobernu bakarra, horixe baita herritar gehienek nahi duten gobernu».

Ekologisten aitzindaritzat ere jo izan da. Eta egia da arrantzaleak kritikatu zituela beren basakeria arduragabeaz ozeanoko azken balea desagertaraziko baitzuten egunen batean. Eta kapitalismoa kritikatu zuen, axolarik ez ziolako munduaren parte bat arriskuan jartzea, irabaziak lortuz gero. Eta gobernuak kritikatu zituen, kapitalismoaren eromen suntsitzaile hori geldiarazteko gai ez zirelako. Petrolioaren industriaren kutsadura ere kritikatu zuen. Eta elefanteak hiltzea, marfila eskuratzeko... Baina *Larruen lurraldean* eleberrian, esaterako, mota guztietako animaliak hiltzen dituzte, beren larruak saltzeko.

Zientzia fikzioaren aita dela esan izan dute hainbatek. Eta ezin ukatu asmakizun askori

aurre hartu ziola. Baina zientzia fikzio zale askori irudimen estukoa iruditzen zaie. Hona zer dioen Vernek berak kazetari ingeles batek egingdako elkarrizketa batean, Henry G. Wells dela eta:

*Badago idazle bat oso atsegin izan dudana irudimenaren ikuspuntutik. Interes handiz segitu izan ditut haren liburuak. H. G. Wells jaunaz ari naiz. Nire lagunetako batzuek iradoki dute haren lana nirearen ildo berean doala, baina horretan, nire iritziz, huts egiten dute. Irudimen hutseko idazle bezala, laudorio bizia merezi du, nire ustean, baina haren metodoa guztiz desberdina da nirearen aldean. Nire balizko asmakizunak egiazko egitateetan oinarritzen dira beti, eta neure eleberriak egitean erabili ditudan metodo edo materialak sekula ez dira erabat urrundu gure garaiko ahalbide eta ezagueretatik. (...)*

*Wells jaunaren asmakizunak, aldiz, oso urruti daude gaur egun ditugun ezaguera zientifiko-en mailatik, beste aro bati dagozkio, edo gerta-kizunaren mugatik harago daude. (...) Munduen arteko gerra liburuan, biziki miresten dudan obra horretan, ez dakigu ezer ere Marteko biztanle horiek zer izaki mota izan daitezkeen, edo nola*

*egin daitekeen etsaien aurka borrokatzeko erabiltzen duten berozko izpi miragarri hori.*

Batzuek diotenez, deskribatu zituen herri guztiak bisitatu zituen, eta, beste batzuek, berriz, sekula ez zela atera bulegotik. Ez batzuek ez besteek ez dute arrazoirik. 1859an Eskoziara joan zen. 1861ean Norvegiara, baina, Danimarkan zegoela, bidaia utzi behar izan zuen, haren semea jaiotzekotan zegoelako. 1867an Amerikara joan zen anaiarekin «Greant Eastern» itsasontzian. Egun batzuk han eman, eta atzera Europara. 1880an itsas bidaia egin zuen Mediterraneoan zehar, Saint Michel III bere ontziaz (lehenago beste bi izan zituen: Saint Michel eta Saint Michel II). 1881ean Ipar itsasoan eta Baltikoan barrena ibili zen, eta 1884an Mediterraneoan berriz ere. Horra Vernereren bidaia guztiak. Bizitzako azken hogeitun urtean behin baino ez zen Amiensetik atera, eta Parisera baino ez zen joan epaiketa batera. Eiffel dorrea ikusi ez zuen frantses bakarra zela esan ohi zuen txantxetan.

Trebetasun aparta izan zuen paisajeak, hiriak, lurraldeak deskribatzeko, bertan egon gabe. Baina dokumentatzeko egiten zuen lana ere paregabea zen.

Ivan Turguenev idazle errusiarrak, esaterako, deskribapenen zehaztasuna goraipatu omen zuen, *Mikel Strogoff* liburuaren eskuizkribua utzi ziotenean oharrak eta zuzenketak egiteko.

Misoginoa omen zen. Eta egia da emakumeekin harreman handirik ez zuela izan, antza; eta haren liburuetan batzuen batzuk agertzea Hetzelen eraginari zor zaiola gehien bat. *Les onze sans femme* taldekoa izan zen, baina bi alaba zituen alargun batekin maitemindu eta ezkondu egin zen. Segituan aspertu omen zen, ordea, eta Honorine eta seme-alabak alde batera utzirik, buru-belarri lanari lotzen zitzaion. Hala ere, Mme. Duchesne izeneko emakume batekin harreman luze sakona bezain ezkutukoa izan zuen, zenbaiten ustez. Beste batzuek, aldiz, gaztetan Caroline lehengusinarekin izan zuen desengainuari egozten diote emakumeekiko geroko mesfidantza. Eta homosexuala eta beharbada pedofiloa ere bazela esaten digu Herbert. R. Lottmanek bere biografian.

Egia esateko, ia ehun urte igaro dira Jules Verne hil zenez geroztik, baina oraindik ere haren liburuak argitaratu eta irakurri egiten dira hizkuntza askotan. Filmeak egiten dira. Ia astero agertzen da hemen edo han Vernerri buruzko

artikuluren bat, iruzkinen bat edo biografiaren bat. Eta maiz jartzen da abian bidaztiren bat haren pausoei jarraituz.

Mikel Strogoffi dagokionez, esaterako, sei bat film egin dira orain arte, eta telebistako egokitzapenak, antzerki obrak, eta bidaia ugari. Bi, orain dela gutxi: Claude-Marie Vadrotena, 1993an argitaratutako *Sur les pas de Michel Strogoff* liburuan kontatua, eta *Sur les traces de Michel Strogoff* espedizioa, talde frantses-errusiar batek 2000ko udan 4x4 ibilgailuez egin zuena eleberriko datuak oraingo errealitatearekin alderatzeko asmoz.

**Karlos Zabala**

# **LEHENENGO ZATIA**

# JAUREGI BERRIKO JAIALDIA

—Jauna, beste mezu bat.

—Nondik dator?

—Tomsk hiritik.

—Handik aurrera telegrafo haria moztuta dago?

—Bai jauna, atzodanik.

—Agindu ezazu orduoro-orduoro Tomskera telegrama bat bidaltzeko, eta zer gertatzen ari den jakinaraz diezadatela.

—Bai, jauna —erantzun zuen Kissoff jeneralak.

Elkarrizketa hori goizeko ordu bietan gertatu zen, Jauregi Berrian ospatzen ari zen jaialdia pil-pilean zegoelarik.

Gaueko dantzaldi osoan, Preobrajensyko eta Pavlowskyko errejimentuen musika bandak etengabe aritu ziren beren errepertoriotik hautatutako polka, mazurka, scottish eta baltsik ederenak jo eta jo. Ezin konta ahala dantzari bikotek betetzen zituzten jauregiko areto ikusgariak; eta handik hurbil zegoen «harrizko etxe

zaharretik» behinola gertatutako drama izugarriak gau hartan berpiztu, eta haien oihartzunek durundi egin zuten dantzen soinu ederretan.

Jaialdia atontzeko lan delikatua gorteko mariskal handiak egiten zuen, eta ez zuen laguntza faltarik eginkizun horretan. Duke handiek eta haien kanpo laguntzaileek, zerbitzuko xanbelanek eta jauregiko beste ofizialek zuzendu eta antolatzen zituzten dantzak, ardura hori beste inoren eskuetan utzi gabe. Dukesa handiek, diamantez estalirik, eta ganbarako damek, gala jantziz ederturik, beldurrik gabe erakusten zieten nola jokatu «harri zurizko hiri» zaharreko goi funtzionario zibil eta militarren emazteei. Halako batean, «polonesa» dantzatzeko deia jo zuten, eta maila guztietako gonbidatuak abiatu ziren horrelako ospakizunetan dantza nazionalaren garrantzia hartzen ohi duen ibilaldi kadentziasuan parte hartzera. Mailaka-mailaka parpailez jositako soineko luzeak eta dominaz hornitutako uniformeak nahasi ziren batzuk besteekin, eta berebiziko ikuskizuna eman zuten, ispiluetan dir-dizka mila islatan ugaltzen zen ehun lanpararen argipean.

Liluragarria izan zen, guztiz.

Gainera, goi pertsonaiez eta dotore apaindu-tako andreez osatutako segizio horri haien handitasunaren neurriko ingurunea eskaintzen zion areto nagusiak, Jauregi Berrian dagoenik eta ederrenak. Gangak dekorazio aberatsa zuen eta, denboraren joanaz jadanik leunduta ageri ziren haren apaindura urreztatuekin, argi puntuz izar-tuta zegoela irudi zuen. Errezelen eta ate-oihalen brokatuak, izur bikain-bikainekoak, gorrindolez koloreztaturik zeuden, eta haien tonu beroak bortizki hausten ziren oihal astunen angeluetan.

Leihoak zabalak ziren eta erdi-puntuko arkuz biribilduak. Haien beiretan zehar aretoetako argitasuna kanporatzen zen, lurrun mehe batez baheturik, eta, sute baten isla bailitzan, gauaren kontra talka egiten zuen bortxa handiz. Ordu batzuk baziren gauak jauregi dirdaitsua bere baitan bildua zuela, eta barruko argiaren eta kanpoko ilunaren arteko kontrasteak arreta erakarri zien dantzan ari ez ziren gonbidatuei. Leiho zuloetan gelditzen zirelarik, hainbat kanpandorre suma zitzaketen, itzaletan lauso, han-hemenka beren silueta itzelak agertzen. Balkoi zizelatuen gainetik, zaindari ugari ikusten zituzten, isilean hara eta hona, fusila zut sorbaldaren kontra. Haien kasko puntadunen gandorrek sugarrezko-

ak ziruditen, jauregiari zerizkion argi izpien dir-  
daipean. Soldadu patruilen urratsak entzuten  
zituzten orobat, harlauzetan pausoa markatzen,  
beharbada dantzarien oinak aretoen solairuan  
baino zehatzago. Noizetik noizera, guardiako  
zaindarien deidarra errepikatzen zen postuz  
postu, eta, batzuetan, tronpeta joaldi batek bere  
nota argiak jaregiten zituen nagusi zen harmo-  
niaren erdian, orkestraren akordeekin nahasita.

Are beherago, fatxadaren aurrean, irudi itzal-  
tsuak nabari ziren Jauregi Berriko leihoetatik  
jaurtitako argizko kono eskergetan. Ontziak  
ziren, ibai batean behera; eta ibaiko urak,  
argiontzi batzuen ñirñir urduriaz pikardaturik,  
terrazen beheko zimentarriak bustitzeraino iri-  
sten ziren.

Dantzaldiko pertsonaia nagusia, jaia eskain-  
tzen zuena eta Kissoff jeneralak subiranoei  
dagokien begiruneaz tratatu zuena, xume jantzi-  
ta zegoen, guardiako ehiztarien ofizialen unifor-  
me arruntaz. Ez zen itxurakeriarengatik janzten  
horren apal, finezia nabarmenen batere zalea ez  
zelako baizik. Haren janzkera, bada, bereizi egi-  
ten zen inguruan zeuzkan arropa zoragarrien  
artetik, eta horrelaxe agertzen zen ia beti bere  
eskoltaren erdian ere, nahiz eta haren soldadu

georgiar, kosako eta lesghiarrek beti bikain jantzita ibili, Kaukasoko uniforme paregabeak soinean.

Pertsonaia hau gorpuzkeraz garaia zen, itxuraz xaloa, lasaia begitartez, baina kopeta kezka-tsua zeukan, eta, talde batetik bestera bazebilen ere, hitz gutxi egiten zuen, eta bazirudien gaintik baino ez ziela jaramon egiten gonbidatu gazteen mintzo alaiei, goi funtzionarioen solas serio-agoi, eta haren aurrean Europako Estatu nagusiak ordezkatzeko zituzten diplomatikoen hizketa taxuzkoei. Politikari begi-zoli horietako bik edo hiruk, fisionomista onak izaki, larritasun zantzuren bat ikusi uste zuten beren gonbidatzailearen aurpegieran, haren zergatiaz tutik ere sumatu ez arren. Inor ez zen ausartu, ordea, gai hartaz itaunik egitera. Nolanahi ere, guardiako ehiztarien ofizialak ez zuen inola ere nahi bere ezkutuko kezkek jaialdia iluntzerik, eta, kasik herri oso batek are pentsamenduz obeditzen duen subirano bakan horietakoa zenez gero, dantzaren gozamina ez zen moteldu lipar batean ere.

Bien bitartean, Kissoff jenerala handik alde egiteko aginduaren zain zegoen; baina Tomske-tik bidalitako mezua hartu zuen ofiziala isilik zegoen artean. Telegrama irakurrita kopeta goi-

belago jarri zuen. Oharkabeen, eskua ezpata-sagarraren babesera eramán zuen, eta handik begietarantz altxatu, begirada une batez ezkutatzen zuela. Agi danean, argien distirak mina eman eta iluntasun bila zebilen, bere baitan hobeki ikusteko.

—Beraz, atzodanik ez dugu harremanetan jartzerik nire anaia duke handiarekin? —galdetu zion Kissoff jeneralari, leiho zulo bateraino eramán ondoren.

—Ez, jauna, ezin harremanetan jarri; eta beldur gara ezin izango ote dugun mezu gehiagorik bidali Siberiako mugaz bestaldera.

—Baina Amur eta Jakutsk probintzietako tropek eta Transbaikaliakoek agindua jasoko zuten Irkutsk hiria defendatzera berehala joateko, ezta?

—Bai, jauna. Baikal aintziratik harantz bidali dugun azken telegramaren bidez eman zaie agindu hori.

—Eta inbasioa hasi zenez geroztik, Jeniseisk, Omsk, Semipalatinsk eta Tobolsk probintziekin harremanetan gaude zuzenean eta etengabe, ezta?

—Bai, jauna, gure mezuak iristen zaizkie, eta ziur gaude oraindaino tatariarrek ez dutela Irtish eta Obi ibaietatik aurrera egin.

—Eta Ivan Ogareff traidoreaz bada berririk?

—Ezta bat ere —erantzun zuen Kissoff jeneralak—. Polizi buru nagusiak ezin du ziurtatu muga pasa duen ala ez.

—Berandu gabe bidal dezatela haren deskripzioa Nijni Novgorodera, Permera, Jekaterinburgera, Kasimovera, Tiumenera, Ixinera, Omskera, Elamskera, Kolivanera, Tomskera, eta haria moztuta ez daukaten postu telegrafiko guzti-guztietara!

—Berorren maiestatearen aginduak berehaxe beteko dira —erantzun zion Kissoff jeneralak.

—Hitzik ez inorekin auzi honi buruz!

Gero, jenerala, zeinu batekin begirunezko atxikimendua erakutsi, bizkarra makurtu, eta jendearen artean galdu zen. Segidan utzi zituen aretoak, inor ere ohartu gabe.

Ofiziala, aldiz, pentsakor geratu zen instant batez; baina haren begitarteak arestian galdua zuen lasaitasuna berreskuratu zuen berriz ere, aretoetan hara-hona zebiltzan militarrez eta politikariz osatutako taldeekin elkartu bezain laster.

Hala eta guztiz, agudo trukaturako hitz horien arrazoia, Siberiako gertaera latza, alegia, ez zen guardiako ehiztarien ofizialak eta Kissoff jeneralak uste zuten bezain ezkutukoa. Ez zen hartaz mintzatzeko modu ofizialean, egia da hori, ezta modu ez ofizialean ere, mingainak «aginduz» baitzeuden zigilaturik, baina hainbat goi pertsonaiak bazekiten gutxi gorabehera zer gertatzen ari zen mugaz beste aldera. Dena den, diplomatikoek ere beharbada erdizka baino ez zekiten horretaz, behin ere elkarrizketa-gai izaten ez zuten horretaz, ahopean mintzatzeko ari ziren bi gonbidatu, Jauregi Berriko gau jaialdi hartan ez uniformeengatik, ez dominengatik gailentzen ez zirenak, eta irudi zuen albiste aski zehatzen jabe zirela.

Nolatan, zein bidez baliaturik, zein jendetasun molderi esker zekiten bi gizaki arrunt horiek garrantzi handiagoko hainbeste pertsonaiak nekez baizik susmatzen ez zutena? Ezin esan. Gauzak igarri eta asmatzeko dohainaz horniturik ote zeuden? Beste zentzumenen bat ote zuten giza begirada oro estutzen duen zeru ertz mugatu honetaz harantzago ikusten uzten ziena? Usna berezia ote zuten berririk sekretuenen arrastoei jarraitzeko? Aldatu ote zien berezko

izaera informazioarengatik eta informaziorako bizitzeko ohiturak, bigarren izaera baten modura berenganatua zutenak? Baietz erantzun behar, antza denez.

Bi gizon horietatik bata ingelesa zen, bestea frantsesa, biak ala biak tantai eta argalak, hau beltzarana, Probentzako hegoaldekoak bezala, hura, berriz, ilegorria, Lancashireko *gentleman* baten pare. Anglonormandiarra arautua zen, hotza, patxadatsua, mugimenduetan zein hitzetan urria, eta bazirudien berba eta imintziorik ez zuela egiten, tarte erregularrez ziharduen malguki baten eraginez baizik. Galoerromatarra, aldiz, bizia zen, eta handiustea; batera mintzatzzen zen ezpainez, begiez eta eskuez, eta hamai-ka modu zituen pentsatzen zuena adierazteko, haren solaskidearen modu estereotipatu aldaezin bakarraren aldean.

Horrelako desberdintasun fisikoek harritu egingo zuten baita xehetasunetan batere erreparatzeko gauza ez den pertsona ere; baina, fisionomista batek bi atzerritar horiek hurbilago-tik aztertu izan balitu, haien arteko kontraste fisiologikoa eta haien bereizgarri nagusiak argi eta garbi zehaztuko zituen hauxe adieraziz: frantsesa «oro begi» zela eta ingelesa «oro belarri».

Izan ere, frantsesaren ikusmen aparatuak zolitasun aparta lortua zuen erabileraren poderioz. Haren erretinak sentikortasun handikoa behar zuen, eskujokariena bezain bizkorra, kartak mugimendu azkar batez nola pikatzen dituzten edo nola dauden paratuta istant batez baino ikusi ez eta karta jakin bat asmatzen baitute, ingurukoak ezertaz ere ohartu gabe. Frantses honek, bada, «begiaren oroimena» delakoa zuen gain-gainetik.

Ingelesa, aldiz, entzuteko eta aditzeko bereziki prestatuta zegoela zirudien. Haren entzumen aparatuak ahots baten soinua atzematen bazuen, ez zitzaion inoiz ahaztuko, eta hamar urteren buruan, hogeit hamar urteren buruan, mila ahotsen artetik ere bereiziko zuen. Ezin zituen, jakina, belarriak mugitu, entzuteko halako hegal itzelak dauzkaten animalien antzera; baina jakintsuek giza belarriak «kasik» mugiezinak direla egiaztatu dutenez gero, arrazoiz esan zitekeen ingeles horrenak, tente jartzen baitziren eta alde batera eta bestera biratzen, naturalistek apur bat nabarmentzat joko zuten modu batean saiatzen zirela hotsak hautematen.

Aipagarria da, bestalde, bi gizon horien ikusmen eta entzumenaren bikaintasun hori ezin

hobeki zetorkiela haien lanbiderako, ingelesa *Daily Telegraph* egunkariko berriemailea baitzen, eta frantsesa zerakoa... Ez zuen inoiz esaten, ordea, egunkari horretarako ala hartarako aritzen zen, eta galdetzen ziotenean, berriak «bere lehengusina Madeleineri» igortzen zizkiola erantzuten zuen txantxetan. Funtsean, frantses hori, bere kaskarin itxura gorabehera, oso zorrotza zen eta oso fina. Beti txoro-txoroan hitz egirik ere —gauzen berri jakiteko gogoia ezkutatzeko, beharbada—, ez zuen sekula ere bere burua agerian uzten. Hitz jarioak berak asmoa ezkutatzeko balio zion, eta apika sotilagoa, zuhurragoa zen *Daily Telegraph*eko laguna baino.

Eta biak Jauregi Berrian uztailaren 15etik 16rako gauean ospatzen ari zen jai hartan baldin bazeuden, lan kontuarengatik zen, eta haien irakurleei jakinbide ederra eman nahian.

Pentsatzekoa denez, bi gizon horiek mundu honetan zuten eginkizunera zeharo grinatuta zeuden, eta hudoen irudira atsegin zuten albisterik ustekabekoenen zantzuaren atzetik oldarrez abiatzea. Orobat, odol hotz izukaitza eta zinezko kemena erakusten zituzten beti lanean, eskarmentu handiko kazetari guztiek ohi bezala. Benetako jockeyak ziren informazio ehizaren

*steeple-chase* honetan; hesien gainetik jauzi egiten zuten, ibaiak zeharkatzen, oztopoak gainditzen, zaldi odol-garbiaren adore paregabeaz, zeina «aurren-aurrena iritsi edo hil» lehiatzen baita lasterketan.

Bestalde, beren egunkariak behar adina diru ematen zieten —eta horixe da gaurdaino ezagutzen den informazio iturririk ziurrena, azkarrena, onena—. Gainera, esan beharra dago, haien alde esan ere, ez batak ez besteak ez zutela behin ere ez begiratzen ez entzuten bizitza pribatuaren hornez beste aldera, eta jokoan interes politiko edo sozialak zeudenean baizik ez zihardutela. Hitz batean esateko, urte batzuetatik hona «erreportaje politiko militar gorenak» deitzen diren horietan aritzen ziren.

Hala ere, hurbiletik jarraitzen bazaie, ikusiko da gehien-gehienetan ekintzak eta batez ere ondorioak era bitxian epaitzen zituztela eta nor bere molde bereziaz baliatzen zela gauzak ikusi eta neurtzeko. Baina, azken batean, joko garbia egiten zuten, diru garbiaz ordaindu, eta beti ere eginahal betean aritzen ziren; bidegabea litzateke, beraz, haiek maiseatzen jardutea.

Kazetari frantsesak Alcide Jolivet zuen izena. Eta Harry Blount, kazetari ingelesak. Lehenengo

aldiz egin zuten topo elkarrekin Jauregi Berriko jaialdi hartan, biek jaso baitzuten mandatua jaiaren kronika beren egunkarietarako egiteko. Haien izaera kontrajarriak eta nolabaiteko lanbide jelsia dezenteko arrazoi ziren elkarren gogoko inondik inora izango ez zirela uste izateko. Alabaina, ez zuten elkarrengandik alde egin eta, are gehiago, bata bestea galdekatzen saiatu ziren, eguneko berriei buruz besteak zer zekien jakiteko asmoz. Azken finean, bi ehiztari ziren, lurralde berean, erreserba berean, ehizan zebiltzanak. Batek huts egindakoa besteak bota zezakeen abantailaz, eta bi-bien interesak eskatzen ziren beti elkar ikusi eta elkarri entzuteko paradan egoteko.

Gau hartan, bada, zelatan zeuden biak. Izan ere, zerbait bazezuden airean.

«Gezurrezko ahateak izan arren —esan zuen Alcide Jolivetek bere artean—, merezi du tiro egitea!»

Bi berriemaileak elkarrekin solastatzera behartuak sentitu ziren dantzaldian, Kissoff jenerala joan eta pixka batera; eta besteak zekienaz sotilki jabetu nahian ekin zioten solasari.

—Zin-zinez, jaialdi koskor hau xarmangarria da! —esan zuen Alcide Jolivetek atsegin antzean,

elkarrizketari esaldi guztiz frantses horrekin ekin behar ziolakoan.

—Dagoeneko nik zera telegrafiatu dut: bikaina! —erantzun zion Harry Blountek hotz, Erresuma Batuko herritarrek mirespena adierazteko bereziki bedeinkatua duten moldeaz baliaturik.

—Hala ere —erantsi zuen Alcide Jolivetek—, pentsatu dut beste zerbait ere jakinarazi behar niola neure lehengusinari...

—Zeure lehengusinari? —galdetu zuen Harry Blountek harriturik, solaskidearen hitz jarduna ebakiz.

—Bai —jarraitu zuen Alcide Jolivetek—, nire lehengusina Madeleine... Hari igortzen dizkiot berriak! Azkar eta ongi jaso nahi ditu albisteak nire lehengusina horrek!... Horregatik pentsatu dut jakinarazi behar niola jai honetan subiranoaren kopeta halako hodei batek ilundu duela.

—Niri, berriz, argi duela iruditu zait —erantzun zuen Harry Blountek, beharbada gai horretaz uste zuena ezkutuan gorde nahian.

—Eta, jakina, «argitara» emanaraziko zenuen Daily Telegrapheko zutabeetan.

—Bai, halaxe egin dut.

—Oroitzen zara, Blount jauna, zer gertatu zen Zakreten 1812an?

—Hantxe izan banintz bezala oroitzen naiz —  
erantzun zuen kazetari ingelesak.

—Orduan —jarraitu zuen Alcide Jolivetek—,  
badakizu nola bere omenezko festa baten erdian  
esan zioten Alexandro enperadoreari Napoleo-  
nek Neman ibaia igaro berri zuela Frantziako  
armadaren abangoardiarekin. Eta, hala ere,  
enperadoreak ez zuen jaia bertan behera utzi,  
eta, berria larri-larria eta inperioa galbidean ipin-  
tzeko modukoa bazen ere, ez zuen kezkarik  
agertu...

—Ez, behintzat, gure anfitrioiak arestian era-  
kutsi duena baino handiagorik, Kissoff jeneralak  
esan dionean mugaren eta Irkusk probintziaren  
artean telegrafo hariak moztu berri dituztela.

—A! Jakinaren gainean zaude zu ere?

—Bai, hala nago.

—Nire kasuan, ez da zaila izan, bidali dudan  
azken telegrama Udinskeraino iritsi baita —ohar-  
tarazi zuen Alcide Jolivetek halako harrotasun  
doinu batez.

—Eta nirea Krasnoiarskeraino baino ez —  
erantzun zion Harry Blountek ez harrotasun txi-  
kiagoz.

—Orduan, Nikolaievskeko tropei aginduak  
igorri dizkietela ere jakingo duzu, ezta?

—Bai jauna, bai eta Tobolsk probintziaren kosakoei telegrafiatu dietela ere, lehenbailehen bil daitezten.

—Egia biribila, alajaina, Blount jauna, nik ere banuen neurri horien berri, eta, sinetsiezadazu, nire lehengusina maiteak zer edo zer jakingo du bihar kontu horietaz.

—Daily Telegrapheko irakurleek jakingo duten era berean, Jolivet jauna.

—Horra! Ikusteko guztia ikusten bada!...

—Eta entzuteko guztia entzuten bada!...

—Kanpaina interesgarria, jarraitzeko modukoa, Blount jauna.

—Jarraitzeko asmoa dut, Jolivet jauna.

—Orduan, baliteke berriz elkar topatzea, beharbada, areto honen solairua bezain seguruak izango ez diren lurretan!

—Honen segurua, ez, baina...

—Baina horren irristakorra ere ez! —bukatu zuen Alcide Jolivetek, bere lagunari eusten ziola, brau atzera egin eta ia-ia lurrera erori baitzen.

Horrela, bi berriemaileak banandu ziren elkarrengandik, nahiko pozik, azken batean ongi baitzekiten batak ez ziola besteari alderik kendu. Izan ere, berdinduta zeuden jokoan.

Memento hartan, areto nagusiaren ondoko geletako atea zabaltzen zituzten. Hantxe zenbait mahai handi prestatuta zeuden, era ikusgarriaz horniturik eta portzelana baliosez eta urrezko baxeraz oparo-oparo beterik. Erdikoa printze, printzesa eta diplomaziako kideentzat zegoen atondua, eta haren gainean Londreseko oletatik ekarritako mahai erdiko apaingarri balio neurtezinezko batek ñir-ñir egiten zuen. Bitxigintzako maisu lan horren inguruan Sèvreseko lantegieta inoiz irten den mahai tresneriarik miresgarrieneko mila piezek distiratzten zuten lanparen argitan.

Afaltokietarantz abiatu ziren Jauregi Berriko gonbidatuak.

Une hartan Kissoff jenerala barrura sartu eta agudo hurbildu zen guardiako ehiztarien ofizialarengana.

—Zer? —galdetu zion bortizki, lehenengo aldiz egin zuen legez.

—Telegramak ez dira Tomskeraino iristen, jauna.

—Mandatari bat oraintxe bertan!

Ofiziala areto handitik atera zen eta alboko gela zabal batean sartu. Langela zen, haritz zaharrezko altzariez xalotasunez apaindua. Jau-

regi Berriko izkina batean kokaturik, gela hartan hainbat margolan zeuden hormetan zintzilik; Horace Vernetek sinatutako zenbait mihise, besteak beste.

Ofizialak leioa zabaldu zuen bizi-bizi, biriketara oxigenoa falta balu bezala, eta balkoi luze batera atera zen, uztaileko gau eder hartako aire garbia arnastera.

Ilargiaren izpiek argiztaturik, haren begien aurrean barruti harresitu biribil bat ageri zen, bi katedral, hiru jauregi eta armategi bat barnean hartzen zituena. Harresiaren inguruan hiru hiri sumatzen ziren. Kitai-Gorod, Beloi-Gorod, Zemlianoi-Gorod izeneko auzune azkengabeak ziren, europarren, tatararren edo txinatarren bizileku. Haietatik gailen, dorreak, kanpandorreak, minareteak, hirurehun elizaren kupulak nabari ziren, domo berdez estalirik eta erpinean zilarrezko gurutze bana zutela. Ibilera bihurriko ibai txiki batek ilargiaren izpiak islatzen zituen han-hemenka. Miltzo horrek guztiak kolore anitzeko etxe-mosaiko ikusgarri bat osatzen zuen, hamar legoako esparru zabal batean txertatua.

Ibai hori Moskova zen, hiri hori Mosku, barruti harresitu hori Kremlina, eta guardiako ehiztarien ofiziala Errusiako tsarra bera, zeina, besoak

gurutzaturik eta kopeta gogoetatsu, Jauregi Berritik Moskuko hiri zaharrera barreiatzen zen marmar hots urruna entzuten ari baitzen.

## II

# ERRUSIARRAK ETA TATARIARRAK

Latzak izan behar inondik ere Uraleko mugatik harantz jazotzen ari ziren gertaerek, tsarrak ez baitzituen bestela hain agudo utziko Jauregi Berriko aretoak Moskuko jaun-andre gorenei eta agintari zibil eta militarrei ematen zien jaia ederederreanean zegoelarik. Ezin jada ezbaian ipini, inbasio ikaragarri bat abian zen eta arrisku handia zegoen Siberiako probintziak Errusiako autonomiatik bereizteko.

Errusia asiarrak edo Siberiak bostehun eta hirurogei mila legoa ditu eta bi milioi biztanle inguru. Ural mendiek banantzen dute Errusia europarretik, eta mendi horietatik Ozeano Barearen itsasertzeraino hedatzen da. Hegoaldean, Turkestan eta Txinako inperioa dauzka mugakide, muga horren lerroa nahiko lausoa izan arren; iparraldean, Izotz Ozeanoa, Karako itsasotik Beringeko itsasarteraino. Bost gobernutan edo probintzian zatiturik dago: Tobolsk, Jeniseisk, Irkutsk, Omsk eta Jakutsk; bi barruti

ditu: Okhotsk eta Kamtxatka; eta bi herri: kirgizak eta txuktxiak, biak Errusiaren menpe gaur egun.

Estepa hedadura neurrigabe hura, mendebaldetik ekialdera ehun eta hamalau gradu baino gehiago hartzen dituena, erbesteratze eta atzeriratze lurra da gaizkileentzat eta baita ere *ukase* batek kanpora joatera behartu dituenentzat.

Bi gobernadore nagusik ordezkutzen dute tsarraren agintaritza gorena lurralde zabal hartan. Bata Irkutsken bizi da, ekialdeko Siberiako hiriburuan; bestea, berriz, Tobolsken, mendebaldeko Siberiakoan. Txuna ibaiak banantzen ditu bi Siberiak, urak Jeniseira isuri aurretik.

Burdinbiderik ez dago oraindik lautada mugagabe eta eskualde batzuetan zinez oparo-oparok diren haiek zeharkatzeko. Trenbiderik ez dago harribitxizko meatzeetara iristeko, nahiz meatze horiengatik Siberiako alderdi handien lur azpia aberatsagoa izan lur gaina baino. Tarantas edo telega izeneko gurdiez bidaiatzen da han udan; leraz, neguan.

Komunikazio elektrikoak baizik ez ditu lotzen Siberiako bi mugak, mendebaldekoa eta ekialdekoa, 8.000 versta luze baino gehiago den hari

baten bidez (8.536 kilometro). Ural mendietatik hara herri hauetan barrena igarotzen da: Jekaterinburg, Kasimov, Tiumen, Ixin, Omsk, Elamsk, Kolivan, Tomsk, Krasnoiarsk, Nijneudinsk, Irkutsk, Verkne-Nertxinsk, Strelink, Albazine, Blagovestxensk, Radde, Orlovskaja, Alexandrovskoe, Nikolaievsk; eta sei errublo eta hemezirentzi kopek kobratzen ditu beste muturreraino jaurtitzen den hitz bakoitzeko. Irkutsketik hariaren adar bat Kiatkara doa Mongoliako mugarekin elkartzera, eta handik Pekinera hamalau egunetan eramaten ditu mezuak posta zerbitzuak, hogeita hamar kopek hitzeko.

Jekaterinburgetik Nikolaievskera doan haria da hain zuzen mozturik geratu zena, lehenbizi Tomsk pasata eta, ordu batzuk geroago, Kolivan eta Tomsk hirien artean.

Arrazoi horregatik, tsarrak, Kissoff jeneralak eman berri zion bigarren gaztigua jaso ondoren, hitz hauez baino ez zuen erantzun: «Mandatari bat oraintxe bertan!».

Artean tsarra bere kabinetearen leihoan zegoen geldirik. Atezainek berriz ere zabaldu zuten atea, eta polizi buru nagusia agertu zen alartzean.

—Aurrera, jenerala —esan zion tsarrak hotz eta motz—. Esaidazu Ivan Ogareffez dakizun guztia.

—Gizon ikaragarri arriskutsua da, jauna —erantzun zuen polizi buru nagusiak.

—Koronel maila zuen?

—Bai, jauna.

—Ofizial buru argia zen?

—Buru argia oso, baina menderatu ezinezkoa, eta haren handinahia itsua zen, atzera behin ere egiten ez zuena. Laster hasi zen azpilanean, eta orduan degradatu zuen duke handiak, zure anaiak, eta Siberiara bidali.

—Noiz izan zen hori?

—Orain dela bi urte. Sei hilabete atzerrialdian eman ondoren indultua jaso zuen berorren maiestateak emana eta Errusiara itzuli zen.

—Eta orduz geroztik ez da Siberiara bueltatu?

—Bai, jauna, bueltatu da, baina bere gogoz aldi honetan —erantzun zuen polizi buru nagusiak.

Eta zera gehitu zuen, isilxeago hitz eginez:

—Garai batean, jauna, Siberiara joaten zena ez zen handik itzultzen!

—Bada, ni bizi naizen bitartean, Siberiatik itzuli egingo da!

Tsarrak eskubidea zeukan hitz horiek harroharro esateko, maiz erakutsi baitzuen bere bihozberatasunez Errusiako justiziak barkatzen bazekiela.

Polizi buru nagusiak ez zuen ezer erantzun, baina ezagun zen ez zela gauzak erdizka egin zale. Haren iritziz, Ural mendiak ezin ziren bi aldiz zeharkatu; beste aldera jendarmeen artean igarotzen zenak ez zuen sekula itzuli behar alde honetara. Ez zen ordea horrela gertatzen erregealdi berrian, eta deitoragarri zitzaion benebenetan polizi buruari! Nolatan! Biziarteko zigorrik ez, zuzenbide komuneko krimenengatik izan ezik! Nolatan! Atzerriratu politikoak itzuli egiten ziren Tobolsketik, Jakutsketik, Irkutsketik! Egia esateko, polizi burua jarria zegoen lehengo *ukase* haien erabaki autokratiko eta gupidaga-beetara eta ezin zuen onartu gobernatzeko modu hau! Baina isildu egin zen, tsarrak berriro galdetu arte.

Eta luzaro gabe etorri ziren itaunak.

—Ivan Ogareff ez zen bigarrenez itzuli Errusiara, Siberiako probintzietan barrena helburu ezkutuez egindako bidaia egin ondoren?

—Bai, itzuli zen.

—Eta itzuleraren ondotik poliziak haren arrastoa galdu du?

—Ez, jauna, zigortutako bat ez baita egiatan arriskutsu bihurtzen indultua ematen dioten arte!

Tsarraren kopeta zimurtu zen une batez. Beharbada urrutiegi joan zela pentsatu zuen polizi buru nagusiak, nahiz bere usteetan agertzen zuen egosgogorkeria bezain handia izan, edo handiagoa, haren nagusiaren alde adierazten zuen atxikimendu mugagabea. Tsarrak, oster, entzungor egin zien haren barne politikaren kontra zeharka azaldutako kexuei, eta galdetza jarraitu zuen laburki:

—Non zegoen Ivan Ogareff azken aldian?

—Perm probintzian.

—Zein hiritan?

—Permen bertan.

—Zertan ari zen?

—Zereginik gabe zirudien, eta haren jokabidean ez zegoen ezer susmagarririk.

—Goi poliziak ez zuen haren ibilia zelatatzen?

—Ez, jauna.

—Noiz utzi zuen Perm?

—Martxo aldean.

—Nora joateko?

—Ez dakigu.

—Eta orduz geroztik ez da haren berririk inon?

—Ezta bat ere.

—Nik badakit, ordea —esan zuen tsarrak—. Zenbait ohar anonimo bidali dizkidate, poliziaren bulegoetatik igaro ez direnak, eta, mugaz bestaldera gertatzen ari direnak ikusita, arrazoirik aski badut egia ziotela pentsatzeko!

—Esan nahi du berorrek —oihu egin zuen polizi buruak— Ivan Ogareff esku hartzen ari dela tatariarren inbasioan?

—Bai, jenerala, eta ez dakizun zerbait jakinarraziko dizut. Ivan Ogareffek, Perm probintzia utzi ondoren, Ural mendiak zeharkatu ditu. Siberiarantz oldartu da, kirgizen estepetarantz, eta han saiatu da, eta ez arrakastarik gabe, herri nomadak altxatzen. Gero hegoalderago jaitsi da, Turkistan askeraino. Han, Bukhara, Kokand eta Kunduzeko khanerrietan buruzagiak aurkitu ditu beren tatariarren tropak Siberiako probintzietara jaurtitzeko prest eta Errusiak Asian duen inperioa osorik inbaditzeko gertu. Mugimendua isilgordeka antolatu da, baina tximista-kolpearen pare lehertu berri da, eta orain etenda daude mendebaldeko eta ekialdeko Siberien arteko

bidea eta telegrafo haria! Eta gainera, Ivan Ogareff traidoreak, mendekua ase nahiz, nire anaia-  
ren biziari eraso nahi dio!

Tsarra berotua zen hizketan eta batetik bestera zebilen urduri. Polizi buru nagusiak ez zuen ezer erantzun, baina gogoetan ari zen bere artean: Errusiako enperadoreek atzerriratuei indulturik inoiz ematen ez zieten garaian, Ivan Ogareffek ez zituen bere asmoak beteko.

Tsarra besaulki batean eseri zen ziplo. Polizi burua isilik egon zen pixka batean, baina gero tsarrarengana hurreratu eta zera galdetu zion:

—Zalantzarik gabe berorrek aginduak eman ditu inbasio horren aurka lehenbailehen egiteko?

—Bai —tsarraren arrapostua—. Nijneudinskeraino iritsi den azken telegramak martxan jarriko zituen Jeniseisk, Irkusk eta Jakutskeko gobernuetako soldaduak, bai eta Amur probintziakoak eta Baikal aintzirakoak ere. Aldi berean, Perm eta Nijni Novgorodeko errejimentuak eta mugaldeko kosakoak Ural mendietara doaz atsedetik hartu gabe; baina, zoritxarrez, asteak beharko dituzte tatariarren tropei aurre egin ahal izateko.

—Eta duke handiak, berorren maiestatearen anaiak, Irkusk probintzian isolaturik, ez du jada harreman zuzenik Moskurekin?

—Ez.

—Baina azken mezuengatik jakingo du zein diren berorren maiestateak hartu dituen neurriak eta nolako laguntza iritsiko zaion Irkutsetik hurbilen dauden probintzietatik?

—Hori badaki —erantzun zion tsarrak—, baina ez daki Ivan Ogareffek, erreboltari rola ez ezik, traidorearena ere jokatu behar duela, ez eta etsai amorratu hori bereziki bere kontra grinaturik dagoela ere. Duke handiaren zigorra izan zen haren lehenengo zorigaitza, eta, are larriagoa, nire anaiak ez du gizon hori ezagutzen. Ivan Ogareffen asmoa, beraz, Irkutskera joan eta han gezurrezko izenez duke handiari bere zerbitzuak eskaintzea da. Gero, haren uste onaz jabetu ondoren, tatariarrek Irkutsk inguratu eta haien esku utziko du hiria, eta duke handia harekin batera. Arrisku handian dago nire anaiaren bizia! Horixe duzu nire bitartekoei esker dakidana, horixe duzu duke handiak ez dakiena, eta horixe duzu jakin beharra duena!

—Bada, jauna, mandatari argi bat, kemen-tsua...

—Baten zain nago.

—Eta bizkor dabilela —gehitu zuen polizi buru nagusiak—, zeren, berorren baimenarekin

jauna, Siberiako lurralde hori aukerako tokia da matxinadarako!

—Esan nahi duzu, jenerala, atzerriratuak inbaditzaileekin elkartuko direla? —oihu egin zuen tsarrak, polizi buruaren aieru horrek sene-tik aterea.

—Barka nazala berorren maiestateak!... —erantzun zuen polizi buruak zezelka, pentsamendu horixe iradoki baitzion hain zuzen ere bere buru mesfidati kezkatuak.

—Atzerriratuek gure herria maiteago dutela nago! —jarraitu zuen tsarrak.

—Badira bestelako kondenatuak Siberian, atzerriratu politikoez gain —esan zuen polizi buru nagusiak.

—Gaizkileak! O, jenerala, horiek zuretzat uzten ditut! Gizateriaren zaborra dira. Ez dira inongoak. Baina altxamendua, edo inbasioa, hobeki esanda, ez dute enperadorearen kontra egiten, Errusiaren kontra baizik, eta atzerriratuek ez dute itxaropena erabat galdu herri hau inoiz ikusiko dutela atzera ere... eta ikusi egingo dute! Ez, errusiar batek ez du sekula elkar hartuko tatariar batekin Errusiaren indarra, ezta ordu batez ere, ahultzeko!

Arrazoi zuen. Atzerriratuek Errusia maite zuten, tsarraren politikak aldi baterako erbesteian bazeuzkan ere. Tsarra bihozbera zen justizia egiterakoan, ondorioak hark berak bideratzen zituenean, behintzat; eta leuntasun apartaz ematen zituen *ukaseak*, garai bateko *ukase* beldurgarriak ahaztaraziz. Bihozberatasun eta leuntasun horiek zuzen zegoela ziurtatzen zioten. Baina, inbasioak laguntza indartsu hori ez bazuen ere, kinka larrian zegoen inperioa, beldurizatekoa baitzen kirgizen artetik askok eta askok bat egingo ez ote zuten tatariarrekin.

Kirgizak hiru leinutan bereizten dira: handia, txikia eta erdikoa. Laurehun mila «denda» dituzte gutxi gorabehera, edo, bestela esanda, bi milioi lagun inguru dira. Tribu horietatik batzuk askeak dira, eta beste batzuek subiranotasuna aitortzen diote edo Errusiari, edo Khiva, Kokand eta Bukharako khanerriei, hau da, Turkestango buruzagirik izugarrienei. Erdiko leinua, aberatse-na ez ezik, ugariena ere bada aldi berean, eta haren kanpamentuek lurralde zabala hartzen dute: Sara-Su, Irtish eta goi-Ishim ibaien eta Hadisang eta Aksakal aintziren arteko eremu guztia. Leinu handia erdikoaren ekialdeko eskualdean bizi da, eta Omsk eta Tobolsk probin-

tzietaraino hedaturik dago. Herri kirgiz horiek altxatuko balira, Asia aldeko Errusiaren inbasioa litzateke, eta, lehenik eta behin, Siberia zatitzea ekarriko luke, Jenisei ibaiaren ekialdean.

Egia da kirgizak ez direla batere iaioak gerra kontuetan, gehiago direla gaueko lapurrak edo karabana erasotzaileak araupeko soldaduak baino. Levchine jaunak esan zuenez, «fronte itxi batek edo infanteria sail on batek aurre egiten dio kirgiz talde bati hamar aldiz gutxiago izanik ere, eta kanoi bakar batek sekulako triskantza eragin diezaieke».

Ados, baina infanteria sail on horrek altxatutako herrialderaino iritsi behar horretarako, eta su-aho horiek probintzia errusiarretako kasernak utzi eta bi edo hiru mila verstako bidea egin. Eta gainera, Jekaterinburg eta Irkutsk zuzenean batzen dituen bidetik kanpo, estepak, zingira huts leku askotan, ez dira ibiltzeko modukoak, eta aste batzuk igaro beharko tropa errusiarrek tatariarrei aurka egiteko parada izan baino lehen.

Omsk da mendebaldeko Siberiaren gune militar nagusia, eta kirgizen herriak neurri barruan edukitzea dute xede hango soldaduek. Bertako mugak behin baino gehiagotan bortxa-

tzen dituzte jende ibiltari eta erabat menderaturik ez dauden horiek, eta gerra ministerioan arrazoi franko zuten Omsk ordurako arras mehatxatuta egongo zela uste izateko. Kolonia militarren lerroa, Omsketik Semipalatinskeraino tartetik tartera ezarrita zeuden kosakoen postuek osatzen zutena alegia, toki askotan etena egongo zen. Beraz, beldur ziren kirgizen barrutien gobernatzaileak, «sultan handiak» deritzenak, ez ote ziren etorri borondatez edo beharturik tatariarren agindupera, musulmanak baitziren haiek bezala, eta Errusiaren azpian egoteak sortzen zien gorrotoari ez ote zitzaion lotu erlijio grekoaren eta musulmanaren arteko etsaitasuna.

Izan ere, aspalditik saiatzen ari ziren Turkestango tatariarrak eta batik bat Bukhara, Kokand eta Kunduzeko khanerrietakoak bai indarrez bai limurtasunez kirgizen herriak Errusiaren mendetik ateratzen.

Hitz banaka batzuk tatariar horiei buruz.

Tatariar guztiak ez dira arraza berekoak, batzuk arraza kaukasiarrekoak dira eta besteak arraza mongoliarrekoak.

Arraza kaukasiarra, Abel de Rémusatek dioenez, «Europar gure espeziearen edertasun ere-

dutzat hartzen da, munduaren alderdi honetako herri guztiak handik datoz eta», eta izen horren azpian turkiarrak eta jatorri persiarreko jendeak batzen dira.

Arraza mongoliar garbia, aldiz, mongoliarrek, mantxuek eta tibetarrek osatzen dute.

Arraza kaukasiarrekoak ziren Errusiako inperioa une hartan mehatxatzen zutenak, eta Turkistan aldetik zetozen batez ere. Lurralde zabal hori hainbat estatutan banatzen da, hainbat khanerrietan, zehatzago esanda, khan izena hartzen baitute han agintariek. Khanerri nagusiak Bukharakoa, Khivakoa, Kokandekoa eta Kunduzeko dira, besteak beste.

Garai hartan, khanerririk garrantzizkoena eta izugarriena Bukharakoa zen. Errusiako armadak sarritan egin zuen borrokan haien buruzagiekin, zeintzuk, beren onean eta beste uztarri bati lotzeko asmoz, kirgizen askatasuna defendatzen baitzuten Moskuko mendekotasunaren kontra. Orduko emirra —titulu hori hartzen baitzuten Bukharako khanek— Feofar Khan zen, eta aurreko emirren arrastoari zerraion hura ere.

Bukharako khanerria hogeita hamazazpigarren eta berrogeita batgarren paraleloen artean hedatzen da iparretik hegora, eta hirurogeita

batgarren eta hirurogeita seigarren meridioen artean ekialdetik mendebaldera; hau da, hamar mila legoa koadroko eremua hartzen du guztira.

Estatu horretan bi milioi eta bostehun mila lagun bizi dira, eta hango armadan hirurogei mila oinezko daude bakealdian, halako hiru gerratean, eta hogeita hamar mila zaldizko. Lur joriko herrialdea da, abereetan, landareetan, mineraletan oparoa, eta handiagotu egin dena Balkh, Aukoi eta Meimaneheko eskualdeak bere-tuz. Hemeretzi hiri ditu nabarmentzeko moduko-ak. Bukhara, zortzi milia ingeles baino luzeago den harresi batez inguratua, babes dorreak ugari, hiri loriosa, Avizenak eta X. mendeko beste jakintsu batzuek ilustratua, zientzia musulmanaren erdigunetzat hartzen da eta Asiaren erdialdean ospetsuenen artean jartzen; Samarkand, Tamerlanen hilobiaren zaintzailea, gotorleku ikaragarri sendo batek defendatua, bertan da harri urdinezko eserlekua gordetzeagatik hain entzutetsua den jauregia, non eseri behar duten khan berriek buruzagitza hartzen dute-nean; Karxi, oasi batean, dortoka eta muskerrez jositako zingiren erdian, hiru murriz babestua, ezin menderatuzkoa dela esan liteke; Txardjou hogeitabat mila arimak defendatzen dute; eta

Kata-Kurgan, Nurata, Djizah, Paikand, Karakul, Khuzar, eta beste; denen artean kasik garaitu ezina egiten dute lurraldea. Bukharako khane-  
rria, mendiek babesturik eta estepek isolaturik, estatu ikaragarria da, eta Errusiak indar handiak beharko lituzke hari kontra egiteko.

Horrela bada, Feofar askonahi basatia zen sasoi hartan Tatariako bazter hartako agintari nagusia, eta hark hartu zuen inbasioaren burutza. Beste khanerriek laguntza eskaini zioten horretarako, Kokand eta Kunduzekoek batez ere, eta gerlari krudel harrapari haiek elkartu zitzaizkion, tatariar senari jarraituz beti borrokari ekiteko prest, eta Asiaren erdialdeko tribu guztiek ere bat egin zuten erasoarekin. Burua Feofar izan arren, arima Ivan Ogareff zen. Traidore horrek, handinahi zoroa eta gorroto bizia zainetan, Siberiako bide nagusia mozteko antolatatu zuen mugimendua. Eroa behar zuen zeharo, Errusiako inperioa zatituko zuela uste bazuen! Haren argialdiaz fidatu eta soldadu osteak bidali zituen emirrak Errusiako mugaz harago. Semipalatinsk probintzia inbaditu eta bertan urri ziren kosakoek atzera egin behar izan zuten oldar biziaren aurrean. Balkash aintziratik hara jo zuen, bidean zeuden kirgizen herrietako bizila-

gunak berekin eramanez. Harrapatzen zuen guztia arpilatzen zuen, errausten zuen, men egiten zutenak armadan sartzen zituen, men egin nahi ez zutenak preso hartzen, horrela zebilen hiri batetik bestera, atzetik sortaldeko subirano baten hatuak eta zamak garraiatuz, bere etxe zibila, bere emazteak eta bere esklaboak zerraizkiola. Gengis Khan moderno bat irudi zuen, ausarta eta lotsagabea.

Non zegoen une hartan? Noraino iritsiak ziren haren gerlariak, inbasioaren albistea Moskun hartu zutenean? Siberiako zein alderdiraino egin behar izan zuten atzera tropa errusiarrek? Ezin jakin. Komunikazioak etenda zeuden. Kolivanen eta Tomsken arteko telegrafo haria tatariarren armadaren esploratzaileek moztu zuten edo emirra bera iritsia zen Jeniseisk aldeko probintzietaraino? Mendebaldeko behe Siberia osoa sutan zegoen? Ekialdeko eskualdeetaraino zabaldua zen altxamendua? Ezin esan. Eta ez hotzak ez beroak izutzen ez duten agente bakarra, ez negu gorriak ez uda minak geldiarazten ez dutena, tximista bezala hegan doana, argindarra, alegia, ezin jada hedatu estepan aurrera, eta ezin, beraz, duke handiari ohartarazi nolako

arriskuan zegoen Ivan Ogareffen traizioa zela bide.

Mandataria batek baizik ezin zuen ordeztu etendako korrontea. Eta denbora puska bat beharko zuen gizon horrek Moskutik Irkutskera dauden bost mila eta berrehun verstak (5.523 kilometro) ibiltzeko. Berebiziko adorea eta adimena baliatu beharko zituen errebolta eta inbaditzaileen lerroak zeharkatzeko. Baina buruarekin eta bihotzarekin urrun joan liteke.

—Aurkituko ote ditut horrelako burua eta horrelako bihotza? —galdetzen zion tsarrak bere buruari.

### III

## MIKEL STROGOFF

Enperadorearen kabinetearen atea zabaldu zuten bizkor, eta atezainak Kissoff jenerala zeto-rrera iragarri zuen.

—Mandatar hori? —galdetu zuen tsarrak bizi.

—Hemen da, jauna —erantzun zion Kissoff jeneralak.

—Behar dugun gizona aurkitu duzu?

—Bai, jauna, hitz ematen diot berorri.

—Jauregian ari zen lanean?

—Bai, jauna.

—Ezagutzen duzu?

—Bai, eta agindu zailak askotan bete ditu egoki.

—Atzerrian?

—Siberian bertan.

—Nongoa da?

—Omskekoa. Siberiarra da.

—Odol hotzekoa da? Adimentsua? Kemen-tsua?

—Bai, jauna, behar den guztia badu beste batzuek beharbada porrot egingo luketen lekuan garaile ateratzeko.

—Zenbat urte ditu?

—Hogeita hamar.

—Gizon indartsua da?

—Jauna; hotza, gosea, egarria, nekea azken-azken mugaraino eramateko gauza da.

—Gorputza burdinazkoa du?

—Bai, jauna.

—Eta bihotza...?

—Bihotza urrezkoa.

—Zer izen du?

—Mikel Strogoff.

—Abiatzeko prest dago?

—Zaindarien gelan dago, berorren maiestateak zer aginduko duen zain.

—Datorrela —esan zuen tsarrak.

Handik pixka batera, Mikel Strogoff mandataria sartu zen enperadorearen kabinetean.

Mikel Strogoff garaia zen, indartsua, sorbalda eta bularralde zabalekoa. Haren buru sendoak arraza kaukasiarraren ezaugarri ederrak ageri zituen. Besoak eta zangoak, irmo tinkaturik, lau palanka ziren, indarrezko lanei ekiteko mekanikoki prestatuak. Mutil eder gotorra, lerdena eta

sasoikoa, nekez mugiaraziko zuten zegoen leku-  
tik gogoz kontra, erroak boteak zituela baitziru-  
dien, oinak lurrean finkatzen zituenean. Kopeta  
zabala zuen, buruaren goi alde karratua, eta  
adatsa ugaria eta kizkurra, kiribilka ihesi zihoa-  
kiona, kapela moskutarra jantzita zeukalarik.  
Begitarte zuria zuen maizenik, eta oso gutxitan  
gorritzen zitzaion kolorea, ez baitzitzaion odola  
sarri berotzen, ezta bihotza abian taupadaka  
hasten ere. Haren begiak urdin ilunak ziren,  
begikera zuzen argi tolesgabekoak, dirdizka beti  
betileen arkuaren azpian. Arku hori osatzen  
zuten gihar uzkurtuxeek adore aparta erakusten  
zuten, «heroien adore haserririk gabekoa»,  
fisionomisten esanari jarraituz. Sudur bikaina  
zeukan, zulo-handia, eta gailen haren aho sime-  
trikoaren gainean, zeinaren ezpainak lodixkoak  
ziren, gizon zintzo eta onaren seinale.

Mikel Strogoff gizon bipila eta kartsua zen.  
Bazekien erabakiak zirt edo zart hartzen; ez  
zuen azazkalik jaten zalantzan, ez zuen belarri-  
atzean hatz egiten ezbaian, eta ez zen inoiz tra-  
batzen duda-mudan. Urria keinuz eta hitzez,  
bazekien geldi-geldirik irauten, soldadua nagu-  
siaren aurrean bezala; baina, ibiltzen zenean,  
aise eta seguru mugitzen zen, pausoak zehatz

eginez, bere buruan konfiantza zuela erakutsiz, bere asmoak burutzeraino gelditzen ez zela nabarmenduz. Txoririk eskura etorriz gero, ez zuen berehalakoan askatuko. Arrasto eta aztar-na guztiei adi zebilen beti, egokierarik ñimiñoena ere alferrik galdu gabe.

Mikel Strogoffek uniforme militar dotore bat zuen jantzirik, zaldizko ehiztarien ofizialek gudan erabiltzen zutenen antzekoa: botak, ezproiak, galtza estu samarra eta jaka kolore arreakoa, larrua ertzetan jiratu eta txirikorda horiez apaindua. Haren bular zabalaren gainean gurutze batek eta hiruzpalau dominak egiten zuten dirdai.

Mikel Strogoff tsarraren mandatarien gorputz bereziko kidea zen, eta ofizial maila zeukan gizon hautatu horien artean. Haren jokabidean, haren itxuran, haren izaera osoan, zerbait antze-man zitekeen batez ere, eta aurki ohartu zen horretaz tsarra, hots, «aginduak betetzeko» sortua zela. Eta guztiz gomendagarria da Errusian ezaugarri horren jabe izatea, Turgeniev eleberri egile ospetsuak zioenez, Moskuko inperioaren posturik gorenetaraino iristeko behar-beharrezkoa baita.

Egia esateko, inor gauza baldin bazen Moskutik Irkutskera lurralde inbaditu batean zehar joateko, bideko oztopoak eta trabak gainditzeko eta mota guztietako arriskuei aurpegi emateko, hori, denen artetik, Mikel Strogoff zen.

Zerbait bazuen, gainera, bere asmoek huts emango ez zutela sinesteko: zein ederki ezagutzen zuen zeharkatu behar zuen alderdia eta zein ongi ulertzen zituen hango hizkuntzak, eta ez soilki han barrena ibilia zelako behin baino gehiagotan, jatorriz bertakoa zelako baizik.

Aita, Petri Strogoff, hamar urte lehenago hila, Omsk hirian bizi izan zen, izen bereko probintzian, eta ama, Marfa Strogoff, hantxe bizi zen artean. Bazter haietan, Omsk eta Tobolskeko estepa basatien erdian, hazi zuen ehiztari siberiar ikaragarriak bere semea, eta «estu hartuta» hazi ere, herri esapideari jarraituz. Egiatzko lanbidea ehiza zuen Petri Strogoffek. Udako bero kiskalgarrian zein neguko hotz gogorrean, zenbaitetan zero azpitik berrogeita hamar gradu baino gutxiago egiten zuela, hara-hona ibiltzen zen ordoki latzean, alertzez eta urkiz beteriko sastraketan, pinudietan, lakioak eta segadak ipiniz, ehiza xeheari eskopetaz segika, ehiza larria noiz agertuko zelatan. Eta ehiza larria ez zen ez

hutsaren hurrengo, hartza siberiarra, alajaina, piztia izugarria, izotz itsasoetan bizi direnak bezain handia eta sardez edo ganibetaz baizik hil ezin dena. Petri Strogoffek hogeita hemeretzi hartz baino gehiago bota zituen, hau da, berrogeigarrena ere botea zuten haren kolpeek, eta badakigu, Errusiako ehiza ipuinak sinestera, zenbat ehiztari, hogeita hemeretzigarren hartza bitarte zorioneko izan ondoren, erori diren berrogeigarrenaren atzaparretan!

Petri Strogoffek, beraz, zorigaiztoko zenbakia gainditu zuen ukiturik ere izan gabe. Handik aurrera, Mikel semea, hamaika urtekoa, beti eraman zuen ehiza lagun, *ragatina* eskuan, sardea alegia, aitari laguntzeko prest, zeinak ganibeta zeukan arma bakarra. Hamalau urte zituela hil zuen Mikel Strogoffek lehenbiziko hartza, berak bakarrik, —handia, gero—; baina, gainera, piztia larrutu eta gurasoen etxeraino eraman zuen herrestan larru itzela, versta dezente eginez. Mutikoaren kemena ez zen ez nolanhikoa.

Bizimodu hori baliagarri gertatu zitzaion, eta, gizon helduaren adinera iritsirik, gai zen zernahi ere pairatzeko. Ez zuen batere beldurtzen hotza, beroa, gosea, egarria edo nekea jasan beharrak; burdinazko gizona zen, iparraldean bizi diren

jakutak legez. Gauza zen hogeita lau ordu jan gabe edo hamar gau lo egin gabe emateko. Estepa gorrian beste edozein gizaki izoztuko zen gauzez goian zerua eta behean lurra; hark, ordea, aterbea egin eta hantxe egiten zuen lo. Beste edozein gizaki nora gabe ibiliko zen lainopean edo latitude haien gau polar luzean; hark, ordea, ez zuen bere bidea galtzen, ez lanbroak zeru ertza ezkututzen zuenean, ezta eguzkiak egunetan eta egunetan iluna uxatzen ez zuenean ere. Lautada zurian barrena erne baino erneago zebilten beti, delaware tribukoena sena gidari. Aitaren sekretu guztien jabe zen. Ikasia zuen aztarna kasik ikusezinei erreparatzen: zuhaitz baten abartxoak nola zeuden jarriak, zein proiektio egiten zuten izotz orratzek, zein usain zetorren zeru ertzaren azken mugetatik, nolako oin arrastoa zegoen basoko belarretan, zein hots zehaztugabe zekarren haizeak, zein eztanda soinu zabaltzen zen airean, nondik nora zihoazen egurats gandutsua hegan zeharkatzen zuten txoriak, milaka gauza xehe, zantzu argi bihurtzen direnak aintzat hartzen dituenarentzat. Gainera, elurren artean gogor-malgutua, Damaskoko ezpatak Siriako uretan bezala, burdinazkoa zuen osasuna, Kissoff jeneralak esan zuenez, eta,

urrezkoa bihotza, gainera daiteke gezurrik esan gabe.

Amarenganako grina zuen Mikel Strogoffek, eta horixe zuen grina bakarra. Marfa zaharrak ez zuen utzi nahi izan Strogofftarren etxea, eta Omsken bizi zen, Irtysh ibaiaren ur bazterrean, ehiztari zaharra eta bera hainbeste denboraz elkarrekin bizi izan ziren lekuan. Semeak bihotza penaturik eraman zuen, etxetik joan zitzaionean, baina ahal zuen guztian itzuliko zela agindu zion, eta zintzoki bete zuen hitza beti.

Erabakia hartu zen Mikel Strogoff Errusiako enperadorearen zerbitzuan jarriko zela hogeitau urte betetzean, tsarraren mandatarigoan. Gazte siberiarra, ausarta, argia, saiatua, jokabide zuzeneko, laster nabarmendu zen; lehenbizi Kaukasora egin zuen bidaia batean, lurralde nekez hartan Shamil buruzagiaren ondorengo liskarti batzuk altxatu zirenean; gero garrantzizko egin-kizun bat betetzeko Petropavlovskiraino joan behar izan zuenean, Kamtxatka penintsularaino, Asia aldeko Errusia oso-osorik gurutzatuz. Ibilaldi luze horietan odol hotz, zuhurtzia eta adone berdingabeak erakutsi zituen, eta, dohain miragarri horiek zirela bide, bere buruzagiek onartu

zuten eta babesa eskaini, eta agudo egin zuen aurrera bere bidean.

Ongi merezitako lizentziak izaten zituen urrutiko zeregin horietatik itzultzean, eta haietako bakar bat ere ez zuen uzten bere ama zahar-rengana bisita egin gabe, nahiz milaka verstako joanaldia egin behar izan, nahiz neguak bidea gaiztatu eta eragotzi erabat. Hala ere, eta lehenengo aldiz, Mikel Strogoffek, zeregin latz bat bete ondoren Inperioaren hegoaldetik itzuli berria, hiru urte emanak zituen Marfa zaharra ikusi gabe, hiru urte! hiru mende ziruditen! Eta zegokion lizentzia egun batzuen buruan hartzekotan zegoela eta Omskera joateko prestaketak ordurako eginda zeuzkala, arestian esandakoak gertatu eta Mikel Strogoff tsarrarengana eraman zuten, tutik ere ez zekiela enperadoreak eskatu behar zionaz.

Tsarrak hitzik esan ez eta so egin zion tarte batean begirada sarkorraz, Mikel Strogoff geldigeldirik zegoen bitartean.

Gero, pozik inondik ere arakatzearen emaitzarekin, idazmahaira itzuli eta, keinu batez polizi buru nagusiari eser zedin agindurik, lerro gutxiko eskutitz bat diktatu zion ahopean.

Eskutitza idatzi eta gero, tsarrak adi-adi irakurri eta izena bota zion, aurretik «*Byt po sé mou*» idatzita, «Hala bedi» alegia, horixe baita Errusiako enperadoreek erabiltzen duten formula bedeinkatua.

Eskutitza gutunazal batean sartu eta armarri inperialen zigiluaz lakratu zuten.

Tsarra zutitu eta hurbiltzeko esan zion Mikel Strogoffi.

Mikel Strogoffek bizpahiru pauso egin zituen aurrera eta geldi-geldirik geratu zen berriro, erantzuteko gertu.

Tsarrak bekoz beko, begiz begi so egin zion osterara ere, eta galdetzen hasi zitzaion hitz laburrez.

—Izena?

—Mikel Strogoff, jauna.

—Maila?

—Berorren mandatarigoaren kapitaina.

—Siberia ezagutzen duk?

—Siberiarra naiz.

—Non jaioa?

—Omsken.

—Ahaiderik baduk Omsken?

—Bai, jauna.

—Zer ahaide?

—Ama.

Tsarrak itaunketa eten zuen une batez. Gero, eskuan zeukan eskutitza erakutsiaz segitu zuen hizketan:

—Hona eskutitz hau, Mikel Strogoff. Hiri ematen diat honen ardura. Duke handiarengana joan eta harexeri eman behar diok eskutik eskura; harexeri, ez beste inori.

—Emango diot, jauna.

—Duke handia Irkutsken zagok.

—Irkutsjera joango naiz.

—Baina zeharkatu behar duan lurraldea erre-boltariak hartua zagok, tatariarrek inbaditua, eta eskutitz hau atzeman nahiko ditek.

—Zeharkatu egingo dut.

—Habil kontuz batez ere traidore batekin, Ivan Ogareffekin, hire bidean topatuko baituk beharbada.

—Kontuz ibiliko naiz.

—Omsken barrena igaroko haiz?

—Nire bidean dago, jauna.

—Ama ikusten baduk, arriskua zagok etsairen bat nor haizen konturatzeko. Ama ezin izango duk ikusi!

Mikel Strogoffek duda-mudan eman zuen segundo bat.

—Ez dut ikusiko —adlerazi zuen.

—Zin egin iezadak deusek ere ez diala aitorraraziko ez nor haizen, ez nora hoan!

—Zin egiten dut.

—Mikel Strogoff —esan zion tsarrak orduan, mandatari gaztearen eskuetan plegua utziz—, har ezak, bada, eskutitz hau; bertan zoak Siberia osoaren salbamena, bai eta agian nire anaia duke handiaren bizitza ere.

—Eskutitz hau duke handiak jasoko du.

—Harenganaino iritsiko haiz, arriskuak arrisku?

—Iritsi egingo naiz, edo hil egingo naute.

—Bizirik behar haut!

—Bizi egingo naiz eta iritsiko naiz —erantzun zuen Mikel Strogoffek.

Tsarrak kontent iduri zuen Mikel Strogoffek erantzuterakoan azaldu zuen segurantza xalo lasaiaz.

—Hoa, bada, Mikel Strogoff, hoa Jainkoari, Errusiari, nire anaiari eta niri mesede egitera.

Mikel Strogoffek agur militarra egin, berehala tsarraren kabinetetik atera, eta, handik pixka batera, Jauregi Berria utzi zuen.

—Esku ona izan duzu gizona aukeratzean, jenerala—esan zuen tsarrak.

—Horretan nago, jauna —erantzun zion Kissoff jeneralak—, ziur egon daiteke berori Mikel Strogoffek gizon batek egin dezakeen guztia egingo duela.

—Gizona da bai, gizonik bada.

## IV

# MOSKUTIK NIJNI NOVGORODERA

Mikel Strogoffek Moskutik Irkutskera ibili behar zuen bidea bost mila eta berrehun versta-koa zen (5.523 kilometro). Ural mendietatik Siberiaren ekialdeko mugaraino telegrafo haririk ez zen garaian, mezuak mandatariek zeramatza-ten, eta bizkorrenek hemezortzi egun behar zituzten Moskutik Irkutskera sartzeko. Baina gutxi ziren hori lortzen zutenak, eta tsarraren mezulariek lauzpabost aste eman beharra zuten gehienetan Asia aldeko Errusia zeharkatzen, garraio bide guztiak eskura bazeuzkaten ere.

Ez hotzaren, ez elurraren beldur, Mikel Strogoffek nahiago zuen bidaia negu beltzean egin, urtaro horretan lera zerbitzua antola baitzite-keen ibilbide osorako. Orduan, hala joan zein honela joan, oztopo gutxiago aurkitzen dira elur-rak berdinduriko estepa neurrigabe horietan. Ibairik ez, bide eragozgarri. Elurra eta izotza nonahi, eta lera aise eta agudo doa aurrera irris-tan. Arriskuak ere badira sasoi horretan; hala

nola sekula ere barreiatzen ez den laino lodi itxia, hotz gehiegizkoa, elur bisuts zakar amaiezinak, zeinen zurrunbiloetan zenbait aldiz karabanak harrapaturik geratu eta suntsitu egiten diren. Edo milaka otsoren agerketa, goseak ordokira bultzaturik. Baina aukeran nahiago horrelakoei aurpegi eman, zeren, negu gorrian, tatariar inbaditzaileak hirietan kantonatuko ziren, ez zen talderik ibiliko estepan barrena zer harrapatuko, ezinezkoa izango zen tropa mugimendurik egitea, eta Mikel Strogoff errazago pasatuko zen. Baina ezin aukeratu ez garaia, ez ordua. Hau edo hura berdin zen, onartu egin behar eta abian jarri.

Horixe zen bada egoera, eta Mikel Strogoff, nolako atakan aurkitzen zen garbi ikusita, handik onik ateratzeko prestatu zen.

Ez zegoen inola ere tsarraren mandatari arrunt baten kinkan; are gutxiago, inork ere ez zuen halakoa zela susmatu behar haren bidaia luzean. Inbaditutako lurraldean inurriak bezala ohi dabilta zelatariak. Inork ezagutuz gero, haren eginkizuna kolokan egongo zen. Horregatik Kissoff jeneralak ez zion agindu idatzirik eman, nahiz horietan agertzen den «enperadorearen zerbitzua» aipamenak ate guztiak zabal-

du, eta haren ordeztu, bidaiari nolabait errazteko nahikoa eta gehiago izango zitzaion diru mordoxkarekin batera, *podaroshna* bat baizik ez zion eskuratu.

*Podaroshna* horretan Nikolas Korpanoff izena ageri zen, merkataria, Irkutskeko biztanlea. Baimena ematen zion Nikolas Korpanoffi, premian gertatuz gero, pertsona bat edo gehiago bidelagun hartzeko, eta, bestalde, balio berezia zuen, haren jabea Errusiatik irten zitekeelako, baita Moskuko gobernuak gainerako herritarrei debekatzen zirenean ere.

*Podaroshna* bat ez da postako zaldiak hartzeko baimena besterik; baina Mikel Strogoffek ezin zuen noiznahi erabili, zelatariren batek ikusi eta benetan nor zen susma baitzezakeen, eta, inbaditutako lurretan horretarako arriskua handia izanik, Europa aldean baino ezin zen hartaz baliatu. Kontua zen, beraz, Siberian, hau da, matxinatutako probintziak zeharkatzean, ezin zuela ez nagusi bezala agindu postetako morroiei, ez lehenasuna izan zaldiak berari lehenago emateko, ez ibilgailurik konfiskatu berak erabiltzeko. Mikel Strogoffek gogoan hartu behar zuen ez zela mandataria. Moskutik Irkuts-keratara zihoan merkatari soil bat zen, Nikolas Kor-

panoff izeneko, eta, hala izanik, bidaia arrunt batean izaten diren gertakizun guztien mendean zegoen.

Agudo zein astiro, aurrera beti, baina inor konturatu gabe. Asmo horixe egin behar zuen bere.

Orain dela hogeita hamar urte, goi mailako bidazti bat ez zen Siberian barrena abiatuko segizio eder batek lagundu ezean. Berrehun kosako eta hogeita bost bashkir zaldi gainean, berrehun soldadu oinez, hirurehun gamelu, hogeita bost gurdi, bi ontzi eramangarri eta bi kanoi, hori baino gutxiago ez zuen eramango.

Mikel Strogoffek, ordea, ez zuen izango ez kanoirik, ez zaldizkorik, ez oinezkorik, ez zama abererik. Zalgurdiz edo zaldiz joango zen, auke-ra izanez gero; oinez, ezinbestean.

Lehenengo mila eta lauhun verstetan (1.493 kilometroetan), hots, Moskutik mugara doan bidean, ez zuen batere trabarik aurkituko. Trena, posta kotxeak, lurrun ontziak, zaldiak, denen eskura zeuden, eta, hortaz, baita tsarren mandatiaren eskura ere.

Horrenbestez, uztailaren 16ko goiz hartan bertan, janzki errusiar arrunta soinean eta zorroa bizkarrean, Mikel Strogoffek geltokira jo

zuen lehenengo trena hartzeko asmotan. Uniformearen ordean, brusa soil bat zeraman jantzirik, *mujiken* gerriko tradizionala, galtza zabalak, eta bota altuak, belaunpean estutuak. Armarik ez aldean, begi-bistan behintzat; baina gerrikoaren azpian errebolber bat zeukan ezkutaturik eta sakelari ganibeta luze bat, bai labanarekin bai jataganarekin antza duten horietakoa, ehiztari siberiarrek garbitasunez eta larru baliotsua hondatu gabe hartzari tripak ateratzeko erabiltzen dutena bezalakoa.

Lagun ugari zebilen Moskuko geltokian. Errusiako tren geltokietara jende franko biltzen ohi da: asko, bidaiari joateko; eta ez gutxiago, doazen horiek ikustera. Irudi du albisteak trukatzeko bulegoa dagoela bertan.

Mikel Strogoff trenera igo eta eseri egin zen. Nijni Novgoroderaino eramane behar zuen tren horrek, hantxe gelditzen baitzen garai hartan Mosku eta San Petersburg lotzen zituen burdinbidea, noizbait Errusiako mugaraino luzatuko zena. Laurehun bat verstako tartea zen (426 kilometro), eta trenak egun erdia beharko zuen haraino. Nijni Novgorodera iritsi eta, gauzak nola zuden, lehorreko bidari ekingo zion edo Volgako

lurrun ontziren bat hartuko zuen, Ural mendieta-  
ra lehenbailehen iristeko.

Mikel Strogoff eroso jarri zen bere bazte-  
rrean. Burges duin bat ematen zuen, kezka han-  
dirik gabe bidaiaren denbora lotan bota nahi  
zuen.

Hala ere, konpartimentuan bakarrik ez zego-  
enez, begi bat irekita utzi zuen eta bi belarriak  
zabalik.

Izan ere, zurrumurrua zebilen ahoz aho herri  
kirgizak altxatu ote ziren eta tatariarrek inbasio-  
ari ekin ote zioten. Halabeharrak hara bildu  
zituen bidaztiak horretaz ari ziren solasean,  
baina ez fidantzia handiz.

Bidazti horiek, trenean zihoazen gehien-  
gehienen antzera, merkatariak ziren, Nijni Nov-  
gorodeko merkatura bidean. Jende nahaste itze-  
la zen hangoa, besterik ezin. Baziren juduak, tur-  
kiarrak, kosakoak, errusiarrak, georgiarrak, kal-  
mukak eta beste, baina ia denek hizkuntza  
nazionalaz egiten zuten berba.

Eztabaidan ziharduten ea kalterako ala  
mesederako izango ziren Uralez beste aldera  
jazotzen ari ziren gertaera latzak. Beldurrez zeu-  
den, antza. Gobernu errusiarra behartuta egon  
zitekeen neurri murriztaileak hartzera, bereziki

mugatik hurbil dauden probintzietan, eta neurri horiek noski abantaila gutxi ekarriko zizkieten salerosketan aritzeko.

Esan beharra dago; berekoi haientzat gerra ez zen altxamendua zapaltzeko eta inbasioaren aurka egiteko borroka; haiek beren interes mehatxatuen ikuspuntutik baino ez zioten begiratzen. Uniformez jantzitako soldadu bat ikuste hutsak kolpetik isilduko zituen merkatari haien mingainak —jakina da uniformeek Errusian duten garrantzi ikaragarria—. Baina Mikel Strogoffen konpartimentuan ezerk ere ez zuen susmarazten militar bat bazegoela haien artean, eta tsarraren mandatariak, itxurak egitera derrigor- turik, ez zion traiziorik egingo bere buruari.

Entzun egiten zuen, bada.

—Karabanako tearen prezioa gora omen doa —esan zuen persiar batek, hangoa zela agerikoa baitzen haren janzkerari erreparaturik: buruan astrakanez forratutako txanoa, eta soinean jantzi luze iluna, izur zabalez apaindua, eta erabilia- ren erabiliaz aski higatua.

—Bai horixe! Tearen prezioa ez da merketu- ko, ez izan beldurrik —erantzun zuen betondo iluneko judu zahar batek—. Nijni Novgorodeko merkatuan dauden te guztiak mendebaldean

zehir salduko dira, baina ez da gauza bera gertatuko zoritxarrez Bukharako alfonbrekin!

—Zer! Bukharatik bidali behar dizkizute alfonbrak? —galdetu zion persiarrak.

—Ez, are arriskutsuagoa, Samarkandetik bidali behar dizkidate! Atera kontuak! Khivatik Txinako mugaraino matxinatuta dagoen eskualdea gurutzatu behar du espedizioak!

—Tira, tira! —erantzun zion persiarrak—, alfonbrak iristen ez badira, fakturak ere ez dira iritsiko, pentsatzen dut!

—Eta etekina, Abrahamen jainkoa! —garrasi egin zuen judu txikiak—. Etekina ez duzu ezertan ere kontaktzen?

—Arrazoi duzu —esan zuen beste bidazti batek—. Salgai asko ez omen da iritsiko merkatura Asiaren erdialde horretatik, ez Samarkandeko alfonbrarik, ez ekialdeko artilerik, gantzik edo xalik.

—Kontuz, gero, nire aita txiki hori! —esan zuen bidazti errusiar batek adarra jotze aldera—. Koipez zikindu eta hondatu beharrean jarriko dituzu zeure xal guztiak, zeure gantzekin nahastu badituzu!

—Barre egiten duzu! —esan zion merkatariak zakar, horrelako txantxak ez baitzituen batere maite.

—Oi! Ileak erauziko dituzu, errautsez estaliko zara —erantzun zion bidaztiak—, eta horregatik munduko gorabeherak aldatuko dituzulakoan zaude? Ez! Eta ezta salgaien prezioen gorabeherak ere!

—Ezagun-ezagun da ez zarela merkataria! —ohartarazi zuen judu txikiak.

—Ez, jainkoarren, Israelgo seme jator hori! Ez dut saltzen ez lupulurik, ez lumatxarik, ez ezirik, ez argizaririk, ez kalamurik, ez kalamu hazirik, ez okela gaziturik, ez zurik, ez artilerik, ez xingolarik, ez lihorik, ez ahuntz larrurik, ez bestelako larrurik...

—Baina, erosi egiten dituzu? —galdetu zion persiarrak, bidaztiaren jarduna etenda.

—Ahalik gutxiena, eta nire beharretarako baino ez —erantzun zuen, begi bat kliskatzen zuela.

—Txantxetan ari da berriz ere —esan zion juduak persiarrari.

—Edo espioi lanean! —erantzun zion persiarrak isilago—. Ez gaitzezela fida, eta ez dezagula hitz egin beharrezkoa baino gehiago! Polizia ez

dabil oso gozo oraingo aidi honetan, eta ez dago jakiterik norekin ari garen bidaiatzen!

Konpartimentuaren beste bazter batean, gutxixeago mintzatzen zen salerosketez eta gehixeago tatariarren inbasioaz eta haren ondorio negargarriez.

—Siberiako zaldiak konfiskatu behar omen dituzte —zioen bidazti batek—, eta Asiaren erdialdean nekez ibiliko da probintzia batetik bestera!

—Egia da —galdetu zion ondokoak— kirgizen erdiko leinuak bat egin duela tatariarrekin?

—Hala diote —erantzun zion isilago hitz eginez—, baina herri honetan nork esango du harro zer edo zer argiro badakiela?

—Tropak muga aldean elkartzen ari direla entzun dut. Don aldeko kosakoak Volgan zehar bildurik omen daude eta errebolaturiko kirgizen aurka egitera omen doaz.

—Kirgizak Irtysh ibaian behera jaitsi badira, Irkutskeko bidea ez da izango arriskurik gabea! —esan zion ondokoak—. Gainera, atzo telegrama bat bidali nahi izan nuen Krasnoiarskera, eta ezin izan zen pasa. Aurki tatariarren andanek mendebaldeko Siberia isolatuko dute, nik uste.

—Labur esanda, aita txiki hori —esan zuen lehenengo solaskideak—, merkataria hauek nahiko arrazoi dute beren salerosketengatik kezketan egoteko. Zaldiak konfiskatu ondoren, ibai ontziak konfiskatuko dituzte, eta gero zalgurdiak, eta gero gainerako garraio bideak, harik eta debekatu arte inperioaren luze-zabalean barrena pausorik egitea.

—Egingo nuke Nijni Novgorodeko merkatarien amaiera ez dela izango hasiera bezain bikaina —erantzun zion bigarren solaskideak, burua astintzen zuela—. Baina errusiar lurraldearen segurtasuna eta batasuna lehen-lehehik. Tratuak tratu baino ez dira eta!

Konpartimentu hartan bidaztien arteko hizpidea ez zen aldatzen apenas, eta antzera gertatzen zen trenaren beste bagoietan ere; behatzaille fin batek, ordea, mesfidantza handia sumatuko zukeen berbetan ari zirenek trukatzeko zituzten esaldietan. Ez ziren askotan ausartzen gertaerei buruz mintzatzera, baina, ausartzen zirenean, ez ziren iristen Moskuko gobernuaren asmoak igartzen saiatzera, hain gutxi epaitzera.

Horretaz, hain zuzen ere, konturatu zen ederki trenaren lehenengo bagoietako batean zegoen bidazti bat. Begien bistakoa zen atzerritarra

zela. Begiak zabal-zabalik so egiten zuen, eta galdezka eta galdezka ari zen, zeharka baino erantzuten ez bazioten ere. Ate aldera makurturik zihoan, kanpora begira, eskuin aldeko ikuspegiaren xehetasun bat ere galdu gabe, eta ateko leihatila irekita utzirik, nahiz horrek haren bidelagunak muzindu erabat. Herririk txikienen izena ere itauntzen zuen, haien kokapena, zer saltzen zuten, nolako industriak zituzten, zenbat biztanle ziren, zein zen heriotza-tasaren batez bestekoa sexubietan, eta abar, eta abar, eta hori guztia ordurako oharrez gainezka zegoen koaderno batean idazten zuen.

Pertsonaia hori Alcide Jolivet kazetaria zen, eta, hainbeste eta hainbeste kontu hutsal galdeztzen zuen, hainbeste eta hainbeste erantzunen artetik «bere lehengusinentzat» zerbait interesgarria atzematea espero zuelako. Baina, jakina, espioia zelakoan, ez zuten haren aurrean tutik ere esaten eguneko gertaerei buruz.

Hargatik, tatariarren inbasioa zela-eta deusen berririk ez zuela lortzen ikusi eta hauxe idatzi zuen koadernoan:

«Bidaztiak zuhur-zuhurrak. Politika gaietan ezin mingaina dantzarazi».

Eta, Alcide Jolivetek bidaiari buruzko iritziak zehatz-mehatz idazten zituen bitartean, haren lankide ingelesak, tren berera igoa eta helmuga bereraino iritsi nahian, behaketa lan berberean ziharduen beste konpartimentu batean. Ez zuten topo egin elkarrekin egun hartan Moskuko gelto-kian, eta ez batak ez besteak ez zekiten biak abiatu zirela gerraren jokalekua bisitatzeko asmoz.

Harry Blount, aldiz, gutxi esan eta asko entzun, ez zuen mesfidantzarik piztu bere bide-lagunengan Alcide Jolivetek bezala. Ez zuten, bada, espioitzat hartu, eta haren ingurukoak lasai mintzatzen ziren batere errezelarik gabe, eskuarki ohi zutena baino urrunago ere joanez. *Daily Telegraph*eko berriemaileak, beraz, parada izan zuen konturatzeko nolako kezka eragiten zizkieten gertaerek Nijni Novgorodera zihoazen salerosleei, bai eta zer punturaino zeuden mehatxaturik Asiaren erdialdera merkataritzan joateko bideak ere.

Hortaz, bada, zalantzarik ez zuen izan bere koadernoan ohar ezin zuzenago hau idazteko:

«Bidaztiak urduri guztiz. Gerra dute hizketa gai bakarra, eta honelako askatasunez hitz egitea harrigarria da nonbait Volgatik Vistulara!».

*Daily Telegraph*eko irakurleak ezin egon inola ere Alcide Joliveten lehengusina baino okerrago informatuta.

Eta, horretaz gain, Harry Blountek, trenaren ezker aldean eserita, ezkerreko aieka horri baizik begiratu ez eta lurralde gora-beheratsua ikusi zuen, zelai zabalez osatutako eskuineko aiekari begiratzeko lana hartu gabe, eta beste ohartxo hau gehitu zuen koadernoan ziurtasun britainiarrez:

«Mendiak ugari Moskutik Vladimirrera».

Nabaria zen, bestalde, Errusiako gobernuak, zer jazotzen ari zen ikusirik, zenbait neurri estu hartuko zituela, baita inperioaren barne aldean ere. Altxamenduak ez zuen Siberiako muga gurutzatu, baina Volgako probintzietan, kirgizen herritik hain hurbil egonda, jendeak zer ikusi hura ikasi egingo ote zuen arriskua zegokeen.

Izan ere, poliziak ez zuen Ivan Ogareffen arrastoa aurkitu artean. Traidore hori, atzerrira joaz bere gorrotoak mendekatzeko, elkartua ote zen Feofar Khanekin, edo matxinada sustatu nahi ote zuen Nijni Novgorod probintzian, urte sasoi honetan mota guztietako jendea hara biltzen zela probetxatuz? Sator lanean inor ez ote zebilen merkatu handira zihoazen persiarren,

armeniarren edo kalmuken artetik, inperioaren barne aldean mugimendua bultzatzeko? Hipotesi horiek guztiak baliozkoak ziren, batez ere Errusia bezalako herrialde batean.

Zeren, inperio zabal honek, hamabi milioi kilometro koadro izanik, ezin du mendebaldeko Europako estatuen homogeneotasuna eduki. Osatzen duten herrien artean axaleko ñabardurak baino gehiago daude nahitaez. Errusiako lurraldea Europan, Asian, Amerikan hedatua duzu, ekialdeko longitudeko 15. gradutik mendebaldeko longitudeko 133.eraino eta hegoaldeko 38. paralelotik iparraldeko 91.eraino, hau da, ia 200 gradu ezker-eskuin eta 43 gradu goitik behera. Hirurogeita hamar milioi biztanle baino gehiago bizi dira han. Hogeita hamar hizkuntza mintzatzen. Arraza eslabiarra da nagusi inondik ere, baina, errusiarrekin batera, poloniarrek daude, eta lituaniarrak, eta kurlandiarrak. Eta finlandiarrak, estoniarrak, laponiarrek, txeremiarrak, txuvashiarrak eta permiakak gehitzen baditugu, eta alemaniarrak, grekoak, tatarriarrak, Kaukasoko leinuak, mongoliarrak, kalmukak, samoiedoak, kamtxatkarrak eta aleutiarrak gaineratzen, ongi ulertuko dugu horren estatu zabalean batasunari eustea zaila baino zailagoa

dela eta horrelako inperioa denboraren lana bai-  
zik ezin dela izan, gobernuen jakinduriak lagun-  
durik.

Dena dela, Ivan Ogareffek bilaketa orori ihes  
egiten asmatu izan zuen ordu arte, eta, segur-  
aski, tatariarren armadarekin bat eginik ibiliko  
zen. Baina, trena gelditzen zen guztian, poliziak  
igotzen ziren bidaztiak ikertzera eta den-denak  
zorrotz ikuskatzen zituzten, Ivan Ogareffen bila  
baitzebiltzan, polizi buru nagusiaren aginduz.  
Izan ere, gobernuak jakin uste zuen traidore  
horrek ezin izan zuela alde egin oraindik Europa  
aldeko Errusiatik. Bidazti bat susmagarria irudi-  
tuz gero, polizi postura zeramaten azalpenak  
ematera; eta bitarte horretan, trena aurrera  
zihoan berriz, batere kezkarik gabe atzean gera-  
tu zen laguna zela eta.

Errusiako poliziari jira-bira ibiltzea ez zaio  
atsegin, eta alferlana da haiekin arrazoiak ema-  
ten hastea. Gradu militarrez horniturik daude  
hartan enplegatutakoak, eta militarren erara  
jokatzen dute. Horixe da modua, beste aldetik,  
subiranoaren esanak txintik atera gabe bete  
ditzaten, nahiz eta haren aginduak ez obeditze-  
ra inor gutxi ausartu, botere izugarria baitu, bere  
*ukasen* idazpuruetan erabiltzen duen formulak

adierazten duen legez: «Gu, Jainkoari esker, Errusia guztietako eta Mosku, Kiev, Vladimir eta Novgorodeko enperadore eta autokrata, Kazan eta Astrakhaneko tsarra, Poloniako tsarra, Siberiako tsarra, Khersones Taurikoaren tsarra, Pskoveko jauna, Smolenskeko printze handia eta Lituania, Volhynia, Podolia eta Finlandiakoa, Estoniako printzea eta Livonia, Kurlandia, Semigalia, Bialystok, Karelia, Jugria, Perm, Viatka, Bulgaria eta beste herrialde anitzekoa, Nijni Novgorodeko lurraldearen jauna eta printze handia eta Txernigov, Riazan, Polotsk, Rostov, Jaroslaw, Bielozersk, Udoria, Obdoria, Kondinia, Vitebsk eta Mstislawekoa, eskualde hiperborealen menderatzailea, Iveria herriko jauna eta Kartalinia, Gruzinia, Kabardinia eta Armeniakoa, printze txerkesen jaun oinordeko subiranoa, mendieta-koena, eta besterena, Norvegiako oinordekoa, Scheleswig-Holsteineko dukea eta Stormarn, Dittmarsen eta Oldenburgekoa». Subirano ahaltsua, ahaltsurik bada. Haren armarrria bi buruko arranoa, esku batean errege makila eta bestean lurra dauzkana. Novgorod, Vladimir, Kiev, Kazan, Astrakhan eta Siberiako ezkutuak arranoaren inguruan, San Andresen ordenako lepokoa biran, eta errege koroa buruan.

Polizia gogorra zen zeharo, bai, baina Mikel Strogoffek zuzen zeuzkan paperak, eta, ondorioz, babestuta zegoen har zitzaketen neurri guztietatik.

Vladimirreko geltokian geratu zen trenaren minutu batzuetan, eta hori nahikoa izan zuen, antza, *Daily Telegraph*eko kazetariak Errusiako hiriburu zahar honen ikuspegi erabatekoa hartzeko, ikuspuntu fisikotik zein ikuspuntu moraletik.

Bidazti gehiago igo ziren trenaren Vladimirreko geltokian. Besteak beste, neska gazte bat agertu zen Mikel Strogoffen konpartimentuaren atean.

Larru gorritzko bide poltsa bat zeraman aldean, eta besterik ez, nonbait. Tsarraren mandatariaren aurrean leku bat zegoen hutsik, eta hantxe eseri zen. Gero, begiak jaitsi, eta, halabeharrik emandako bidelagunei begiradarik bota ere gabe, hainbat orduz bidaiatzeko prestatu zen.

Mikel Strogoff ezin egon etorri berria arretaz aztertu gabe. Atzeka zegoen jarrita, trenaren noranzkoari bizkar emanez, eta mandatariak bere eserlekua eskaini zion, nahiago izango zue-

lakoan, baina neska mugitu ez, eta, burua pitin bat makurtuaz, eskerrak ematera mugatu zen.

Neskatxak hamasei edo hamazazpi urtekoa izan behar zuen. Haren burua xarmanta zen zinez, molde eslabiarrekoa bete-betean. Molde apur bat gogorra da eslabiarra, eta neska gazte hori eder-ederra bilakatuko zuen, polita baino gehiago, urte batzuk pasa eta haren aurpegiera behin betiko finkaturik geratzean. Zapi moduko batek estaltzen zion burua, eta handik ihesi ile ugaria zihoakion kopetan behera, urrea bezain horia. Arreak zituen begiak, eta belusatua begikera, ezta baino eztiagoa. Zuri eta argalxeak masailak, eta zuzena sudurra, zeinaren hegalk mugitu egiten ziren pixka bat. Ahoa xaloki marratua zeukan, baina irribarre egiten aspaldi ahaztu zitzaiola irudi zuen.

Bidazti gaztea garaia zen eta liraina; haren soinak horrelakoa ematen zuen, behinik behin, jantzita zeraman txamarra soil eta zabalaren azpian. Nahiz eta artean «neskatila» izan — hitzaren esanahirik garbienean—, haren kopeta garaiaren eiteak, haren aho eta kokotsaren forma garbiak, indar moral handiaz dohaturik zegoela pentsarazten zuten, eta xehetasun hori ez zitzaion oharkabea pasa Mikel Strogoffi. Argi

zegoen neska gazte hori hamaika nahigabe jasanazela iraganean, eta geroa ere ez zitzaiola azaltzen kolore alaiz margoturik, baina egia zen halaber bizitzaren eragozpenen kontra borrokan egiten jakin zuela ordu arte eta era berean segitzeko prest zegoela. Haren borondatea bizia zen eta tematia, eta haren lasaitasuna asaldakaitza, baita gizon bat etsia hartzeko zorian edo odolak irakin beharrean jarriko zuten egoeretan ere.

Horixe zen neskari begiratu batean hartzen zitzaion tankera. Mikel Strogoffi, bera ere kementsua izaki, zirraratu egin zion itxura horren izaerak, eta, kontu handiz, bere so egite jarraituak bidazti berriari enbarazu egin ez ziezaion, azterketan segitu zuen adi.

Neskatxaren janzkera soil-soila zen eta izugarri garbia. Aise antzematen zen ez zela aberatsa, baina alferrik bilatuko zenuen zabarkeri arrastorik haren arropetan. Giltzaz itxitako boltsa larruzko bat zeukan ekipaje bakarra. Belau-netan zeraman, non jarri ez zegoen eta.

Txamarra luzea zuen jantzita, mahukarik gabea, eta kolore ilunekoa, lepoko xingola izan ezik, zeina urdina zen eta polito egokitzen zitzaion zintzurrean. Txamarra horren azpian, gona motz batek —iluna hori ere— soineko bat

estaltzen zuen, orkatiletaraino erortzen zitzaiona eta beheko azpilduran brodatu hits batzuk zituen apaingarri gisa. Larru landuzko bota baxuak zeramatzan oin txikietan, zola lodi samarrekoak, bidean denbora luzea emateko aukeratu izan balitu bezala.

Mikel Strogoffi arropa haiek Livoniako jantzien moldea zutela iruditu zitzaion zenbait xehetasunengatik, eta neska gaztea probintzia baltikoetako izan behar zuela pentsatu zuen.

Baina, nora ote zihoan neskatxa hura, bakar-bakarrik, aitaren edo amaren laguntasunik gabe, neba baten babesik gabe, haren adinean behar-beharrezkotzat jotzen badira ere? Mendebaldeko Errusiako probintzietatik ote zetorren, beraz, bide luzea eginik dagoeneko? Nijni Novgorodera baino ez ote zihoan, edo inperioaren ekialdeko mugetatik hara ote zuen jomuga haren bidaiak? Ahaideren bat, adiskideren bat izango zuen haren trena noiz iritsiko zain? Edo, aitzitik, bagoitik jaitsi eta hirian inor gabe aurkituko zen, konpartimentu honetan bezain isolatua, non haren-gana inork ere —hala pentsatu beharko— ez zuen ardurarik agertzen, antza? Bazitekeen.

Izan ere, bakartasunean hartzen diren ohiturak azaltzen zituen nabarmen bidazti gazteak

bere jokabidean. Nola sartu zen bagoian eta nola prestatu zen bidaia egiteko, zer aztoramen txikia sortu zuen bere inguruan, eta zer arta handia hartu zuen inor ez gogaitzeko eta bazterrak ez nahasteko, horrek denak bakarrik egoteko ohitura zuela adierazten zuen, bai eta inoren laguntzarik ez zuela espero ere.

Mikel Strogoffek jakin-minez behatzen zion, baina, bera ere izaera isilekoa izanik, ez zen ibili egokiera bila neskarekin solasean hasteko, nahiz hainbat ordu igaro behar oraindik, trena Nijni Novgorodera iritsi arte.

Behin baino ez zion so egin neskatzak mandatariari. Neskaren aldameneko merkataria — xalak eta gantzak arduragabe nahasten zituen hura— loak hartu zuen, eta bere buru handia bilintza-balantza zebilkion sorbalda batetik bestera, neskari kaskezurrean kolpea joko ez joko. Mikel Strogoffek zakar samar iratzarri, eta xuxen eta jendetasun gehiagoz joan behar zuela ulertarazi zion.

Merkatariak, gizon latza izatez, hitz batzuk esan zituen marmarka «besteen kontuetan muturra sartzen zutenak» erdeinatuz; baina Mikel Strogoffek hain makur begiratu zion, ezen merkataria logaletuak beste aldearen kontra jarri

eta bidazti gaztea aske utzi zuen bere hurbiltasun gogaikarritik.

Orduan so egin zion neskak lipar batez, eta esker on mutu eta xumea agertu zen begirada hartan.

Baina zerbait gertatu zen, ostera, Mikel Strogoffi neska gazte haren izaeraren neurri zehatza eman ziona.

Nijni Novgorodeko geltokira heldu baino hamabi versta lehenago, burdinbidearen bihur-gune itxi batean zihoala, danbateko bortitz batek astindu zuen trena guztiz. Gero, lubeta batean behera lerratu zen minutu batez, eta geldirik geratu azkenean.

Hango bidaztien itzulipurdiak eta erorikoak! Hango oihuak! Iskanbila eta nahas-mahasa besterik ez zen bagoietan lehen mementoan. Istri-pua larria izan zitekeen. Hargatik, trena gelditu baino lehenago ere, atea zabaldu eta bidaztiak, beldurrak airean, pentsamendu bakarra izan zuten: trena laga eta burdinbidean babestu.

Mikel Strogoffi neskatxa etorri zitzaion gogora lehendabizi; baina, konpartimentuko gainerako bidaztiak garrasika eta bultzaka kanpora jotzen zuten bitartean, neska gaztea lasai gera-

tu zen bere tokian, musuan aztoramenik ageri ez zuela, zurbiltasun ñimiño bat izan ezik.

Neska zain zegoen. Mikel Strogoff ere zain egon zen.

Neskak zirkinik ez zuen egin bagoitik jaisteko. Mutila ere ez zen mugitu.

Geldi-geldirik iraun zuten biek ala biek.

«Hori kemena, hori!» pentsatu zuen Mikel Strogoffek.

Bien bitartean, arrisku zantzu guztiak alden-du ziren azkar. Ekipaje bagoiaren lokailua hautsi zen, eta horrek sortu zuen danbatekoa eta irte-narazi trena errailetatik; gutxik egin zuen lubetan behera erori eta zokogune batean amildu ez zenean. Ordubeteko atzerapena. Azkenik, burdinbidetik trabak kendu eta abian jarri zen trena berriz ere. Gaueko zortzi eta erdietan Nijni Novgorodeko geltokira sartu zen.

Bagoietatik jaisteko aukera izan baino lehen, poliziak azaldu ziren ateetan eta bidaztiak ikuskatzen hasi.

Mikel Strogoffek bere *podaroshna* erakutsi zien, Nikolas Korpanoffen izenean emana. Hortaz, arazorik ez.

Eta konpartimentuko gainerako gizonen kasuan ere, Nijni Novgorodetik hara joateko

asmorik ez baitzuten, polizia ez zitzaizkien susmagarriak begitandu, haien zorionerako.

Neska gaztearen txanda zen, eta hark, pasaporte bat aurkeztu beharrean —jadanik ez baita pasaporterik eskatzen Errusian—, zigilu bereziko baimen bat eskuratu zien, aparteko izaerakoa zirudiena.

Polizi inspektoreak adi-adi irakurri zuen. Gero, dokumentuan deskribatuta zegoena arretaz aztertu ondoren, galdekatzen hasi zitzaion.

—Rigakoa zara? —itaundu zion lehenbizi.

—Bai —erantzun zuen.

—Irkutskera zoaz?

—Bai.

—Non barrena?

—Permen barrena.

—Ongi da —esan zion inspektoreak—. Eta ez ahaztu, gero, Nijni Novgorodeko polizi etxera joatea zure baimena bisatzera.

Gazteak burua makurtu zuen baietza adierazteko.

Galdera-erantzun horiek entzun eta Mikel Strogoff ezusteak eta errukiak hartu zuten batera. Zer? Neskatxa hori bakarrik Siberia urrunean barrena! Eta orain, hain zuzen, sasoi guztietako arriskuez gain, inbasioak eta matxinadak meha-

txu egiten dutenean! Nola iritsiko da? Zer ez zaio gertatuko?...

Miaketa bukatu eta bagoietako ateak ireki ziren, baina, Mikel Strogoffek harengana mugimendurik egiteko abagunerik izan aurretik, gazte livoniarra, trenetik inor baino lehen jaitsirik, galdua zen geltokiko nasak mukuru betetzen zituen jendetzaren artean.

## V

# BI ARTIKULUKO DEKRETU BAT

Nijni Novgorod, Novgorod Beherea, Volga eta Oka ibaiek bat egiten duten lekuan kokaturik dago eta izen bereko probintziaren hiriburua da. Hantxe utzi behar zuen Mikel Strogoffek trena, burdinbidea ez baitzen luzatzen artean hiri horretaz harantzago. Horrela bada, aurrera joan ahala, bidaiatzeko moduak gero eta motelagoak ziren, eta gero eta eskasagoa, gainera, haien segurtasuna.

Nijni Novgoroden hogeita hamar edo hogeita hamabost mila lagun bizi ohi ziren eskuarki, baina une hartan hirurehun milatik gora biltzen zituzten haren karriek eta plazek; hamar aldiz gehiago, alegia. Biztanleria modu horretan ugartzearen arrazoia bertan hiru astez egiten den merkatu sonatua zen. Behinola, Makariew hiriak bereganatzen zituen salerosleen bileraren onurak, baina, 1817 ezkerotik Nijni Novgorodi dagokio abantaila hori.

Hiriak, goibela eta hitsa gainerakoan, sekulako giro bizia azaltzen zuen sasoi hartan. Merka-

tari europarrak eta asiarrak, hamar arraza desberdinetakoak, harremanetan aritzen ziren etengabe saldu-erosi onena nork egingo.

Arratsaldea aurrera sartua zen Mikel Strogoffek geltokia utzi zuenean, baina, hala ere, jende pila zebilen bi hirietako karriketan. Bi hirik osatzen baitute Nijni Novgorod, Volga ibaiaren alde banatan jarriak. Goikoa haitz malkartsu batean dago eraikia, eta gotorleku bat du defentsarako, Errusian *krem!* deitzen duten horietakoa.

Mikel Strogoffek nekez aurkituko zuen hotel edo ostatu txukun bat Nijni Novgoroden, egun batzuk eman beharra suertatuz gero, den-denak gainez eginak zeuden eta. Baina ezin ezta berehala abiatu ere, Volgako *steam-boat* ontzia hartu behar baitzuen; eta edozein aterperekin etsi beharko zuen, beraz. Hala ere, bila hasi aurretik, ibai ontzi konpainiaren bulegoetara jo zuen, Nijni Novgorodetik Permera joateko ontzia zer ordutan aterako zen zehatz jakin nahian.

Han, bekozkoa ilundu zitzaion, Permerako ontzia, *Kaukaso* izenekoa, biharamuneko eguerdira arte ez zela abiatuko jakin zuenean. Hamaazpi ordu esperoan! Amorratzeko modukoa zen ahalik lasterrena bidaiatu nahi zuen batentzat, baina amore eman behar derrigorrean. Eta

horrela egin zuen, ez baitzen inoiz ere alferrik haserretzen.

Beste alde batetik, gauzak zeuden bezala egonda, ibai ontzia baino arinagorik ezer ere ez zegoen Permera edo Kazanera iristeko, ez telega, tarantas, berlina, kalesa edo bestelako postako zalgurdirik, eta ez zaldirik ere. Hobe zen, beraz, *steam-boata* irten arte zain egotea, aldi galdua laster atzemango baitzuen, beste zeinahi ibilgailu baino bizkorrago zebilenez gero.

Horra hor, bada, Mikel Strogoff, hiriaren alde batetik bestera, gaua igarotzeko aterpe baten bila, lasai antzean. Egia esateko, lo kontuak ez zion batere kezkarik sortzen, eta, tripa zorriek estutuko ez balute, eguna argitu artean ibiliko zen segur aski Nijni Novgorodeko karriketan barrena alderrai. Afari bila zebilen, ohe bila baino gehiago. Eta bata zein bestea *Konstantinopla hiria* zeritzan ostatuan aurkitu zituen.

Han, ostalariak gela txukun samarra eskaini zion. Altzari gutxi zeuzkan, baina ez ziren falta Ama Birjinaren irudia eta hainbat santuren koadroak, ertzetan oihal urreztatuak zituztenak. Ahate bat haragi xehatu eta garraztuez betea, krema lodi baten gainean, garagarrezko ogia, esne gatzatua, azukre hautsa kanelarekin naha-

sia, eta pitxer bat kwass—Errusian oso arrunta den garagardo moduko bat—, zerbitzatu zizkio-ten berehalaxe, haren gosea asetzeko afari urriagoa nahikoa izanik ere. Bapo jan eta edan zuen, bada, baita bere mahaikideak baino gehiago ere, zeinak, raskolniken sektaren «sinestun zaharra» izanik eta mehe egiteko zina eginik, patatak kentzen baitzituen plateretik eta teari azukrea ez zion inolaz ere botatzen.

Afaria bukatu eta, gelara igo beharrean, hirian barrena paseatzera atera zen berriz ere, oharkabe. Baina, ilunabar luze hura oraindik gautu gabea izanda ere, jendetza aienatzen ari zen ordurako, karrikak inor gabe gelditzen astiro-astiro, eta nor bere etxera edo ostatura itzultzen.

Zergatik ez zen Mikel Strogoff ohean sartu lasai-lasai, egun osoa trenean igaro ondoren? Gogoetan ari ote bidelagun izan zuen gazte livoniarraz? Beste zeregin hoberik ez, eta, bai, hartaz ari zen pentsatzen. Beldurrez ote inork neska gazte hura irainduko zuen, hiriaren zalapartaren erdian bakar-bakarrik? Bai, horren beldurrez zegoen, eta arrazoi zuen beldurrez egoteko. Itxaropena ote, beraz, neskatxa aurkitzeko eta, behar izanez gero, babesa emateko? Ez. Aurki-

tzea zaila zen oso. Eta babestea dela-eta... nor zen bera, bada, eskubide hori bereganatzeko.

«Bakarrik! —zioen bere artean—. Bakar-bakarrik nomada hauen erdian!

»Eta oraingo arriskuak deus ere ez dituk etorkizunekoan aldean! Siberia! Irkutsk! Nik Errusiarengatik eta tsararengatik egin behar dudan ahalegina, hark norengatik egin behar du? Zergatik? Muga zeharkatzeko baimena dik! Eta beste aldeko herriak matxinatuta zaudek! Eta tatariarren andanak zabiltzak estepetan zehar batetik bestera!...»

Mikel Strogoff tarteka-marteka gelditu eta murgildu egiten zen pentsakizunetan.

«Zalantzarik gabe —ziharduen bere baitan—, bidaia egiteko ideia inbasioaren aurretik bururatu zitzaioan! Beharbada jakinaren gainean ere ez duk egongo!... Ez, ordea. Treneko merkatariak Siberiako istiluez mintzatu zituan haren aurrean... eta ez zuan batere harritu, nonbait. Argibiderik ere ez zian eskatu... Baina, orduan, hango istiluen berri bazekian, eta, jakinik ere, hara zoak!... Neska gaixoa!... Ezten zorrotzak akuilatzen dik, akuilatzen duenez. Baina, ikaragarri ausarta izan arren, —eta halakoa duk egia-tan—, indarrak ahituko zaizkiok bidean, eta,

hainbeste arrisku, hainbeste oztopo, ezin eramango ditik horrelako bidaia baten nekeak!... Ez duk sekula iritsiko Irkutskera!»

Bitartean, Mikel Strogoff nora ezean zebilen hara eta hona, baina aise eta estutasunik gabe itzuliko zen bere bidera nahi zuenean, hiria ongi baino hobekiago ezagutzen zuen eta.

Ordubete inguruko ibilaldia egin eta gero, etxola handiz betetako plaza batera iritsi eta haietako bati itsatsita zegoen banku batean eseri zen.

Bost minutu emanak zituen han eta, bat-batean, norbaitek eskua jarri zion sorbaldan sendo.

—Zertan ari haiz hemen? —galdetu zion ahots zakarrez hurbiltzen ikusi ez zuen gizon garai batek.

—Atsedean hartzen —erantzun zion Mikel Strogoffek.

—Gaua banku honetan igarotzeko asmoa duk?

—Bai, nahi badut —bota zion Mikel Strogoffek, doinu apur bat nabarmenegiz, merkatari soil baten esana izateko.

—Hator hona, ikusi nahi haut eta! —agindu zion gizonak.

Ororen gaintetik zuhurtziaz jokatu behar zuela oroitu, eta senak atzera eragin zion Mikel Strogoffi.

—Ni ikusteko premiarik ez zagok —erantzun zion.

Eta, odol hotzean, hamar bat pausoko tartea jarri zuen solaskidearen eta bere artean.

Orduan, gizon hari ongi erreparatu, eta buhame kastako batekin ari zela iruditu zitzaion. Errusiako bazter guztietan dabilta horrelakoak, batez ere kopek bat edo beste irabaz badezake; eta azoka guztietara biltzen ziren, hortaz. Ez da batere atsegina haiekin inolako harremanik izatea, ez fisikoa, ezta morala ere. Mikel Strogoffek adi-adi begiratu zuen dena estaltzen hasiak ziren itzalen artetik, eta, etxolatik hurbil, gurdi eskerga bat ikusi zuen, motxaile edo tsigane jende horren ohiko bizileku ibiltaria.

Buhameak bizpahiru pauso egin zituen aurrera, eta, Mikel Strogoffi zuzenago itauntzeko prest zegoenean, etxolaren atea zabaldu zen. Emakume bat, ikusezina kasik gerizpean, aurreratu zen bizi, eta Mikel Strogoffek mongolieraren eta siberieraren arteko nahasketatzat jo zuen hizkuntza zakar batez egin zion berba gizonari:

—Beste espioi bat! Utz ezak bakean eta hator afaltzera. *Papluka* prest zagok.

Mikel Strogoffek ezin irribarreari eutsi, nola deitu zioten entzuterakoan; nori eta berari, espioiez beste, ezerk ere beldurtzen ez zuen hari.

Eta hizkuntza berean, nahiz haren azentua oso bestelakoa izan emakumeak erabilitakoaren aldean, buhameak hitz hauekin erantzun zion:

—Arrazoi dun, Sangarre! Eta, gainera, bihar ez gaitun hemen izango!

—Bihar? —galdetu zion emakumeak zertxobait harriturik.

—Bai, Sangarre, bihar; eta Aitak berak bidaltzen gaitin joan nahi dugun lekura!

Hori esanik, gizon-emakumeak etxolan sartu eta atea itxi zuten soinurik atera gabe.

«Tira, bada —esan zuen bere baitan—, ulertuak izatea nahi ez badute, nire aurrean beste hizkuntza bat erabiltzeko aholkatuko niekek buhame horiei!»

Siberiarra sortzez eta haurtzaroa estepan igarora, Mikel Strogoffek Tatariatik Izotz Ozeanora mintzatzen ziren ia hizkuntza guztiak ulertzen zituen, gorago esan bezala. Entzundako hitz horiek zirela-eta, ez zen gehiago arduratu. Zer

axola hari buhame baten eta haren lagunaren arteko kontuak?

Gau beltza zen jadanik, eta ostatura itzuli behar zuela pentsatu zuen, atsedean pixka bat hartzera. Volgaren bideari jarraitu zion itzuleran, ura nekez ikusi arren, hainbeste ibai ontzien forma itzaltsuek estalita. Ibaiaren nondik nora-koak konturarazi zion zein zen utzi berria zuen lekua. Gurdi eta etxola pilaketa hura urtero-urtero Nijni Novgorodeko merkatu nagusia egiten zen plaza zabalean zegoen jarria, eta horrek azaltzen zuen buhame eta txerpolari saldoa hantxe egotea, munduko bazter guztietatik etorriak.

Ordubete geroago, Mikel Strogoff lotan zegoen atzerritarrei hain gogorrak iruditzen zaizkien ohe errusiar horietako batean, eta biharamunean, ekainaren 17an, eguna aspaldi argitu zuela esnatu zen, gaua lo urduritxoan pasa eta gero.

Bost ordu oraindik Nijni Novgoroden eman beharra; mende bat bezain luzeak begitantzen zitzaizkion. Zer egingo goiza igarotzeko, hiriko karrketan barrena ibiltzea baizik, bezperan legez? Bazkari legea egin, bide zorroa itxi, *podaroshna* polizi etxean bisatu, eta prest egongo zen abiatzeko. Baina, eguzkiaren ondotik jaiki-

tzea atsegin ez, eta ohea utzi zuen, jantzi, eta armarri inperialez zigilaturiko eskutitza brusaren barnealdean egindako sakela batean gorde zuen arduraz; gero, bide zorroa itxi eta bizkarrean paratu zuen. Hori egin ondoren, *Konstantinopla-ko hiriara* itzultzeko gogorik gabe, eta bazkaria Volgako ibai ertzetan egiteko asmotan, kontua ordaindu eta ostatutik irten zen.

Ezusteak saihestu nahirik, *steam-boaten* bulegoetara joan zen lehenik, eta, bertan *Kauka-so* ontzia esandako orduan aterako zela ziurtatu zioten. Orduan etorri zitzaion burura lehenengo aldiz gazte livoniarrek ere *Kaukason* ontziratzeko asmoa izango zuela segur aski, Perm aldera joan behar baitzuen; eta, kasu horretan, Mikel Strogoff harekin joango zen ibai ontzian ezinbestean.

Goiko hiria eta haren kremlina bertan behera utziak zeuden garai hartan. Kremlina biribila zen, bi verstako luzerakoa, eta Moskukoaren antzekoa. Baina gobernadorea ez zen bertan bizi. Goiko hiria hilik zegoen guztiz, eta behekoa, aldiz, bizi-bizirik!

Mikel Strogoffek Volga ibaia gurutzatu zuen zalditeriako kosakoek zaindutako txalupa zubi batean zehar, eta bezperan buhameen kanpa-

mentuarekin topo egin zuen toki berera iritsi zen. Hiriaren bazter urruntxo hartan zegoen Nijni Novgorodeko merkatu sonatua, zeinarekin ez zuen alderik ezta Leipzigeke azokak berak ere. Gobernadore nagusiaren behin-behineko jauregia ageri zen Volgaren beste aldeko zabaldi handi batean. Enperadorearen aginduz, han bizi zen goi funtzionario hori, merkatuak zirauen bitartean, etengabe aritu behar baitzen zainketan, hara biltzen zen mota guztietako jendearen kariaz.

Zabaldi hori zurezko etxez josia zegoen orduan, den-denak simetrikoki kokatuak eta haien artean ibilbide zabalak utziaz, hango jende piloak eroso pasatzeko moduan. Saltokiak ziren etxe horiek, eta, han-hemen pilaturik, neurri eta itxura guztietako auzoak osatzen zituzten, bakoitzean salgai mota bat eskaintzen zela. Auzo batean burdinazko tresnak saltzen zituzten, beste batean zurezkoak; batean larruak, eta beste batean artileak; batean oihalak, eta beste batean arrain sikuak. Zenbait saltoki irudimen handiz eraikiak ziren, tearekin adreiluak eginez, esate baterako, edo okela gazitua harri gisa erabiliz; hau da, saltzaileak bezeroari zer eskaintzen

zion erakutsiz. Jendea erakartzeko era bitxia alafede, bai eta amerikano samarra ere!

Jendea erruz zebilen ibilbide eta karrika luze haietan ordurako. Goiz zen oraindik, baina eguzkia oso goian ageri zen zeruan, laurak baino lehen urratu baitzuen iluna. Baziren han errusiarrak, siberiarrak, alemaniarak, kosakoak, turkomanak, persiarrak, georgiarrak, grekoak, otomanoak, indiarrak, txinatarrak, Europa eta Asiako zoko guztietatik etorritako gizon-emakumeak, berriktan, eztabaidan, aldarrika, tratuan. Han metaturik aurkitzen ez zen salgairik inon ere ez zela izango irudi zuen. Zamaketariak, zaldiak, gameluak, astoak, ibai eta itsas ontziak, gurdiak, merkantziak garraiatzeko balio duen guztia merkatu hartan pilaturik zegoen. Larruak, harribitxiak, zetazko oihalak, Indiako kaxmirrak, Turkiako alfonbrak, Kaukasoko armak, Smirna eta Ispahango ehunak, Tifliseko armadurak, karabanako teak, Europako brontzeak, Suitzako erlojuak, Lyongo belusak eta zetak, Ingalaterrako kotoiak, zalgurdi eta orga atalak, fruituak, lekaleak, Uraleko meak, malakitak, lapis lazuliak, landare usaintsuak, lurrinak, sendabelarrak, zurak, galipotak, sokak, adarrak, kuiak, angurriak, eta abar, eta abar; Lurraren bazter hartara bilduak

ziren India, Txina eta Persiako salgaiak oro, itsaso beltz eta kaspiarreko produktu guztiak, Amerika eta Europako merkantzia denak.

Hura zen iskanbila eta ardaila, hura zarata eta nahaspila. Hitzik ez dago azaltzeko. Zalaparitariak ziren erabat bertako jende behe-mailakoa, baina atzerritarrak ere ez ziren atzean gelditzen. Ikusleak etengabe berritzen ziren saltokien aurrean. Bidaian urtebete emanda zeudenak ere baziren han, Asiaren erdialdeko merkatariak, kasu, ordoki luzeak zeharkatu zituztenak bere salgaiak merkaturatzeko, eta beren herrietako dendak eta salmahaiak beste urtebete igaro arte ikusiko ez zituztenak. Labur esateko, Nijni Novgorodeko merkatu horren garrantzia hain da handia, ezen salerosketen diru kopurua ez baita behin ere izaten ehun milioi errublotik beherakoa.

Gainera, ezerezetik sortutako hiri horren plaza eta auzoetan molde guztietako txerpolariak pilatzen ziren: saltinbankiak eta akrobatak, hurbiltzen zirenen belarriak sorgortzen beren orkestren orro eta uluekin eta beren antzezpenaren deiarrekin; mendietatik etorritako buhameak, ikuslerik inozoenei zoria iragartzen; motxaileak edo tsiganeak —horrela deitzen

diete errusiarrek ijitoei, koptoen antzinako ondorengoei—, beren doinurik alaiena kantatzen eta beren dantzarik bitxienak dantzatzen; komediante ibiltariak, Shakespeareren dramak jokatzen, ikusle ugarien gusturako egokitu ondoren. Halaber, ibilbide luzeetan, hartz hezitzaileak zebiltzan, aldean beren lau hankadun dantzariak eramanez; piztien garrasi latzek durundi egiten zuten kioletan, zaindarien zartailu gogorrez edo ziri goriez xaxaturik; eta, erdiko plaza handian, zale sutsuen lau lerroko birunda inguruan, «Volgako marinelen» abestalde bat lurrean eseri eta txalupan baleude bezala egiten zuten arrau-nean, orkestra zuzendaria buru zutela, zeinak alegiazko ontzi haren lemazain egin-egina irudi zuen!

Ohitura bitxia eta xarmanta! Jende horren guztiaren gaintetik txori saldo bat ihesi zihoan kioletatik. Nijni Novgorodeko azokan oso arrunta zen usadio bati jarraituz, bihotz onekoek karitatez emandako kopek batzuen truke, presozainek atea zabaltzen zieten presoiei, eta txoriak ehunka eta milaka abiatzen ziren hegan, txio-txioka pozaren pozez.

Itxura paregabe hori ageri zuen zabaldiak, eta horrela segituko zuen Nijni Novgorodeko

merkatu ospetsuak irauñ ohi duen sei astean. Gero, tarte burrunbatsu horren ondotik, iskanbila ikaragarri hura ez bat eta ez bi itzali egingo zen, goiko hiriak izaera ofiziala berreskuratuko zuen, beheko hiria eguneroko monotonian murgilduko zen, eta, Europako eta Asiaren erdialdeko bazter guztietatik hara bildutako jende sail horretatik ez zen geldituko merkataria bakar bat ere oraindik zerbait saltzeko asmotan, ezta erosle bakar bat ere oraindik zerbait erosteko asmotan.

Komeni da hemen gehitzea Frantziak eta Ingalaterrak, aldi hartan behintzat, ordezkari bana zutela Nijni Novgorodeko azokan, biak ala biak zibilizazio modernoaren produktu goren-gorenen artekoak: Harry Blount eta Alcide Jolivet jaunak.

Izan ere, bi kazetariak kontu interesgarri bila hurbildu ziren merkatura, haien irakurleen probetxuko, eta ahal bezain ongi ematen zituzten abiatu aurreko ordu libre eskasak, haien ere txartela hartua baitzuten *Kaukaso* ibai ontzirako.

Azokaren plazan hain zuzen ere egin zuten topo batak bestearekin, eta ozta-ozta harritu ziren horregatik, sen berak bultzatzen zituen-eta arrasto beraren atzetik; baina, oraingoan, ez

ziren hizketan hasi eta elkarri agur hotz eta motz bat egitera mugatu ziren.

Alcide Joliveti, baikorra izatez, den-dena ezin hobeki zegoela iruditzen zitzaion eta, patuak era oneko mahaia eta teilatua eskaini zizkionez gero, Nijni Novgorodeko hiria goraipatuz hainbat ohar bota zituen bere koadernoan.

Aitzitik, Harry Blountek alferrik bilatu zuen afaltzeko leku bat eta izarren pean egin behar izan zuen lo. Guztiz bestelako ikuspuntu batetik ikusten zituen gauzak, beraz, eta hiriaren kontrako artikulua izugarri bat idaztea zerabilen buruan, han ostalariek atea ixten baitzieten bidaztiei, eta bidaztiek «alderdi moralean zein fisikoan» larrutu ditzaten besterik ez zuten eskatzen.

Mikel Strogoffek, esku bat sakelan eta gereziondozko pipa luze bat beste eskuan, gizonik arduragabeena zela zirudien, inork ez zuela hark baino patxada handiagorik. Baina, halako uzkur-tu bat zuen bekainen gaineko giharretan, eta behatzaile zorrotz batek hari erreparatu eta berehala igarriko zion barrengo harra ito nahian zebilela.

Bi ordu zeramatzan aurrera eta atzera hiriko karrketan barrena, eta merkatu plazara itzul-

tzen zen beti ere. Taldeen artetik zebilen pausatutako Asiako eskualde hurbiletatik etortitako salerosle guztiak zinez larriturik zeudela konturatu zen. Eta nabarmena zen gero eta tratu gutxiago egiten zirela. Ez zen harritzekoa txerpolariek, saltinbankiek eta orekariak zarata itzela ateratzea beren txosnen aurrean saltoka eta dantzan, deus ez baitzuten arriskatzen koitadu horiek salerosietan, baina merkatariek zalantza egiten zuten Asiaren erdialdeko tratulariekin jardutean, nahasia zegoen-eta haien herrialdea tatariarren inbasioarengatik.

Beste zantzu bat bazegoen azpimarratzeko modukoa. Errusian uniforme militarra nonahi eta noiznahi ageri da. Soldaduak gustura nahasten dira jendearekin, eta, Nijni Novgoroden hain zuzen, azokak dirauen bitartean, poliziez gain kosako franko ibiltzen dira zelatan, lantza sorbaldan, hirurehun mila atzerritarren samalda hartan ordena zaintzen.

Hala ere, egun hartan, militarren arrastorik ez zegoen merkatu handian, ez kosakorik ez bestelakorik. Kuarteletan zeuden, inondik ere, bat-batean abian jartzeko prest.

Soldadurik ez inon, beraz; baina ez zen berdin gertatzen ofizialekin. Bezperatik, kanpo

laguntzaileak gobernadore nagusiaren jauregitik irten eta alde guztietara barreiatzen ziren lehiaz. Mugimendu hura ez zen ohikoa; gertaeren larritasuna baizik ezin izan hark iturburu. Mezulariak ugaritzen ari ziren probintziaren errepideetan, nahiz Vladimirrera, nahiz Ural mendietara bidean. Etengabe ari ziren mezuak trukatzeko telegrafoz Mosku eta San Petersburgekin. Nijni Novgorod ez zegoen urrun Siberiako mugatik, eta kokaleku horrek, jakina, zorakeriatan ez ibiltzeko eskatzen zuen. Ez zen ahaztekoa XIV. mendean tatariarrek bi aldiz hartu zutela hiria, eta arbaso haien ondorengoak zirela orain Feofar Khanen askonahiak kirgizen estepetan barrena bultzatzen zituen gerlariak.

Bazegoen beste goi pertsonaia bat gobernadore nagusia bezain lanpetua: polizi burua. Bere gizonak eta berak ordena zaintzeko ardura zuten, eta, horretaz gain, kexak entzun eta arau-tegiak betetzen ote ziren begiratu behar. Ezin inola ere atsedean hartu. Administrazioaren bulegoak gau eta egun zeuden zabalik, eta, hala ere, leporaino betetzen zituzten hiriko biztanleek zein Europa eta Asiako atzerritarrek.

Mikel Strogoff erdiko plazan zegoen, hiri osoan zehar zabaltzen ari zen zurrumurrua iritsi

zitzaionean. Mezulari bat polizi buruarengana joan eta gobernadore nagusiaren jauregira agertzeko agindu omen ziola berriki. Moskutik bidalitako garrantzi handiko mezu bat omen agindu horren arrazoia.

Polizi buruak, bada, gobernadorearen jauregira jo zuen, eta, segituan, askori eta askori susmoa sortu, eta neurri zorrotzen bat, zeharo ohiz kanpokoa, hartuko zutela hedatu zen hitzetik hortzera.

Mikel Strogoffek batzuek eta besteek ziotena entzuten zuen, hartaz etekina ateratzeko asmoz, beharrezkoa izanez gero.

—Merkatua ixtera doaz! —zioen batek garra-sika.

—Nijni Novgorodeko errejimentuak abiatzeko agindua jaso berri du! —erantzuten zion beste batek.

—Tatariarrak Tomskeko ateetan omen daude!

—Horra hor polizi burua! —oihu egin zuten ahots guztiek.

Zalaparta bizia atera zen tupustean, eta gero pixkaka-pixkaka apaltzen hasi zen, erabateko isiltasuna nagusitu arte. Gobernuak jakinarazpen latza egingo zuela espero zuten denek.

Polizi buruak gobernadore nagusiaren jauregia utzi berria zuen, bere agenteen atzetik. Kosako talde batek babestu eta kolpe bortitzez zabaltzen zioten bidea jendetza jasankorraren artetik.

Polizi burua plazaren erdira iritsi zen, eta den-denek ikusi zuten eskuan mezu bat zeramala.

Orduan, honako adierazpen hau irakurri zuen ahots goraz:

«НИЈНИ НОВГОРОДЕКО ГОБЕРНАДОРЕАЕН  
ДЕКРЕТУА:

1. Errusiako herritarrak ezin izango dira inola ere probintziatik atera.

2. Jatorri asiarreko atzerritar guztiek probintziatik atera behar dute hogeita lau ordu igaro baino lehen».

## VI

# NEBA-ARREBAK

Neurri haiek kaltegarriak ziren eta are galgarriak ere interes pribatuentzat, baina behar-beharrezkoak egoera larri hartan.

«Errusiako herritarrak ezin izango dira inola ere probintziatik atera». Ivan Ogareff probintzian egonez gero, Feofar Khanekin bat egitea galareziko zion neurri horrek, edo zailduko eta gogortuko behinik behin, eta hartara buruzagi tatariarrek gudalburu ikaragarria galduko zuen.

«Jatorri asiarrereko atzerritar guztiek probintziatik atera behar dute hogeita lau ordu igaro baino lehen». Neurri horrek urrutira bidaliko zituen behingoan Asiaren erdialdetik etorritako merkatariak, bai eta azoka zela-eta han bildurik zeuden buhame, ijito eta tsigane kastako guztiak ere, zeintzuetatik, honek gutxixeago hark gehixeago, den-denek kidetasuna baitzuten herri tatariar edo mongoliarrekin. Zenbat lagun..., beste hainbeste zelatari; eta, gauzak zeuden bezala, haiek guztiak kanporatu beharra zegoen.

Baina ez da zaila ulertzea nolako eragina izan zuten bi tximista-kolpe horiek, eta Nijni Novgoroden batez ere, hiri hori besteak baino askoz gehiago jo eta astindu baitzuen dekretuak.

Hortaz, bada, errusiarrek ezin zuten, oraingoz behintzat, probintzia utzi, nahiz eta tratuak egin behar izan Siberiako mugetatik hara. Lehenengo artikulua edukia zehatza zen oso. Salbuespenik ez zegoen. Interes pribatuak ezabatu behar ziren interes orokorraren aurrean.

Eta bigarren artikuluko kanporatze aginduak ere ez zuten kontrakorik onartzen. Gainerako atzeritarrei ez zihoakien; jatorri asiarrekoei bai-zik ez; baina horiek beren salgaiak berriz bildu eta etorri bidean joan behar zuten atzera ere. Eta, bestalde, saltinbanki saldo handi hura mila verstako bideari lotu beharrean zegoen, hurbile-neko mugara iritsi nahi bazuen. Miseria gorria zen haientzat epe motzean!

Hargatik, kexazko marmar bat sortu zen lehenbizi, aparteko neurri horien kontra, eta amorru bizizko garrasi bihurtu zen gero. Baina kosakoek eta poliziek laster isilarazi zuten.

Eta berehalaxe ekin zien bidai prestaketei jende, animalia eta gauzen pilaketa izugarri hark. Haien exodoa deitu genezakeena abian

zen. Saltokien aurreko oihalak tolestu ziren; komedianteen antzeztokiak desagertu ziren puska puska; dantzak eta kantuak gelditu; antzezpenak isildu; suak itzali; orekarien soka tenkatuak laxatu; ukuiluetatik gurdien endaitzetara itzuli ziren bizileku ibiltarrietatik tiratzen zuten zaldi zahar hanka-motelak. Poliziek eta soldaduek, zartailua edo makila eskuan, atzean gelditzen zirenak mugiarazten zituzten eta ez zuten batere kezkarik dendak lurrera erortzen baziren, baita buhame koitaduak oraindik barnean bazeuden ere. Bistan zenez, neurri horien eraginpean, Nijni Novgorodeko plaza zeharo hustuko zen ilundu baino lehen, eta basamortuaren isiltasunak beteko zuen merkatu handiaren iskanbilaren lekua.

Eta berriz ere aipatu beharra dago, neurrien gogortasuna areagotzen baitzen dekretuak kanpora botatzen zituen nomada guztien kasuan: debekatuta zeukaten baita Siberiako estepetara joatea ere. Kaspiar itsasoaren hegoaldera jo beharko zuten, Persiara, Turkiara, edo Turkestango ordokietara. Mugazain errusiarrek ez zieten pasatzen utziko ez Ural ibaiaz beste aldera, ez ibai horren jarraipena diren mendietan zehar.

Mila verstako bidea ibili behar, hortaz, lur librean zanpatu aurretik.

Polizi buruak dekretuaren irakurketa bukatu zuenean, Mikel Strogoffi burutapen bat sortu zitzaion.

«Bai bitxia nola datozen bat Asiako jendea botatzeko dekretua eta bertan arraza tsiganeko bi buhameek hitz egindakoa. "Eta Aitak berak bidaltzen gaitu joan nahi dugun lekura!" esan zian ijito zahar hark. Aita, ordea, enperadorea duk! Herriak ez zioke beste era batean deitzen! Buhame horiek nolatan asmatu ote zuten haien kontra horrelako neurria hartzekotan zeudela? Nola zekiten aldean aurretik? Eta nora joan nahi dute? Horra hor jende susmagarria; baina, nire iritziz, gobernadorearen dekretuak mesede gehiago egiten zioke kalte baino.»

Zuzen ari zen zalantzarik gabe, baina bat-batean beste burutapen bat etorri eta ziplo eten zion aurreko gogoeta, bestelako pentsamendu guztiak ere burutik alboratzen zizkiola. Ijitoez eta haien berba susmagarriez ahaztu zen erabat, jadanik ez zitzaion ardura dekretuaren edukia aurretik jakitea zer bitxia zen... Gazte livoniarren oroitza agertu zitzaion supituan.

«Ume gaixoa! —oihu egin zuen itsumustuan bezala—. Ezingo dik muga pasatu!»

Izan ere, neskatxa Rigakoa zen, Livoniakoa, eta, beraz, errusiarra. Ezin zuen, bada, inola ere Errusiako lurraldea utzi! Azken neurriak hartu aurretik eskuratu zioten baimena, eta, jakina, orain ez zuen baliorik. Siberiako bideak oro itxita zeuden harentzat erruki gabe, eta, Irkutsjera joateko zergatia zeinahi izanik ere, bidaiari segitzea debekatua zuen handik aurrera.

Kezka bizia sortu zion Mikel Strogoffi pentsamendu horrek. Bere buruari esana zion, apal-apal baino ez hasiera batean, beharbada izango zuela gaztetxo ausart horri honelako edo halako laguntza ematea, bere egiteko garrantzitsuan ezertan ere zabartu gabe, noski; eta irribarrea ezpainetaratu zitzaion, hori pentsatzearekin batera. Ongi zekien zein arriskuei eman beharko zien aurpegi, baina bera gizon kementsu eta sasoikoa zen, eta ezagun-ezagunak zituen inguru haietako bide guztiak; arrisku horiek askozaz ere ikaragarriagoak gertatuko ziren neska gazte batentzat. Irkutsjera zihoanez gero, bide bera ibili behar zuten biek, eta bata zein bestea behartuta zeuden inbaditzaile osteen artetik pasatzen ahalegintzera. Eta, gainera, neskatxak

bitarteko arruntak besterik ez zituen edukiko eskura segur aski, aparteko gorabeherarik gabe ko bidaietan ohi legez. Nola iritsiko zen, bada, helmugara egoera horretan, arriskua hemen arriskua han, eta, gainera, aldean nahiko diru eraman gabe?

«Ederki, bada! —ziharduen bere artean—. Permeko bidea hartu behar duenez gero, ia ezinezkoa duk harekin topo ez egitea. Orduan izango diat aukera oharkabean zaintzeko, eta, bate-re ez naik atzeratuko, gainera, Irkutsjera lehenbailehen iristeko ni bezain presati dagoela eza-gun zaiok eta.»

Baina pentsamendu batetik beste batzuk sortzen ohi dira. Mesede egitea, laguntza ematea baino ez zuen izan gogoan Mikel Strogoffek ordu arte. Beste ideia bat piztu berri zitzaion burmuintan, ordea; eta kontua beste ikuspegi batetik ageri zitzaion erabat.

«Egia! —esan zuen berekiko—, haren beharra izan zezakeat nik, hark nirea baino gehiago. Haren presentzia ez zaidak agian alferrekoa izango, eta susmoak deuseztatzeko balio zezakek, norbaitek errezelo txarra hartzen badit. Gizon bat estepan barrena bakarrik; tsarraren mandataria dela aise kontura daitekek norbait.

Baina, aitzitik, neska gazte horrek laguntzen banau, nekez pentsatuko dik inork ni ez naizela Nikolas Korpanoff, nire *podaroshnan* azaldu bezala. Harekin egin behar diat bidaia! Aurkitu behar diat kosta ahala kosta! Ez duk posible atzo arratsetik hona zalgurdi bat lortu eta Nijni Novgorodetik ateratzea. Goazen bila, eta Jainkoak gida nazala!»

Mikel Strogoffek Nijni Novgorodeko plaza handia utzi zuen, non dekretuaren neurriak betearazten ari ziren eta istilua unerik beroenean zegoen. Polizien eta kosakoen kolpeak eta oihuak, kanpora bidalitako atzerritarren kexak eta aieneak, sekulako iskanbila zen hangoa. Neska gaztea ez zen hor izango.

Goizeko bederatziak ziren. Eguerdira arte ez zen *steam-boata* abiatuko. Bi ordu luze zituen Mikel Strogoffek bidelagun eramane nahi zuena aurkitzeko.

Volga ibaia zeharkatu zuen berriz ere eta beste ibai ertzeko auzoetan ibili zen, hango jende apurren artean bazterrak miatzen. Goiko eta beheko hiriak arakatu zituen, zoko guzti-guztiak begiratu. Elizetan sartu zen, horietan babesten baitira negarrez ari direnak, sufritzen

ari direnak. Gazte livoniarraren arrastorik ez inon ere.

«Hemen zagok baina —esaten zion behin eta berriz bere buruari—; ezin izan duk oraindik atera Nijni Novgorodetik. Bila segi dezagun!»

Alde batetik bestera eman zituen Mikel Strogoffek bi ordu. Ez zen inon gelditzen, ez zuen nekerik nabaritzen, halako sentimendu premiazko bati jarraitzen zion, pentsatzeko betarik ezin harturik. Dena alferrik, ordea.

Burura etorri zitzaion orduan beharbada neskatxak ez zuela izan dekretuaren berri; baina ezin zitekeen; horrelako tximista-kolpeak ezin lehertu mundu guztiak entzun gabe. Interesatuta egongo zen, nola ez?, Siberiatik zetozen albisterik ñimiñoenak ere ezagutzeko; nolatan ez jakin, bada, gobernadoreak hartutako neurriak zertan ziren eta zer modu zuzenean eragiten zioten?

Nolanahi ere, jakinaren ganean ez bazegoen, ontziratze kaira hurbilduko zen eguerdia baino lehen, eta, han, polizia errukigaberen batek ontzira igotzea galaraziko zion indarrez! Hori gertatu aurretik ikusi behar zuen Mikel Strogoffek neska gaixoa nahitaez, eta nahigabe samin hori saihestu.

Baina alfer-alferrik aritu zen haren bila, eta aurkitzeko itxaropena galdu zuen azkenean.

Hamaikak ziren ordurako. Mikel Strogoffek, beste egoera batean ahalegin hutsa izan arren, *podaroshna* polizi buruaren bulegoetan aurkeztea pentsatu zuen. Dekretua ez zegokion hari, debekuari aurre hartu baitzioten *podaroshna* horren bitartez, baina ziurtatu nahi zuen deusek ere ez ziola hiritik irtetea eragotziko.

Volgaren beste aldera itzuli zen berriro ere, eta polizi etxea zegoen auzora jo zuen.

Han, makina bat jende zegoen metaturik, zeren atzerritarrek, probintziatik irteteko agindua jaso bazuten ere, hainbat izapide bete behar zituzten abiatu baino lehen. Arduraz jokatzeko zuten agintariek horrela eginda; bestela, tatariarren alde hala edo hola zeuden errusiarrek egokiera izango zuten mozorro jantzia jarri eta muga igarotzeko; eta horixe zen hain zuzen dekretuaren bidez galarazi nahi zutena. Kanpora botatzen zintuzten, baina joan aurretik joateko baimena eskuratu behar zenuen.

Beraz, polizi etxeko patio eta bulegoetan gainezka zeuden bai merkatari asiarrak, Persia, Turkia, India, Turkestan eta Txinatik etorriak, bai txerpolariak, buhameak, ijitoak eta tsiganeak.

Denak ziren estu eta presa. Izapideak ahalik lasterrena egin eta ibilgailu bila hasi nahi zuen kanporatu mordo hark. Beranduegi aurkitzera, nekez utziko zuten hiria epearen barruan, eta gobernadorearen soldaduen basakeriaren mende geratuko ziren.

Mikel Strogoffek, haren ukondo indartsuei esker, patioa gurutzatu zuen. Baina bulegoetan sartu eta langileen leihatilaraino iristea zeregin gaitzagoa zen askozaz ere. Alabaina, inspektore baten belarrian hitz erditxo bat esan eta haren sakelan zenbait errublo isurtzea aski izan zen bidea zabaldu ziezaioten.

Inspektoreak itxarongelaraino lagundu zuen, eta maila goragoko enplegatu bati hots egitera joan zen.

Mikel Strogoff berehala izango zen, bada, poliziarekin kito eta nahi zuen lekura joateko aske.

Esperoan zegoela, ingurura begiratu, eta zer ikusi du?

Han, banku batean botea, eseria baino gehiago, eta etsipen beltzak hartua, neska gazte bat. Ozta-ozta ageri zitzaion begitartea, baina haren soslaia horman marrazturik zegoen.

Mikel Strogoff ez zen tronpatu. Gazte livoniarra zen harako neska hura.

Gobernadorearen dekretuaren berririk ez, eta baimena bisatzera joan zen polizi etxera!... Baina bisa ukatu egin zioten! Irkutsjera joateko baimena zeukan, inondik ere, baina dekretua zehatza zen, aurrez emandako baimen guztiak baliogabetzen zituen, eta Siberiako bideak itxita zeuden harentzat.

Mikel Strogoff, bihotza alaiturik azkenik aurkitu zuelako, gaztearengana inguratu zen.

Neskatxak so egin zion lipar batean eta aurpegiera argitu zitzaion distira iheskor batez, treneko bidelaguna ikusitakoan. Altxatu egin zen, barrenak aginduta, eta, ontzia hondoraturik itsasoan galduta dabilena bezalaxe, laguntza eske zihoakion...

Memento hartan, inspektoreak Mikel Strogoffen sorbalda ukitu zuen.

—Polizi burua zain daukazu —esan zion.

—Ongi da! —erantzun Mikel Strogoffek.

Eta poliziaren atzean joan zen talde trinkoenartetik, bezperaz geroztik ahalegin bizian bilatzen aritu zenari tutik ere esan gabe, lasaitzeko keinurik ere egin gabe, bai hura bai bere burua estutasunetan jartzea saihestu nahian.

Gazte livoniarra, laguntzaren bat eman ziezaiokeen bakarra bazihoala ikusi, eta bere burua bankuan bota zuen berriz.

Ez ziren hiru minutu igaro, Mikel Strogoff berriz ere aretora sartu zenean, polizia baten ondoan. Bere *podaroshna* zeukan eskuan, Sibiariako bideak zabaltzen zizkion dokumentu zorionekoa.

Neska livoniarrengana hurbildu, eta eskua eskainiz deitu egin zuen:

—Arreba...

Hark ulertu segituan! Altxatu egin zen, barne etorriren batek duda-mudan ibiltzea bat-batean eragotzi izan balio bezala.

—Arreba —errepikatu zuen Mikel Strogoffek—, baimena dinagu geure bidaian aurrera jarraitzeko. Bahator?

—Banoak, neba nirea —erantzun zion gazte-  
txoak, Mikel Strogoffi eskutik oratzen ziola.

Eta polizi etxetik atera ziren biak eskuz esku.

## VII

# VOLGA IBAIAN BEHERA

Eguerdia baino lehentxoago, *steam-boat*aren kanpaiak jendetza handia ekarri zuen Volgako ontziralekura, hantxe elkartu baitziren bai ontzian joateko zirenak, bai ontzian gustura joango ziratekeenak. *Kaukasoren* galdarek nahiko presioa zuten. Tximiniatik gora ke arin bat baizik ez zen ateratzen, eta lurrun zuri bat zerien ihes hodiaren muturrari eta balbulen estalkiari.

Poliziak, noski, ez zion inori *Kaukasora* igotzen uzten ongi aztertu gabe, eta bihozgabe agertzen zen hiria uzteko betebeharrak konplizten ez zituzten bidaztiekin.

Kosako ugari zebiltzan kaian alde batetik bestera, poliziei beren esku latza luzatzeko prest, baina ez zen premiarik izan, inortxo ere ez baitzen ausartu haiei gogor erantzutera.

Arauzko tenorean, azken kanpai dilina jo, amarrak askatu, *steam-boat*aren gurpil indartsuek bere pala artikulatuez ura astintzen hasi, eta *Kaukaso* lurrun ontzia bizkor-bizkor lerratu

zen Nijni Novgorod osatzen duten bi hirien arte-  
tik.

Mikel Strogoffek eta gazte livoniarrek txarte-  
la erosi, eta batere zailtasunik gabe ontziratuak  
ziren *Kaukason*. *Podaroshnak*, gorago esan beza-  
la, baimena ematen zion Nikolas Korpanoff mer-  
katariari Siberiako bidaiari bidelagunak eramate-  
ko. Neba-arrebak ziren, hortaz, polizia inperiala-  
ren bermearekin bidaiatzen.

Txopan eseririk zeuden biak, gobernadorea-  
ren dekretuak errotik nahasitako hiri hark nola  
ihes egiten zuen begira.

Mikel Strogoffek deus ez zion esan neska  
gazteari, deus ez zion galdetu. Mintzatzeko  
gogoia etorri arte itxarongo zuen. Neskak hiria  
bistatik galdu nahi zuen lehenbailehen, handik  
atera ezinik egongo baitzen preso, zorioneko  
zaintzaile hark esku hartu izan ez balu usteka-  
bean. Isilik zihoan, baina haren begiradak eske-  
rrak ematen zizkion hitzen ordez.

Volga ibaia, garai bateko Rha izenekoa, Euro-  
pa osoko ibairik handiena duzu, iturburutik itsa-  
sora lau mila verstetik gora egiten dituen  
(4.300 kilometro). Goiko aldean haren ura arre  
samarra da eta osasunerako ez guztiz ona, baina  
Nijni Novgorodetik aitzina aldatu egiten da, Erru-

sia erdi aldeko probintzietatik datorren Oka ibaiaren ur lasterrarekin nahasten denean.

Errusiako erreten eta ibaien multzoa zuhaitz eskerga batekin alderatu izan da, eta ez arrazoi gabe. Zuhaitz eskerga bat, adarrak inperioaren bazter guztietara hedaturik dauzkana. Haren enborra Volgak osatzen du, eta haren erroak Kaspiar itsasoaren ertzean zabaltzen diren hirurogeita hamar bokaleak dira. Tver probintzietatik aurrera nabigatzeko modukoa da, Rjef herritik behera, zehatzago esanda; hots, haren ibilbide gehien-gehiena ibil daiteke ontziz.

Perm eta Nijni Novgorod hirien arteko garraio konpainiaren ontziek agudo samar egiten dituzte azken hiri horretatik Kazanera indo dauden hirurehun eta berrogeita hamar versta (373 kilometro). Egia da *steam-boat* horiek uretan behera baino ez dutela egin behar Volgan daudenean, eta, hortaz, lurrin ontzien lastertasunari uraren indarra gehitu behar zaiola, hau da, bi milia gutxi gorabehera. Baina, Kazan pasa eta berehala, Kama ibaiaren elkargunera iristen direlarik, ibai nagusia utzi eta ibaiadarra hartu behar dute, Permeraino iritsiko badira; eta, horretarako, uretan gora joan behar oraingo honetan. Kontuak aterata, eta makinak potentzia handikoak izanik

ere, hamasei versta orduko baino gehiago ez zuen egingo *Kaukaso* ontziak. Kazanen ordubete geldirik, demagun; eta guztira hirurogei-hirurogeita bi ordu inguru beharko zituen Nijni Novgorodetik Permera joateko.

*Steam-boat* hau, bestalde, egoki baino egoikiago prestatua zen, eta bidaztiak hiru klasetan banandurik zihoazen, beren mailaren edo beren eskuartearen arabera. Mikel Strogoffek lehenengo klaseko bi gela erreserbatu zituen, haren lagun gazteak gela osoa izan zezan, han sartu eta bakarrik egon ahal izateko, gogoak agintzen zionean.

Maila guztietako bidaztiak betetzen zuten *Kaukaso* ontzia leporaino. Asiako zenbait tratularik egoki iritzi zioten Nijni Novgorod ahalik arinena uzteari, eta *steam-boat*aren lehenengo klasean egiten zuten bidaia. Haien artean, armeniarak zeuden, jantzi luzeak soinean eta mitra antzekoak buru estalgarri; juduak, beren txano konikoengatik ezagunak; txinatar aberatsak, beren usadioaren legera jantziak, soineko luze-luze bat lehenbizi, urdina, bioleta edo beltza, aurretik nahiz atzetik irekia, eta, haren gainean, mahuka luzeko beste soineko bat, popeen janzkera oroitarazten zuena. Turkiarrak ere ageri

ziren, durbante nazionala kaskoan; eta indiarrak, burua txano karratuez estalirik eta soka soil bat gerrian; haietako batzuk, shikarpuri izenez deitukoek bereziki, erdialdeko Asiaren merkataritza osoa zeukaten beren eskuetan. Eta, azkenik, tatariarrak, oinak txirikorda alaiez apainduriko botekin babestuak eta bularraldeak brodatuez josiak. Salerosle horiek denek ontziaren sotoan eta zubian metatuak zituzten beren ekipaje ugari-ugariak. Garesti ordaindua izango zuten karga handi haien garraioa, pertsonako hogeitabi liba baino gehiago ezin baitzen eraman arauei jarraituz gero.

Branka aldean bidazti talde handiagoak zuden, eta ez atzerritarrek osaturik bakarrik, errusiarrak ere baziren, dekretuaren debekuak ez baitzuen galarazten probintzi barruko beste hirietara itzultzea.

Baziren han *mujikak*, txanoa edo kapela buruan eta alkandora koadro-txikia txamarra larriaren azpian. Volgako nekazariak ere baziren, galtza urdina botetan sartua, soinean kotoi arrosazko atorra, soka batez gerrian estuturik, eta buruan kapela zapala edo feltrozko boneta. Emakume batzuek, kotoizko soineko loredunez jantzirik, kolore biziko mantala zeramaten eta

marrazki gorriz betetako buru-zapia. Hirugarren klaseko bidaztiak ziren batez ere, kezkarik bate-re ez zutenak, zorionez, itzulerako bidaia luzea izango zela-eta. Gainezka zegoen ontzi zubiaren alde hau, eta txopako bidaztiak ez ziren nahasten itxura eta kolore anitzeko talde horien artean. Gorpilen danborretan zegoen batzuen eta besteen arteko muga.

Bien bitartean, lurrun ontzia ziztu bizian lerratzen zen Volgaren ibai hegien artetik, palek jo eta jo ura astintzen zutela. Kontrako noranzkoan, hamaika ontzi igarotzen ziren uretan gora atoiontzien laguntzaz, mota guztietako salgaiak Nijni Novgorodera eramanez. Almadiak ere pasatzen ziren, Atlantikoko sargazo ilara bukaezinak bezain luzeak; bai eta txanelak ere, gainez kargaturik, hondoratzeko zorian, uretan kareleraino sartuak. Alferrik zihoazen, ordea, hasi orduko desegin baitzen zakarki merkatu entzutetsua.

Ontziaren lorratzak zipriztinez betetzen zituen Volgaren ibai bazterrak, eta ahate saldoak altxatzen ziren handik iheska, karranka gorgarriak eginez. Urrunxeago, haltzez, sahatsez eta lertxunez hesituriko lautada idorretan, behi gorri-ilun batzuk barreiatzen ziren hara-hona, artile nabarreko arkume sailak zebiltzan bazkan

batetik bestera, eta txerri eta txerrikume zuri-beltzak ageri ziren talde jorietan bildurik. Soro zenbait, arto beltzez eta zekalez ereinda, erdizka landutako muinoen atzeko planoraino luzatzen ziren, ezer nabarmentzekorik eskaini gabe, azken batean. Paisaia beti-berdin horietan, marrazkilari baten arkatzak, ikuspegi berezi baten bila, ez zuen aurkituko zer marraztu.

Bi ordu joanak ziren ontzia abiatu zenetik, eta neska livoniarra, isilik ordu arte, hizketan hasi zitzaion Mikel Strogoffi.

—Irkutskera hoa, neba nirea?

—Bai, arreba —erantzun zion gizon gazteak—. Biok bide bera egiten ari gaitun. Eta, beraz, ni pasatzen naizen lekutik pasatuko haiz hi ere.

—Bihar jakingo duk zergatik utzi ditudan Baltikoko itsasertzak Ural mendietatik hara joateko.

—Ez dinat ezer galdetzen, arreba.

—Den-dena jakingo duk —erantzun zion neskatxak, irribarre triste bat ezpainenetan—. Arreba batek ez zioke ezer ere ezkutatu behar bere nebari. Baina, gaur, ezin nezakek!... Nekeak eta etsipenak lur jota utzi naitek!

—Gelara joan nahi dun atsedean hartzera? —galdetu zion Mikel Strogoffek.

—Bai... bai... eta bihar...

—Hator, bada...

Zalantza egin zuen esaera bukatzean, bere bidelagunaren izenarekin azkendu nahi izan balu bezala, oraindik ez zekien eta.

—Nadia —esan zion neskak, eskua eskaintzen ziola.

—Hator, Nadia; eta balia hadi lotsik gabe hire neba Nikolas Korpanoffez.

Eta txopako aretoaren gainaldera lagundu zuen, han zegoen-eta neska gaztearentzat erreserbatu zuen gela.

Mikel Strogoff zubira itzuli zen eta hango bidazti taldeen artean nahasi, haien solasa entzun nahian. Jakin beharra zeukan ea zerbait gertatua zen haren ibilbidea aldarazteko modukoa. Belarria erne zebilen, baina elkarrizketetan parte hartu gaberik. Halabeharrez norbaitek galderra egin eta erantzun beharrean gertatuz gero, Nikolas Korpanoff zela esango zion, muga aldera bueltan zihoan merkatari bat. Ez zuen nahi inor konturatzerik Siberiara joateko baimen berezia zuela.

Jakina, *steam-boatean* zihoazen atzerritarrek egun hartako gertaerak zituzten hizpide bakarra; dekretuaz eta haren ondorioez baizik ez ziren mintzo. Jende errukarri horiek, Asiaren erdialde-

ko bidaia neketsuaren ondotik ozta-ozta indarberriturik, behartuta zeuden atzera bidaiari ekin eta sorterrira itzultzeko; eta ez bazituzten amorrua eta etsipena ozen adierazten, ausardi ezagatik baizik ez zen. Beldurrak, errespetuarekin bat, isilarazten zizkien ahoak. Bazitekeen polizi inspektoreak *Kaukason* isilgordeka ontziratu izana bidaztiak zelatatzeko, eta hobe zen mingainari eustea, aukeran nahiago zutelako kanporatuak izan gotorleku batean preso egon baino. Horrela bada, talde haiek isilik zirauten, edo, bestela, hain errezelo handiz egiten zuten berba, ezen argibide baliagarririk nekez atera baitzitekeen haien esanetatik.

Baina, nahiz eta Mikel Strogoffek deus ikasi ez alde horretatik, nahiz eta aho guztiak itxi ezezagun hura hurbiltzen ikusi ahala, ahots baten burrunba atseginak jo zion belarria berehala. Garrasi batean ari zen norbait hizketan, axola gutxi ziola nork entzun ziezaiokeen.

Ahots alaiko gizonak errusieraz ziharduen, baina kanpoko azentuarekin, eta haren solaskideak —ez horren nabarmena— errusieraz erantzuten zion, kasu honetan ere ama hizkuntza beste bat izan arren.

—Nolatan —zioen lehenengoak—, nolatan zu ontzi honetan, nire lankide maitea? Moskuko jai inperialean osoki ikusi zintudan, Nijni Novgoroden erdizka baino ez, eta orain hemen?

—Hementxe bertan —erantzun zuen bigarrenek zakar.

—Bada, argi eta garbi esateko, ez nuen espero honen agudo eta honen hurbil ibiliko zinela nire atzetik!

—Ez noa zure atzetik, jauna; zure aurretik baizik!

—Aurretik! aurretik! Ongi da! Eman dezagun biak elkarrekin goazela, pausoa batera eman ez, soldaduak desfilean bezala, eta, oraingoz behintzat, bat etor gaitezen, nahi baduzu, eta batak ez dezala bestea aurreratu.

—Aurreratuko zaitut, ordea.

—Hori ikusiko dugu, gerraren jokalekuan topo egiten dugunean; baina ordu arte, zer arraio! izan gaitezen bidelagun. Izango dugu aurrerago kontrarioak izateko aukera eta beta!

—Kontrarioak ez, etsaiak.

—Etsaiak, bada! Gustukoa dut oso, lankide maitea, hitzak hautatzeko erabiltzen duzun zehaztasun hori. Zurekin, behintzat, batek bada-ki dantzan zein hankarekin hasi!

—Zer arazo dago?

—Ez dago batere. Horregatik, nire aldetik, baimena eskatuko nizuke bakoitzaren egoera zein den zehazteko.

—Zehaztu ezazu, bada?

—Permera zoaz... ni bezala?

—Zu bezala.

—Eta, segur aski, Permetik Jekaterinburgera joko duzu, horixe da-eta biderik onena eta seguruena Ural mendiak zeharkatzeko?

—Segur aski.

—Muga igaro eta Siberian izango gara, inbasioaren erdi-erdian.

—Hantxe izango gara!

—Bada, orduan, eta orduan besterik ez, esango diogu elkarri: «Bakoitza norberarentzat, eta Jainkoa...».

—Jainkoa niretzat!

—Jainkoa zuretzat, oso-osorik zuretzat! Oso ongi! Baina, orain neutraltasuneko zortzi egun ditugu aurrean, eta, albisteak zero goietatik jausiko ez zaizkigunez, lagunak izan gaitezen, berriz ere kontrarioak izateko tenorea iritsi arte.

—Kontrarioak ez, etsaiak.

—Bai, egia! Etsaiak! Baina, ordu arte, joka dezagun elkar hartuta eta ez gaitezela saia bata

bestea hondatzen! Agintzen dizut, bestalde, niretzat gordeko dudala ikusten dudan guztia...

—Eta nik niretzat, entzuten dudan guztia.

—Ados gaude?

—Ados.

—Bostekoa?

—Hona.

Eta lehenengo solaskidearen eskuak, zabal-zabal eginik, indarrez astindu zituen bigarren solaskideak zeken eta hotz luzatu zizkion bi hatz soilak.

—Aizu, eta beste kontu bat —esan zuen lehenengoak—. Gaur goizeko hamarrak eta hamazazpian telegrafiatu ahal izan diot nire lehengusinari dekretuaren testu osoa.

—Eta nik hamarrak eta hamahiruan bidali dut Daily Telegraphera.

—Bejondeizula, Blount jauna.

—Bikain, Jolivet jauna.

—Etorriko da nire txanda!

—Zaila izango da!

—Ahalegina egingo dugu, haatik!

Hori esan eta berriemaile frantsesak lagun zahar bat bezala agurtu zuen berriemaile ingelesta, eta honek, berriz, burua makurtuz itzuli zion agurra zurruntasun erabat britainiarrez.

Bi albiste-ehiztari horiei ez zegokien gobernadorearen dekretua, ez errusiarrak ez Asia aldeko atzeritarrak ez zirenez gero. Besterik gabe abiatu ziren Nijni Novgorodetik, beraz; eta batera biak, sen berak bultzatzen zituen-eta aurrera. Ez zen, bada, harritzekoa biek ibai ontzia aukeratzea eta bide berberari jarraitzea Siberiako estepetaraino joateko. Bidelagunak, adiskide edo etsai; zortzi egun zituzten aurrean «ehiza libre da» esan aurretik. Eta orduan, abilena gailen! Alcide Jolivetek jo zuen erronka lehenbizi, eta, jela bezain hotza izanik ere, Harry Blountek onartu egin zuen.

Dena dela, arrats hartan, afaritan, frantzesak, beti aterea eta apur bat berritsua, eta ingelesak, beti serio, beti lepatente, mahai berean egiten zuten topa, bene-benetako Cliquot bat edaten zutela, zortzi errubloan botila, inguruetako urkien izerdi freskotik oparo aterea.

Alcide Joliveten eta Harry Blounten hizketaldia entzun eta hauxe esan zuen Mikel Strogoffek bere artean:

«Hona hemen bi kuxkuxero eta ahobero galantak. Topo egingo diat haiekin berriz ere neure bidean segur aski. Hobe diat urrun samar edukitzea».

Gazte livoniarra ez zen joan afaritara. Lo zegoen bere gelan, eta Mikel Strogoffek ez zuen esnatu nahi izan. Eguna ilundu zuen, eta nesak-txa ez zen atzera ere agertu *Kaukasoren* zubian.

Ilunabar luzeak eguratsa freskatu egin zuen, eta irrikaz bilatu zuten bidaztiek hozkirri hori, eguneko bero itogarriaren ondotik. Orduak aurrera zihoazen, baina gehien-gehienek pentsatu ere ez aretoetara edo geletara itzultzea. Bankuetan etzanda, *steam-boat*en lastertasunak altxaturiko haize gozoa arnasten zuten atsegina-ren atseginez. Arratsetik goizaldera zerua doi-doia iluntzen zuen urte sasoi hartan eta latitude haietan, eta lemazainak aise gidatzen zuen ontzia Volgan gora edo behera zebiltzan txalupa, gabarra eta txanel ugarien artetik.

Hala eta guztiz, gau hartan ilberri zen eta ia zeharo ilundu zuen hamaiketatik ordu biak arte. Lotan zeuden ordurako kasik zubiko bidazti guz-tiak, eta isiltasuna palen soinuak baino ez zuen urratzen, ura jo eta jo, tarte erregularrez.

Halako egonezin batek esna iraunarazten zuen Mikel Strogoff. Harantz eta honantz zebi-len, baina *steam-boat*aren txopa utzi gabe. Behin, hala ere, makina gelatik harago joan zen.

Eta bigarren eta hirugarren klaseko bidaztien aldean aurkitu zen orduan.

Han, bankuetan ez ezik, fardelen eta bilgoen gainean ere zeuden lotan, eta batzuk baita zubiaren zoruko oholetan ere. Guardiako mari-nelak bakarrik zeuden zutik brankako gazteluan. Bi argi, berdea bata eta gorria bestea, istriborreko eta ababorreko faroletatik sortu eta izpi zeharrek jaurtitzen zituzten ontziaren alboetara.

Arreta pixka bat ipini behar zen lokartuak ez zanpatzeko, nahierara etzanda zeuden-eta han-hemenka. Gehienak *mujikak* ziren, lur gogorrear lo egiten ohituak, eta zubiko oholekin aski zutenak, antza. Nolanahi ere, arrunt ongi ez zuten hartuko aza-kirten batek ostikoka iratzartzea, inondik ere.

Mikel Strogoff kontuz zebilen, bada, inorekin tupust ez egiteko. Ontziaren beste muturreraino joatea pentsatu zuen ea ibilaldi luzexeagoa egin-da loari eusten zion.

Zubiaren aurrealdera iritsi eta brankako gazteluaren eskaileran gora zihoala, norbait hizketan sumatu zuen handik hurbil. Gelditu egin zen. Ahots haiek xal eta burusiez bilduriko bidazti talde batetik zetoze la irudi zuen, nahiz ezin argi ikusi itzaletan. Baina aldi behin sugar gorrix-

kek ontziaren tximini gaina betetzen zuten kearen kiribilen artetik, eta orduan txinpartak talde hartan zehar igarotzen zirela ematen zuen, argi errainu batek milaka xafla txiki dirdaitsu piztu izan balitu bezala.

Mikel Strogoff aurrera joan zen jaramonik egin gabe, baina bat-batean hitz batzuk entzun zituen besteak baino argiago. Aurreko gauean merkatuan belarria jo zion hizkuntza bitxi hartaz ari ziren solasean.

Senaren aginduz, entzuteari lotzea etorri zitzaion gogora. Brankako gazteluaren itzalpean gorderik, ezin inor konturatu han zegoela. Baina berak ere ez zuen ikusten nor ari zen hizketan. Belarria zorroztu zuen, beraz, besterik ezin-eta.

Esan zituzten lehenengo hitzek ez zuten batere garrantzirik, harentzat behinik behin, baina balio izan zioten Nijni Novgoroden entzunik zituen bi ahotsak ezagutzeko. Ustekabean aditu zien gizon eta emakume haiei elkarrizketa puska bat bezpera gauean, eta orain aukera zeukan berriz ere zertaz ari ziren jakiteko. Are eta erneago jarri zen, handik aurrera. Ez zen ezinezkoa, bestalde, buhame haiek *Kaukason* izatea, haien kastako guztiak kanporatuak izan zirenez gero.

Eta ez zen damutu belarria jarri izanaz, tatararren hizkuntzan eginiko galdera eta erantzun hauetxek entzun baitzituen nahiko argi:

—Moskutik mandatari bat irten omen duk Irkutskera joateko!

—Hala omen, Sangarre, baina mandatari hori beranduegi iritsiko dun, edo ez dun inoiz iritsiko!

Mikel Strogoffek dardara egin zuen nahi gabe, zuzen-zuzenean jotzen zuen erantzun hori aditzean. Saiatu zen antzematen ea berak uste zituenak ote ziren horrela mintzatu ziren gizon-emakumeak, baina itzala lodiegia zen une hartan, eta ezin izan zuen lortu.

Handik pixka batera, Mikel Strogoff *steamboat*aren txopan zegoen osterara ere, haren joan-etorriari inork erreparatu gabe, eta, burua eskuetan, eseri egin zen besteetatik bereiz. Lotan zegoela pentsa zitekeen.

Baina ez zegoen lotan eta lokartzeko asmorik ere ez zuen. Gogoetan ari zen, halako errezelo batek kezkaturik.

«Nork zakik, bada, irtena naizela, eta nork dik, bada, jakiteko grina?»

## VIII

# KAMA IBAIAN GORA

Biharamunean, uztailak 18, goizeko seiak eta berrogeian, *Kaukaso* ontzia Kazaneko portura iritsi zen. Ordubete eman behar zuen han geldirik, erregaia berritzen zuten bitartean.

Kazan hiria handik zazpi verstara dago (7 kilometro eta erdira), Volga eta Kazanka ibaien elkargunean kokaturik. Hiriburu garrantzizkoa da; bertan bizi dira bai probintziako gobernadorea bai eliza ortodoxo grekoaren barruti hartako artzapezpikua; eta unibertsitatea ere badago. *Gouvernie* horretako bizilagunak enda eta leinu askotakoak dira; badira han txeremiarrak, mordviarrak, txuvashiarrak, volsalkoak, vigulixak eta tatariarrak, ezaugarri asiar garbiagokoak azken horiek, besteek baino hobeki eutsi baitiote izaera horri.

Hiria portutik urruntxo egonda ere, jendetza handia bildu zen kaira, zer berri zen jakin gurarik. Probintzia honetako gobernadoreak ere dekretu bat plazaratu zuen, Nijni Novgorodekoaren berdin-berdina. Bazebiltzan han tatariarrak,

mahuka laburreko kafetanez jantzirik eta buruan Pierrotenak bezalako ertz zabal-zabaleko txano punta-zorrotzak zeramatzatela. Beste batzuek, hupelanda luzeaz bilduta eta tximel txikerra kas-koan, judu poloniarrek ematen zituzten. Emakume taldeak ere ageri ziren, berriketan, bularraldea urre koloreko xaflez apaindua eta burua igi-tai-ilargiaren itxurako diadema altxatu batez koroatua.

Hara bildutakoen artean nahasirik, poliziak nabari ziren, lantzadun kosako batzuen laguntzaz ordena zaintzen eta jendetza leku egitera behartzen, bidaztiak igaro zitezten. Asiar batzuek ontzira nahi zuten, dekretuaren kanporatze agin-duak bultzaturik, eta *mujik* familia zenbaitek lehorrera, Kazan hirian geratzen baitziren. Bidea zabaltzen zieten, baina goitik behera miatzen zituzten lehenago.

Mikel Strogoff ontziralekura begira zegoen, ezeri kontu handirik egin gabe. *Steam-boat* bat ertzeratzean edozein kaitan sortu ohi diren atze-ra-aurrerak ziren hangoak.

Mikel Strogoffen burutik pasa ere ez zen egin portura jaistea. Neska livoniarra ez zen zubian agertu oraindik, eta ez zuen ontzian bakarrik utzi nahi.

Bi berriemaileak, aldiz, eguna argitu orduko jaiki ziren, ehiztari prestuei dagokien moduan. Ontzia utzi eta ibai bazterrean zebiltzan jendearen artean, nor bere aldetik. Mikel Strogoffek Harry Blount begiztatu zuen alde batetik, koardernoa eskuan, harako hura edo honako hau arkatzez marrazten edo oharren bat idazten, eta Alcide Jolivet beste alde batetik, hitz eta pitz denekin, erabat ziur bere oroimenari ezin zitzaio-laezer ahaztu.

Errusiaren ekialdeko mugan zurrumurrua zebilen hara eta hona matxinada eta inbasioa etengabe hedatzen ari zirela bazterrik bazter. Siberiaren eta inperioaren arteko komunikazioak arras zailak ziren ordurako. Horixe entzuten zuen Mikel Strogoffek, *Kaukasoren* zubitik mugitu gabe, ontziratu berrien ezpainetatik.

Hitz horiek, kezka handia eman ez ezik, bihotzean sentitzen zuen ezin eutsizko irrika biziagotu ere egin zioten. Lehenbailehen egon behar zuen Ural mendiez beste aldean; bere begiez ikusi behar zuen egoeraren larritasuna zenbaterainokoa zen, edozein gertakizuni neurri eman ahal izateko. Bertako norbaiti berri zehatzagoak galdetzekotan zegoela, gogoia beste zerbaitera ihesi joan zitzaion kolpetik.

*Kaukaso* ontzia uzten ari ziren bidaztien artean nor ikusi Mikel Strogoffek, eta bezperan oraindik Nijni Novgorodeko merkatuan zegoen buhame taldea. Hantxe, *steam-boat*aren zubian, buhame zaharra zegoen, espioia deitu zion emakumea alboan zuela. Bi haiekin batera, eta haiek gidaturik inondik ere, hogeit hamar neska gazte ari ziren lehorreratzen. Dantzariak eta kantariak ziren, hamabost urtekoa gazteena eta hogeikoa zaharrena, eta burusi zarpailez bildurik zihoa-zen, haien gonak azpitik azaltzen zirela, xafla txiki dirdaitsuz josiak.

Oihal haiek diz-diz egiten zuten lehen eguzki printzen argitan, eta gaueko ikuskizun harrigarria etorri zitzaion gogora. Gonetako xafla txiki haiek aritzen ziren txinpartaka iluntasunean, *steam-boat*aren tximiniak sugarren bat botatzen zuen bakoitzean.

«Bistakoa duk —zioen berekiko—; tsigane koadrila honek brankako gazteluaren pean eman dik gaua, egun osoa zubiaren pean eman ondoren. Zer nahi dute, bada, buhame horiek, beren burua ahal den gutxiena nabarmendu? Ezkutuka ibiltzea, ostera, ez zatorrek bat inola ere arraza horren ohiturarekin!»

Mikel Strogoffek zalantzarik ez zuen izan orduan. Gona dirdaitsuko talde ilun hartatik jaulki ziren gaueko hitz kezkarriak, eta buhame zaharra eta Sangarre izen mongoliarreko emakumea izan ziren elkarrizketa hartako solaskideak.

Mikel Strogoff, mugimendu oharkabe batez, *steam-boat*aren ate aldera hurbildu zen, buhame taldea ontzitik behin betiko jaisteko zorian zelarik.

Han zegoen buhame zaharra, apal-apal, bere kastakoek berezkoa duten lotsagabekeriaren antzik ere agertu gabe. Begiradak bereganatu beharrean uxatu nahi zituela esan zitekeen. Lurbira osoko eguzkiek erretako kapelu higatu bat zeraman aurre-aurrera botea aurpegi zimurraren gainean. Soingaineko zahar batek estaltzen zion bizkar konkortua, gorputz guztia estu-estu biltzen zuela, bero egin arren. Ez zen aise esatekoa zer garaiera zuen edo nolako gorpuzkera, janzkera zarpatsu haren azpian.

Agurearen aldamenean, Sangarre zeritzana ageri zen, harro eta eder. Hogeita hamar urteko emakumezkoa zen, garaia, lerdena; azala beltzarana zuen, begiak bikainak eta ilea urre kolorekoa.

Dantzari gazte haietako batzuk politik baino politagoak ziren, baina haien arrazako ezaugarri garbiak galdu gabe, ordea. Emakume tsiganeak halako xarma baten jabe dira oro har, eta ingelesak baino xelebregokoak izan nahi duten jaun errusiar handi horietatik batek baino gehiagok dudarik ez du egin horrelako buhame eder bat emaztetzat hartzeko.

Haietako bat kantatzen ari zen ahopeka. Doinu bitxia zen, neurri arrotzekoa, eta honela itzul zitekeen lehenengo bertsoaren hasiera:

*Lepo beltzaranean diz-diz koral harriak,  
urrezko orratzak mototsean!*

*Ondasun bila noa  
hemendik...*

Neskatxa irriberak kantari segitu zuen, baina Mikel Strogoffek ez zion jadanik jaramonik egingen.

Izan ere, Sangarre izenekoa begira eta begira zeukala iruditu zitzaion. Emakume hark Mikel Strogoffen hazpegiak oroimenean inoiz ez ahazteko eran finkatu nahi zituen, nonbait.

Gero, instant batzuen ondotik, Sangarre ontzitik lehorrera jaitsi eta kaian bere zain zeuden agure eta neskekin elkartu zen.

«Emakume lotsagaldua halakoa! Konturatu ote da Nijni Novgoroden espioitzat hartu zuena eta ni bat-bera garela? Buhame sorgin madarikatu horiek katuaren begiak zauzkatek! Gauean ere ikusten ditek, eta horrako hori jakinaren gainean egon daitekek...»

Sangarreren eta buhame taldearen atzetik abiatzekotan izan zen Mikel Strogoff, baina eutsi egin zion gogoari.

«Ez —pentsatu zuen—, pauso bakar bat ere ez, ongi hausnartu gabe! Zori iragarle hori eta haren koadrila atxilotzeko eskatuz gero, agerian geldituko duk nor naizen egiatan. Lehorreratu dituk, bestalde, eta, haiek muga zeharkatu baino lehen, Uraletik urrun izango nauk. Bazakiat Kazandik Ixinerara doan bidea har dezaketela, baina bitartekorik ez dik eskaintzen batere, eta tarantas bat, Siberiako zaldi margulek tiraturik, beti joango duk buhame gurdi baten aurretik! Tira, Korpanoff adiskidea, lasaitu hadi!»

Gainera, une hartan, buhame zaharra eta Sangarre aienatuak ziren jendearen artean.

Kazan hiria «Asiako atea» deitu izan dute zuzentasunez; Siberiako eta Bukharako merkataritza bide guztien erdigunetzat jo izan dute; eta bertatik Ural mendiez bestaldera bi errepede

irtetea da, hain zuzen, adierazpen horien zergatia. Baina Mikel Strogoffek aukera egina zuen zentzu handiz. Perm, Jekaterinburg eta Tiumen hirietan barrena igarotzen den errepidea hautatu zuen. Posta zerbitzuaren bide nagusia da, ongi zaindutako zaldiez hornitua, estatuak baitu horren ardura, eta lxindik aurrera Irkutskeraino luzatzen dena.

Egia da badela beste errepide bat Kazandik Ixintera joateko. Hartaz pentsatu berri zuen Mikel Strogoffek arestian. Bide hura ez da desbideratzen Permeraino, eta Jelabuga, Menzelinsk, Birsk, Zlatust herrietan zehar pasatzen da Europatik irten aurretik, eta Txeliabinsk, Txadrinsk eta Kurgan herriak zeharkatzen, Asian dagoeneko. Baina, beharbada bestea baino laburragoa izanik ere, abantaila hori biziki urritzen dute posta etxerik ezak, batere zaindu gabeko zoladurak eta herri bakan batzuk besterik ez egoteak. Mikel Strogoffek arrazoi handiz eutsi zion egina zuen aukerari, eta parada ederra zuen buhameak baino lehenago Ixintera iristeko, baldin eta haiek beste bidea hartu bazuten, irudi zuen bezala.

Ordubete geroago, bidazti berriei zein zaharrei deika hasi ziren, *Kaukasoren* brankako kan-

paia joz. Goizeko zazpiak. Erregaiaren zamaketa berriki bukatua. Pinu egurra erre eta erre ari ziren galdarak eta haien paretek dar-dar egiten zuten lurrunaren presiopean. *Steam-boata* gertu zegoen ateratzeko.

Bidazti guztiek beren tokiak hartu zituzten Permera joateko asmotan.

Memento hartan, Mikel Strogoff ohartu zen bi kazetarietatik bat ez zela itzuli *steam-boatera*. Harry Blount baizik ez zegoen ontzian.

Kaiangeratu behar ote zuen Alcide Jolivetek?

Baina, amarrak askatzen ari ziren unean bertan, Alcide Jolivet agertu zen lasterka bizian. Ontziratzeko zubixka kendu dute, *steam-boata* kai ertzetik aldentzen hasia da, baina bost axola Alcide Joliveti huskeria horiek; akrobata bat bezain arin jauzi egin eta *Kaukasoren* zubian erori da, bere lankidearen besoetan ia-ia.

—Zu gabe joango ginela uste nuen —esan zion kazetari ingelesak, erdi isekaz erdi benetan.

—Bo! —erantzun zion Alcide Jolivetek—. Mol-datuko nintzen zuek harrapatzeko. Ontzi bat pleitatuko nuen nire lehengusinarenean kontura, edo postan joango nintzen hogeit hamar kopek ordainduz verstako eta zaldiko. Zer nahi duzu? Ontzira-lekutik oso urruti zegoen telegrafo etxea!

—Telegrafo etxera joan zara? —galdetu zion Harry Blountek, ezpainak bat-batean estuturik.

—Joan naiz, bai! —erantzun zion Alcide Jolivetek, ahoan bere irribarrerik atsegina zuela.

—Eta bazebilen oraindik Kolivaneraino?

—Horixe ez dakit, baina ziurtatzen dizut Kazandik Parisa ederki dabilela!

—Mezu bat bidali diozu... zeure lehengusinari?...

—Gogo handiz.

—Zerbaiten berri izan duzu, beraz?

—Hara, nire aita txiki hori, errusiarrek esaten duten bezala, mutil jatorra naiz ni, eta zuri ezkutatzeorik ez dut eduki nahi. Tatariarrak, Feofar Khan buru dutela, Semipalatinsk igaro eta Irtish ibaian behera doaz. On egin diezazula albisteak!

Nolatan? Horren berri larria, eta Harry Blountek jakin ez? Eta haren kontrarioak, aldiz, ez zuen berehala Parisa bidali, segur aski Kazango biztanleren bati berria entzun bezain laster? Gibelean gelditu zen egunkari ingelesa! Harry Blount, eskuak atzera gurutzaturik, *steam-boat*aren txopara joan zen esertzera, gehiago hitzik egin gabe.

Goizeko hamarrak aldean, gazte livoniarra gela utzi eta zubira igo zen.

Mikel Strogoffek harengana inguratu eta eskua luzatu zion.

—Begira ezan, arreba —esan zion, ontziaren brankaraino eramán ondoren.

Izan ere, alderdi hark merezi zuen begirada-txo bat ematea.

*Kaukaso* ontzia Volgak eta Kamak bat egiten duten lekura iristen ari zen. Hantxe utziko zuen ibai handia, laurehun versta luzean handik behe-ra etorri eta gero, eta ibaiadarrean gora abiatu-ko zen laurehun eta hirurogei verstako ibilbidea egiteko (490 kilometro).

Bazter hartan, ibai baten ur garden-gardena eta bestearen ur ilunxeagoa nahasi, eta batera isurtzen hasten ziren handik hara. Kamak ezker aldeko hegitik garbitzen zuen Volga ibaia bere ur lohigabeaz, Okak eskuin aldeko hegitik egin bezala, Nijni Novgorod zeharkatzean.

Kama ibaia zabal-zabal hedatzen zen orduan, eta xarmangarriak ziren haren ertz oihantsuak. Bela zuri batzuk ageri ziren ur ederren alaigarri, eta eguzkiaren printzek milaka distira sortzen zituzten ur azalean. Lertxunez, haltzez eta haritz bakan batzuez estalitako mendixkek zeru ertzaren lerro patxadazkoa marrazten zuten, nahiz zenbait puntutan lerro hori ezin bereizi atzeko

zeru urdinetik, eguerdiko eguzki itsugarriaren pean.

Baina ez zirudien izadiaren edertasun haiek pentsamendua bestera eramán ziezaioketenik gazte livoniarrari, ezta lipar batean ere. Gauza bakar bat ikusten zuen hark: lortu nahi zuen helburua; eta Kama ibaia helburu horretarantz hurbiltzen laguntzeko bidea besterik ez zen. Ikara-garri distiratu zitzaizkion begiak ekialdera so egitean, zeru ertz trinko hura zulatu nahi izan balu bezala.

Nadiak lagunaren eskuan utzi zuen berea, eta berehalaxe harengana jiraturik:

—Zer tarte dago Moskutik hona? —galdetu zion.

—Bederatziehun versta.

—Bederatziehun, zazpi milako bide batean! —esan zuen neskatxak xuxurla batean.

Bazkaltzeko tenorea zen, eta bidaztiak deitu zituzten, kanpaiari danga batzuk joz. Nadia Mikel Strogoffen atzetik joan zen jantokira. Lehenbizi, eta beste janarietatik bereiz, zizka-mizkak zerbitzatu zituzten jangura bizkortzeko, iparraldeko herrialdeetako usadioari jarraituz, era berean egiten baita Errusian nola Suedian edo Norvegian; baina neskatxak ukitu ere ez zituen egin,

ez zuen jan kabiarrrik, ezxerra mehetan ebakita-ko sardinzarrrik, eta ez zuen edan zekale anisatuzko pattarrrik. Eta gutxi jan zuen geroko janarietatik ere, beharbada oso eskuarte eskaseko neska gaixo baten moduan. Mikel Strogoffek bere laguntxoak baino gehiago ez zuela jan behar pentsatu zuen, eta bazkari urria egin zuten biek: *kulbat* pixka bat —gorringoz, arrozaz eta haragi xehatuz egindako pastela—, kabiarez betetako aza gorri pitin bat, eta tea besterik ez edateko.

Otordua, hortaz, ez zen izan ez luzea ez garestia ere, eta, mahaira eseri eta hogei minutu baino lehen, Mikel Strogoff eta Nadia *Kaukasoren* zubira igotzen ari ziren elkarrekin.

Txopan jarri ziren eserita, eta, itzulingururik gabe, Nadia hizketan hasi zen, ahotsa apalduz beste inork ez entzuteko eran.

—Neba —esan zion—, erbesteratu baten alaba nauk. Nadia Fedor diat izena. Gure ama Riga hirian hil duk, orain hilabetea, eta Irkutske-ra noak aitarekin elkartu eta haren erbesteak partekatzen.

—Irkutske-ra noan ni ere —erantzun zion Mikel Strogoffek—, eta Nadia Fedor bizirik eta

osorik utziko dinat bere aitaren besoetan, zerua lagun.

—Mila esker, neba nirea! —esan zion Nadiak.

Siberiara joateko *podaroshna* berezi bat zuela gehitu zuen orduan Mikel Strogoffek, eta, agintari errusiarren aldetik, beraz, ezerk ere ezingo zuela haien ibilera oztopatu.

Nadiak ez zuen gehiago eskatzen. Gauza bakar bat ikusten zuen Jainkoak ekarritako gizon on xalo harengan: aitarenganaino iristeko bidea.

—Nik ere banian Irkutskera joateko baimena, baina Nijni Novgorodeko gobernadorearen dekretuak baliogabetu zian, eta hi gabe, neba nirea, ezingo nian utzi hiri malapartatu hori eta hantxe hilko ninduan, dudarik gabe!

—Eta bakarrik, Nadia —esan zion Mikel Strogoffek—, bakar-bakarrik ausartuko hintzen Siberiako estepak zeharkatzen!

—Nire betebeharra zuan, neba.

—Baina ez hekien lurralde osoa matxinatua eta inbaditua dagoela eta igarotzea ia ezinezkoa dela?

—Tatariarren inbasioaz ezer ez zuan entzuten Rigatik irten nintzenean. Moskuraino ez nian ezer ere jakin!

—Eta, hala eta guztiz ere, aurrera jo huen?

—Nire betebeharra zuan.

Hitz horrek laburbiltzen zuen neska gazte kementsu haren izaera. Haren betebeharra zen, eta horrelakoetan Nadia behin ere ez zebilen duda-mudatan.

Bere aita hartu zuen orduan hizpide, Vasili Fedor, Rigako sendagile estimatua. Ongi eta onuraz ziharduen medikuntzan eta pozik bizi zen emazte eta alabarekin. Baina atzerriko elkarte sekretu bateko kidea zela azaleratu bezain laster, Irkutskera erbesteratzeko agindua jaso zuen, eta agindu hori ematera joan zitzaizkion jendarmeez mugaz bestaldera eramane zuten berandu gabe.

Vasili Fedorrek besarkada bana eman emazteari eta alabari eta negarrez abiatu zen, maite zituen bi emakumeak bakarrik utzirik, bat gaitzak estu-estu hartuta eta bestea babes gabe geratzeko arriskuan.

Bi urte hartan ekialdeko Siberiako hiriburuan bizi zen, non medikuntzan jardutea bazeukan, baina onurarik gabe. Alabaina, pozik biziko zen segur aski, erbesteratu batek ahal zuen neurrian, emaztea eta alaba bere ondoan edukiz gero. Baina Fedor andrea, guztiz makal, ez zen gauza Riga uzteko. Senarra joan eta handik

hogei hilabetera hil zen alabaren besoetan. Nadia bakarrik geratu zen eta kasik eskuarterik gabe. Orduan baimena eskatu zion Errusiako gobernuari bere aitarengana joaten uzteko, eta eman egin zioten trabarik gabe. Bazihoala idatzi zion eskutitz batean. Ozta-ozta zeukan bidaia luze horretarako, eta, hala ere, zalantzarik gabe abiatu zen. Berak ahal zuena egiten zuen!... Gainerakoa Jainkoaren esku zegoen.

Bitartean, *Kaukaso* ontzia ibaian gora zihoan. Gau iluna zen ordurako, eta hozkirri zoragarri batek gozatzen zuen eguneko beroa. Milaka txinpart ihesi zihoazen *steam-boat*aren tximiniatik, eta, ontziaren bularrak ebakitako uren marmarra entzuten zen otsoen uhuriekkin nahasirik, kantuan ari baitziren Kama ibaiaren eskuineko itzalletan gordeta.

# IX

## TARANTASEZ GAU ETA EGUN

Biharamunean, uztailak 19, Permeko ontzira-  
lekura iritsi zen *Kaukaso*, bidaiaren azken geldi-  
lekura, alegia, ontzia ez baitzihoan harago Kama  
ibaian gora.

Perm probintzia handienetarikoa da inperio  
errusiarra osatzen dutenen artetik, Siberiako  
lurralde zati bat ere barne hartzen duela, Ural  
mendietatik hara. Marmol harrobiak, gatzagak,  
platino eta urre erauztokiak, ikatz meatzeak  
ustiatzen dira bertan handizka. Perm hiria noiz-  
bait lehen mailako bihurtuko da beharbada,  
kokaleku paregabeen egonik, baina bitartean  
hiri hitsa da guztiz, arras zikina, lohiz bete-betea,  
eta batere baliabiderik eskaintzen ez duena.  
Errusiatik Siberiara doazenei axola gutxi die ero-  
sotasun falta horrek, barne aldetik etorrita  
aldean baitakarte behar duten guztia; baina  
Asiaren erdialdeko eskualdeetatik datozenek,  
hain bidai luzea eta neketsua burutu ondoren,  
ez lukete inola ere gaizki ikusiko Asiako muga

pasa eta aurkitzen duten lehen hiri europarra hobeki hornitua egotea.

Permen saltzen dira berriro bidaztiek Siberia-ko lautadetan barrena erabilitako ibilgailuak, bide luzean gutxi-gehiago matxuratuak. Eta Europatik Asiara doazenek hantxe erosten dituzte zalgurdiak udan eta lerak neguan, estepen erdian zenbait hilabetez ibiltzeari ekin aurretik.

Mikel Strogoffek bidaiaren nondik-norakoak erabakita zeuzkan, eta egitasmo hura betetzea besterik ez zen kontua.

Badago posta kotxe zerbitzu bat Ural mendien lerroa arin samar zeharkatzen duena, baina, gauzak zeuden bezala egonda, zerbitzu hori ez zebilen oso txukun. Ongi antolatuta egon arren, Mikel Strogoffek ez zuen hartuko posta kotxea. Agudo joan nahi zuen, inoren mende gabe, eta, zentzu handiz, zalgurdia erosi nahia-go zuen eta postaz posta lasterka joan, posta gidarien ahalegina biziagotuz aparteko «*na vodku*» batzuen bitartez.

Damurik, jatorri asiarreko atzerritarren kontra hartutako neurriak zirela eta, bidazti franko atera zen Permetik eta, beraz, garraio bide askorik ez zen han. Besteen hondarrarekin etsi behar, bada. Zaldiekin, berriz, arazorik ez. Mikel

Strogoffek bere *podaroshna* erakuts zezakeen arriskurik gabe, Siberiara iritsi artean, eta posta etxeko nagusiek lehentasunez lotuko zizkioten zaldiak bere gurdiari. Europa aldeko Errusiatik kanpo, ordea, errubloen ahalmenaz baizik ezin baliatu.

Baina zein ibilgailu motari lotu zaldi horiek? Telega bati ala tarantas bati?

Telega izenekoa gurdi hutsa da, lau gurpilekoa, estali gabea eta zurezkoa oso-osorik. Gurpilek, ardatzak, ziriak, gurtetxea, endaitzak, dendak inguruetako zuhaitzekin eginak dira, eta soka lodiez besterik ez dira elkartzen hura osatzen duten peza guztiak. Nekez aurkitzen da gurdi zakarragorik eta erosotasun gutxiagokorik, baina edonork konpontzeko modukoa da, bidean istripua izanez gero. Bada pinurik Errusiako mugan, eta gurdi ardatzak berez sortzen dira basoan. Telegaren bidez eramaten da ohiz kanpoko posta, *perekladnoi* deitutakoa, zeinarentzat bide txarrik ez dagoen. Noizean behin, esan beharra dago, pezen arteko lokarriak hausten dira, eta, atzeko aldea basatzetan trabatua gelditzen den bitartean, aurrekoa hurrengo posta etxera iristen da bi gurpilekin baino ez. Baina

horrenbestez bidaia ongi joan dela esango dizute.

Mikel Strogoff telega bat hartu beharrean egongo zen, tarantas bat aurkitzeko zoria izan ez balu.

Ibilgailu hau ere ez da gurdigintzaren azken-azken aurrerapena. Balaztarik ez dauka, telegaren irudira; burdina gutxi eta zur asko; baina haren lau gurpilek, ardatzaren muturretik zortzibederatzi oinetara jarriak, halako oreka bat bermatzen dute zuloz eta gorabeheraz betetako bide horietan. Lohi-babes batek bidaztiak gordetzen ditu bideko lokatzetatik, eta larruzko estalki mardul batek, jaitsi eta erabat itxi daitekeenak, bidaiatzea samurtu eta bigundu egiten du uda parteko bero sapetan eta ekaitz gaiztoetan. Bestalde, telega bezain sendoa da eta ez zailagoa konpontzen, eta, gainera, arrisku txikiagoa du atzeko alde guztia bide nagusietan galdurik lagatzeko.

Esan bezala, Mikel Strogoffek tarantas bat aurkitu zuen, baina zokorik zoko galdezka ibili ondoren. Segur aski beste tarantasik ez zen izango Perm hiri osoan. Hala izanik ere, tratua merkeago egiten saiatu zen eginahalean, itxura

egite aldera, Nikolas Korpanoff baitzen bera, Irkutskeko merkataria xume bat.

Nadia bere bidelagunarekin ibili zen hara eta hona zalgurdi bila. Helburu bera ez izan arren, ahalik agudoena iritsi nahi zuten biek, eta, beraz, lehenbailehen abiatzeko amorrutik zeuden. Biei gogo berak bihotz ematen ziela esan zitekeen.

—Arreba —esan zuen Mikel Strogoffek—, zalgurdi erosoagoa nahi ninan horetzat, baina ez dinat besterik aurkitu.

—Niri esaten didak hori, aitaren bila oinez ere joateko prest zegoen honi!

—Ez dinat hire adorea zalantzan jartzen, Nadia, baina emakume bat aurrera jarraitu ezinik geratuko zutan nekearen nekez.

—Nik aurrera jarraituko diat, nekaturik edo nekatu gabe —erantzun zion neskatxak—. Nire ezpagnetatik intziri bakar bat entzuten baduk, utz nazak bidean eta segi aurrera bakarrik!

Handik ordu erdi batera, *podaroshna* erakutsi eta postako hiru zaldi lotu zizkioten tarantasean. Abere haiek, dena ile luze, hanka handiko hartzak ematen zituzten. Txikiak ziren, baina sutsuak, arraza siberiarreko guztiak legez.

Posta gidari bat, *iemstxik* bat, hango hizkuntzaz esanda, arduratu zen zaldiak lotzeaz. Hone-la egin zuen: hiruretan handiena bi endaitz luzeen artean atxikirik jarri zuen, endaitz mutur batetik bestera txilinez, zintzarriz eta mortxilez jositako uztai antzeko baten azpian —*duga* ize-nekoa—; eta beste biak tarantasaren pikabuztanetan estekaturik besterik gabe. Gainerakoan, ez uhalik ez antzekorik, eta gida bezala, sokatxo bat aski.

Mikel Strogoffek ez zeraman ekipajerik aldean, ez eta gazte livoniarrek ere. Batek bidaia agudo baino agudoago egin behar zuen, besteak eskuarte eskas umilik baizik ez zeukan. Egoera horiek galarazten zien fardel multzo handi batez beren burua oztopatzea. Eta eskerrak, zeren tarantasak, edo bidaztiak eraman zitzakeen ekipajeak utzita, edo ekipajeak eraman zitzakeen bidaztiak utzita. Bi lagun eramateko egina zegoen, *iemstxika* kontatu gabe, zeinak, oreka mirarizko bat zela medio, bere eserleku meharrean irauten zuen erortzeke.

*Iemstxika*, bestalde, posta bakoitzean aldatzen da. Tarantasa lehenbiziko aldian gidatu behar zuena siberiarra zen, bere zaldiak bezala, eta haiek bezain iletua, edo gehiago. Txima

luzeak zituen, zuzen moztuta kopetan, hegal altxatuko kapelua buruan, eta gerriko gorria eta longaina soinean. Longainaren papar hegalak botoi batzuen ganean gurutzatzen ziren, eta ikur inperiala ageri zen haietan grabaturik.

*Iemstxikak* tarantaseko bidaztiei begiratu zien jakin-min handiz, zaldiak lotzera hurbildu zenean. Ekipajerik ez! —eta non arraio jarriko zituen?—. Aberats usainik ez, hortaz. Eta oso imintzio esanguratsua egin zuen.

—Beleak! —oihu egin zuen, axola izpirik ez ziola entzuten zioten ala ez—. Beleak! Verstako sei kopek gehienez ere!

—Ez! Arranoak! —erantzun zion Mikel Strogoffek, *iemstxiken* hizkera ederki ulertzen baitzuen— Arranoak, aditzen duk? Bederatzi kopek verstako, eta eskupekoa gainera.

Zartailuak airean emandako zirt alaia izan zen erantzuna. Errusiako posta gidariek «belea» deitzen diote bidazti zeken edo txiroari, mendi aldeko postetan bizpahiru kopek verstako baino gehiago ordaintzen ez duenari. «Arranoa», berriz, prezio altuengatik atzera egin ez eta eskupeko oparoak ematen dituenari. Halatan, beleak ezin du amestu ere egin arranoa bezain bizkor eta arin hegaldatzea.

Nadia eta Mikel Strogoff berehala eseri ziren tarantasean. Jateko batzuk zeramatzaten enbarazu egiten ez zuen kutxa txiki batean. Bidean berandutuz gero, nahikoak izango ziren posta etxeetara iristeko. Horietan ezereen faltarik ez zuten izango, ongi hornituak eta erosoak baitira, estatuaren zaintzapean. Larruzko estalkia jaitsi, eguzki kiskalgarritik gordetzeko, eta, eguerdian, tarantasak, hiru zaldiak tiraka, Perm hiria utzi zuen hautsezko hodei baten erdian.

Harrigarria zen nola gobernatzaren zuten *iemstxikak* gurdia, bai behintzat errusiar edo siberiar ez ziren bidaztientzat, ez baita batere ohikoa era horretan jokatzea. Izan ere, endaitzen arteko zaldia, beste biak baino handixeagoa eta gurdia-  
ren ibilera zuzentzeko ardura zuena, trosta luze-luzean zihoan beti, zelaian nahiz maldan, eta ez zuen behin ere galtzen neurria. Beste biek lauoinka ibiltzen baino ez zekiten, nonbait, eta hala zihoazen modu ikusgarrian bezain barregarrian. *lemstxikak* jo ez zituen egiten. Gehienez ere, zuzpertz egiten zituen zartailua airean zirtako ozenez astindurik. Baina zenbat hitz ezti aberentzat, otzan eta zuzen aritzen zirenean, alde batera utzirik santu izenez deitzen zirenean! Gida bezala erabiltzen zuten sokatxoak ez zuten deus-

tako balio erdi zoraturiko zaldi haiengan, baina, eztaarritik sortzen zion ahots zakar harekin «*na pravo*» edo «*na levo*» esan —eskuinetara edo ezkerretara, alegia—, eta brida handiaz edo txiki-az baino zintzoago zebiltzan.

Eta nolako hitz goxoak, gauzak ongi egiten zituztenean!

—Ea, usapal nireak! —esaten zien *iemstxi-kak*—. Aurrera, enara maiteak! Goazen hegan, nire uxu txikiak! Aupa, ezkerretarako nire lehengusu hori! Eutsi goiari, eskuinaldeko nire aita txiki hori!

Baina abiadura moteltzen bazuten, nolako irainak, nolako hitz garratzak! Eta bazirudien abere sentibera haiek ulertu egiten zutela!

—Mugi ezak ipurdia, barakuilu madarikatu hori! Deabruak hartuko ahal hau, bare nazkagarria! Bizirik larrutuko haut, dortoka zikina, eta infernua ustelduko haiz!

Gidatzeko modu bitxia, indar gehiago eskatzen baitzion zintzurari besoari baino, baina, hala ere, tarantasa ziztu bizian zihoan, bideari hamabi-hamalau versta orduko janez.

Mikel Strogoff jarria zegoen horrelako ibilgai-luetara eta horrelako moduetara. Jauziek eta astinaldiek ezin zuten gogaitu. Bazekien gurdi

zaldi errusiarrek ez dutela ezer saihesten bidean, ez harriak, ez gurpil arrasto sakonak, ez basatzak, ez zuhaitz eroriak, ez zuloak; traba guztien gainetik igarotzen dira arrapaladan. Ohi-tua zegoen horretara. Neska gazteak, berriz, arriskua zuen tarantasaren inarrosaldiekin zauritua gertatzeko, baina kexarik ez zen irteten haren ahotik.

Bidaiaren lehenengo uneetan, Nadiak, horrela airean eramanez, ez zuen hitzik atera. Gero, iristea, iristea, beste pentsamendurik buruan ez, eta galdezka hasi zitzaion Mikel Strogoffi:

—Hirurehun versta kontatu ditiat Permetik Jekaterinburgera. Oker egin dut kontua, neba?

—Ez dun oker egin, Nadia —erantzun zion—, eta Jekaterinburgera iristen garenean Ural mendien oinean izango gaitun, baina beste aldean.

—Eta zenbat denbora behar da haraino?

—Berrogei ordu, gau eta egun ibiliko gaitun eta. Gau eta egun esan dinat, Nadia —gehitu zuen—, ezin naun-eta istant bakar batean ere gelditu, eta atsedunik gabe joan beharra dinat Irkutskeraino.

—Ez haut nik atzeratuko, neba, ezta ordubetez ere; eta gau eta egun ibiliko gaituk.

—Bada, orduan, Nadia, tatariarren inbasioak bidean oztoporik ez diezagula jar, eta, hogeit egun baino lehen, hantxe izango gaitun!

—Egin duk inoiz bidaia hau?

—Behin baino gehiagotan.

—Neguan agudoago eta segurtasun handia-  
goz joango gintuan, ezta?

—Bai, agudoago batez ere, baina gorriak pasa beharko hituzke hotzarengatik zein elurra-  
rengatik.

—Ez zagok ardurarik! Negua errusiarren adis-  
kidea duk.

—Bai, Nadia, baina harria baino gogorragoa izan behar adiskidetasun horri eusteko! Maiz ikusi dinat Siberiako estepetan tenperatura zero azpitik berrogei gradu erortzen! Bihotza izozten sentitu dinat, nire jantziak elur-orein larruzkoak izan arren, eta hanka-besoak bihurritzen, eta oinak hormatzen, artilezko hiru pare galtzerdiz babesturik ere! Ikusi dinat nola lerako zaldiak estaltzen zituen izotzezko oskol batek, arnasa sudurzuloetan itsatsita! Nola pattarra harri bihurtzen zen bere ontzian, ezta labanez ere koskarik ezin eginik!... Baina han zihoanan nire lera tximistaren pare! Batere trabarik ez ikusmi-  
ra guztian, lautada zuri berdinduan! Batere erre-

ka edo ibairik ez, eta aurrera, zeharkatzeko ibirik bilatu gabe! Batere aintzirarik ez, eta segi, ontzi baten bila hasi gabe! Izotz gogorra, bide zabala, lur irmoa nonahi! Baina, nolako neke eta oina-zeak, Nadia! Itzuli ez zirenek, elur azpian hilotz gelditu zirenek azalduko litizketen, aukera izate-ra, baina ez horrelakorik, ordea!

—Hi, hala ere, itzuli egin haiz beti, neba — jaulki zuen Nadiak.

—Bai, baina ni siberiarra naun, eta horrelako ibilaldi latzetara ohitu nindunan txikitan, aitarekin ehizan nindoalarik. Baina, Nadia, esan didananean neguak ez hinduela geldiaraziko, bakarrik abiatuko hintzela, Siberiako eguraldiaren laztasun eta gordinkeriar aurpegi emateko prest hengoela, elurretan galdua ikusten hindudala iruditu zaidan, bidean eroria hintzela sekula ez altxatzeko!

—Zenbat aldiz zeharkatu duk estepa neguan? —galdetu zuen gazte livoniarrek.

—Hirutan, Nadia, Omskera joateko beti ere.

—Eta zertara joaten hintzen Omskera?

—Ama ikustera, zain neukanan eta!

—Eta ni Irkutskera noak, aita zain zaukaat eta! Amaren azken hitzak ematera noak! Esan

diat horrenbestez, neba, ezerk ere ez zidala abiatzea galaraziko!

—Ausarta haiz gero, Nadia —esan zion Mikel Strogoffek—, eta Jainkoak berak gidatuko hindaen!

Egun hartan, arin eraman zuten tarantasa postatik postara txandakatzen ziren *iemstxikek*. Mendietako arranoen izen ohoretsua ez zuten zikintzen bide nagusiko «arrano» haiek. Zaldi bakoitzarengatik ordaindutako prezio handiak, eskuzabal emandako eskupekoek, gomendio gisa balio zieten bidaztiei ezin hobeki. Posta etxeko nagusiek harriduraz ikusiko zuten behar bada nola, dekretua argitaratu ondoren, gizon gazte batek eta haren arrebak, errusiarrak izatez, Siberiako bidea zabal-zabalik zuten, beste guztiei debekatzen zitzaien bitartean; baina, paperak behar bezala edukita, pasatzeko eskubidea zuten. Horrela bada, bizkor-bizkor geratzen ziren tarantasaren atzean bideko zutoin distantzi erakusleak.

Beste alde batetik, Mikel Strogoff eta Nadia ez ziren bakarrak Permetik Jekaterinburgera bidean. Lehenbiziko posta etxeetatik tsarraren mandatariak jakin zuen beste zalgurdi bat aurre-

tik zihoakiela; baina denentzat baziren zaldiak, eta ez zen gehiago kezkatu orduan.

Tarantasak atsedenaldi gutxi egin zituen egun hartan, jatorduetan baino ez baitzen gelditu. Posta etxeetan ohea eta mantenua aurkitzen dira. Gainera, posta etxerik ezean, nekazari erru-siarrek ez diote ongi-etorri txarrik egingo kanpotarrari. Hurbildu ahala, bidaztiak hango herrieta-ko elizaren teilatu berdea eta horma zuriak ikusiko ditu, eta, bertan denean, edozein etxetako atea jo dezake. Ireki egingo diote. *Mujika* etorri-ko da, irribarrea ahoan, eta bostekoa luzatuko dio kanpotarrari. Ogia eta gatza eskainiko diote. Samovarra sutan jarriko dute, eta bere etxean bezain egoki sentituko da. Are gehiago, familia-ko batzuk etxez aldatuko dira, etorri berriaren-tzat lekurik ez badago. Kanpotarra iristen denean, denen ahaidea da. «Jainkoak bidalita-koa» da.

Arratsean, halako sen batek bultzaturik, aurreko zalgurdiak zenbat ordutako aldea kentzen zien galdetu zion Mikel Strogoffek posta etxeko nagusiari.

—Bi ordu, aita txiki hori —erantzun zion nagusiak.

—Berlina bat da?

—Ez, telega bat.

—Zenbat bidazti?

—Bi.

—Agudo doaz?

—Arranoak dituk!

—Lot ditzatela zaldiak berehalakoan!

Mikel Strogoff eta Nadia, ordu bakar batean ere ez gelditzeko asmo sendoa harturik, gau osoa eman zuten inon geratu gabe.

Aro ona zen oraindik, baina eguratsa gero eta astunago zegoen, eta elektrizitatez betetzen ari zen nabarmenki. Goietan izarren argiak ageri ziren, hodeien eragozgarririk gabe; eta lurretik gandu beroa altxatzen zela irudi zuen. Beldur izatekoa zen mendietan ekaitza ez ote zen hasiko, izugarriak izaten baitira han. Mikel Strogoffek, zeruaren zantzuei erreparatzera ohitua, naturaren indarrak borrokan hastear zeudela susmatu zuen, eta kezka sartu zitzaion.

Gaua lasai joan zen. Tarantasaren triki-traka txikia ez izanagatik, Nadiak lotan eman zituen ordu batzuk. Erdiraino altxaturiko estalkiak aire apur bat sartzan utzi eta birikek irrika biziz arnasten zuten giro itogarri hartan.

Mikel Strogoff esna egon zen gau osoan. Ez zen *iemstxikez* fidatzen, gustura lokartzen baitzi-

ren haiek eserlekuan bertan; eta ordurik ez zen inon galdu, ez posta etxeetan, ezta bidean ere.

Biharamunean, uztailak 20, goizeko zortziak aldera, Ural mendien lehenengo islak eta ertzak agertu zitzaizkien ekialdean. Hala ere, mendi-lerro garrantzizko hau, Europa aldeko Errusia eta Siberia bereizten dituena, nahiko urrun zegoen oraindik, eta ez ziren iritsiko eguna gautu baino lehen. Mendiak, beraz, hurrengo gauean igaro beharko, derrigorrean.

Goi estalia egon zen egun hartan guztian, eta, beraz, temperatura gozatu zen pixka bat; baina ezin eguraldia ekaiztsuagoa ageri.

Horrelako zero ilunaren azpian, beharbada ez zen zuhurrena gau beltzean mendietan gora saiatzea, eta itxaron egingo zuen Mikel Strogofek, itxarotea edukiz gero, baina, azken postan, *iemstxikak* mendien artean burrunbatzen hasiak ziren trumoiak erakutsi zizkionean, garbi adierazi zion zein zen bere asmoa.

—Telega bat doa gure aurretik?

—Bai.

—Zenbat kentzen digu?

—Ordubete inguru.

—Aurrera, bada, eta eskupeko galanta hiretzat, bihar goizean Jekaterinburgen baldin bagaude!

# X

## EKAITZA URAL MENDIETAN

Ural mendiak hiru mila verstako lerro bati jarraituz hedatzen dira Europaren eta Asiaren artean (3.200 kilometro). Batzuek Ural deitzen diete, jatorri tatariarrezko hitza erabilita, eta beste batzuentzat Poias mendiak dira, errusieraz bezala deituta, baina bata zein bestea izendapen egokiak dira, bi hitz horiek «gerriko» esan nahi baitute hizkuntza bietan. Mendi horiek Ozeano Artikoaren itsasbazterrean jaio eta itsaso kaspia-rrereko ertzetaraino doaz, alde batera Errusia eta bestera Siberia utzirik.

Horixe zen Mikel Strogoffek zeharkatu beharreko muga Siberiara pasatzeko, eta, gorago esan legez, zuhurtziaz jokatu zuen Permetik Jekaterinburgera doan bidea hautatu zuenean Ural mendien ekialdera iristeko. Biderik errazena zen eta seguruena, eta hartan barrena igarotzen zen Asiaren erdialdeko merkataritza guztia.

Gaua mendian eman eta beste aldera iritsita behar zuten hurrengo goizean, ezbeharren bat gertatzen ez bazen, behinik behin. Zoritxarrez,

lehenengo trumoiak dunbotsek ekaitza hurbil zegoela adierazten zuten, eta izugarria izango zen, eguratsa karga-karga eginga zegoen eta. Eztanda bortitz batek baino ezin zuen askatu airean pilaturik zegoen tentsio elektriko itzel hura.

Mikel Strogoff bere bidelagun gaztea ahal bezain ongi egoteaz arduratu zen. Gurdiaren estalkia haize bolada batek erraz eramaneke zegoen airean, eta horregatik sendoago finkatu zuten, goian eta atzean gurutzatzen ziren soka batzuen bidez. Zaldien lokarriak bikoiztu, eta, segurtasuna handiagotu nahian, gurpil abatzen motelgailuak lastoz bete zituzten, bai gurpilak sendotzeko, bai danbategoak leuntzeko, kolpe guztiak saihestea ezinezkoa baitzen gau ilunean. Azkenik, aurreko eta atzeko gurpil pareak indartzeari ekin zioten. Ardatzak ziriez baizik ez zeuden itsatsirik gurtetxean, eta, hobeki irmotuz egon zitezkeen, zurezko haga bat jarri zuten bategatik bestera eta berno eta azkoinez josi. Haga horrek ardatzak tinko elkartu behar zituen, zisne lepoen gaineko berlinean barra kakotu batek egingen duen bezala.

Nadia bere lekura itzuli zen gurtetxearen atzeko aldean, eta Mikel Strogoff aldamenean

eseri zen. Estalkia erabat jaitsia zegoen, eta larruzko bi errezel modukoak zintzilik zeuzkan aurrean, bidaztiak euriaren eta haizearen eraso-etatik nolabait babesteko.

Bi kriseilu handi jarriak zeuden *iemstxikaren* eserlekuaren ezker aldean eta distira hits bat zabaltzen zuten zehar, bidea behar bezala argiztatzeraino heldu gabe. Baina zalgurdiaren posizio argiak ziren, eta, nahiz iluna ozta-ozta desegin, aurretik hara beste ibilgailu bat etorri eta harekin buruz buru ez jotzeko balio zuten gutxienez.

Bistan denez, ardura guztiak hartuak zituzten, eta, hala hobe, gaua arriskuz beterik zetorren eta.

—Nadia, prest gauden —esan zion Mikel Strogoffek.

—Aurrera, bada —erantzun zion neskatxak.

*Iemstxiki* agindua eman eta tarantasaren gurpilak ibilian hasi ziren Ural mendietako lehenengo aldapetan gora.

Zortziak ziren; eguzkia apal zihoan etzanaldera. Giroa, ordea, arras goibel zegoen ordurako, bazter haietan ilunabarra luzea izan arren. Lurrun mataza eskergek zero ganga behera zekartela irudi zuen, baina haizerik ez zebilen

batere, eta ezerk ere ez zeramatzan handik. Alabaina, nahiz mugimendurik ñimiñoena ere ez egin zerumuga batetik besterantz, ez zen horrela gertatzen zenitetik nadirrera, eta gero eta hurbilago zeuden lurretik. Halako argitasun fosforeszente bat zerien laino itxi haietako batzuei, hirurogei-laurogei graduko arkuak osatuz. Eta arkuak pixkaka-pixkaka lurrerantz hurbiltzen ari zirela ematen zuen, beren sarea estutzen ari zirela. Mendiraino berehala iritsiko ziren, urakenen batek goitik behera bultzatu izan balitu bezala. Gainera, bideak gora jotzen zuen, hodei lodi haietarantz. Trinko-trinko zeuden, kondentsatzeko zorian; eta berandu gabe, bidea eta lurrinak nahasiko ziren, eta, une horretan hodeiak euritan husten ez baziren, lainoa hain zerratua izango zen, ezen tarantasak ezin izango zuen aurrera segi, malkarrean behera amiltzeko arriskurik hartu gabe.

Dena dela, Ural mendiak ez dira oso garaiak. Mendikatearen gailurrik altuenak ez du bost mila oinetik gora egiten. Hango gainek ez dute zuri-zuri ematen urte osoa; negu siberiarrean pilatutako elurra guztiz urtzen du udako eguzkiak. Landareak eta zuhaitzak tontorretan ere hazten dira. Burdin eta kobre meatzeek eta harribitxien

ustiatetik langile ugari biltzen dute alderdi hartara. Eta horregatik, *zavody* izeneko herrixkak maiz topatzen dira, eta bidea, haitzarte handietan barrena ebakia, posta kotxeak lasai pasatzeko modukoa da.

Baina egunezko argian eta eguraldi ona lagun izanda aise egiten den gauza, zaila eta arriskuz betea izan daiteke, izadiaren elementuak bata bestearekin borrokan hasi eta norbera borroka horren erdian gertatzen denean.

Mikel Strogoffek bazekien mendiko ekaitzen berri, ederki jakin ere, eta beharbada uste zuen arrazoi zuzenez eguratsaren fenomeno hori neguko elur bisuts bortitz lazarriak bezain izutzekoa zela.

Abiatu zirenean, ateri zegoen oraindik. Mikel Strogoff tarantasaren barren aldea babesten zuten larruzko errezelak goratu eta kanpora begira-begira zihoan. Bide bazterrak aztertzen zituen batez ere, kriseilu koloken argi-ilunetan alegiazko izakiz beteak.

Nadia ere, geldirik, besoak gurutzaturik, begira zihoan, baina aurrera makurtu gabe, eta ez haren bidelaguna bezala, hark gorputz erdia gurditik kanpo baitzeraman, zeruei eta lurrei galdezka.

Goiak lasai-lasai zeuden, baina beltz, ilun, haserre. Haizeak putzik ez zuen egiten artean. Izadia arnasa hartu ezinik zegoen, antza, ito beharrez ia, eta haren birrikak, hodei goibel itxi haiek, alegia, zergati ezkuturen batengatik ezertarako gauza ez zirela zirudien, ezin izango ziotela erasoari ekin. Tarantasaren ibilera baizik ez zen entzuten han. Gurpilek kirrinka egiten zuten, bideko hartxintxarrak birrinduz. Intzirika biratzen ziren ardatzak abatzetan. Zaldiak arnases-tuka zebiltzan, hatsa zarataka hartzen zutela, apo ferratuez harri koskorak jo eta jo, txinpartak atereaz. Hots horiek izan ezik, isila erabatekoa zen.

Gainerakoan, bidean arimarik ez. Tarantasak ez zuen topatu oinezkorik, ez zaldizkorik, ez beste ibilgailurik Uraletako mehaka estuetan, eguraldi mehatxagarriko gau hartan. Ikazkinen surik ez basoetan, meatzarien kanpamenturik ez harrobi zokoetan, ezta txabola galdurik ere zuhaitzen artean. Egoera hartan mendi lerroa zeharkatzen hasteko arrazoi handiak behar ziren, duda-mudarako edo geroratzeko aitzakia-rik ematen ez duten horietakoak. Mikel Strogoffek zalantzarik ez zuen izan. Ezin zuen izan; baina orduan —eta kezka bizia sortzen hasi

zitzaion hori zela-eta— zein ziren tarantasaren aurreko telegan zihoazen bidaztiak, eta zer arrazoi ezinbestekoengatik jokutzen zuten horren burugabe?

Mikel Strogoff horrela joan zen tartetxo batean, bazter guztiak miatzen. Hamaikak aldean, tximistak zerua pizten hasi eta etengabe aritu ziren joka handik aurrera. Distira azkar haien argipean pinu itzelen multzo sakabana-tuak ikusten ziren han-hemenka agertzen eta desagertzen. Batzuetan, tarantasa bide izkinara hurreratzen zen, ertza ia ukitzerraino, eta orduan amildegi sakonak azaltzen ziren hodeietako oinazturen argitan. Aldian behin, pitzadura baten gaineko zubia zeharkatzen zuen ibilgai-luak, soinu lodiagoa atereaz haren enbor ozta leundutakoak lasterka zapaltzean, trumoi hotsak zubi azpitik oihartzun egiten zuela. Bestalde, laster hasi ziren burrunba errepikakorrak zabaltzen, gero eta urrunago entzuten zirenak zeruan gora egin ahala. Eta soinu horiekin guzkiekin *iemstxi-*karen oihuak eta heiagorak nahasten ziren, noiz balakuka, noiz errietan abere gaixoei, neka-neka eginak baitzeuden aire astun geldo harengatik bideko maldagatik baino gehiago. Gurdiaren txi-

linek eta zintzarriek ere ezin zaldiak alaitu, eta belaunak makurtu zitzaizkien zenbait aldiz.

—Zer ordutan iritsiko gara lepora? —galdetu zion Mikel Strogoffek *iemstxikari*.

—Goizeko ordu batean... iristen bagara! —  
ihardetsi zion, burua astinduz.

—Esan ezak, adiskidea, hau ez da izango mendian ikusten duan lehenengo ekaitza, ezta?

—Ez, eta ea azkenekoa ere ez den, Jainkoa lagun!

—Beldurrak hago?

—Ez nagok beldurrak, baina berriz esango diat ez duala ongi egin azken posta etxean geratu gabe.

—Okerragoa zuan, ordea, bidaian ez jarraitzea!

—Aurrera, bada, uxotxo nireak! —oihu egin zuen *iemstxikak*, ez baitzegoen han eztabaidan hasteko, esandakoa betetzeko baizik.

Memento hartan, dardara bat aditu zen urru-  
nean. Ordu arte bare egon zen eguratsa, baina orduan milaka txistu ozen gorgarri zeharkatzen ari zirela zirudien. Tximista bat ikusi, eta ia bate-ra trumoi karraska beldurgarria entzun zuten. Haren argi itsugarriaren pean, tontor batean pinu batzuk makurtzen ari zirela ohartu zen

Mikel Strogoff. Haizea atera zuen, baina airearen goiko geruzetan baino ez oraindik. Zuhaitz zahar edo sustrai txikiko batzuek ezin izan zioten eutsi ekaitzaren lehenbiziko oldarrari, haien erorikoaren soinu sorrek adierazi bezala. Enbor hautsi mordo batek bidea gurutzatu zuen, sekulako zalapartaz harkaitzetan jo ondoren, eta ezker aldeko amildegitik behera galdu zen, tarantasaren aurrean berrehun oinetara.

Zaldiak bertan gelditu ziren.

—Segi aurrera, usapal maiteak! —garrasi egin zien *iemstxikak*, zartailuaren zirtakoak trumoiaren dunbotsekin nahasten zirela.

Mikel Strogoffek eskua hartu zion Nadiari.

—Lo hago, arreba? —galdetu zion.

—Ez, neba.

—Egon hadi edozertarako prest, ekaitza gainean dinagu eta!

—Prest nagok.

Mikel Strogoffek tarantasaren larruzko errezelak ixteko beta izan zuen doi-doia.

Tximista bezain agudo zetorkien haize erauntsia.

*Iemstxikak* eserlekutik jauzi eginez zaldien buru aldera jaurti zuen bere burua, irmo eutsi

nahirik, arrisku bizi-bizian baitzegoen zalgurdi osoa.

Izan ere, tarantasa bidearen bihurgune batean zegoen geldirik, eta zuzen-zuzen jotzen zuen han denboraleak. Haize aldera eduki beharra zegoen, edo bestela, saihetsean joz gero, irauli egingo zen ezinbestean eta bidearen ezker aldeko erroitzetik behera amildu. Zaldiak, haize boladek atzera bultzaturik, zutitu eta besaka ari ziren, gidariak ezin lasaitu zitzakeela. Hitz gozoren ondotik irainik garratzenak irten ziren haren ahotik. Alfer-alferrik, ordea. Zoritxarreko abereak itsutu egiten zituzten tximistargiek, izulaborrian jartzen oinazturen kolpe etengabeek, artilleriaren leherketak irudi. Lokarriak hautsi eta handik alde egin, besterik ez zuten nahi. *lemstxi*-kak ez zituen mendean jada; bere esanei batere kasurik ez zieten ematen.

Une hartan, Mikel Strogoff tarantasetik kanpora salto batean irten eta laguntzera joan zitzaion. Gutxik bezalako indarrez horniturik, zaldiak menderatzea lortu zuen, nahiko kostata hala ere.

Baina urakanak zakarraldi bortitzagoa jo zuen orduan. Bidea zabaldu eta inbutu itxura hartzen zuen leku hartan, erauntsia haiengana

zuzen-zuzen jaurtiz, lurrun ontzietan haize alde jartzen diren aireztatze ahoetan egingo zuen bezala. Haize gaiztoak gogor astintzen zituen bete-betean. Eta batera, harriak eta enborrak erorka hasi zitzaizkien eskuin aldeko ezpondetik behera.

—Ezin gaituk hemen geratu —esan zuen Mikel Strogoffek.

—Ez gaituk luzaro geratuko! —oihu egin zuen *iemstxikak*, beldurraren beldurrez, indar guztiekin tente jartzen zela airearen higidura ikaragarri haren kontra—. Urakanak mendian behera bidaltzen gaitik, eta biderik laburrenetik!

—Eutsi eskuin aldeko zaldiari, oilo koldar hori! —erantzun zion Mikel Strogoffek—. Nire ardura ezker aldekoa!

Beste haize bolada izugarriak gerarazi zuen Mikel Strogoff. Lurreraino makurtu behar izan zuten bai berak bai gidariak, hankaz gora boteak ez izateko; baina zalgurdia atzera eta atzera zihoan. Alferrik ahalegintzen ziren gizonak, eta alferrik zaldiak, nahiz oraindik haizearen kontra tinko zeuzkaten. Zuhaitz enbor batek geldiarazi zuen azkenean, eta hari eskerrak ez ziren denak erori amilka bidetik kanpo.

—Ez izan beldurrik, Nadia! —garrasi egin zion Mikel Strogoffek.

—Ez nauk beldur —erantzun zion gazte livoniarrak, ahotsean batere larritasunik azaltzen ez zuela.

Trumoiaren burrunba isildu zen istant batean, eta denborale lazgarria, bide bihurgunea atzean utzirik, amildegia hondoetan galtzen ari zen.

—Behe aldera joan nahi duk? —itaundu zion *iemstxikak*.

—Ez, gora joan beharra zagok! Bihurgune hori gainditu behar diagu! Goian ezpondaren babesean egongo gaituk!

—Zaldiek kontra egiten ditek, ordea!

—Egin ezak nik bezala, eta tira iezaiek aurre-ra!

—Urakanak berriz joko dik!

—Esana beteko duk?

—Hik nahi duk eta!

—Nik ez, Aitak berak agintzen dik! —erantzun zion Mikel Strogoffek, hiru kontinenteetako enperadore ahalguztidunaren izena lehen aldiz aipatuz.

—Goazen, bada, enara politak! —oihu egin zuen *iemstxikak*, eskuineko zaldiari helduz,

Mikel Strogoffek ezkerrekoari oratzen zion bitartean.

Zaldiak, modu horretan atxikirik, bideari ekin zioten ozta-ozta. Ezin ziren alboetara mugitu, eta erdiko zaldia, endaitzen artekoa, bidearen erdian ibil zitekeen, beste biek nork bere aldera lerrarazi gabe. Baina gizonak eta abereak ez zuten aurrera hiru pauso egiten, atzera bat edo baita bi ere zenbaitetan egin gabe, bete-betean jotzen baitzituzten haize boladek. Irristatu, erori, zutitu atzera ere. Eta joko horretan, ibilgailua porrokatzeko zorian. Estalkia sendo loturik egon ezean, tarantasa lehenengo haize kolpean geldituko zen aterperik gabe.

Mikel Strogoffek eta *iemstxikak* bi ordu baino gehiago behar izan zituzten ekaitzaren zigorrak horren bortitz astinduriko bide zati hura igotzeko, luzeran versta erdia ez izan arren. Urakanak gogorkeria latzez ziharduen borrokan zaldien eta gidarien aurka, baina, hala ere, ez zen hura arriskurik handiena; okerrago zen harri eta enbor hautsien kazkabar hura, menditik behera haien buru gainera jausten zitzaiena.

Bat-batean, tximistargi baten distiran, haie-tako harritzar bat erorka-erorka behera zetorre-

la ohartu ziren. Gero eta arinago zihoan tarantasaren aldera.

*lemstxikak* deiadar egin du.

Mikel Strogoffek zaldiak aurrerago joan daitezzen ahalegindu da zartailu ukaldi indartsu bat joaz; baina uko egin haiek.

Urrats gutxi batzuk aurrera, eta harrizarra atzetik pasatuko da!

Aitaren batean ikusi du Mikel Strogoffek nola harriak tarantas gainera erori eta bere bidelaguna jo eta txikitu egin behar duen bertan! Eta ibilgailutik bizirik ateratzeko denborarik ez!...

Orduan, atzeko aldera jauzi batean oldartu, bizkarra ardatzari eman, hankak lurrean sendo tinkatu, eta, arrisku bizi horretan berealdiko indarra aurkiturik, oin batzuk aurreraka bultzatzen du zalgurdi astuna.

Haitz puska eskerga gizon gaztearen bularria ukituz pasa eta sekulako danbatekoa jo zuen haren aurrean, bideko harri koskorak birrinduz eta txinpart ugari atereaz. Arnasa bete ezinik gelditu zen tsarraren mandataria.

—Neba! —oihu egin zuen Nadiak ikaraturik, eszena hura guztia ikusi baitzuen tximistaren argitan.

—Nadia! —erantzun zion Mikel Strogoffek—.

Nadia, ez izan beldurrik!

—Ez ninduan beldur neure buruarengatik!

—Jainkoa gurekin zagon, arreba!

—Nirekin bai, behintzat, nire bidean jarri haelako! —xuxurlatu zuen neskatxak.

Ez zen alferrik galtzekoa Mikel Strogoffek tarantasari lehiaz emaniko bultzada. Abiada hark egokiera eskaini zien zaldi zoratuei lehengo norabidean berriz jartzeko. Nolabait esanda, herrestan eraman zituzten abereak Mikel Strogoffek eta *iemstxikak*, eta horrela beharturik bidean gora egin zuten mendate estu bateraino. Hegotik iparrera zihoan, eta han babesas izango zuten ekaitzaren eraso zuzenen kontra. Eskuin aldeko ezpondak harresi itxurako bat osatzen zuen leku hartan, harkaitz itzel baten irtengunea zela medio. Harkaitza zurrunbilo baten erdi-erdian zegoen, eta nahigabe handirik gabe egon zitekeen bertan, haizea ez baitzen handik biratzen. Zirimola haren bueltan, aldiz, ezin inola ere haizeari eutsi, ez gizonek, ezta zaldiek ere.

Eta, halaxe, zenbait pinuren adaburuak, harkaitzaren gandorretik gora ateratzen zirenak, moztuak izan ziren begi itxi-ireki batean, izuga-

rrizko igitai batek ezponda arrasetik garbitu izan balu bezala.

Ekaitzak haserre bizi-bizian ziharduen orduan. Dena tximista zen haitzarte hartan, eta etengabe zabaltzen zen trumoiien dunbotsa. Kolpe amorratu haiek zorua inarosten zuten, eta Ural mendi guztiak dardaraka zeudela irudi zuen, lurrikara batek astinduta legez.

Beharrik, tarantasa denboraleak zeharka baino jotzen ez zuen zoko sakon hartan aparkatu ahal izan zuten, edonola esanda. Baina ez zegoen erabat aterpean. Ezpondaren irtenguneek haize korronte batzuk desbideratu eta tarantaseraino iristen ziren, eta indar handiz inoizka. Eta orduan danba eta danba egiten zuen harrizko paretaren kontra, zati-zati egin eta guztiz hondaturik geratzeko arriskuan.

Nadiak bere lekua laga behar izan zuen. Mikel Strogoffek, kriseiluetako baten argipean bilaketan aritu eta gero, meatzariren baten piko-txak egindako zuloa aurkitu zuen, eta neska gazteak han hartu zuen babes, bidaiari aurrera noiz segituko zain.

Une hartan, goizeko ordu batean, euria hasi zuen, eta berehala ur eta haize boladak bortxa gordinez jo eta bultza hasi ziren; zeruko suak

itzaltzea lortu gabe baina. Gauzak horrela, ezin inola ere bideari lotu.

Beraz, Mikel Strogoff halako edo holako egozinezinak hartuta ere —eta ulergarria da lasai ez egotea—, geldirik egon beharra zeukan ekaitzaldiaren erasorik latzena pasatu arte. Bestalde, mendatera iritsiak ziren, eta Ural mendietako aldapetan behera jaitea besterik ez zeukaten Jekaterinburgera sartzeko, eta egoera hartan jaitea, mila erreka lasterrek zeharkaturiko lurralde batean, ur eta haize zurrunbiloen erdian, bizia galbidean jartzea baizik ez zen, norbere burua leize zulora botatzea.

—Larria dun zain egon beharra —esan zuen orduan Mikel Strogoffek—, baina atzerapen handiagoak izango genituzken bestela, dudarik gabe. Ilunpetan ezin gaitun arriskatu. Gainera, ekaitza oso bortitza dun, eta horrelakoek ez dituzte luzaro irauten. Hirurak aldean eguna argitzen hasiko dun, eta, eguzkia jaiki ondoren, erraza ez, baina bai egiteko modukoa bihurtuko dun jaitea.

—Zain egon gaituzen, neba —erantzun zion Nadiak—, baina abiatzea atzeratzen baduk, ez dadila izan niri nekea edo arriskua kentzeko!

—Nadia, bazakinat edozeri aurre egiteko gertu hagoela, baina, eguraldi honekin abiatuz

gero, neure bizitza baino gehiago jarriko niken arriskuan, hire bizitza baino are gehiago, neure egitekoa, gauza guztien gainetik konplitzeko daukadan betebeharra hutsean geldituko luken.

—Betebehar bat!... —esan zuen Nadiak xuxurla batean.

Memento hartan, tximista zakar batek zerua urratu zuen, euri jasa ezereztuz, nonbait. Berehalaxe kolpe zeken baten durundia hedatu zen, eta halako sufre usain itogarri batek bete zuen airea. Pinu handiko basotxo bat zartako elektrokoak jo eta suak hartu zuen tarantasetik hogeitau pausora, zuzi erraldoi baten gisa.

Tximista-kolpearen punpa antzeko batek *iemstxika* lurrera bota zuen, baina zauririk gabe jaiki zen zorionez.

Gero, trumoiaren azken burrunbak mendia-  
ren barne sakonetan galdu ondoren, Nadiak esku bat jarri zuen indartsu Mikel Strogoffen eskuaren gainean, eta hitz hauek esan zizkion apal-apal belarri ondoan:

—Oihuka ari dituk, neba! Entzun ezak!

# XI

## BIDAZTIAK ESTUTASUNEAN

Izan ere, barealdi labur hartan, bidearen goiko aldetik oihu batzuk zetozeela aditu zitekeen, eta tarantasa babesten zuen zokotik ez oso urruti.

Etsipen deia zirudien, eta estutasunean zegoen bidaztiren batek botea, inondik ere.

Mikel Strogoff, belarria zorrotzuz, entzuten ari zen.

*Iemstxika* ere entzuten ari zen, baina, burua batetik bestera mugitzen zuen, dei hari ezin erantzun ziotela adieraziz.

—Bidazti batzuk laguntza eske! —esan zuen Nadiak.

—Gu beste laguntzarik ez badute!... —erantzun zuen *iemstxikak*.

—Zergatik ez diegu lagunduko? —egin zuen garrasi Mikel Strogoffek—. Haiek gure alde egingo luketena, ez dugu guk haien alde egin behar?

—Baina zalgurdia eta zaldiak arriskuan jarriko dituk!...

—Oinez joango nauk —erantzun zion Mikel Strogoffek, *iemstxikari* hitza moztuz.

—Hirekin joango nauk, neba —esan zion gazte livoniarrek.

—Ez, geldi hadi, Nadia. *Iemstxika* hire ondolan egongo dun. Ez dinat bakarrik utzi nahi...

—Geldituko nauk —erantzun zion Nadiak.

—Zernahi gertatuta ere, ez hadila atera babeslekitik!

—Orain nagoen lekuan aurkituko nauk.

Mikel Strogoffek neskaren eskua estutu zuen, eta, ezpondaren bihurgunea harturik, itzaletan ezkutatu zen segituan.

—Gaizki ari dun hire neba hori —esan zion *iemstxikak* neska gazteari.

—Ongi ari duk —erantzun zion Nadiak soil-soilik.

Bitartean, Mikel Strogoff bizi-bizi igo zen bidean gora. Presa handia zuen oihu errukarri haiek egiten zituztenei laguntza emateko, eta gogo handia zuen, halaber, ekaitzaren erdian mendia gurutzatzen ausartu ziren haiek nor ziren jakiteko, zalantzarik ez baitzuen bidazti haiek Permetik hara beti aurretik zihoakien telegakoak zirela.

Euria atertu zuen, baina haize erauntsia gogortu. Oihuak, eguratsaren korrontek eramanda, gero eta argiago bereizten ziren. Nadia gelditu zen lekutik ezin zen deus ikusi. Bidea bihurria zen, eta haren sigi-saga ebakitzen zuten irtenguneak baizik ez zituzten agerrarazten tximisten distirek. Haize boladak izkina guztietan bortxaz hautsi eta zurrunbiloak osatzen zituzten. Nekeza zen guztiz aurrera jotzea, eta Mikel Strogoffek neurritz gainera indarra behar zuen haiei eusteko.

Baina berehala izan zen nabaria oihuka ziharduten lagun haiek ez zeudela oso urruti. Mikel Strogoffek ezin zituen oraindik ikusi. Bazitekeen bidetik kanpo eroriak egotea, edo iluntasun beltzak haren begiradatik gordetzea; baina, hala ere, argi eta garbi iristen zitzaion belarrira zer esaten ari ziren.

Hona, bada, zer entzun zuen ezustean, horrelako solasik ez baitzuen espero egoera hartan:

—Itzuli hadi, babo arraioa!

—Bizkarra knutez larrutu diezaaten aginduko diat hurrengo posta etxean!

—Aizak, hi, gidari infernukoa! Ez didak entzuten?

—Honela eramaten dituzte bidaztiak lurralde honetan!

—Honi telega deitzea ere!

—Hi, astakirten alaena! Ihes egiten du eta ez da konturatu bide erdian utzi gaituela!

—Niri horrelakorik! Ingeles peto-peto honi! Kantzelaritzan salatuko dut eta urkatu egingo dute!

Modu horretan hizketan ari zenak ezin zion eutsi barneko irakinari haserrearen haserrez. Baina, kolpetik, iruditu zitzaion Mikel Strogoffi bigarren solaskideak etsia hartu zuela gertatu zenarekin, zeren ustekabean barre algara batek durundi egin zuen bat-batean eszena haren erdian, eta hitz hauek entzun zituen:

—Tira, gizona! Barregarria da, gero!

—Barre egiten duzu! —erantzun zion garratz samar Erresuma Batuko herritarrak.

—Bai, noski, lankide maitea, eta barren-barrendik, eta horixe da egin dezakedan gauzarik onena! Eta berdin egiteko aholkatuko nizuke! Bene-benetan, barregarria da oso, egundaino ez honelakorik!...

Une hartan, trumoi hots bortitz batek burrunba beldurgarritz bete zuen haitzartea, eta haren oihartzuna zabaldu eta zabaldu egin zen men-

dien artetik. Gero, azken dunbotsa itzali zelarik, ahots alaia nabarmendu zen berriz ere inguruko soinuen gaintetik:

—Barrez lehertzekoa da! Alajaina! Honelakorik ez zen Frantzian gertatuko, ez horixe!

—Ezta Ingalaterran ere! —erantzun zuen ingelesak.

Tximistak etengabe ari ziren bidea argitzen, eta Mikel Strogoffek bi bidazti antzeman zituen handik hogeit hamar pausora, ibilgailu bitxi baten atzeko bankuan pausaturik, txoria adarrean bezala. Ibilgailua zuloren batean trabatua zegoela irudi zuen.

Bi bidaztiengana hurbildu zen. Batak barreka segitzen zuen gelditu gabe eta biraoka bestek. Ongi erreparatu, eta ezagutu egin zituen. Egunkarietako berri emaileak ziren, Nijni Novgorodetik Permeraino *Kaukaso* lurrun ontzian berekin batera etorri zirenak.

—E! Gabon, jauna! —garrasi egin zion frantsesak—. Pozten naiz trantze honetan zu ikustez! Uztazu nire etsai maitea zuri aurkezten; hona Blount jauna!

Kazetari ingelesak agur egin zion, eta, gizalegeak eskatu bezala, bere lankide Alcide Jolivet

aurkeztera zihoanean, Mikel Strogoffek hitz egin zien:

—Alferrik, jaunak; elkar ezagutzen dugu, elkarrekin etorri ginen-eta Volga ibaian barrena.

—A! Ederki, ederki! Zure izena...?

—Nikolas Korpanoff, Irkutskeko merkataria —erantzun zion Mikel Strogoffek—. Baina, jaunak, kontatuko didazue zer abentura mota gertatu zaizuen, bati horren tamalgarria eta besteari horren barregarria iruditzeko?

—Epaile jarriko zaitut, Korpanoff jauna —esan zion Alcide Jolivetek—. Atera kontuak; gure gidariak alde egin du bere ibilgailu madarikatuaren aurrealdearekin, gu hemen utzita, ez aurrea eta ez atzera, gurdi aldrebes honen atzealdearekin! Telega baten erdirik okerrena, inondik ere, ez gidaririk, ezta zaldirik ere ez baitu! Ez da barregarria baino barregarriagoa?

—Inola ere ez! —erantzun zuen ingelesak.

—Baietz, bada, lankide nirea! Egiatan ez dakizu gauzak alde onetik hartzen!

—Eta nola jarraituko dugu geure bidaia? Esango didazu, arren! —galdetu zion Harry Blountek.

—Gauza errazagorik! —erantzun zion Alcide Jolivetek—. Sokaz lotuko zaitut gelditzen zaigun

gurdi puska honetara, gidak hartuko ditut, usotxo nirea deituko dizut, *iemstxik* jator baten gisa, eta benetako posta zaldi bat bezain agudo ibiliko zara!

—Jolivet jauna —esan zion ingelesak—, neurriz gainekoa da txantxa hori, ez niri adarrik jo, eta...

—Lasaitu zaitez, lankide maitea. Nekearen nekez lehertzeko zorian zaudenean, ni jarriko naiz zure orde, eta eskubidea izango duzu barakuilu elbarria edo dortoka makal akitua niri deitzeko, ziztu bizian ez baldin bagoaz.

Mikel Strogoffek ezin izan zion irribarreari eutsi, hain umore onez esaten zituen Alcide Jolivetek kontu horiek guztiak.

—Jaunak —esan zien orduan—, badago zer-bait hobea egitea. Hemen goian Uraletako mendaterik garaienean gaude, eta, beraz, maldan behera joan behar da hemendik aurrera. Nire zalgurdia hortxe dago, bostehun pauso atzera-go. Nire zaldietako bat utziko dizuet, zuen tele-gari lotuko diogu, eta bihar, beste istripurik ez badago, Jekaterinburgera sartuko gara elkarrekin.

—Ez dago gaizki esana! —erantzun zion Alcide Jolivetek— Bihotz zabala duzu, Korpanoff jauna, bai horixe!

—Jaunak, —gehitu zuen Mikel Strogoffek— ez dizuet eskaini nire tarantasera igotzeko, bi lagun baino sartzen ez direlako, eta gu bi gara jadanik, nire arreba eta biok.

—Zer diozu, jauna? —esan zion Alcide Jolivetek—. Zure zaldi horrekin eta gure telega erdiaren gurpilekin munduaren azkenera joateko gauza gara nire lankidea eta biok!

—Jauna —zuzendu zitzaion Harry Blount—, pozik onartzen dugu zure eskaintza adeitsua. Eta *iemstxik* horri dagokionez!...

—Oi! Ziur egon zaitez besteetan ere gertatu izan zaiola horrelako pasadizorik! —erantzun zion Mikel Strogoffek.

—Baina, orduan, zergatik ez da itzultzen? Ongi baino hobekiago daki atzean utzi gaituela, zerria alaena!

—Nork? Horrek? Konturatu ere ez da egin!

—Zer? Gizontxo hori ez dela jakitun bere telega erdibiturik dagoela?

—Ez daki, ez, eta munduko fede onenaz darabere aurrealdea Jekaterinburgera!

—Ez gatza eta ez piperra ez zaio falta kontu honi, lankide nirea! —esan zuen garrasi batean Alcide Jolivetek.

—Nire atzetik etorri nahi baduzue, jaunak —esan zien Mikel Strogoffek—, nire zalgurdiaren bila joango gara, eta...

—Eta telega? —ohartarazi zuen ingelesak.

—Hegan ez du ihes egingo, Blount maitea! Ongi boteak ditu zuztarrak lurrian; datorren udaberrira arte hor utziz gero, hostoak aterako litzaizkioke!

—Goazen bada, jaunak —errepikatu zien Mikel Strogoffek—, eta honaino ekarriko dugu tarantasa.

Frantsesa eta ingelesa atzeko esertokia izatetik aurreko jarlekua izatera pasatutako horretatik altxatu, telegatik jaitsi, eta Mikel Strogoffi jarraitu zioten.

Ibiltzeari utzi gabe, Alcide Jolivet, bere ohituraren arabera, hitz eta pitz ari zen alai eta pozik, ezerk ere ozpintzen ez zion bere umore on horrekin.

—Alafede, Korpanoff jauna —esan zion Mikel Strogoffi—, nolako kinka larritik atera gaituzun!

—Ez dut egin, jauna, beste edozeinek nire lekuan egingo lukeena baino gehiago. Bidaztiok

ez badiogu elkarri laguntza ematen, hobe genuke bideak ixtea!

—Ea mesede honen ordaina bihurtzen dizugun, jauna. Estepetan aurrera urrutira baldin bazoaz, baliteke berriz topo egitea, eta...

Alcide Jolivetek ez zion garbi galdetu nora zihoan, baina, ezkutuan gorde nahi ote zuen ez pentsarazteko, Mikel Strogoffek segidan erantzun zion:

—Omskera noa, jaunak.

—Blount jauna eta biok, berriz —ihardetsi zion Alcide Jolivetek—, urrutixeago goaz, beharbada bala bat edo beste izango den alderdi bate-raino; baina aise harrapatuko ditugu han albisteak, harrapatuko ditugunez.

—Inbaditutako probintzietan? —itaundu zuen Mikel Strogoffek apur bat larriturik.

—Hantxe, hain zuzen, Korpanoff jauna, eta baliteke lurralde haietan elkarrekin topo ez egitea!

—Halaxe da, jauna —esan zion Mikel Strogoffek—. Fusil tiroen oso zalea ez naiz, ezta lantza kolpeena ere. Biziki maite dut bakea, eta ez naiz ni arriskatuko borrokan ari diren lurralde batean barrena igaro nahian.

—Pena hartzen dut, jauna, pena handia, bihotz-bihotzetik, baina laster banandu beharrean gaude! Hala ere, beharbada Jekaterinburgetik aurrera ere elkarrekin bidaiatzeko grazia egingo digu geure izar onak, egun gutxi batzuetan ez bada ere!

—Omskera zoazte, ezta, jaunak? —galdetu zien Mikel Strogoffek, instant batez hausnarrean aritu eta gero.

—Ez dakigu ezer oraindik —erantzun zion Alcide Jolivetek—, baina segur aski Ixinera joango gara zuzenean, eta, han gaudela, erabakiko dugu nola jokatu, gertaeren arabera.

—Ederki, jaunak —esan zien Mikel Strogoffek—, bide bera ibili behar dugu Ixineraino.

Mikel Strogoffek, jakina, bakarrik bidaiatzea nahiago zuen, baina ezin zen saiatu, arraro samarra iruditu gabe behinik behin, bere bide bera egin behar zuten bi bidazti alde batera uzten. Eta gainera, Alcide Jolivetek eta haren lankideak Ixinen geratzeko asmoa uzten, Omsk aldera aurki abiatu gabe, eta, beraz, eragozpenik ez zegoen batere bidai tarte hori haiekin batera egiteko.

—Ederki, jaunak —esan zien—, erabakia dago beraz. Elkarrekin joango gara Ixineraino.

Gero, doinurik axolagabeenaz galdetu zien:

—Badakizue gauza garbirik tatariarren inbasioa zertan den?

—Permen esaten zutena baino ez dakigu, alafede —erantzun zion Alcide Jolivetek—. Feofar Khanen tatariarrek Semipalatinsk probintzia osoa inbaditu, eta, azken egun hauetan, Irtish ibaian behera omen datozela atsedetik hartu gabe. Agudo mugitu beharko duzu Omskera haien aurretik iritsi nahi baduzu.

—Bai, badakit.

—Eta gehiago ere esaten zuten. Ogareff koronelak muga zeharkatzea lortu omen zuela mozorro jantzita, eta berandu gabe elkartuko omen zela tatariarren buruarekin herrialde altxatuaren erdi-erdian.

—Baina nolatan jakin dute? —galdetu zien Mikel Strogoffek, jakin-minez irrikan, baina berrien egitasunaz erabat fidatu gabe.

—Nolatan, bada? Horrelako gauzak jakiten diren moduan —erantzun zion Alcide Jolivetek—. Airean dabilta.

—Eta ganorazko arrazoirik baduzue Ogareff koronela Siberian dela pentsatzeko?

—Non barrena joan zen ere esaten zuten. Kazandik Jekaterinburgera doan bidea hartu behar izan omen zuen.

—A! Jakinaren gainean zeunden, Jolivet jauna? —hitz egin zuen Harry Blountek, berriemaile frantsesaren esanak haren isiltasuna urrazazi baitzuen.

—Jakinaren gainean nengoen —erantzun zion Alcide Jolivetek.

—Eta buhamez mozorrotu behar izan zuela bazenekien? —galdetu zion Harry Blountek.

—Buhamez mozorrotu! —oihu egin zuen Mikel Strogoffek oharkabean kasik, Nijni Novgoroden Kaukaso ontzira igo eta Kazanen lehorretatu zen tsigane zahar hura gogoan.

—Banekien neure lehengusinentzako esku-titz bat osatzeko adina —esan zuen Alcide Jolivetek irribarretsu.

—Kazanen ez duzu denbora alferrik galdu! —ohartarazi zuen ingelesak hotz eta motz.

—Ez, noski, nire lankide maitea, eta Kaukaso ontzia hornitzen zen bitartean, ni Kaukaso bezala aritu nintzen!

Mikel Strogoffek ez zien jada erreparatzen bataren eta bestearen arrazoiei. Besterik zuen buruan. Buhame koadrila hura, aurpegia ikusi

ezin izan zion tsigane zaharra, harekin zihoan emakume harrigarria, eta emakume horrek egin zion begiratu bitxia. Topaketa haren xehetasun guzti-guztiak batu nahian zebilen, baina, tupustean, tiro baten hotsa entzun zuen handik hurbilhurbilean.

—A, jaunak! Goazen bizkor! —esan zien Mikel Strogoffek garrasi batean.

—Arraioa! Fusil tiroen ihesi ibiliko da merkataria lasai hau besteetan —esan zuen Alcide Jolivetek bere artean—, baina orain ahalegin guztian doa entzun den lekurantz!

Eta, Harry Blount orpoz orpo zuela, ez baitzen atzean gelditzen den horietakoa, aurrera lehiatu zen Mikel Strogoffen pausoei jarraituz.

Bidean behera egin eta segituan zeuden hirurak tarantasa gordetzen zuen irtengunearen aurrean.

Tximistak jotako pinu basotxoaren sutan zegoen oraindik. Inor ere ez bidean. Hala ere, Mikel Strogoff ezin oker egon. Su arma baten hotsa iritsi zitzaion belarrira zalantzarik gabe.

Bat-batean, orro izugarri bat entzun zen, eta beste tiro bat bota zuten irtengunearen beste aldean.

—Hartza! —oihu egin zuen Mikel Strogoffek, ezin baitzen tronpatu horrelako orroa aditurik—. Nadia! Nadia!

Eta, ganibeta gerrikotik aterata, jauzi ikusgarri bat egin zuen irtengunearen beste aldera, non bere zain egon behar zuen neska gazteak, agindu zionez.

Pinuek, enborretik adabururaino sugarretan, argi ematen zioten oparo eszenari.

Mikel Strogoff tarantaseraino iritsi zen unean, piztia tzar batek atzera egin zuen berari kontra egiteko.

Neurri handiko hartz bat zen. Ural mendien hegal hartako oihan sarrietatik bota zuen ekaitzak, eta zulo hartara etorria zen babes bila, beste batzuetan bezala. Baina Nadia zegoen han oraingo honetan.

Hiru zaldietako bik, basapiztia ikaragarriak uxaturik, sokak hautsi eta hanka egin zuten, eta *iemstxikak*, abereak besterik ez buruan, neska-txa bakar-bakarrik hartzaren aurrean uzten zuela ahaztuta, haien atzetik abiatu zen ahal bezain azkar.

Nadiak ez du burua galdu. Piztiak neska ikusi ez eta gurdiko hirugarren zaldiari egin dio eraso. Orduan neska gordea dagoen zulotik atera eta

lasterka doa zalgurdiraino. Han Mikel Strogoffen errebolberra hartu eta, ausardiaz hartzaren alde-  
ra hurreraturik, tiro egiten dio bertatik bertara.

Besaburuan arin zauriturik, piztia segidan bihurtu da neskaren kontra. Eraso saihesteko, tarantasari inguruka hasi da lehenbizi, eta zaldia sokak haustekotan dagoela ikusi du. Bidaia guztia arriskuan dago baina, zaldiak mendian galduz gero. Orduan Nadia hartzari aurpegi ematera itzuli, eta, odol hotz-hotzean, piztiaren atzaparrak burua jo behar dioten unean bertan, tiro egiten dio bigarren aldiz.

Bigarren tiro horren eztanda entzun zuen Mikel Strogoffek ondo-ondoan. Baina hantxe da mutila dagoeneko. Jauzi batez hartzaren eta neskatxaren artean jarri da. Haren besoak behetik gora mugimendu bakar bat egin, eta basapiztia larria behea jo eta hilda geratzen da bertan, erditik ebakia sabeletik eztarrira.

Siberiako ehiztarien kolpe ospetsuaren erakusgarri ederra, ganibet ukaldi garbi-garbia, kontu handi-handiz joa, hartzaren larru preziatua ez hondatzeko, prezio handia lortzen baitute haren truke.

—Zauririk, arreba? —galdetu zion Mikel Strogoffek, neskarengana bizi-bizi hurbilduz.

—Ez, neba —erantzun zion.

Memento horretan iritsi ziren bi kazetariak.

Alcide Jolivet zaldiaren burura oldartu zen, eta ukabila sendoa zuela uste izatekoa da, eutsi egin baitzion haren aztoramenari. Bai hark, bai haren lankideak ikusi zuten Mikel Strogoffen jokaera.

—Arraioa! —bota zuen Alcide Jolivetek—. Merkatari soila izateko, Korpanoff jauna, ederki dantzatzen duzu ehizako ganibeta!

—Ederki baino ederkiago! —gehitu zuen Harry Blountek.

—Siberian, jaunak —erantzun zien—, denetik pixka bat egitera behartuta gaude!

Alcide Jolivetek so egin zion orduan gizon gazteari.

Argi betean ikusita, ganibet odoldua eskuan, garaia, lerdena, ausart itxurarekin, eta oina hil berria zuen hartzaren gainean ipinirik, Mikel Strogoff mutil ederra zegoen guztiz.

—Morrosko gotorra! —esan zuen Alcide Jolivetek bere baitan.

Orduan neskatxarengana aurreratu zen begirunez, kapelua eskuan, eta agurtu egin zuen.

Nadiak bizkarra makurtu zuen apur bat.

Alcide Jolivetek, soina bere lankidearengana biratuz, esan zion:

—Arreba bada neba bezainbat! Ni hartza banintz, gorabeherarik ez nuke nahi bikote xar-mant izugarri honekin!

Harry Blount, makila bezain xuxen, besteen-gandik pixka bat bakandurik zegoen, kapelua erantzirik. Kazetari frantsesaren jendetasunak handiagotu egiten zion berezko zurruntasuna.

Une hartan *iemstxika* agertu zen, bi zaldiak soketatik tiraka zekartzala. Begirada atsekabe-tua bota zion lehenbizi lurrean zegoen basapiztia bikainari, hegazti harraparientzat utzi behar bai-tzuten, eta abereak zalgurdiari berriro lotzeko lanaz arduratu zen.

Mikel Strogoffek bi bidaztien egoera azaldu eta tarantaseko zaldietako bat haien esku uzte-ko asmoa zuela adierazi zion.

—Nahi duan bezala —erantzun zion—. Baina zalgurdi baten ordeztu, bi baldin badira...

—Ongi da, lagun hori! —esan zion Alcide Jolivetek, erdizka esandakoa ulertuz—. Halako bi ordainduko diagu.

—Goazen, bada, nire usakume txikitxoak! —garrasi egin zuen *iemstxikak*.

Nadia tarantasera igo zen, eta Mikel Strogoff eta bi berriemaileak jarraitu zioten oinez.

Goizeko hirurak ziren. Ekaitza baretzen ari zen, eta, haizea lehen bezain zakar ez zebilenez, agudo egin zuten bidetik gora haitzartean barrena.

Egunsentiko lehenengo argi urratzeekin batera, tarantasa telega zegoen lekura iritsi zen. Lokatzen gogotik zegoen sartua gurpil abatzetarraino. Aise ulertzen zen gurdiko zaldiek tiraldi bat indarrez eman eta bi ardatzak nola bereizi zituzten bata bestetik.

Tarantasaren albo zaldietako bat telegaren gurtetxean lotu zuten soka batzuen laguntzaz. Bi kazetariak berriz eseri ziren gurdi xelege haren bankuan, eta ibilgailuak berehalaxe jarri ziren abian Ural mendien beste alderantz. Maldan beheara jaitsi besterik ez zuten egin behar, eta, beraz, eragozpenik ez zen ageri bidearen tarte horretan.

Handik sei ordura, bi ibilgailuak, bata bestearen atzetik, Jekaterinburgen sartu ziren, batere okerrik izan gabe bidaiaren bigarren zatian.

Kazetariak nor ikusiko lehenbizi, eta beren *iemstxika*, posta etxearen atean zegoena, haien zain, nonbait.

Itxura ederrekoa zen errusiar jator hura, eta, lotsa izpirik gabe, alai-alai begitartea, bidaztiengana jo eta eskupekoa eskatu zien, eskua luzatuz.

Egiaren izenean esan beharra dago Harry Blounten amorruek eztanda egin zuela bortizkeria guztiz britainiarrez, eta, *iemstxikak* zuhurtzia handiz atzera egin izan ez balu, lege-legera emandako ukabilkada bat muturrean hartuta kobratuko zuela «*na vodku*» hori.

Alcide Jolivet, aldiz, haserre bizi hura ikusirik, barrez lehertzeko zorian zen, sekula barrerik egin izan ez balu legez.

—Arrazoi du-eta koitaduak! —esan zuen—. Eskubide osoa du, nire lankide maite hori! Ez da bere errua izan, hari jarraitzeko modurik aurkitu ez badugu!

Eta kopek batzuk sakelatik atera eta eman egin zizkion *iemstxiki*.

—Har itzak, lagun hori! Gorde itzak! Behar bezala irabazi ez badituk, ez duk hire errua izan!

Harry Blounten sumindura biziagotu zuen horrek, eta gidariaren nagusia bera ere atxilotu eta auzitara eraman nahi zuen.

—Auzitan sartzea Errusian? —oihu egin zuen Alcide Jolivetek—. Baina, gauzak aldatu ez badi-

ra, nire lankide hori, ez duzu inoiz haren bukaera ikusiko! Ez dakizu, bada, hamabi hilabetez bularra eman eta umetxoaren familiari ordaina eskatu zion inudearen kontua?

—Ez dakit, ez —erantzun zion Harry Blountek.

—Orduan, ez duzu jakingo zer bihurtu zen umetxo hori inudearen aldeko epaia eman zutenean?

—Esango duzu, behingoz!

—Bada, guardiako husarren koronela zen ordurako!

Eta barre zantzoka hasi ziren denak, erantzun hura entzutean.

Alcide Jolivetek, berriz, poz-pozik bere ateraldiarekin, koaderno sakelatik atera eta, irribarrera ezpainenetan, errusierazko hiztegieta agertzeko moduko ohar hauxe idatzi zuen:

«Telega: zalgurdi errusiarra, lau gurpilekoa irteeran eta bi gurpilekoa helmugan!».

## XII IRAINA

Jekaterinburg, ikuspuntu geografikotik, Asia-ko hiria da, Ural mendietatik hara kokaturik baitago, mendikatearen ekialdeko azken hegaletan. Hala ere, Perm probintzian dago, eta, beraz, Errusia europarreko barruti handienetako batek hartzen du bere barnean. Bereganatze administratibo horrek arazoiren bat izango du, nahiz Siberiako puska hori Errusiako hortzen artean gelditu dela ematen duen.

Mikel Strogoffek eta bi kazetariak trabarik ez zuten izango hain hiri aipagarrian ibilgailurik aurkitzeko. Jekaterinburg 1723an izan zen sortua. Inperio guztiaren lehenengo txanpon etxea eraiki zuten bertan eta hantxe biltzen da meatzeen zuzendaritza nagusia. Hiri hori, hortaz, industri-gune garrantzitsua da, eta haren inguruko lurraldean ugariak dira fabrika metalurgikoak eta platinoa eta urrea garbitzeko ustiategiak.

Saso hartan, Jekaterinburgeko biztanleria arras ugaldua zen. Errusiarrak edo siberiarrak, tatariarren mende geratzeko beldurrez, hara

joan ziren Feofar Khanen saldoek inbaditutako probintzietatik ihesi; eta kirgizen herritik batez ere iritsi zen jendea, Irtysh ibaiaren hego-mendebaldetik Turkestango mugetaraino hedatzen den eskualde zabal hori utzirik.

Ibilgailuak, bada, eskasak izango ziren Jekaterinburgera iristeko, baina ez, aitzitik, hiritik ateratzeko. Tatariarren mehatxupean, bidaztiek nahiago zuten Siberiako bideetan barrena ez abiatu.

Gauzak horrela, Harry Blountek eta Alcide Jolivetek nekerik gabe aurkituko zuten telega oso bat, Jekaterinburgera nola edo hala eramanez zituen zorioneko telega erdi hura ordezkatzeko. Mikel Strogoffen tarantasa, berriz, berea zen, eta, Ural mendiak zeharkatzean kalte handirik jasan ez zuenez, hiru zaldi on lotzea aski zuen Irkutsk aldera tiratua izateko.

Tiumeneraino, eta are Novo-Saimskeraino ere, bidea malkartsu samarra izango zen, lurralde hartako gorabehera aldakorrek eratzen baitzituzten Ural mendietako lehenengo pendizak. Baina, Novo-Saimsk atzean utzi bezain laster, estepa mugagabea hasten zen, eta Krasnoiarskeko inguruetaraino zabaltzen, mila eta zaz-

piehun bat verstako hedadura batean (1.815 kilometro).

Esan bezala, Ixinera joateko asmotan zeuden bi kazetariak, hau da, Jekaterinburgetik seihun eta hogeita hamar verstara. Han gertakizunek zer aholkatzen zieten ikusi eta eskualde inbadituetan barrena abiatuko ziren, elkarrekin, haien ehiztari senak arrasto berari jarraiaraziz gero, edo nor bere aldetik, sen horrek arrasto desberdinen atzetik bultzatzen baldin bazituen.

Eta Jekaterinburgetik Ixinera eta handik Irkutskerantz doan bide horixe bera hartu behar zuen derrigorrean Mikel Strogoffek ere. Hura, ostera, albisteen atzetik lasterka ibili gabe, eta inbaditzaileek erraustutako alderdi haiek aukerara ez zeharkatu nahiago zuela, irmo erabakia zeukan inon ez gelditzea.

—Jaunak —esan zien bidelagun berriei—, atsegin handiz egingo nuke zuekin bidaiaren zati bat, baina adierazi behar dizuet presa ikaragarria dudala Omskera iristeko, neure arreba eta biok gure amarekin elkartzekotan baikaude han. Eta nork jakin ez ote garen iritsiko tatariarrek hiria inbaditu ondoren! Zaldiak aldatzeko tartean baino ez naiz geldituko posta etxeetan, eta gau eta egun bidaiatuko naiz!

—Halaxe egitea pentsatzen dugu guk ere —  
erantzun zion Harry Blountek.

—Ederki, beraz. Baina ez galdu denbora alferrik. Aloka edo eros ezazue zalgurdi bat eta izan dadila...

—Izan dadila oso-osea —bukatu zuen Alcide Jolivetek—, eta aurreko gurpilak atzekoekin batera eramaten dituzten horietakoa.

Handik ordu erdi batera, frantses prestuak txit erraz aurkitua zuen tarantas bat, Mikel Strogoffena bezalakoxea, eta hantxe jarri ziren eserita bi kazetariak berehalakoan.

Mikel Strogoff eta Nadia beren ibilgailura igo, eta, eguerdian, bi tarantasak Jekaterinburgetik irten ziren elkarrekin.

Nadia Siberian zegoen azkenik eta Irkutskera daraman bide luze horretan zihoan aurrera! Zer ote zerabilen buruan neska gazte livoniarrek une hartan? Hiru zaldi bizkorrek erbesteratze lurraldean barrena zeramaten, non haren aitak bizi beharra zuen zigorturik, luzaro beharbada, eta sorterritik hain urruti! Baina ozta-ozta ikusten zituen begien aurrean igarotzen zitzaizkion estepa luze-zabal haiek, instant batez galaraziak izan zituenak, begirada zero ertzetik harago baitzihoakion, urruntasun hartan erbesteratua zegoena-

ren aurpegiaren bila! Ezerk ere ez zion arreta hartzen hamabost versta orduko zeharkatzen ari zen lurralde hartan, ezeri ere ez zion erreparatzen mendebaldeko Siberiaren eskualde haietan, hain bestelakoak izanik ekialdekoen aldean. Hemen, izan ere, landutako sororik apenas dagoen, eta lurra elkorra da, azalean bai behinik behin, zeren barrenetan oparo ezkututzen baititu burdina, kobrea, platinoa eta urrea. Nonahi ageri ziren, beraz, fabrikak eta meatzeak, baina bakar eta urri baserriak eta nekazaritzako etxaldeak. Nondik lortu lurra lantzeko, alorrak ereiteko, uztak biltzeko behar beste esku, emankorra goa bada lurra lehergailuz eta pikotxaz iraultzea? Hemen, nekazariak meatzariari utzi dio lekua. Pikotxa nonahi, aitzurra inon ez.

Hala eta guztiz, Nadiaren pentsamendua oraingo egoerara itzultzen zen noizetik noizera, Baikal aintzirako probintzia urrunetatik aldendurik. Aitaren irudia lausotzen zitzaion apur bat, eta bere bidelagun zintzoa ikusten zuen berriz ere, Vladimirreko burdinbidean lehenik eta behin, non goikoaren burubideren batengatik topo egin zuten lehenengo aldiz bata bestearekin. Trenean nolako arreta erakutsi zion oroitzen zen, eta nola iritsi zen Nijni Novgorodeko polizi

etxera, zein xalo eta amultsuki hitz egin zion arreba deituaz, nolako adeitasuna agertu zion Volgan behera zihoazelarik, eta, azkenik, nola salbatu zion bizitza Ural mendietako gau ekaiztsu ikaragarri hartan, berea arriskuan jarritz!

Nadiak Mikel Strogoff zeukan, bada, gogoan. Eskerrak ematen zizkion Jainkoari behar orduan babesle ausart hori bidean jarri ziolako. Lagun leial zintzo horren aldamenen seguru sentitzen zen. Egiazko neba batek ez zuen hobeki zainduko. Oztopoen batere beldurrik gabe, erabat ziur zegoen bere helmugara iritsiko zela.

Mikel Strogoffek, era berean, hitz gutxi eta gogoeta asko egiten zituen. Hark ere eskerrak ematen zizkion Jainkoari, Nadia parean jarri ziolako, bere egiazko nortasuna gordetzeko modua eskaintzeaz gain, egintza on bat burutzeko aukera ematen zion eta. Neskatzaren adore lasaia atsegin zitzaion bere arima kartsuari. Hura ez zela bere arreba benetan? Errespetuz bezain maitazarrez begiratzen zion bere bidelagun eder bipilari. Behin ere hutsik egiten ez dizuten bihotz garbi bakan horietakoa iruditzen zitzaion.

Hala ere, Siberiako lurra zanpatu zuenetik hasi ziren bene-benetako arriskuak Mikel Strogoffentzat. Bi kazetariak oker ez bazeuden, Ivan

Ogareff mugaz bestaldera igaroa zen, eta, hortaz, zuhurtziarik handienaz jokatu behar hemendik aurrera. Kontuak bestelakoak izango ziren orain; bazter orotan ibiliko ziren zelatari tatariarrek Siberiako probintzietan, inurriak baino ugariago. Mozorroa eroriz gero, tsarraren mandataria zela agerian geldituz gero, ezingo zuen bete egitekoa, eta bereak egingo zuen beharbada! Are astunagoa bilakatu zitzaion bere bizkar gainean eraman beharreko erantzukizuna.

Lehenbiziko zalgurdian gauzak horrela zeuden bitartean, zertan ziren bigarrenean? Nabarmentzeko ezertan ez. Alcide Jolivet esaldi luzez ari eta ari, eta Harry Blount hitz silababakarrez erantzuki. Gauzak nork bere eran zekuskiten eta nork bere oharrak hartzen zituen bidaiaren gorabehereri buruz, nahiz ezer gutxi gertatu mendealdeko Siberiaren lehenengo probintzien ibilaldi hartan.

Posta etxe batera iristean, bi berriemaileak jaitsi eta Mikel Strogoffekin elkartzan ziren. Bertan otordurik ez egitera, Nadiak ez zuen tarantasa lagatzen. Bazkaritan eta afaritan mahaira esertzen zen, baina kasik inoiz ez zuen parte hartzen elkarrizketetan, bere baitara bildua beti.

Alcide Jolivetek egokierarik ez zuen galtzen gazte livoniarrarekiko adeitsu agertzeko, gizalege estuenaren mugetatik inola ere ateratzeke, bestalde. Xarmangarria zen, haren begietan, eta miraz zegoen hain bidaia gogorraren neke eta larritasunen erdian erakusten zuen kemen isilaz.

Beharturiko geldialdi horiek ez zuten Mikel Strogoff biziki pozten. Posta etxetik lehenbailehen abiatu nahi zuen aldi oro, eta, horretarako, zaldi berriak tarantasetan agudo baino agudoago lotarazten zituen, postako nagusiei eraginez eta *iemstxikei* akuiluka. Gero, otordua arin-arin bukatu —arinegi beti ere Harry Blounten gusturako, jale metodikoa izanik—, postatik irten, eta aurrera. Kazetariak ere arranoak bezala garraiatuak ziren airean, ez baitzuten alferrik ordaintzen printzeen modura eta «Errusiako arranoez», Alcide Joliveten hitzekin esanda.

Esan gabe doa Harry Blountek batere jaramonik ez ziola egiten neska gazteari. Gai horretaz ez zuen eztabaidatzen bere lankidearekin; eta ez ziren askozaz gehiago horrelako grina pizten ez zioten mintzagaiak. *Gentleman* ohoragarri hark ez zuen ohiturarik bi gauza batera egiteko.

Eta Alcide Jolivetek behin gazte livoniarra zer adinekoa izango zen galdetu ziolarik:

—Zein gazte livoniar? —erantzun zion serio-serio, begiak erdi itxiz.

—Ene bada! Nikolas Korpanoffen arreba!

—Haren arreba da?

—Ez, haren amona! —bota zion Alcide Jolivetek, halako axolagabekeria nabariak sumindurik—. Zenbatsu urte ditu, zure ustez?

—Mundura jaiotzen ikusi izan banu, jakingo nuke! —erantzun zion soilik Harry Blountek, horretaz solasean hasteko gogorik gabe.

Inor ez zen ageri bi tarantasek zeharkatzen zuten alderdian. Eguraldia ez zen txarra. Goi estalia zegoen erdizka, eta temperatura eraman-garriagoa zen. Ibilgailuek bidearen kolpeak hobeki motelduz gero, kexatzekorik ez zuten izango bidazteik bidaia zela eta. Errusiako posta berlinak bezala zihoazen, arin bai arin, arrapalada betean.

Herrialdeak huts-hutsik irudi zuen, baina orduko egoerak sortua zen abandonu hura. Sorotan nekazari siberiar banaka batzuk edo bat ere ez. Begitarte zurbil latzeko laborari haiek gaztelakoekin alderatu ditu zuzentasunez emakume bidazti ospetsu batek, baina azken hauen harrokeriarik gabe. Han-hemenka, herri batzuk, inor gabe jadanik, tatariarren tropak hurbiltzen ari

ziren seinale. Biztanleak iparraldeko lautadetara joanak ziren babes bila, beren ardiak, gameluak eta zaldiak aldean eramanda. Kirgiz ibiltarien leinu handiko tribu zenbaitek, fidelak enperadorearekiko, Irtish eta Obi ibaien beste aldera aldatu zituzten beren dendak, inbaditzaileen harripaketetatik ihesi.

Beharrik, posta zerbitzua normaltasunez zebilen artean. Eta, orobat, telegrafo zerbitzua, hariaren bidez harremanetan segitzen zuten puntuetaraino, bederen. Posta etxe bakoitzean, nagusiek zaldiz hornitzen zituzten tarantasak, araei jarraituz. Eta telegrafo etxe bakoitzean, enplegatuek, leihatilan eserita, eskuratu ahala bidaltzen zituzten mezuak, berandutu gabe, Estatuaren telegramaren batengatik ez bazen, horrelakoek lehentasuna zuten eta. Halatan, maiz baliatu ziren zerbitzu horretaz Harry Blount eta Alcide Jolivet.

Hortaz, bada, Mikel Strogoffen bidaia aurrera zihoan eragozpen handirik gabe oraingo. Tsarraren mandatariak atzerapenik ez zuen izan, eta, Feofar Khanen tatariarrek Krasnoiarsk hiria-  
ren aurrean paraturik zuten soldadu talde aitzindaria saihestea lortuz gero, haiek baino lehena-

go iritsiko zen inondik ere Irkutskera eta sekula baino denbora tarterik laburrenean.

Jekaterinburgetik irten eta biharamunean, Tuluguisk herrixkara sartu ziren bi tarantasak, goizeko zazpitan, berrehun eta hogeitaz versta ibili ondoren, tarte horretan kontatze korik ezer gertatu ez zitzaie.

Han gosari legea egin zuten ordu erditxo batean, eta berriz abiatu ziren kopek eder batzuen promesik gabe nekez ulertuko zen abiadura biaz.

Egun hartan bertan, uztaileak 22, arratsaldeko ordu batean bi tarantasak Tiumenera heldu ziren, hirurogei versta urrunago.

Tiumenen hamar mila lagun bizi ohi dira, baina halako bi zeuden pilaturik garai hartan. Ordukoa bezalako giro beroa inoiz ezagutu ez zuen hiri hura izan zen errusiarrek Siberian sorturiko lehen industrigunea, eta kanpaien galdategia eta metalgintzako fabrika ederrak nabarmentzen ziren inguruetan.

Bi berriemaileak aurki joan ziren azken albisteena bila. Iheslari siberiarrek gerraren jokalekutik ekarritakoak ez ziren kezka lasaitzeko modukoak.

Besteak beste, Feofar Khanen armada Ishim-go ibarrerantz bizkor hurreratzen ari zirela zioten, eta baieztatu egiten zuten tatariarren burua laster elkartuko zela Ivan Ogareff koronelarekin, jada elkartua ez bazen. Eta hortik berez ondorioztatzen zen erasoaldiak Siberiaren ekialdean sustatuko zituztela indar handiz.

Soldadu errusiarren osteak, berriz, urruti zeuden, Errusia europarretik etorri behar baitzuten gehienbat, eta ezin zioten inbasioari aurre egin. Hala ere, Tobolsk probintziako kosakoak Tomsk aldera zihoazen inon atsedetik hartu gabe, tatarriarren andanei pasabidea mozteko itxaropentan.

Arratsaldeko zortzietarako, hirurogeita hamabost versta gehiago kendu zizkieten bitarantasek bideari, eta Jalutorovskera iritsi ziren.

Zaldiak azkar aldatu, hiritik atera eta Tobol ibaia igaro zuten gabarra batean. Ura mantso zihoan oso, eta aise zeharkatu zuten, baina behin baino gehiagotan errepikatu beharko zuten aurrerantzean horrelako ekintza, eta kinka larriagoetan segur aski.

Gauerdian, berrogeita bost versta harago (58,5 kilometro), Novo-Saimsk herrixkara ailegatu ziren, eta bidazteik atzean utzi zituzten azke-

nik lur malkartsu samar haiek, muino zuhaitzez estaliak, Ural mendien azken sustraiak.

Hementxe hasten zen egiaz estepa siberiarra deritzana, Krasnoiarskeko inguruetaraino zabal-tzen dena. Muga gabeko lautada itzela, belarrez-ko basamortu antzekoa; begi bira guztian zeru-lurrak nahasten ziren konpasaren bidez garbi marrazturikoa zirudien kurba batean. Estepa hartan goragune bakar bat ere ez zen ageri bistara, telegrafo zutoinen profilak izan ezik. Bidea-ren bi aldeetan paraturik zeuden, eta haizeak dar-dar eragiten zien hariei, harpa batenak balira bezala. Bide bera ere ez zen bereiziko inguru-ko lurretatik, tarantasen gurpilek harrotzen zuten hauts mehearengatik izan ez balitz. Xingo-la zurixka hura gabe, paraje haiek mortuak zire-la pentsa zitekeen.

Mikel Strogoff eta haren bidelagunak are abiadura biziagoaz oldartu ziren estepan aurre-ra. Zaldiek, *iemstxikak* zuzpurturik eta atzeraga-rririk inon topatu gabe, bidea irentsi egiten zuten. Tarantasak zuzen-zuzen zihoazen laster-ka Ixin aldera, non bi kazetariak geldituko baitzi-ren, ezustekoren batek asmoa aldarazten ez bazien, behinik behin.

Berrehun versta inguru daude Novo-Saimsketik Ixin hiriraino, eta hurrengo egunean, arratsaldeko zortziak baino lehen, tarte hori ibilia eduki beharra zuten eta ibilia eduki zezaketen, denbora alferrik galdu ezean. *Iemstxiken* gogoan, bidaztiak jaun handiak edo goi funtzionarioak ez izan arren, haiek bezain duinak ziren, beste arrazoirik ez bazen ere, bai behintzat eskupekoak ordaintzen erakusten zuten eskuzabaltasunaren kariaz.

Biharamunean, uztailak 23, Ixindik hogeita hamar verstara zeuden bi tarantasak, egon ere.

Une hartan, bere aurretik beste ibilgailu bat zihoala ikusi zuen Mikel Strogoffek, hautsaren kiribilen artean ia sumaezina izanagatik ere. Haren zaldia nekatuagoak zeuden, nonbait, tarantasak agudoago baitzebiltzan, eta laster harrapatuko zuten, oso luze joan gabe.

Ez zen tarantas bat, ezta telega bat ere, postako berlina bat baizik, hautsez zeharo estalirik, eta ordurako bidaia luzea egindakoa inondik ere. Gidaria zaldiei jo eta jo ari zen eginahal guztian eta hitz zantarrez eta kolpez baino ez zuen lortzen lauoinka joan zitezen. Ezagun zen berlina hori ez zela Novo-Saimsketik igaro, eta estepan

galdutako bideren batetik etorria behar zuen Irkutskeko bide honetara.

Mikel Strogoffek eta haren bidelagunek Ixin aldera korrika zihoan berlina hura ikusi eta pentsamendu bakarra izan zuten, aurrea hartu eta posta etxera lehenago iristea, han prest izango ziren abereak beste inorentzat ez izatea ororen gaineratik ziurtatzeko. *Iemstxikei* agindua eman eta berehala abiatu ziren berlinaren zaldi akituen ondotik.

Mikel Strogoff iritsi zen lehenbizi haren pare-ra.

Orduan buru bat agertu zen berlinaren atean.

Mikel Strogoffek ozta izan zuen ikusteko beta. Bizi-bizi aurreratu zuen, baina, hala ere, ongi bereizi zuen ahots larderiatsu batek bota zion hitza:

—Geldi!

Ez zen inor gelditu. Aitzitik, berlina ziztu bizioan aurreratu zuten bi tarantasek.

Abiadurako lasterketa hasi zen orduan, berlinako zaldiak zirikatu egin baitzituzten aurrea hartu zieten beste zaldien presentziak eta ibilerak, eta, horrela bizkorturik, eutsi egin zioten korrikaldiari zenbait minutuz. Hiru zalgurdiak desagertu ziren hautsezko hodei batean. Hodei

zurixka hartatik, eztanda sorta bat bezala, zar-tailuen zirtakoen hotsa irteten zen, oihu zuzper-garriekin eta amorruzko garrasiekin nahasirik.

Alabaina, aldea handiagotu zuten Mikel Strogoffek eta haren bidelagunek, eta alde hori garrantzitsua izan zitekeen oso, hurrengo postan zaldi gutxi edukiz gero. Bi zalgurdi hornitzea gehiegi izango zen agian postako nagusiaren-tzat, bai behintzat epe laburrean.

Handik ordu erdira, berlina, atze-atzera gera-tua azkenik, ia puntu ikusezin bat zen esteparen zeru ertzean.

Arratsaldeko zortzietan iritsi ziren bi taranta-sak postako etxera, Ixineko ateetan.

Inbasioaren berriak gero eta txarragoak ziren. Tatariarren tropen abangoardiak bertatik bertara mehatxatzen zuen hiria, eta agintariak bi ordu lehenago atera ziren Tobolsk aldera babes bila. Ixinen ez zegoen ez funtzionariarik, ezta soldadurik ere.

Postara bezain laster, Mikel Strogoffek zal-diak eskatu zituen beretzat.

Bete-betean asmatu zuen berlinari aurre har-tuta. Une hartan hiru zaldi besterik ez zeuden prest ibilgailuari lotzeko, gainerakoak atsedean

hartzan ari baitziren ibilaldi luzeren baten ondolik.

Postako nagusiak tarantasari lotzeko agindua eman zuen.

Bi kazetariei, aldiz, egokia iruditu zitzairen Ixinen geldialdia egitea, eta beren ibilgailua posta etxean gordearazi zuten, zaldia segituan erdiesteko kezkarik gabe.

Postara iritsi eta hamar minutura, tarantasa abiatzeko gertu zegoela ohartarazi zioten Mikel Strogoffi.

—Ederki! —erantzun zuen pozik.

Gero, bi kazetariengana zuzendu zen.

—Jaunak, oraintxe dugu banantzeko garaia, hemen gelditzen zaretenez gero.

—Nola, Korpanoff jauna —esan zion Alcide Jolivetek—, ez duzu ordubete ere emango Ixinen?

—Ez, jauna, eta posta etxea utzi nahi dut aurreratu dugun berlina hori iritsi aurretik.

—Beldurrak zaude bidazti horrek postako zaldia kenduko dizkizun?

—Eragozpen guztiak saihestu nahi ditut batez ere.

—Orduan, Korpanoff jauna —esan zion Alcide Jolivetek—, berriz ere eskerrak ematea baino ez

zaigu falta. Mesede galanta egin diguzu, eta oso atsegina izan da bidaia zurekin batera egitea.

—Gainera, baliteke Omsken berriz elkarrekin topo egitea, hemendik egun batzuetara —gehitu zuen Harry Blountek.

—Baliteke, bai horixe, hara noa-eta zuzen-zuzenean.

—Ederki, Korpanoff jauna! Ongi joan! —opa izan zion Alcide Jolivetek—. Eta Jainkoak begira zaitzala telegen madarikaziotik!

Bi kazetariak bostekoa luzatu zioten Mikel Strogoffi, bihotz-bihotzez estutu nahian, baina, bat-batean, zalgurdi baten soinua sartu zen kanpotik.

Entzun ordukoxe, posta etxeko atea danbada batez zabaldu, eta gizon bat agertu zen.

Berlinako bidaztia zen, itxura militarreko gizaseme mardul bat, berrogei bat urtekoa. Burua sendo zuen, sorbaldak zabal, bibotea handi itxia, belarriondoko ile gorrixkekin bat egi-ten zuena. Uniformez jantzita zegoen, baina inolako bereizgarririk gabe. Zalditeriako sable bat zeraman gerrian zintzilik, eta gider laburreko zartailu bat eskuan.

—Zaldiak —eskatu zuen, aginduak emateko ohitura duenaren larderiaz.

—Ez daude prest —erantzun zion postako nagusiak, burua makurtuz.

—Oraintxe bertan behar ditiat.

—Ezinezkoa da.

—Zer dira, bada, kanpoko tarantasean ikusi ditudan zaldi lotu berri horiek?

—Bidazti honenak dira —esan zion postako nagusiak, Mikel Strogoff eskuaz erakutsirik.

—Aska ditzatela! —agindu zuen kontrakorik onartzen ez zuen doinu batez.

Mikel Strogoffek aurrera jo zuen orduan.

—Zaldi horiek nik eskuratu ditiat —esan zion.

—Bost axola niri! Behar ditiat eta kito! Ea, bada, azkar! Ez diat-eta galtzeko denborarik!

—Nik ere ez diat galtzeko denborarik —erantzun zion Mikel Strogoffek, lasai egon nahi baina nekez lortzen zuela.

Nadia haren alboan zegoen itxura lasaian, baina barrena kezkatan zuen, nahaste hura saihestu ezinik.

—Aski! —oihu egin zuen bidaztiak.

Gero, postako nagusiarengana itzuliz:

—Aska ditzatela zaldiak tarantas horretatik —agindu zion garrasi batean, mehatxuzko keinua egiten ziola—, eta nire berlinan lotu ditzatela!

Postako nagusiak, estutasun ederrean, ez zekien nori obeditu, eta Mikel Strogoffi begira zegoen, hark baitzuen ezbairik gabe bidaztiaren eskaera bidegabeei kontra egiteko eskubidea.

Mikel Strogoffek zalantza egin zuen lipar batean. Ez zuen *podaroshnaz* baliatu nahi, nabarmen geratuko zen eta. Baina, beste alde-tik, ez zizkion zaldiak utzi nahi, eta ezta harekin borrokan hasi ere, bere egitekoa arriskuan jarriz.

Bi kazetariak begira zituen, laguntzeko prest, dei egiten baldin bazien.

—Nire zaldiak nire zalgurdian geratuko dituk—esan zion Mikel Strogoffek, baina hitzak Irkutskeko merkatari soil bati zegokiona baino gorago altxatu gabe.

Bidaztiak orduan Mikel Strogoffengana jo zuen, eta eskua sorbaldan zakar ipinita:

—Horrelaxe beraz! —esan zion orro eginez—. Ez dizkidak zaldiak utzi nahi!

—Ez —erantzun zion.

—Ongi duk, bidean segi dezakeenak eramango ditik! Defenda ezak hire burua! Ez diat gupidarik izango!

Eta, horrela hitz egin ondoren, bidaztiak sablea zorrotik bizi atera eta borrokarako prestatu zen.

Nadia Mikel Strogoffen aurrera oldartu zen.

Harry Blount eta Alcide Jolivet ere aitzina joan ziren haren aldera.

—Ez diat borrokan egingo —esan zuen Mikel Strogoffek sinpleki, besoak bular aldean gurutzatzen zituela, bere buruari hobekiago eutsi guran.

—Ez duk borrokan egingo?

—Ez.

—Ezta honen ondotik ere? —oihu egin zion bidaztiak.

Eta, gelditzeko aukera izan baino lehen, zar-tailuaren giderraz jo egin zion Mikel Strogoffi sor-baldan.

Horrela iraindurik, Mikel Strogoff zurbildu egin zen ikaragarri. Eskuak altxatu zituen zabal-zabalik. Pertsonaia basati hura txiki-txiki egin behar zuela irudi zuen. Baina, ahalegin osoz, mendean hartu zuen bere burua azken mementoan. Liskarrak bidaia atzeratu ez ezik, bere egitekoea bertan behera galaraz zezakeen behar-bada!... Hobe zuen ordu batzuk galtzea!... Bai! Baina irain hori irenstea ere!

—Borrokan egingo duk orain, koldar hori? —errepikatu zion bidaztiak, basakeriari iseka gehitzen ziola.

—Ez! —erantzun zion Mikel Strogoffek, zirkinik egin gabe, baina bidaztiari begiz begi so egin ez.

—Zaldiak, eta berehalaxe! —agindu zuen orduan.

Eta etxetik atera zen.

Postako nagusia atzetik joan zitzaion berandu gabe, baina sorbaldak goratu eta Mikel Strogoffi gaitzesenez begiratu zion lehenago.

Gertaera horrek Mikel Strogoffen aldeko mirespena zapuztu zien bi berriemaileei. Hura bai ezustekoa! Halako mutil gordinak horrelako kolpea hartu eta ordainik eman ez! Agur motz bat esan eta alde egin zuten, Alcide Jolivetek honakoa esaten ziola Harry Blounti:

—Sekula ere ez nuen espero halakorik Uraletako hartzak hain garbi erditik ebakitzen dituen gizon batengandik! Egia ote adoreak orduak eta moduak dituela? Ezin ezer ulertu! Beharbada jopu izan behar, horretarako; eta horixe falta zaigu guri, ikusitakoak ikusita!

Une bat geroxeago, berlina posta etxea azkar uzten ari zela adierazi zuten argiro gurpilen kirrinkak eta zartailuaren zirtek.

Nadia, sor eta gor, eta Mikel Strogoff, dardaraz artean, postako aretoan gelditu ziren bakkarririk.

Tsarraren mandataria eseri zen, beso gurutatuak bularretik kendu gabe. Estatua bat zela esan zitekeen. Hala eta guztiz, haren gizon-begitarte zuria gorri kolorez margotu zen, eta ez lotsaz, hain zuzen.

Nadiak dudarik ez zeukan arrazoi oso handiengatik baizik ezin zuela irentsi horrelako gizon batek tamaina horretako iraina.

Hortaz, harengana hurbildu eta hark Nijni Novgorodeko polizi etxean egin zion legez:

—Emaidak eskua, neba nirea! —esan zion.

Eta, horrekin batera, gizonaren begitik isurtzeko zorian zegoen malko bat xukatu zion hatz batez, ama batek bere umeari bezalatsu.

# XIII

## OROREN GAINETIK, EGINBEHARRA

Nadiak igarri zuen Mikel Strogoffen ekintza guztiak eragile isilpeko batek zuzentzen zituela, bazegoela ezkutuko arrazoiren bat bere buruarren jabe izaten uzten ez ziona, ez zuela eskubiderik nahierara ibiltzeko, eta, gertatu berri horretan, bere eginbehar isilarengatik uko egin ziola heroitasunez baita irain hilgarri baten erresuminari ere.

Nadiak, bestalde, ez zion azalpenik eskatu. Eskua luzatu zion, eta esku luzatu hark ez ote zion aurretik erantzuten hark esan ziezaiokeen guztiari?

Mikel Strogoffek mutu iraun zuen arrats osoan. Gaua posta etxean eman behar zuten, bertako nagusiak hurrengo goizera arte ezin baitzizkien eskuratu zaldi atsedean hartuak. Nadiak, bada, zertxobait pausatzeko aukera zuen, eta logela bat atondu zioten.

Neska gazteak nahiago zuen, inondik ere, bere bidelagunaren aldamenean egon, baina

bakardadean egoteko beharra izango zuela pentsatu, eta beretzat prestatutako logelara joatea erabaki zuen.

Hala ere, irtetekotan zegoela, ezin izan zion eutsi agur esateko gogoari.

—Neba... —xuxurlatu zuen.

Baina Mikel Strogoffek eten egin zion keinu batez. Hasperen bat joan zitzaion neskari bularretik, eta gelatik irten zen.

Mikel Strogoff ez zen oheratu. Loak ez zuen hartuko, ezta ordubeteen ere. Erredura antzeko bat sentitzen zuen bidazti basatiaren zartailuak jo zuen lekuan.

—Aberriaren eta Aitaren alde! —esan zuen berekiko ahots apalez azkenik, gaueko otoitza bukatutakoan.

Dena dela, premia gaindiezin batek hartu zuen osoki. Nor zen kolpe hura eman zion gizona? Nondik zetorren eta nora zihoan? Jakin beharra zeukan. Haren begitarteaz ongi oroitzen zen. Tinko baino tinkoago zituen haren hazpegiak gogoan gorderik. Beldurrik ez, inoiz ahaztuko zitzaizkion.

Mikel Strogoffek postako nagusia etorrarazi zuen.

Hura, siberiar peto-peto bat, berehala agertu zen, eta, gizon gazteari apur bat goitik begiraturik, zain geratu zen zer galdetuko.

—Hemengoa haiz? —itaundu zion Mikel Strogoffek.

—Bai.

—Ezagutzen duk nire zaldiak eraman dituen gizona?

—Ez.

—Sekula ez duk ikusi?

—Sekula ez!

—Nor izan daiteke, hire ustez?

—Obediarazten dakien jaun bat!

Mikel Strogoffen begiratu labana bezala sartu zen postako nagusiaren bihotzean, baina hark ez zuen horregatik betazala itxi.

—Ni epaitzera ausartzen haiz? —oihu egin zion Mikel Strogoffek.

—Bai —erantzun zion siberiarrak—, bai baitira zenbait gauza ezta merkatari soil batek ere ezin jasan dituenak ordainik eman gabe!

—Zartailuaren kolpeak?

—Zartailuaren kolpeak, gazte! Behar beste urte eta behar beste indar badiat hiri esateko!

Mikel Strogoff postako nagusiarengana hurreratu eta bere bi esku sendoak paratu zizkion sorbaldetan.

Gero, ahots lasai-lasaiaz:

—Ospa, lagun hori —esan zion—, ospa! Hilko haut, bestela!

Postako nagusiak ulertu egin zuen aldi horretan.

—Horrela nahiago diat —esan zuen xuxurla batean.

Eta alde egin zuen bestelako hitzik gehitu gabe.

Biharamunean, uztailak 24, goizeko zortzietan, tarantasak hiru zaldi eder zituen loturik. Mikel Strogoff eta Nadia igo eta eserita jarri ziren, eta Ixin hiria, hain oroitza gozakaitzekoa bientzat, aurki galdu zen bidearen bihurtune baten atzean.

Egun hartako posta etxe guztietan jakinarazi zioten Mikel Strogoffi berlina aurretik zihoakiola beti ere, eta bidaztiak, hura bezain presati, ez zuela denbora izpirik galtzen estepan barrena Irkutsuera bidean.

Arratsaldeko lauretan, hirurogeita hamabost versta urrunago, Abatskoieko geldilekuan, Irtish

ibaiaren adar nagusietako bat zeharkatu beharra izan zuten, Ishim izenekoa.

Zailxeagoa gertatu zitzaien Tobolekoa baino. Izan ere, Ishim ibaiko ura bizi-bizi zihoan leku hartan. Negu siberiarrean, estepako ur laster horiek denak, izotzezko geruza guztiz lodia gainean dutela, aise igarotzen dira, eta bidaztia ia ohartu gabe zeharkatzen ditu, haien ibilgua desagertzen baita estepa osoa estaltzen duen zurtasun beti-berdin amaigabearen azpian; baina, uda partean, zailtasunak handiak izan daitezke.

Hortaz, bada, bi ordu eman behar izan zituzten Ishim zeharkatzen; eta, batetik, atzerapenak berak, eta, bestetik, gabarrariak tatariarren inbasioaz eman zizkioten berri kezkarriek amorruez bete zuten Mikel Strogoff.

Hona zer zioten:

Feofar Khanen zenbait esploratzaile agertu omen ziren jada Ishim ibaiaren behealdeko ertz batean eta bestean, Tobolsk probintziaren hego eskualdeetan. Omsk hiria arrisku larrian zegoen. Borrokaldi bat izan omen zen soldadu siberiarren eta tatariarren artean, kirgizen leinu handien mugan —borrokaldi ez oso onuragarria errusiarrentzat, puntu horretan ahulegiak izaki—. Porro-

taren ondotik, tropek atzera egin zuten, eta, ondorioz, probintziako nekazariak beren lurraldetik joan ziren denak batera. Inbaditzaileek ankerkeria izugarriak egiten omen zituzten, harrapaketak, lapurretak, suteak, hilketak. Hori xe zen tatariarren gerra moldea. Jendeak leku guztietatik ihes egiten zuen Feofar Khanen gudarostearen abangoardia aurreratu ahala. Hiriak eta baserriak hutsik geratzen ari ziren, eta horrek beldur handia sortarazten zion Mikel Strogoffi, zaldirik gabe gera zitekeelako. Lehenbailehen iritsi nahi zuen Omskera. Beharbada, hiri horretatik ateratzean, Irtisheko ibarrean behera zihoazen esploratzaile tatariarrei aurre hartzea izango zuen eta Irkutskeraino bidea trabarik gabe aurkitu.

Leku hartan bertan, tarantasak ibaia zeharkatu berri zuen parajeon, bukatzen zen hizkera militarrez «Ishimgo katea» deritzana, dorrez edo egurrezko fortez osatutako katea bat, Siberiako hego mugatik aurrera lauhun verstaz luzatzen dena (427 kilometro). Behinola, gotorleku horietan kosakoen destakamenduak izaten ziren, herrialde hura bai kirgizen kontra bai tatariarren kontra babesteko. Baina, bertan behera utzirik, Moskuko gobernuak herri liskartsu horiek erabat

menderatuak zeudela uste izan baitzuen, ezin zituzten erabili, hain zuzen, benetan baliagarriak izan behar zuten garaian. Forte gehienak errautsetan zeuden, eta gabarrariak Mikel Strogoffi erakusten zizkioten ke mataza batzuek, gora zurrunbiloka hegoaldeko zerumugan, abangoardia tatariarra hurbil zegoela frogatzen zuten.

Gabarrak Ishim ibaiaren eskuin ertzean utzi zituen tarantasa eta zaldiak, eta ziztu bizian abiatu ziren berriro ere estepako bidean aurrera.

Arratsaldeko zazpiak ziren. Goi estalia zegoen oso. Eta, lantzean-lantzean, ekaitz euria botatzen zuen, hautsa desagertarazten eta bideak garbiago uzten zituela.

Mikel Strogoff, Ixingo geldialdiaren ondotik, goibel zegoen, eta isil. Hala ere, erne-erne zebilen beti Nadiari atsedetik gabeko bidaia neketsu honen sufrikarioa arintzeko, neskaren ezpainetik kexarik ez irten arren. Nadiak hegalak eman nahiko zizkiekeen tarantaseko zaldiei. Haren bidelagunak Irkutskera iristeko berak baino are presa handiagoa zuela gogora zekarkion zerbait; eta, zenbat versta oraindik haraino!

Pentsamendu bat etorri zitzaion burura batbatean. Tatariarrek Omsk inbaditu bazuten, Mikel Strogoffen ama, hiri horretan bizi zena,

arriskuan egongo zen, eta kezka handia eragingo zion horrek semeari. Ulegarria zen amarengana iritsi arteko onik ez izatea.

Bere bidelagunaren ama bakar-bakarrik egongo zen gertakizun larri haien erdian, eta Marfa zaharra hizpidera ekarri behar zuela iruditu zitzaion orduan Nadiari.

—Hire amaren berririk ez duk jaso inbasioa hasi zenez geroztik? —galdetu zion.

—Ezta bat ere, Nadia. Orain dela bi hilabete bidali zidan amak azken eskutitza, baina berri onak zitunan. Marfa emakume adoretua dun, kemen handiko siberiar ausarta. Zaharra izanik ere, bere barne indar guztiari eusten zion. Bazakin sufritzen.

—Ikustera joango nauk, neba nirea —esan zion Nadiak bizi—. Arreba deitzen nauanez gero, Marfaren alaba nauk!

Eta, Mikel Strogoffek erantzunik ematen ez ziola ikusirik:

—Beharbada ez duk Omsken izango —gehitu zuen—.

—Baliteken, Nadia —esan zion—, eta Tobolsken izango dela ere espero dinat. Marfa zaharrak tatariarra gorroto din. Estepa ezagutzen din, ez zaukan beldurrik, eta, makila hartuta Irtish ibaia-

ren ertzean behera abiatuko ahal zen! Probin-tziako bazter guzti-guztiak ezagutzen ditin. Zen-bat aldiz ez da ibili lurralde honetan zehar gure aita zaharrarekin, eta zenbat aldiz ez naiz ni haien atzetik joan, umea artean, basamortu siberiarrean hara eta hona egiten zituzten ibilal-dietan! Bai, Nadia, amak Omsketik alde egin izana espero dinat!

—Eta noiz ikusiko duk berriz?

—Noiz?... Itzultzen naizenean.

—Hala ere, hire ama Omsken baldin badago, ordubete hartuko duk besarkada bat emateko?

—Ez naun joango besarkatzera!

—Ez duk ikusiko?

—Ez, Nadia...! —erantzun zion Mikel Strogoffek, bularra puzten zitzaiola, neskaren galderei erantzuten jarraitu ezinean.

—Ezetz esaten duk! Ai! Neba, zer arrazoirengatik egiten diok uko ama ikusteari, Omsken baldin badago?

—Zer arrazoirengatik, Nadia! Zer arrazoirengatik galdetzen didan! —esan zion oihuka Mikel Strogoffek, ahotsa guztiz asaldaturik, neskatxa beldurtzeraino—. Bada, iraina koldarkeriaz pairatzeko izan ditudan berberengatik, doilor horrek...

Ezin esaldia bukatu.

—Lasai hadi —esan zion Nadiak ezti-ezti—. Gauza bat besterik ez zakiat, edo hobeki esanda, jakin ez, sentitu egiten diat! Hire jokamolde guztia sentimendu batek zuzentzen duela, eginbehar utziezina bete beharra daukaala, semea amarekin lotzen duena baino are sakratuagoa.

Nadia isildu zen, eta, handik aurrera, ez zuen ekarri solasera Mikel Strogoffen egoera berezia gogoraraz zezakeen elkarrizketa gairik. Mutilak bazeukan isilekoren bat, errespetatu beharrekoa. Eta neskak errespetatu egiten zuen.

Biharamunean, uztailak 25, goizeko hiruretan, tarantasa Tiukalinskeko posta etxera iritsi zen, ehun eta hogeitazero bidea eginik Ishim zeharkatu zutenetik.

Zaldiak agudo aldatu zituzten. Baina *iemstxikak*, estreinako aldiz, eragozpenak ipini zituen abiatzeko. Tatariarren taldeak estepa arakatzen ari zirela esan zien, eta bidaztiak, abereak eta zalgurdiak harrapakin ederra izango zirela lapur basati horientzat.

Mikel Strogoffek diru hotsez baizik ezin izan zuen gainditu *iemstxikaren* gogorik eza, ez baitzuen bere *podaroshnaz* baliatu nahi izan estualdi honetan, beste hainbatetan bezala. Azken

dekretua telegrafo hariaren bidez iritsia zen Siberiako probintzietara, eta errusiar batek haren debekuari men ez egiteko baimena zuela ikusteak harrituko zuen jendea, eta arreta handiz begiratuko zioten. Horixe saihestu behar zuen ororen gaintetik tsarraren mandatariak. *Iemstxikaren* zalantzei zegokienez, ez zuen azeri hark etekin atera nahiko bidaztiaren ezinezogaz? Edo bazuen benetan motiborik ez behar baten beldurrez egoteko?

Tarantasa abian jarri zen azkenean, eta hain antze handiz eraman zuen *iemstxikak*, ezen arratsaldeko hiruretan Kulatsinskoera iritsi ziren, laurogei versta aurrerago. Handik ordubetera, Irtish ibaiaren ertzean zeuden, Omskeraino hogeit hamar bat versta baino gelditzen ez zirela.

Ibai zabala da Irtish izenekoa, eta Asiako iparralderantz doazen nagusienetako bat. Altai mendietan sortu, hego-ekialdetik ipar-mendebaldera zehar jo eta Obi ibaira isurtzen du ura, zazpi mila versta inguru ibili eta gero.

Uraldi sasoia zen Siberiako arro guztian, eta Irtish ibaiaren ur maila handia zen oso. Gainera, ur lasterra bortxaz eta jauzika zihoan aitzina, uharra irudi, ibaia gurutzatzea erabat zailduz. Ezin zen igerian zeharkatu, igerilari aparta izan

arren, eta, gabarra batean ere ez zen batere arrisku gabea Irtish ibaia gurutzatzea.

Baina arrisku horiek, bestelakoek bezala, ezin gerarazi, ezta lipar batean ere, Mikel Strogoff eta Nadia, guzti-guztiei aurpegi emateko prest baitzeuden, edozein izanda ere.

Bien bitartean, Mikel Strogoffek buruan zer asmo zerabilen azaldu zion bere bidelagun gazteari. Lehenbizi bera igaroko zen beste aldera, gabarran tarantasa eta zaldiak eramanda, bel-durrez zegoen-eta zama astun horrek ez ote zuen gabarra kolokan jarriko. Gero, abereak eta zalgurdia beste ertzean utzita, Nadiaren bila itzuliko zen.

Nadiak ezetz erantzun zion. Ordubete galduko zuten alferrik, eta hark ez zuen nahi atzerapen baten kausa izan bere segurtasunarengatik.

Nekez ontziratu ziren, urak ibai bazter zati bat hartu eta gabarra ezin baitzen ertzeraino hurbildu.

Alabaina, ordu erdia ahaleginetan eman ondoren, gabarrariak tarantasa eta hiru zaldiak ezarri zituzten ontzian. Mikel Strogoff, Nadia eta *iemstxika* ontziratu ziren orduan, eta gabarra ibaira irten zen.

Lehenengo minutuak arazorik gabe joan ziren. Gorago zegoen lurmutur luze batek ur lasterra hautsi eta zurrunbilo bat sortzen zuen, baina gabarra aise pasatu zen erditik. Bi gabarriek aurrera bultzatzen zuten ontzia trebetasun handiz, haga bana eskuan; baina, ur handietara urreratu ahala, ibilgua gero eta sakonagoa zen, eta segituan ez zuten izango kasik nondik heldu eta nondik indar egin. Haga muturrak oin batetik gora ez ziren agertzen ur azalean, eta horrela nekagarriak ez ezik eskasak ere baziren ontziari emandako bultzadak.

Mikel Strogoff eta Nadia, popan eserita, eta atzeratzeko beldurrez beti ere, gabarriaren mugimenduei begira zeuden, halako kezka bat bihotzean.

—Kontuz! —garrasi egin zion gabarrari batek besteari.

Gabarrak beste norabide bat hartu zuen abiadura bizian, eta horregatik egin zuen oihu gabarriak. Ur lasterraren eragin zuzena jasaten ari zen orduan eta agudo zihoan ibaian behera. Hagak baliatuz, ontzia zeharka jarri behar zuten eta uraren indarrari alboa erakutsi. Horretarako, haga muturrak karelaren beheko aldean egindako koska batzuetan bermatu eta gabarriek

ontzia saiheska eramatea lortu zuten, pixkaka-pixkaka ezkerraldeko ibai bazterrerantz hurbiltzen zirela.

Kalkulua egin eta ziurtasunez esan zitekeen ibairatzeko puntutik bospasei versta beherago lehorreratuko zirela, baina, axola gutxi horrek, abereak eta pertsonak kalterik gabe iritsiz gero.

Bi gabarrariak gizaseme mardul kementsuak ziren, eta gainera sari ederra espero zuten. Zalantzarik ez zeukaten Irtysh ibaiaren zeharkatze zail horretatik ongi aterako zirela.

Baina ez zuten kontuan hartzen ezbehar igarri ezina gerta zitekeela, eta haren kontra deus egiterik ez zuela haien ardurak, ezta haien abildadeak ere.

Gabarra ur lasterraren erdi-erdian zegoen, tarte beretsua zuela ibai ertz bateraino nola besteraino, eta uretan behera zihoan bi versta orduko eginez. Orduan, Mikel Strogoff altxatu eta adi-adi begiratu zuen ibaiaren goiko aldera.

Txalupa batzuk nabaritu zituen, ibaian behera bizkor-bizkor zetozenak, uraren indar biziari arraunen bultzada bortitzak laguntzen baitzion beheranzko bidean.

Mikel Strogoffen aurpegiera uzkurto egin zen bat-batean, eta deiadar bat ihesi joan zitzaion.

—Zer da? —galdetu zion neska gazteak.

Baina erantzuteko betarik izan baino lehen, gabarrarietako batek oihu egin zuen izua ezpainetan:

—Tatariarrak! tatariarrak!

Izan ere, soldaduz beteriko zenbait txalupa bizi-bizi jaisten ari ziren Irtish ibaian behera, eta, minutu batzuk igaro aurretik, gabarraraino iritsiko ziren, zama handiegia baitzeraman haien ihesi joateko.

Gabarrariak, izu-laborrian agerpen horregatik, etsipenez garrasika hasi eta hagak bertan behera utzi zituzten.

—Gora bihotza, mutilak! —garrasika esan zien Mikel Strogoffek—. Eutsi goiari! Berrogeita hamar errublo zuentzat, ezkerreko ibai ertzera iristen bagara, txalupa horiek gu harrapatu baino lehen!

Gabarrariak, hitz horiek indarberriturik, lanari ekin zioten eta zeharka jaisten segitu zuten, baina aurki nabarmendu zen ezin izango zutela tatariarren bertaratzea eragotzi.

Aurrera joango ote ziren gabarra bakean utzita? Ez zuen itxurarik. Aitzitik, okerrena espero behar zuten lapur amorratu horien aldetik.

—Ez izan beldurrik, Nadia —esan zion Mikel Strogoffek—, baina prest egon edozertarako!

—Prest nagok —erantzun zion Nadiak.

—Baita uretara jauzi egiteko ere, esaten dinadanean?

—Esaten didaanean.

—Eduki nigan uste guztia, Nadia.

—Bazaukaat!

Tatariarren txalupak ehun oinetara baizik ez zeuden. Bukharako gerlari destakamendu bat zen, Omsk aldera zihoana hiria ikuskatzera.

Bere luzera halako bi falta zitzaion gabarrari ibai ertzera iristeko. Gabarrariak ahalegina handiagotu dute. Mikel Strogoff haiengana joan, haga bat hartu eta sekulako indarrez laguntzen hasi zaie. Tarantasa lehorreratu eta zaldiak lauoinka ibilaraziz gero, baliteke tatariarren ihesi joateko abagunea izatea, haiek abererik ez daukate eta.

Baina horrenbeste neke ez ote ziren alferrekoak izango?

—Sarin na kitchu! —oihu egin diete lehenengo txalupako soldaduek.

Mikel Strogoffek pirata tatariarren guda garrasia ezagutu du, ahuspez etzanda jartzeko agintzen diena.

Baina ez gabarrariak ez hark ez dute men egiten. Tiro egin diete, eta zaldietako bi lurrera erortzen dira hilak.

Une horretan, elkar jo dute ontziek... Txalupak albo batetik aboratu dute gabarra.

—Hator, Nadia! —oihu egin dio Mikel Strogoffek, kareletik behera jauzi egiteko prest.

Neska gaztea atzetik joatekotan dago, baina lantza kolpe batek Mikel Strogoff jo eta uretara erortzen da. Ibaian behera darama ur lasterrak. Istant batez esku bat astindu du uretatik kanpo, baina desagertu egin da azkenik.

Nadiak garrasi bat bota du, baina, Mikel Strogoffen ondotik joateko aukera izan baino lehen, neska atzeman dute eta beren txalupa batera eramán.

Handik pixka batera, gabarrariak eta *iemstxika* lantza kolpez hil eta, gabarra nora ezean utzirik, Irtish ibaian behera jarraitzen dute tatariarrek.

## XIV AMA-SEMEAK

Omsk hiria mendebaldeko Siberiako hiriburu ofiziala da. Ez da, ordea, izen bereko probintzia-ko hiririk garrantzizkoena, Tomsk handiagoa baita eta jende gehiago biltzen baitu; baina Omsken bizi da Errusia asiarraren lehen erdi honetako gobernadore nagusia.

Omsk, zehatz esanda, ez da hiri bakar bat, bi baizik. Batean agintariak eta funtzionarioak besterik ez dira bizi, eta bestean merkatari siberiar-rrak gehienbat, bertan salerosketa asko ez egin arren, itxuraz behintzat.

Hamabi-hamahiru mila lagun inguru bizi dira hiri horretan. Hesi bat dauka inguruan babesgari, alboetan bastioiak ageri dituena; baina lurrezkoak dira defentsa horiek guztiak, eta ezin horrela babes handirik eskaini. Ongi zekiten hori tatariarrek, eta laster saiatu ziren indarrez bereganatzen, eta baita lortu ere, egun batzuetan setiatu ondoren.

Omsken bi mila soldadu baino ez zeuden, eta, ausardiaz borrokatzen baziren ere, merkata-

rien hirian atzera egin behar izan zuten karrikaz karrika, emirraren gerlari sailek sakaturik, eta goiko hiriaren gerizan babesa hartu.

Han gorde ziren gobernadore nagusia, haren ofizialak eta haren soldaduak. Omskeko goi auzoa gotorleku antzekoa bihurtu zuten, etxe eta elizetako gain guztietan tiro egiteko almenak egokituz, eta ordu arte eutsi egin zioten etsaiari edonola eratutako *kremi* irudiko hartan, laguntza garaiz jasotzeko itxaropen handirik gabe. Izan ere, tatariarrak gero eta ugariagoak ziren, hirian etengabe sartu eta sartu ari ziren-eta soldadu saldoak, Irish ibaian behera etorrira, eta egoera are larriagoa zen tropa horiek nori zuzentzen eta bultzatzen zituen kontuan edukiz gero. Haien buru egiten zuena bere herriari traizioa egindako ofizial bat zen, baina merezimendu handikoa eta ausarta arrisku guztien aurrean.

Ivan Ogareff koronela, hain zuzen ere.

Ivan Ogareff militar eskolatua zen, baina buruzagi tatariarrak bezain ikaragarria. Odol mongoliarretik bazuen pixka bat, haren ama jatorri asiarrekoa izanik. Azerikeriaz jokatzeari maite zuen, amarruak asmatzea atsegin zitzaion, eta ez zuen higuin inolako metodorik, isilpekoren batez jabetu edo azpizokoren bat

egin nahi zuenean. Maltzurra izatez, mozorrojantzirik zirtzilenez baliatzea gogoko zuen, eta eskale irudian agertuko zitzaizun, esaterako. Edozein itxura eta edozein forma ezin hobekiago hartzen zuen. Ankerra zen, gainera, eta borrhoroarena egingo zuen beharrezkoa izanez gero. Feofar Khanek gudalburu paregabea zuen haren gan gerra basati hartan.

Hortaz, Mikel Strogoff Irish ibaiaren hegieta-  
ra iritsi zenerako, Ivan Ogareff Omsk hiriaren  
jaun eta jabe zen, eta gero eta gehiago estutzen  
ari zen hiriaren goi auzoaren setioa, lehenbaile-  
hen Omsk utzi eta Tomskera joan nahi zuelako,  
hartara bildu berria baitzen armada tatariarren  
zatirik handiena.

Tomsk egun batzuk lehenago azpiratu zuen  
Feofar Khanek eta handik joko zuten inbaditzaileek  
Irkutsk aldera, erdi aldeko Siberia mendean  
hartu ondoren.

Irkutsk zen Ivan Ogareffen benetako helburua.

Hauxe zen traidore horren plana: duke handiarengana agertu gezurrezko izenez, haren konfiantza bereganatu, eta, egokiera suertatzen zitzaionean, bai hiria bai duke handia bera ere tatariarren esku uztea.

Halako hiria eta halako pertsonaia bereganaturik, Asia aldeko Siberia guztia inbaditzaileen mendean eroriko zen.

Alabaina, gorago esan legez, tsarrak bazuen helburu makur horien berri, eta Ivan Ogareffi asmoak ustel irten zekizkion utzi zuen Mikel Strogoffen ardurapean garrantzi handiko esku-titz hura. Eta horregatik eman zizkion agindu zorrotz-zorrotzak mandatari gazteari, inbadituri-ko lurraldean barrena inork ere ezagutu gabe igarotzeko.

Egiteko hori zintzo bete zuen ordu arte, baina horrela jarraitu ahal izango zuen hemendik aurrera?

Mikel Strogoffek hartutako kolpea ez zen hilgarria. Soldaduek ez ikusteko moduan egin zuen igeri eskuineko ibai ertzeraino, eta hango kanaberen artean erori zen korderik gabe.

Bere onera etorri zenean, *mujik* baten txabolan zegoen. Nekazari hark jaso eta sendatu zuen, eta hari zor zion artean bizirik irautea. Noiztik zegoen siberiar abegitsu haren etxean? Ezin esan. Baina, begiak zabaltzean, aurpegi bizardun onbera ikusi zuen, beregana makurturik, begirada errukitsuz so egiten ziona. Ea non

zegoen galdetzera zihoanean, *mujikak* aurreratu eta hitz egin zion:

—Ez ezer esan, aita txiki hori, ez ezer esan! Ahul hago oraindik. Esango diat non hagoen eta zer gertatu den neure txabolara ekarri hindudanetik hona.

Eta bere begien aurrean izandako borroka haren gorabeherak kontatu zizkion *mujikak* Mikel Strogoffi: nola egin zieten eraso tatariarren txalupek, nola ebatsi zituzten tarantasean zeuden gauza guztiak, nola hil zituzten gabarriak!...

Baina Mikel Strogoffek ez zion entzuten, eta, eskua jantzieta eramanda, eskutitz inperiala sumatu zuen, bularraldean gordea oraindik.

Arnasa hartu zuen, baina hura ez zen dena.

—Neska bat zetorreen nirekin! —esan zion.

—Ez zitean hil! —erantzun zion *mujikak*, gazte zaurituaren begietako larritasunari aurre harturik—. Txalupara eraman eta Irtishen behe-  
ra segitu zitean! Beste gatibu bat izango duk Toms-  
kera eraman dituzten guztien artean!

Mikel Strogoffek ezin izan zion erantzun. Eskua bihotzean jarri zuen taupadei eusteko.

Baina, beltzak eta gorriak ikusi arren, betebeharra konplitzeko senak hartzen zion gogoia erabat.

—Non nago? —galdetu zuen.

—Irtish ibaiaren eskuineko bazterrean, eta Omsketik bost verstara baino ez —ihardetsi zion *mujikak*.

—Zer zauri mota izan dut, kordea galdu eta modu honetan uzteko? Ez zen tiro bat izan?

—Ez, lantza kolpe bat eman ziaten kopetan, baina orbaindua zagok dagoeneko —azaldu zion *mujikak*—. Egun batzuk atsedenean igaro, aita txiki hori, eta bideari lotzeko prest egongo haiz berriz ere... Ibaira erori hintzen, baina tatariarrek ez hinduten ez ukitu ez arakatu, eta poltsa sake-lan daukak oraindik ere.

Mikel Strogoffek eskua luzatu zuen *mujikaren* aldera. Gero, ohean agondu zen kolpetik, eta honela itaundu zion:

—Noiztik nago hemen, adiskidea?

—Orain dela hiru egun ekarri hindudan.

—Hiru egun alferrik galduak!

—Hiru egun korderik gabe eman dituanak!

—Baduk zaldirik niri saltzeko?

—Abian jarri nahi duk?

—Oraintxe bertan.

—Ez diat ez zaldirik ez gurdirik, aita txiki hori!  
Tatariarrak igarotzen diren lekuetan ez duk ezer ere gelditzen!

—Tira, zaldi baten bila joango nauk, bada, Omskera oinez...

—Atsedean har ezak ordu batzuetan, eta hobeki egongo haiz bidean aurrera jarraitzeko.

—Ezta ordu bakar batean ere!

—Goazemak, bada! —esan zion *mujikak*, gaztearen borondatearen kontra alferrik saiatuko zela ikusirik—. Nik neuk eramango haut —gehitu zuen—. Gainera, errusiar asko zaudek oraindik Omsken, eta beharbada inork ez dik hiregan erreparatuko.

—Adiskidea —erantzun zion Mikel Strogoffek—, Jaun zerukoak sarituko ahal hau nire alde egiten ari haizen guztiarengatik!

—Saria! Eroek baizik ez ditek espero lur gainean —esan zion.

Mikel Strogoff txabolatik atera zen. Ibili nahi izan zuenean, zorabioak hartu eta, *mujikaren* laguntzarik gabe, ziplo lurrera eroriko zen, baina kanpoko haizeak aurki suspertu zion kordea. Buruan hartutako kolpea sentitu zuen orduan. Lantzak ez zuen indar osoz jo, larruzko txanoak apur bat moteldu baitzion ukaldia. Kementsue-

tan kementsuena, halako eragozpen txiki batek ez zuen kikilduko. Xede bakarra zeukan begien bistan: Irkutsk hiri urrutikoa. Haraino iritsi behar zuen nahitaez! Baina Omsk zeharkatu behar zuen aurrena denborarik galdu gabe.

—Jainko jaunak gorde ditzala ama eta Nadia! —murmurikatu zuen—. Haietaz pentsatzeko eskubiderik ez diat oraingoz!

Mikel Strogoff eta *mujika* berehala iritsi ziren beheko hiriaren merkatari auzora, eta, militar tatariarrek hartua bazen ere, zailtasunik gabe sartu ziren bertara. Lurrezko hesia leku askotatik suntsitua zegoen, eta zulo horietatik guztietatik barneratzen ziren hirian Feofar Khanen soldadu sailen atzetik zihoazen litxarrerok.

Omsk barnean soldadu tatariarrak inurriak bezain ugari ageri ziren karrika eta plazetan, baina nabaria zen burdinazko esku batek diziplina ezartzen ziela, haien ohituren kontra. Izan ere, ez zebiltzan bakarka, talde armatuetan baizik, edozein erasori aurre egiteko gertu.

Plaza nagusia kanpamentu bilakatua zen. Bi mila tatariarrek zituzten han beren dendak ordena egokian jarriak, eta zaindari anitz zebilen erne inguruan. Zaldiak, hesoletan loturik baina uhal guztiak jantzita beti, prest zeuden lehen

agindua eman orduko lauoinka abiatzeko. Omsk aldi baterako geldialdia besterik ezin izan zalditeria tatariar horrentzat, aukeran ekialdeko Sibiariako ordokiak nahiago zituzten-eta segur aski, hango hiriak aberatsagoak baitira, hango alorrak oparagoak, eta, beraz, harrapaketak eta lapurretak hemengoak baino emankorragoak.

Merkatarien hiriaren gainetik, goiko auzoaren etxeak agertzen ziren mailaka-mailaka. Ivan Ogareffek ezin izan zuen goiko alde hori artean eskuratu, oldar bizian ahaleginduagatik, defendatzaileek eutsi egiten baitzioten, erasoei erantzun bortitz bipila emanez. Murru almenadunen goialdean Errusiako bandera nazionala mugitzen zen haizeak eraginda.

Bidezko harrotasunez agurtu zituzten kolore haiek Mikel Strogoffek eta haren gidariak barrenbarrendik.

Mikel Strogoffek ederki ezagutzen zuen Omsk hiria, eta, beti bere gidariaren atzetik, alde batera uzten zituen karririk jendetsuenak. Ez zuen horrela jokatzeko norbaitek bere berri ote zekien beldurrez. Hiri hartan, bere ama zaharrak bestek ezin zion deitu bere egiazko izenaz, baina zin egina zuen ez zuela ikusiko, eta ez zuen ikusiko. Eta gainera, eta horixe espero zuen Mikel

Strogoffek bihotz-bihotzetik, esteparen bazter lasai batera ihesi joana izango zen beharbada.

*Mujikak*, zorionez, posta etxeko nagusi bat ezagutzen zuen, eta gizon horrek ez zion muzin egingo, haren ustez, zalgurdia edo zaldiak alokatzeari zein saltzeari, ongi ordainduz gero. Hiritik atera behar, ondoren, baina hesian egindako zuloek erraztuko zioten irteera Mikel Strogoffi.

*Mujikak* posta etxera zerman zuzen-zuzen bere txabolan jasotako mutila, eta behingoan, karrika mehar batean, Mikel Strogoff gelditu eta horma atal baten atzean ezkutatu zen.

—Zer duk? —galdetu zion *mujikak*, harri eta zur ezusteko mugimendu hori zela-eta.

—Ixo! —erantzun zion Mikel Strogoffek lehiaz, hatz bat ezpainenetan ipintzen zuela.

Memento hartan, tatariarren destakamendu bat plaza nagusitik irten eta une bat lehenago Mikel Strogoff eta haren laguna ibiltzen ari ziren karrikan sartu zen.

Hogei bat zaldizkok osatzen zuten destakamendua, eta ofizial bat zihoan haien buru, uniforme soil-soilez jantzita. Alde batera eta bestera begiratzen zuten agudo, baina ezin Mikel Strogoff ikusi, arin bai arin egin baitzuen bazterrera.

Destakamendua trosta bizian zebilen karrika estu hartan zehar. Ez ofizialak ez soldaduek ez zuten ardurarik hartzen han zebiltzan laguneki-ko. Dohakabe haiek ozta-ozta alde egiten zuten militarren bidetik. Eta hala, eztarrian erdi itotako garrasi batzuk entzun ziren, lantza kolpez berehalakoan isildu zituztenak, eta karrika inor gabe geratu zen istant batean.

Zaldizkoen taldea joan zenean:

—Nor da ofizial hori? —galdetu zuen Mikel Strogoffek *mujikaren* aldera itzulirik.

Eta galdera egiten zuen bitartean, zurbil-zurbila zeukan begitartea, hildako batena irudi.

—Ivan Ogareff duk —erantzun zion siberiar-  
rarak, gorrotoa zeriola bere ahots apalari.

—Hori? —joan zitzaion ihesi Mikel Strogoffi oihu batean, baretu ezinezko amorrazioa adieraziz.

Ofizial hura lxingo posta etxean kolpea eman zion bidaztia zen.

Eta gogoia argitu zion burutapen batek. Gizon hark, erdizka baino ikusi ez arren, bazuen antza Nijni Novgorodeko azokan ustekabez hizketan entzun zuen buhame zaharrarekin ere.

Mikel Strogoff ez zebilen oker. Bi gizon haiek bat bakarra ziren. Buhamearen arropaz jantzirik

eta Sangarreren koadrilarekin nahasita utzi ahal izan zuen Nijni Novgorod probintzia, non ibilia zen, Asiaren erdialdetik merkatura bilduriko atzerritar ugarien artean, ea lagun gehiago elkartzen zituen bere helburu madarikatuak burutzeko lanera. Sangarre eta haren neska buhameak hark ordaindutako zelatari apartak ziren, lanean harentzat zihardutenak erabateko fideltasunaz. Gizon hura zen gau hartan, merkatu plazan, esaldi bitxi hura esan zuena, zeinaren esanahia orain uler baitzezakeen Mikel Strogoffek; gizon hura zen *Kaukaso* ibai ontzian zihoana ijito koadrilarekin; gizon hura zen Kazandik Ixinerako bidean barrena Ural mendiak zeharkatu zituen, Omskera iritsi eta hiriaren jabe egiteko.

Hiru egun eskas igaro ziren Ivan Ogareff Omskera iritsi zenez geroztik, eta, Ixingo topaketa zorigaiztoko hura gabe, Irtysh ibaiaren ertzean hiru egunez geldirik eduki zuen gertaera hura gabe, Mikel Strogoffek aurre hartuko zion inondik ere Irkutskera bidean!

Eta nork daki zenbat ezbehar ez ziren eragoztiko etorkizunean!

Nolanahi ere, Mikel Strogoffek inoiz baino premia handiagoa zuen Ivan Ogareffi ihes egiteko eta traidore horrek inola ere ikus ez zezan lor-

tzeko. Bekoz beko topatzeko unea iritsiko zen, eta orduan jakingo zuen nola jokatu, aurrean Siberia osoaren jabea baldin bazuen ere!

*Mujikak* eta biak ibiltzeari ekin zioten berriz, eta posta etxera iritsi ziren. Omsk uztea ez zen zaila gertatuko hesiko zuloren batetik irtenda, gaua iristean. Tarantasa ordezkatzeko beste zalgurdi bat erostea, ordea, ezinezkoa zen. Ez zegoen bat ere ez alokairuan, ezta salgai ere. Baina zertarako behar zuen zalgurdia Mikel Strogoffek? Ez zen, bada, bakarrik gelditu, tamalez? Zaldi bat aski zuen, eta, zorionez, eskuratu ahal izan zuen zaldi hori. Abere zaildua zen, nekeak luzaro eramateko gai, eta Mikel Strogoffek, zaldi gainean iaioa oso, etekin bikaina atera ziezaiokeen.

Zaldia txit garesti ordaindu, eta, minutu batzuk geroago, prest zegoen bideari lotzeko.

Arratsaldeko laurak ziren orduan.

Mikel Strogoff gauaren zain egon beharrean zegoen, hesia zeharkatzeko, eta, Omskeko karriketan ez agertzea nahiago zuenez gero, posta etxean geratu zen eta zerbait jateko eskatu.

Jendea franko zegoen postako areto nagusian. Errusiako tren geltokietan bezala, bizilagunak, larritasunez beterik, hara biltzen ziren albitteen bila. Soldadu sail errusiarrek iristekotan

omen zeuden, baina ez Omskera, Tomskera bai-  
zik, eta haien zeregina hiri hori Feofar Khanen  
tatariarren eskuetatik askatzea omen zen.

Mikel Strogoffek adi luzatzen zuen belarria,  
ea han zeudenek zer zioten, baina ez zuen parte  
hartzen elkarrizketetan.

Bat-batean, garrasi batek bihotza astindu  
zion. Ondo-ondoan jaurtitako hitz bat barneratu  
zitzaien sakon, arimaren hondoraino:

—Seme!

Haren ama, Marfa zaharra, hantxe dago  
aurre-aurrean! Eta besoak luzatzen dizkio ikara-  
ka, irribarrea ezpainetan!...

Mikel Strogoff altxatu da. Harengana oldar-  
tzera doa...

Baina bere eginbeharrak oroitu da, topaketa  
deitoragarri horretan bai amak bai berak izango  
duten arrisku handia etorri zaio gogora, eta gel-  
ditu egin da bertan. Bere buruaren jabe guztiz,  
gihar bakar bat ere ez zaio mugitu aurpegian.

Hogei bat lagun zeuden areto handi hartan.  
Haien artean zelatariak izango ziren beharbada,  
eta, hirian ez al zekiten denek Marfa zaharraren  
semea tsarraren mandataria zena?

Mikel Strogoffek zirkinik ez zuen egin.

—Mikel! —oihu egin zion bere amak.

—Nor zara zu, andrea? —galdetu zion Mikel Strogoffek hitzak zezelka esanez, ongi ahoskatu ezinik.

—Nor naizen? Hik galdetzen didak! Ez duk hire ama ezagutzen, seme!

—Oker zaude!... —erantzun zion hotz Mikel Strogoffek—. Beste batekin nahasten nauzu...

Marfa zaharrak harengana zuzen jo zuen eta begiz begi so egin:

—Hi ez haiz Petri eta Marfa Strogoffen semea? —itaundu zion.

Mikel Strogoffek bizia emango zuen ama besoetan askatasunez hartzeagatik!... baina etsiz gero, harenak egin zuen, harenak eta haren amarenak, akabo haren eginkizuna, akabo haren zina!... Bere burua osoki menderaturik, begiak itxi zituen bere ama maiteari begitarteak uzkuritzen zion larritasun ikaragarria ez ikusteko, eskuak ezkutatu zituen bere bila ari ziren esku dardarati haiek ez estutzeko.

—Ez dakit benetan zer esan nahi duzun, andrea —erantzun zion, pauso batzuk atzera eginda.

—Mikel! —oihu egin zuen berriz haren ama zaharrak.

—Ni ez naiz Mikel! Ni ez naiz zure semea!  
Nikolas Korpanoff dut izena, eta Irkutskeko mer-  
katari bat naiz!...

Eta brau atera zen aretotik, hitz hauek durun-  
di egiten zutela azken aldiz:

—Seme! seme!

Mikel Strogoffek, bihotza gainez estutzeko  
zorian, alde egin zuen. Ez zuen ikusi nola erori  
zen bere ama zaharra banku batean arnagabe  
ia. Baina, posta etxeko nagusia lasterka lagun-  
tzera joan zitzaionean, emakume zaharra altxa-  
tu egin zen. Burutazio bat etorri zitzaion gogora  
tupustean. Bere semeak hura zapuztu! Ezin zite-  
keen! Eta hark bere semea beste batekin naha-  
si, ezinago! Bere semea zen ikusi berri zuena,  
dudarik ez, eta semeak ezagutu ez bazuen, nahi  
ez zuelako izan zen, ezagutu behar ez zuelako,  
horrela jokatzeko arrazoi larriak zeuzkalako! Eta  
orduan, ama sentimenduak itzalaraziz, pentsa-  
mentu bakar bat izan zuen: «Ez nuen galbidean  
jarriko nahi gabe?».

—Burutik egina nago! —esan zien hari begira  
zeudenei—. Iruzur egin didate begiek! Gizon  
gazte hori ez zen nire semea! Bestelako ahotsa  
zuen! Utz dezagun! Nonahi ikusiko dut azkene-  
koz.

Hamar minutu joan aurretik, ofizial tatariar bat agertu zen posta etxean.

—Marfa Strogoff? —galdetu zuen.

—Ni naiz —erantzun zion emakume zaharrak doinu patxadatsuz eta begitarte lasai-lasaia, aurreko gertaeraren lekukoek nekez ezagutzen zutela.

—Zatoz —agindu zion ofizialak.

Marfa Strogoff urrats irmoz ofizialari jarraitu eta posta etxetik irten zen.

Handik gutxira, Marfa Strogoff plaza nagusiko kanpamentuan zegoen, Ivan Ogareffen aurrean, segituan ohartarazi baitzieten postako eszenaren xehetasun guztiez.

Ivan Ogareffek, egiari susmo harturik, zuze-nean galdekatu nahi izan zuen andre siberiar zaharra.

—Izena? —galdetu zion zakar.

—Marfa Strogoff.

—Seme bat baduzu, ezta?

—Bai.

—Tsarraren mandataria da?

—Bai.

—Non dago?

—Moskun.

—Ez duzu haren berririk?

—Ez dut haren berririk.

—Noiztik?

—Azken bi hilabetetik hona.

—Nor zen, bada, posta etxean arestian seme deitu duzun gizon gazte hori?

—Gazte siberiar bat, nire semearekin nahasi dudana —erantzun zion Marfa Strogoffek—. Hamaika aldiz uste izan dut semea ikusi dudala, hiria atzerritarrez bete zaigunetik! Nonahi dagoela iruditzen zait!

—Beraz, gizon gazte hori ez zen Mikel Strogoff.

—Ez, ez zen Mikel Strogoff.

—Badakizu, atso hori, egia aitortzen duzun arte torturatzeko agindu dezakedala?

—Egia esan dut, eta torturak ez ditu nire hitzak aldatuko.

—Siberiar hori ez zen Mikel Strogoff? —galde-tu zion bigarren aldiz Ivan Ogareffek.

—Ez! Ez zen bera! —erantzun zion bigarren aldiz Marfa Strogoffek—. Jainkoak halako semea eman eta hari nik uko egiteko mundu honetan zerbait badelakoan zaude?

Ivan Ogareffek begirada makurra bota zion aho betean aurka egiten zion andre zahar hari. Ez zuen dudarik egiten atso hark semea ezagutu

zuela siberiar gazte haren baitan. Eta lehenik semeak amari uko egin bazion, eta ondotik amak semeari, arrazoia larria baino larriagoa izan behar.

Hortaz, bada, Ivan Ogareffentzat ez zegoen zalantzarik. Nikolas Korpanoff zeritzan hori Mikel Strogoff zen, tsarraren mandataria, egiazko nor-tasuna izen faltsuaz gorde eta egitekoren bat burutzeko ardura zuena. Izugarrizko garrantzia zuen harentzat egiteko hori zein zen jakiteak, eta berandu gabe bila eta harrapa zezaten agindu zuen.

—Emakume hau Tomschera eramán dezatela —esan zuen Marfa Strogoffen aldera itzulita.

Eta soldaduek basakeriaz herrestan zeramaten bitartean, hauxe gehitu zuen ahopean:

—Mintzaraziko diat, bai, sorgin zahar hori, garaia datorrenean!

# XV

## BARABAKO ZINGIRAK

Beharrik atera zen hain agudo Mikel Strogoff posta etxetik. Ivan Ogareffen aginduak berehalako batean bidali zituzten hiriaren irteera guztietara, eta tsarraren mandatariaren ezaugarriak posta etxeko nagusi orori eskuratu zizkieten, Omsketik ateratzea galarazteko asmoz. Baina, ordurako, zulo batetik hesia zeharkatu eta lasterka zihoan haren zaldia estepan barrena. Ihes egitea lortuko zuen segur aski, lehen unean inor ez baitzen haren atzetik abiatu.

Uztailaren 29an irten zen Mikel Strogoff Omsketik, arratsaldeko zortzietan. Hiri hori erdibidean dago Moskutik Irkutskera bitartean, eta azken horretan behar zuen hamar egun igaro baino lehen, tatariarren soldadu sailei aurre hartu nahi bazien, behinik behin. Haren ezkutuko nortasuna agerian zegoen inondik ere, patu deitoragarriak amaren aurrean jarri zuenetik. Ongi jakinaren gainean egongo zen noski Ivan Ogareff tsarraren mandatari bat Irkutsk aldera zihoala, Omsk hirian barrena pasa eta gero.

Garrantzi itzela izan behar mandatari horrek zeramatzan mezuek. Mikel Strogoffek bazekien ahal den guztia egingo zutela bera atzemateko.

Baina ez zekien, ordea, ezin jakin zezakeen, Marfa Strogoff Ivan Ogareffen atzaparretan zegoela eta beharbada bizi az ordainduko zuela bere semearekin ezustean topo egitean haren-gana bultzatu zuen oldar ezin eutsizkoa. Ez zuen horren berri, zorionez! Gauza izango zen, bestela, horrelako oinazea eramateko?

Mikel Strogoffek arin-arinka zeraman zaldia, bera kanpo eta barne hartzen zuen ezinegon bortitza abereari sentiarazten ziola oso-osorik, eta gauza bakar bat eskatzen zion, bizkor baina bizkorrago eraman zezala hurrengo posta etxera, han beste zaldi azkarrago batekin aldatzeko.

Gauerdian, Kulikovoko geldilekuan geratu zen, hirurogeita hamar versta egin ondoren. Baina han, susmatzen zuen bezala, ez zen ez zaldirik, ez ibilgailurik. Tatariarren destakamendu batzuek estepako bide nagusiaz harago jo zuten. Den-dena lapurtua zegoen edo konfiskatua, bai herrietan, bai posta etxeetan. Nekez lortu zuen Mikel Strogoffek janari pizarren bat zaldiarentzat eta beretzat.

Zaindu beharra zegoen, bada, zaldi hori, ez baitzekien noiz eta nola izango zuen aldatzeko aukera. Hala ere, ahalik eta tarterik handiena jarri nahirik bere eta Ivan Ogareffek haren atzetik bidalitako zaldizkoen artean, aurrera jarraitzea erabaki zuen. Ordubeteko atsedenen ondotik, berriro ekin zion lasterka estepa zeharkatzeari.

Ordu arte eguraldia alde izan zuen tsarraren mandatariak Omsk utzi zuenez geroztik. Tenperatura eramangarria zen. Gaua laburra oso, garai hartan, baina ez zeharo iluna, eta ilargiaren distirak, hodei artetik baheturik, bidearen nondik norakoa erakusten zuen. Mikel Strogoff, gainera, zalantzarik gabe, duda-mudarik gabe zihoan, ibilbide ezagunean dabilen bidaztia legez. Pentsamendu mingarriek atsekabetu arren, izpirituzko argitasun apartari eusten zion, eta bere jomugarantz zihoan zuzen, jomuga hori begien bistan balu bezala. Noizean behin une batez gelditzen zen, bide zokoren batean, baina zaldiak arnasa berriz indartzeko baino ez. Horrelakoetan, zaldi gainetik jaisten zen, lipar batean bere pisutik arintzeko, eta belarria lurrean jarrita entzun egiten zuen ea lauoinka hotsa hedatzen

zen estepan zehar. Soinu susmagarririk nabaritu ez, eta bidean aurrera abiatzen zen berriro ere.

A! lurralde hura guztia gau polarrak estaliko balu, Siberia osoa hainbat hilabetetako gau iraunkor horrek inbadituko balu! Aukeran nahia-go, inondik ere, segurtasun handiagoz zeharkatzeko.

Uztailaren 30ean, goizeko bederatzietan, Mikel Strogoff Turumoffeko geldilekura heldu eta Barabako bazter zingiratsuetan oldartu zen.

Hantxe, hirurehun verstako inguru batean, naturaren zailtasunak izugarriak izan zitezkeen. Bazuen haien berri, baina bazekien orobat, zirenak zirela, gainditu egingo zituela.

Barabako zingira zabal horiek iparretik hegora hedatzen dira hirurogeigarren paralelotik berrogeita hamabiraino, eta hartara biltzen dira Obi edo Irtysh ibaietara isurtzen ez diren euri ur guztiak. Sakonune handi horren lurzorua buztinezkoa da erabat, iragazgaitza beraz, eta, hori dela-eta, ura bertan geratu eta lurraldea gurutzatzea guztiz nekoso bihurtzen da urtaro beroan.

Hartan barneratzen da, ostera, Irkutskeko bidea, hango istil, urmael, aintzira eta zingiren erditik igarotzen da, non eguzkiak jario osasun-

galgarriak sortzen dituen, bidaztia nekaraziz eta maiz arrisku larrian utziz.

Neguan, hotzak likido den guztia gogortu duenean, elurrak lurzorua berdindu eta ustelta-sunak estali dituenean, lerak aise eta trabarik gabe doaz irristan Barabaren azal irmotuan aurrera. Orduan ehiztariak ibiltzen dira sarri eskualde oparo horretan zehar, lepahori, zibelina eta batez ere azerien atzetik, haien larruen truke ordain ederra jasotzen baitute. Baina, udan, lohiak eta kiratsak betetzen dute zingira, ezin zeharkatua bihurtzeraino, uraren maila altuegia bada.

Mikel Strogoffek zaldiari eragin eta zotal ikatzezko belardi batean zehar jo zuen aurrera. Hura ez zen jadanik esteparen belar motx-motxa, Siberiako animalia saldo ikaragarrien elikagai bakarra. Ez zen larre mugagabea, zurtoin landareez osaturiko baso zabal moduko bat baizik.

Belarra bospasei oineko garaierara iristen zen. Soropilak zingirako landareei utzi zien lekua, eta neurri erraldoiak hartu zituzten hango hezetasuna eta udako beroa zirela bide. Ihiak eta kanaberak ziren batik bat, sare korapilatsua eratzen zutenak, zulatu ezineko bilbea, kolore

bizi-biziko mila lorez josia. Lirioak eta zitoriak ageri ziren diz-diz, eta haien usain atseginek bat egiten zuten lurzorutik altxatzen ziren lurrun beroekin.

Mikel Strogoff lauoinka zihoan kanaberadi horien artean, inork ikusi ezin zuela bidearen inguruko zingiretatik. Belar handi haiek hura baino altuagoak ziren, eta ezin konta ahala ur hegaztien zeruratzeak baino ez zuen salatzen haren presentzia. Hegan abiatzen ziren bide bazterretik garrasika, eta taldeetan barreiatzen zeruan zehar lau haizetara.

Bidea, hala ere, argi markatua zegoen. Hemen, zuzen zihoan zingirako landareez beteriko baso trinkoan; han, bihurri, urmael eta istil latzen ertz okerrak inguratuz eta itzulinguru handiak eginez zenbaitetan, putzu haietako batzuek, hainbat versta izanik luzaeran eta zabaleran, aintzira izena merezi baitzuten. Beste leku batzuetan, ezin alde batera utzi ur geldia, eta bidea gainetik igarotzen zen, baina ez zubien bitartez, oholtza kulunkariez baizik. Buztinezko geruza trinkoen gainean jarriak zeuden, eta oho-lek dar-dar egiten zuten, taula ahulegiek amildegia-aren gaineko igarobide batean bezala. Oholtza haietako zenbait arras luzeak ziren, berrehun

edo hirurehun oinekoak, eta behin baino gehiagotan, tarantasezko bidaztiei, edo emakumezko-ei behintzat, zorabio antzeko ondoeza egin zaie han barrena pasatzean.

Mikel Strogoff, aldiz, lurzoruak zaldiaren ferrei eutsi ala ez, arrapaladan zihoan beti inon gelditu gabe, ohol ustelen artean zabaltzen ziren pitzatuen gainetik jauzi eginenez; baina, ahal den agudoen joanik ere, zaldiak eta zaldizkoak ezin ihes egin eskualde zingiratsu horren bazter guztiak betetzen dituzten intsektu dipteroen zizta-dei.

Bidaztiek Barabako zingira udan zeharkatu behar izatera, zurdazko maskara janzten ohi dute ahaztu gabe, eta burdin-hari fin-finez egindako sare-kota bat lotzen diote, sorbaldetaraino estaltzeko. Baina babesak babes, inor gutxi ateratzen da zingiretatik aurpegia, lepoa eta eskuak puntu gorriz josiak izan gabe. Eguratsa orratz zorrotzez mukuru dagoela iduri du, eta sinets liteke zaldun armadura bat ez litzatekeela nahiko izango diptero horien eztenetik libratzeko. Zorigaiztoko alderdia hura, non gizonak lehia gogorrean aritu behar duen eltxo, mandeuli eta ezparen kontra, bai eta milaka intsektu mikroskopikoren kontra ere. Begi hutsez ikusezinak

izango dira, baina ederki sentiarazten dizkizute haien ziztada jasanezinak. Ehiztari siberiar zailduena ere ezin sekula ohitu sastada horietara.

Mikel Strogoffen zaldia, diptero pozoitsu horiek eztenkaturik, saltoka zebilen mila ezproiren izar puntadunak saihetsean sartuta legez. Oinaze bizi hark senetik aterea, aurrera eta aurrera oldartzen zen, verstak eta verstak eginenez tren espres baten abiadan, buztanarekin saihetsak astintzen zituela, lasterka zoro horretan bere tormentua arindu nahian.

Mikel Strogoff bezain zaldizko ona izan behar, zaldiaren erreakzio bortitzekin lurrera ez erortzeko, bat-batean gelditzen baitzen, edo sekulako jauziak ematen baitzituen dipteroen eztenetik ihesi joan nahian. Tsarraren mandatariak, aldiz, sorra eta gorra zirudien min fisikorako, etengabe anesthesiapean balego bezala, bere jomugara kosta ahala kosta heltzeko hisia besterik ez gogoan, eta gauza bakarra ikusten zuen lasterka zentzugabe hartan, bidea oso azkar geratzen zitzaiola atzealdean.

Nork pentsatuko Barabako parte hau, osasunerako horren kaltegarria beroaldietan, giza talderen baten bizitokia izan zitekeenik?

Eta hala izaki. Herrixka siberiar batzuk ageri ziren noiz edo noiz ihitza larrien artetik. Gizase-meak, emakumeak, haurrak, zaharrak, animalien larruez jantzirik, aurpegia bikez igurtzitako maskuriekin estalirik, artalde argal batzuk zaintzen zituzten, baina egur hezezo suen haizebidetan edukita beti ere, intsektuak animaliangana irits ez zitezten. Gau eta egun ziharduten suei egurra bota eta bota, eta haien ke lainoa sakanatu egiten zen astiro zingiradi itzelaren gainetik.

Mikel Strogoffek zaldia nekearen nekez lur jotzekotan zegoela sentitzen zuenean, herrixka ziztrin horietako batean gelditu eta, bere nekeaz ahazturik, koipe beroaz igurtzitzen zizkion ziztadak abere gaixoari, Siberiako usadioari jarraituz; gero, bazka joria eman, eta, zaldia orraziaz ongi garbitu eta belarrez ongi aseta geratu arte, ez zen bere buruaz arduratzen. Orduan ogi eta okela puskaren bat jan, basokada bat edo bi kwass edan, indarrak berritzeko, eta ordu baten buruan, bi orduren buruan gehienez ere, Irkutskeko bide amaiezinari ematen zion ahalegin guztian.

Laurogeita hamar versta egin zituen horrela Turumoffetik aitzina, eta uztailaren 30ean, arra-

tsaldeko lauretan, Mikel Strogoff, nekeari sorgor,  
Elamsk hirira sartu zen.

Han, gau bateko atsedena eman behar izan zion zaldiari. Abere kementsuak ezin, bestela, bidaian aurrera jarraitu.

Elamsken, leku guztietan bezala, ez zegoen ibilgailurik batere. Aurreko herrietako arrazoi berberak zirela kausa, ez zalgurdirik, ezta zaldirik ere.

Elamsk hiri txikian ez zen inor geratzen ia, tatariarrek oraindik bisitatu ez arren, inbaditzailak erraz irits zitezkeen-eta hegoaldetik, eta laguntzaileak, berriz, nekez iparraldetik. Horrela bada, posta etxea, poliziaren bulegoak eta gobernuaren egoitza abandonaturik zeuden goikoen aginduz, eta, bai funtzionarioak, bai mugitzeko gai ziren bizilagunak Kamskera joanak ziren, Barabako erdialdera.

Mikel Strogoffek etsia hartu eta gaua Elamsken igaro beharra izan zuen, zaldiari hamabi orduz atsedentzen uzteko. Gogoan zeuzkan Moskun eman zizkioten gomendioak: Siberia ezkutuko nortasunarekin zeharkatu eta Irkutskera edonola ere iritsi, baina, burutsu jokatuz, azkarregi joateagatik bidaiaren arrakasta kolokan jarri

gabe; eta, beraz, kontu handiz zaindu behar zuen geratzen zitzaion garraio bide bakarra.

Biharamunean, Mikel Strogoffek Elamsk utzi zuen tatariarrak iristekotan zeudela konturatu zen unean. Haien armadaren aurreko taldeak hamar versta atzerago agertu ziren, Barabako bidean, eta tsarraren mandataria aurrera oldartu zen berriro ere eskualde zingiratsu hartan. Bidea laua zen, baina bihurri-bihurria; eta, beraz, oso erraz ibiltzen bazen ere, lehen begiratuan zirudiena baino luzeagoa gertatzen zen bukaeran. Ezinezkoa zen, bestalde, bidea alde batera utzi eta zuzen joatea istil eta urmaelen sare gaindiezin horretan zehar.

Biharamunagoan, abuztuak 1, ehun eta hogeit hamar versta urrunago, eguerdian, Mikel Strogoff Spaskoeko herrira iritsi zen eta, handik bi ordutara, Pokrowskoera sartu zen, bertan geldialdia egiteko asmoz.

Zaldia, Elamsketik behin ere geratzeke, indarrez hustua zen, eta ez zen gauza pauso bakar bat egiteko.

Han, Mikel Strogoffek arratsaldea eta gaua galdu behar izan zituen derrigorrezko atsedenean; baina, hurrengo goizean berriz abiatu eta, beti lasterka urez erdi betetako lurzoru hartan,

abuztuaren 2an Kamskera heldu zen arratsaldeko lauretan, hirurogeita hamabost verstako ibilaldi baten ondotik.

Bestelako lurraldea zen hura. Kamsk herri txikia uharte osasungarria da eta bizitzeko moduko, kontrakoa baino ez den eskualde baten erdian. Barabaren muin-muinean dago. Tom ibaia pasatzen da Kamsken zehar, Irtishera bidean, eta ibai hura kanalizatuz saneatu dituzte bazterrak, zingira kiratsuak larre naro bilakaturik. Hala ere, hobekuntza horiek ez dituzte erabat desagerrarazi udazken aldean bertan bizitzea arriskutsu bihurtzen duten sukarrak. Baina hura da oraindik ere Barabako biztanleek bilatzen duten babestokia, zingirako usteltasunek probintziako beste alderdietatik uxatzen dituztelarik.

Tatariarren inbasioak eragindako aienatzeak ez zuen hustu Kamsk herrixka ordu arte. Bertakoak seguru sentitzen ziren, nonbait, Barabaren erdi-erdian, edo, gutxienez, inbasioaren mehatxua hurbiltzerakoan ihes egiteko beta izango zutela uste zuten.

Mikel Strogoffek, irrikan egon arren, ezin izan zuen batere berririk jakin leku hartan. Harengana joko zuen gobernadoreak lehenago, Irkutske-

ko merkataria egiatan nor zen jakin izan balu. Kamsk, izan ere, kokalekuagatik beragatik, Siberiako mundutik at zegoela irudi zuen, lurralde osoa asaldatzen zuten gertaera larrietatik kanpo.

Gainera, Mikel Strogoff ez zen apenas agertu jendartean. Ez zuen aski inork berari arreta ez jartzea, ikusezina nahi zuen izan. Iraganeko eskarmentuagatik gero eta zuhurrago bihurtzen ari zen orainaldi eta etorkizunerako. Hortaz, bazter geratu zen eta, herriko karriketan ibiltzeko gogorik gabe, ez zuen ostatutik irten nahi izan.

Mikel Strogoffek zalgurdia aurkitzeko eta Omsketik hona ekarri zuen zaldia ibilgailu erosoago batez ordezteko abagunea bazuen Kamsken. Baina, sakon hausnartu ondoren, beldur zen tarantas bat erostean ez ote zuen norbaiten arreta bereganatuko, eta ez zien susmoei bide eman nahi tatariarrek okupatuta zuten lerroa, Siberia erdirik erdi Irtish ibarrari jarraituz eteten duen marra, atzean utzi arte.

Beste alde batetik, zaldiak gehiago balio zuen Barabaren zeharkaldi zail hau burutzeko. Arriskuren batek hurbil-hurbiletik mehatxatu, eta zingira eta istiletan barrena ihes egin behar-ko zuen, beharbada, edo zaldizko batzuk agertu,

eta kanaberen multzo trinkoen artera oldartu beharko zuen, atzean utziko bazituen; eta horrelakoetan zaldia askozaz egokiagoa zen zalgurdia baino. Geroago, Tomsketik aitzina, edo Krasnoiarask pasata, mendebaldeko Siberiaren hiri garrantzitsuren batera iristerakoan, ikusiko zuen zer komeni zen.

Zaldiari zegokionez, bururatu ere ez beste batekin aldatzea. Ohitua zegoen abere ausart horrekin. Bazekien zer eskatzen ahal zion. Omsken erosterakoan, zoria eskutik izan zuen, eta, posta nagusi harengana eramanez, *mujik* prestu hark mesede galanta egin zion. Gainera, Mikel Strogoffi bere zaldia atsegina izateaz gain, zaldia bidaiaren nekeetara pixkaka-pixkaka jartzen ari zela irudi zuen, eta, noizetik noizera atsedena ordu batzuk emanaz gero, haren zaldizkoak probintzia inbadituetatik harago eramango zuela espero zezakeen.

Gauzak horrela, abuztuaren 2ko arratsa eta 2tik 3rako gaua ostatutik irten gabe eman zituen, herriaren sarreran, inor gutxi hurreratzen baitzen topaketa desegokietatik nahiz kuxkuxeroen begiradetatik urrun zegoen etxe hartaraino.

Nekearengatik leher egina, ohean etzan zen, zaldiari deus falta ez zitzaiola ziurtatu eta gero;

baina aldizka baizik ezin izan zuen lo egin. Oroitzapen larregi, kezka larregi, denak batera buruan. Haren ama zaharra, neska gazte kemen-tsu hura, biak atzean utziak, babes gaberik; bataren eta bestearen irudiak iragaten zitzaiz-kion gogotik, maiz pentsamendu bakar batean nahasten zirela.

Gero, bere zeregina. Konplutuko zuela zin egina zuen. Moskutik atera zenetik ikusitako guztiak garrantzi handikoa zela erakusten zion gero eta gehiago. Inbasioa larria zen guztiz, eta Ogareffen konplizitatea ikaragarriagoa bilaka-tzen zuen. Haren begiak zigilu inperialaz jantzi-tako gutuna ikusi zuen. Eta gutun hori ikustean, hainbeste gaitzen sendabidea, gerrak urraturiko herrialde osoaren salbamena hantxe zegoela oharturik, Mikel Strogoff grina gorri batek astin-du zuen. Lasterka joan nahi zuen estepan aurre-ra, hegaldatuz egin nahi zuen Irkutskeraino falta zitzaion tartea, arrano bihurtu nahi zuen oztopo-en gainetik pasatzeko, haize zakar izan nahi zuen zeruak ehun versta orduko zeharkatzeko, duke handiaren aurrera heldu nahi zuen eta garrasi egin: «Jauna, mezu bat tsarraren parte-tik!».

Biharamun goizean, seietan, Mikel Strogoff abiatu zen berriro ere, Kamsketik Ubinsk herrixkara dauden laurogei versta (85 kilometro) egun hartan bertan egiteko asmoz. Hogeia verstako eremutik hara, Barabako zingiran gertatu zen berriz, eta lurzoruak oin beteko ura izaten zuen leku askotan, han inolako kanalizazioak ez baitzuen ura lehortu. Zaila zen orduan bidea nondik nora zihoan ezagutzen, baina, haren zuhurtzia apartari esker, gorabeherarik ez zen izan ibilaldi hartan.

Ubinskera sartu eta zaldia atsedenean utzi zuen gau guztian, asmoa baitzuen hurrengo egunean Ubinsk eta Ikulskoe banantzen dituzten ehun versta zaldiari brida kendu gabe ibiltzeko. Egunsentian jarri zen bidean, beraz, baina paraje hartan, zoritxarrez, Barabako lurzorua gero eta higuingarriagoa zen.

Izan ere, urak hartuta zegoen sakonune mehar hura Ubinsk eta Kamakova artean, isurbiderik gabeko aska eskerga batean bezala, euria atertu gabe aritu baitzuen aurreko asteetan. Etenik ere ez zeukan istil, urmael eta aintziren sare jarrai azkengabe hark. Aintzira haietako bat, Txang izen txinatarraz ezaguna eta haren handitasunarengatik geografiaren nomenklaturan

jasotzeko modukoa zena, hogeit hamar luzean inguratu behar izan zuen, zailtasun galantak garaituz. Atzerapenak sortu ziren, Mikel Strogoffen aurrera jo nahi itsuak ere ezin saihestu zituenak. Bestetik, zentzudun jokatu zuen Kamsken zalgurdirik hartu ez zuenean, haren zaldia igarotako lekuetan zehar ez zen-eta pasatuko beste ibilgailurik.

Arratseko bederatziatan Ikulskoera iritsi eta gaua egin zuen bertan. Barabako herri galdu hartan ez zuten batere berririk gerrari buruz. Bere izaeragatik beragatik, probintziaren atal hura, tatariar armadaren bi zutabeek eratzen zuten sardearen erdian kokaturik, inbasioaren lazarrikerietatik urruti egon zen ordu arte.

Baina azkenik naturaren eragozpenak arinagoak eta urriagoak izango ziren, Mikel Strogoffek biharamunean utziko baitzuen Barabako zingira, beste atzerapenik ezean, eta bide garbia aurkituko berriz ere, Kolivaneraino falta zitzaizkion ehun eta hogeit hamar egin eta gero (133 kilometro).

Garrantzizko hiri horretara iritsirik, tarte bera izango zuen Tomskeraino. Orduan kontuak nola zeuden aztertu eta, segur aski, hiri hori inguratzerazera deliberatuko zuen, Feofar Khanen men-

dean baitzegoen jadanik, albisteak gezurrezkoak ez baziren.

Barabako herrixka guztiak, Ikulskoe, kasu, edo Karginsk, biharamunean zeharkatu zuena, lasai antzean aurkitu zituen, soldadu tatariarren zutabeentzat ezinezkoa zelako eskualde istiltsu hartan barneratzea, han ezin baitziren eroso mugitu. Baina, Obi ibaiaren bazter oparoetara heltzean, ez ote zen beldur izatekoa Mikel Strogoffek, oztopo fisikoak atzean utzita, fidagaitza agertu beharko zuela gizon bat ikusi orduko? Baietz erantzun behar, nonbait. Hala eta guztiz, beharrean suertatuz gero, Irkutskeko bidetik kanpo abiatuko zen zalantzarik egin gabe. Estepan barrena bidaiatuz, baliabiderik gabe gertatzeko arriskuan egongo zen noski. Han ez baita bide urraturik, han ez baita ez hiririk ez herrixkarik. Baserri isolatu batzuk ozta-ozta, edo jende xeheen txabola soilak! Abegitsu hartuko zuten hartu ere, baina nekez eskuratuko zuen haien etxeetan biderako behar zuena! Hala ere, zantzak bakar bat ere ez.

Azkenik, arratsaldeko hiru eta erdiak aldean, Kargatskeko geldilekua igaro ostean, Mikel Strogoffek Barabako azken sakonuneak utzi zituen gibelean, eta Siberiako lurraldearen lurzoru

gogor idorra jotzen hasi ziren berriro ere haren zaldiaren zangoak.

Uztailaren 16an atera zen Moskutik. Beraz, egun hartan, abuztuak 5, Irtish ibaiaren bazterretan galdutako hirurogeita hamar orduak konstatuz, hogeitaz bete ziren haren irteeratik.

Mila eta bostehun verstako bidea gelditzen zitzaion oraindik Irkutskeraino.

# XVI

## AZKEN AHALEGINA

Mikel Strogoff beldur zen parte txarreko topaketaren bat ez ote zuen izango Barabako zingirez harantzago luzatzen diren lautadetan; eta zuzen zebilen. Soroek, zaldien apoez zanpazanpa eginda, tatariarrak han barrena pasa zirela erakusten zuten, eta barbaro horiez esan daiteke turkoez esan ohi dena: «Turkoa pasatzen den lekuan, belarra ez da berriz sortzen sekula!».

Mikel Strogoffek, hortaz, kontu handiz ibili behar zuen eskualde hura zeharkatzean. Ke adar zenbaitek, zeru ertzetik gora kiribilka, herrixkak eta baserriak oraindik erretzen ari zirela adierazten zuten. Tatariarren abangoardiak su eman ote zien, edo emirraren armada probintziaren azken mugetaraino aurreratua ote zen dagoeneko? Feofar Khan bera ote zegoen Jeniseisk probintzian? Mikel Strogoffek ez zekien, eta ezin zuen deus erabaki puntu horri buruzko albiste zehatzik bereganatu arte. Hain inor gabe ote

zegoen herrialdea? Siberiar bakar bat ere ez ote zuen topatuko horren berri emateko?

Mikel Strogoffek bi versta egin zituen arima bakar bat ere agertzen ez zuen bide hartan. Begiz bilatzen zituen ezker-eskuin ea etxeren batean norbait geratzen zen. Hutsik zeuden bisitatu zituen guztiak.

Txabola bat sumatu zuen zuhaitzen artean, oraindik kea zeriola. Gerturatu eta agure bat ikusi zuen etxearen hondakinetatik hainbat urra-tsetara, eta haurrak negarrez haren inguruan. Emakume bat, gaztea artean, haren alaba inondik ere, haur haien ama, hondamendi hari begira zegoen, lurrean belauniko, ikara begietan. Hilabete gutxiko ume bati bularra ematen zion. Esne gabe geratuko zen berehala. Estutasuna eta nahigabea besterik ez zen familia hartan!

Mikel Strogoffek agurearengana jo zuen.

—Erantzuteko moduan zaude? —esan zion ahots larriaz.

—Hitz egin ezak —ihardetsi zion gizon zahar-rak.

—Tatariarrak pasa dira hemen barrena?

—Bai, nire etxea sutan zagok eta!

—Armada osoa zen edo destakamendu bat?

—Armada osoa, gure soroak hondatuta zaudetik-eta ikusmira guztian!

—Emirrak egiten zuen buru?

—Emirrak, Obi ibaiaren urak gorri jaisten dituk eta!

—Eta Feofar Khan Tomsken sartu da?

—Bai, Tomsken.

—Badakizu tatariarrek Kolivan hartu ote duten?

—Ez, Kolivan ez zagok-eta oraindik sutan!

—Eskerrik asko, adiskidea. Ezer egin dezaket zure alde eta zure familiaren alde?

—Ezer ez.

—Adio.

—Adio.

Eta Mikel Strogoffek, emakume gaixoaren magalean hogeita bost errublo utzi eta gero, zaldia ezproiez jo eta ibilaldiari ekin zion berriro ere, geldialdi labur horren ondotik. Emakumeak indarrrik ez zuen izan ezta eskerrak emateko ere.

Orain zerbait bazekien, behinik behin: Tomsken alde batera utzi beharra zuela kosta ahala kosta. Kolivanera joan zitekeen, han tatariarrak ez zedenez gero. Hiri horretara sartu eta bidaialdi luze baterako hornitu; horixe egin behar zuen. Lehenbizi Obi gurutzatu, gero Kolivanera, handik

Tomsk inguratu Irkutskeko bidea utziz, eta, Jeniseisk probintziara iristean, bide nagusia hartu berriz ere, inbaditzaileek ez baitzuten eskualde hori mendean. Beste irtenbiderik ez zeukan.

Ibilbidea erabakita, Mikel Strogoff ezin dudamudatan denborarik galdu. Ez zuen egin, eta, zaldiari ibilera arin beti-berdina eraginez, Obi ibaiaren eskuineko ertzera zeraman bide zuzenari jarraitu zion. Berrogei versta baizik ez zeuden hartaraino. Aurkituko zuen txalupa bat beste aldera igarotzeko, edo, ibai ontziak tatariarrek suntsiturik, igerian pasa beharko zuen? Ikusiko.

Zaldia ahul-ahula zegoen eta erabat akiturik, geratzen zitzaion indar apurra azken tartean ahitu ondoren. Mikel Strogoffek beste batekin aldatzen saiatu beharko zuen Kolivanen. Ohartzen zen abere errukarria behea jotzeko zorian zegoela. Kolivan, bada, abiapuntu berria balitz bezala ikusten zuen, hiri horretatik aurrera bidaia beste egoera batzuetan egin beharko baitzuen. Errausturiko lurraldean zebilen bitartean, zailtasunak handiak izango ziren oraindik, baina, Tomsk saihestu eta Irkutskeko bidea berriz hartzen bazuen, egun batzuetan erdietsiko zuen bere helburua.

Arratsaldea gautu zuen, egun bero baten ondotik. Iluntasun beltzak bildu zuen estepa gauerdian. Haizea osorik baretu zen eguzkia sartzearekin batera, eta eguratsa apal-apal ageritzen. Zaldiaren ibilera besterik ez zen aditzen bide inor gabea, eta bizkortu nahian zaldizkoak esaten zizkion berba zenbait. Ilunpe horietan, arretarik handienaz ibili beharra zegoen bidetik ez ateratzeko, bide bazterrak Obira zihoazen erreka eta urmaelez beterik baitzeuden.

Mikel Strogoff aurrera zihoan ahalik agudoen, baina arretatsu. Iluna zulatzen zuen bere begi bikainekin, baina konfiantza handia zeukan baita zaldiaren ernetasunean ere, ongi baitzekien zuhurra baino zuhurrago ibiltzen zela beti.

Halako batean, Mikel Strogoff zaldi gainetik jaitsi eta bidearen nondik norakoa aztertzen ari zenean, mendebaldetik marmar nahasi bat zetorrela iruditu zitzaion. Zamalkatze urrun baten hotsa zen, lur idor baten gainean. Zalantzarik ez. Versta bat edo bi atzerago, urrats segida batek jotzen zuen lurzorua erregularitasunez.

Adiago entzun zuen, belarria bidearen erdian bertan ipinita.

«Zalditeriako destakamendu bat duk, Omsk aldetik datorrena —esan zuen bere artean—.

Arin zatozak, hotsa gero eta ozenagoa heltzen duk eta. Errusiarrak ala tatariarrak ote?»

Entzuteari ekin zion berriz ere.

«Bai —esan zuen—, zaldizko horiek trosta bizian zatozak! Hamar minutu gabe, hemen dituk! Nire zaldiak ezin ditik atzean utzi. Errusiarrak badira, haiekin joango nauk. Eta tatariarrak badira, alde egin behar zaiek! Baina nola? Non ezkutatuko naiz estepa honetan?»

Mikel Strogoffek ingurura begiratu eta haren begi sarkorrak masa lauso bat aurkitu zuen itzaletan, ehun bat pauso aurrerago, bidearen ezker aldean.

«Bazagok han oihantxo bat. Hor bilatuko diat aterpea. Atzemango naitek, arakatzen badute, baina ez zagok aukerarik! Hemen dituk! hemen dituk!»

Handik gutxira, Mikel Strogoff, zaldia uhaletik herrestan eramanez, alertzezko baso txiki batera iritsi zen. Bidetik beretik heltzen zen haraino. Basatza eta urmaelen artean zegoen, haraindian eta honaindian zuhaitzez soil-soildua. Otea eta txilarra hazten ziren ur istilen arteko sastraketan. Bi alboetatik, beraz, ezin ibil zitekeen, eta destakamenduak oihantxo haren

aurretik pasa beharko derrigorrean, Irkutskeko bide nagusian zehar zetozenez gero.

Mikel Strogoff alertzeen babesera sartu, eta, berrogei bat pausoz barneratzean, erreka batek geldiarazi zuen. Urak zirkulu erdi itxurako barruti batean ixten zuen oihan txikia.

Baina itzala hain zen iluna, non arriskurik batere ez zen Mikel Strogoff ikusia izateko, basotxoak xehe-xehe miatzen ez bazuten, behintzat. Zaldia ur bazterrera eramane eta zuhaitz batean lotu zuen. Gero, oihanaren ertzera itzuli eta etzanda jarri zen, afera norekin izango zuen ikusteko asmoz.

Alertze multzo baten atzean ipini orduko, argi zirriborrotu bat agertu zen. Han-hemenka puntu dirdaitu batzuk dantzan zebiltzan iluntasunean.

«Zuziak!», esan zuen berekiko.

Eta atzera egin zuen bizi-bizi, basati bat bezala narrasean, alertzeen arteko alderik trinakoenerantz.

Oihantxora hurbiltzerakoan, zaldien ibilera mantsotzen hasi zen. Bidearen zoko-moko guztiak aztertzeke ari ote ziren zaldizko haiek argi ematen?

Mikel Strogoffek halaxe uste izan zuen, non-bait, eta, senari jarraituz, erreka-ren hegiraino atzeratu zen, uretan murgiltzeko prest, beharrezkoa bazen.

Destakamendua gelditu egin zen baso txikiaren parera iristean. Zaldizkoak lurrera jaitsi ziren zaldi gainetik. Berrogeita hamar inguru ziren. Hamar batek zuziak zeramatzaten, bidea eremu handian argitzen zutela.

Prestamenak egiten hasi, eta Mikel Strogoff konturatu zen ustekabeko zorteari esker destakamenduak ez zuela inola ere pentsatzen basoa bisitatzea, leku hartan geldialdi txiki bat egitea baizik, zaldiek arnasa hartzeko eta gizonek jakiren bat sabeleratzeko.

Izan ere, zaldiak, bridak kenduta, bazkatzen hasi ziren lurzorua estaltzen zuen belardi sarran. Eta zaldizkoak bidearen luzeran etzanda jarri eta zakutoetatik ateratako janariak banatzeari ekin zioten.

Mikel Strogoffek odol hotzari eutsi zion, eta, belar handien artean narrastuz, zerbait ikusten eta entzuten saiatu zen.

Omsketik zetorren destakamendua. Zaldizkoak uzbekak ziren, Tatarian nagusi den arrazakoak eta mongoliarrekin antza handia dutenak.

Gizon horiek, lerdenak eta sendoak, batez beste-ko garaiera baino altuagoak, aurpegiera basati zakarrekoak, *talpak* izeneko txanoa janzen zuten buruan, arkume beltzaren larruz egina, eta orpo luzeko bota larru-horiak oinetan, punta-muturra gora altxatuta zeukatenak, erdi aroko zapaten irudira. Zamarrak, oihal indianoz eginak eta kotoi gordinez estaliak, gerrian estutzen zituzten, tatxet gorritz apainduriko gerriko baten bitartez. Ongi armaturik zihoazen. Defentsarako, ezkutua, eta, erasorako, sable gakoa, ganibet luzea eta suharriaz pizten zen fusila, zelatik zintzilik. Feltrozko kapa bana zeramaten, kolore bizikoa, sorbaldetan bildurik.

Zaldiak, bazkan aske basoaren mugan, arraza uzbekekoak ziren, gizonak bezala. Ederki nabaritzen zen hori zuzien dirdaipean, argi bizia jaurtitzen baitzuten alertzeen adarren azpian. Abere horiek, zaldi turkomanak baino txikixea-goak baina indar bikaina dutenak, oso egokiak dira bidaia luzeetarako, eta lauoinka baino ez dakite ibiltzen.

Destakamenduko burua *pendjabaschi* bat zen, berrogeita hamar soldaduren komandante bat, alegia, eta *deh-baschi* bat zuen laguntzaile, hamar soldaduren komandante soila. Bi ofizial

horiek kaskoa zeukaten buruan eta erdi sarekotasun bat soinean; turuta txiki batzuk zeramatzen zaldi zelaren aurrealdeari loturik, haien graduaren ezaugarri.

*Pendjabaschiak* atsedean hartzen utzi behar izan zien gizonei, neka-neka eginda baitzeuden tarte handia ibili ondoren. Solasean ziharduen bigarren ofizialarekin, *beng* erretzen ari zirela, hau da, *haxix* egiteko oinarria den kalamu indiarra, Asia aldean hain estimu handia duena. Hara eta hona zebiltzan basoan barrena, eta Mikel Strogoffek, ikusezina bere gordelekuan, elkarrizketa guztia entzun zuen, eta baita ulertu ere, tatarieraz mintzo zirenez gero.

Mikel Strogoffen arreta guztiz asaldatu zen solasaldiaren lehenengo hitzetatik.

Izan ere, hartaz ari ziren hizketan.

—Mandatar horrek ezin izan ziguk honenbesteko aldea kendu —zioen *pendjabaschiak*—, eta, bestalde, erabat ezinezkoa duk Barabako bidez kanpo ibiltzea.

—Nork daki atera ote den Omsketik? —erantzun zion *deh-baschiak*—. Ez da beharbada oraindik gordea egongo hiriko etxeren batean?

—Hobe horrela, alajaina! Ogareff koronelak beldurrik ez likek izan behar mandatari horren mezuak helmugara iristen diren ala ez!

—Bertakoa omen duk —gehitu zuen *deh-baschiak*—. Hala izatera, lurraldea ongi ezagutuko dik, eta balitekek Irkutskeko bidea nonbait uztea, aurrerago berriz ere horretara itzultzeko!

—Baina haren aurretik joango gintuzkek orduan —erantzun zion *pendjabaschiak*—, ordu-bete pasa gabe abiatu gaituk-eta Omsketik, eta biderik laburrena egin diagu eta zaldien ahalegin guztiaz. Hortaz, edo Omsken gelditu duk, edo hura baino lehen iritsiko gaituk Tomskera eta bidea moztuko zioagu. Kasu batean zein bestean, ez duk Irkutskera sartuko.

—Emakume gogorra, atso siberiar hori! —esan zuen *deh-baschiak*—. Haren ama duk, dudarik gabe, esanak esan!

Esaldi hori entzun eta Mikel Strogoffen bihotza taupadaka hasi zen ia lehertzerraino.

—Bai —erantzun zion *pendjabaschiak*—, esan eta esan aritu duk delako merkatari hori ez dela bere semea, baina beranduegi. Ogareff koronelari ez zioz ziririk sartu, eta, esan duen bezala, mintzaraziko dik sorgin zahar hori, garaia datorrenean.

Zenbat hitz, hainbat sastada Mikel Strogoffentzat! Bazekiten tsarraren mandataria zena! Zaldizkoen destakamendu bat bidali zuten haren atzetik, eta bidea galaraziko zioten edonola! Eta, oinazearen bizia!, haren ama tatariarren atzaparretan, eta Ogareff krudelak nahi zuenean mintzaraziko zuela adierazi zuen ozen!

Mikel Strogoffek bazekien emakume siberiar kementsuak ez zuela hitzik esango, eta hori biziaz ordainduko zuela!...

Mikel Strogoffek ez zuen uste Ivan Ogareff ordu arte gorrotatzen zuena baino gehiago gorrota zezakeenik, eta, hala ere, gaizkinahizko olatu bat igo zitzaion bihotzeraino. Doilor horrek bere herria saldu, eta orain haren ama torturatzearekin mehatxu egiten zuen!

Solasean segitu zuten bi ofizialek, eta, Mikel Strogoffek entzun uste zuenez, borrokaldia izango zen berehala iparraldetik zetozen tropa moskutarren eta tropa tatariarren artean. Bi mila laguneko armada talde errusiar txiki bat, Obi ibaiaren behealdean ikusita, eginahalean zetozen Tomsk aldera. Hala bazen, talde horrek Feofar Khanen armada nagusiarekin topo egingo zuen aurrez aurre, eta deuseztaturik geldituko

zen ezinbestez. Irkutskeko bidea inbaditzaileen esku geratuko zen oso-osorik.

Berari zegokionez, Mikel Strogoffen buruari prezioa ezarri ziotela jakin zuen, *pendjabaschiaren* hitz batzuk zirela medio, bai eta bizirik edo hilik atzemateko agindu zutela ere.

Gauzak horrela, lehenbailehen aurre hartu behar zien zaldizko uzbekei Irkutskeko bidean eta Obi ibaia paratu haien eta bere artean. Baina, horretarako, ihes egin behar zuen destakamendua abian jarri aurretik.

Erabakia harturik, Mikel Strogoff asmo hura betearazteko prestatu zen.

Geldialdiak, izan ere, ezin zuen luzaro iraun, eta *pendjabaschiak* ez zuen pentsatzen beren gizonei ordubeteko atsedena baino gehiago ematerik, nahiz zaldiak aldatu ezin izan beste zaldi fresko batzuekin Omsk ezkerreko eta Mikel Strogoffena bezain nekatuak egon arrazoi berberengatik.

Begira egoteko betarik ez zegoen. Goizeko ordu bata zen. Iluntasunaz baliatu behar, egun-sentiak urratu aurretik, oihan txikitik atera eta bidean aurrera oldartzeko; baina, gaua aldeko izan arren, horrelako ihesaldia arrakastaz egitea ezinezkoa zen kasik.

Mikel Strogoffek ez zuen ezer ere utzi nahi patuaren esku, eta tarte bat hartu zuen hausnartzeko eta aldeko eta kontrako ahalbideak neurtzeko, abagunerik egokiena erabili nahian.

Lekua aztertu eta ondorio hauxe atera zuen: basoaren atzeko aldetik ihes egiterik ez zeukala. Han alertzeek arku bat marrazten zuten, bide nagusiak haren sokarena egiten zuela. Arku horren kanpo aldean erreka bat zegoen, aski zabala eta oso lohitsuia. Ote landare handiek itxi egiten zuten zeharo handik pasatzea. Ur arre horren azpian, lokatzezko basatza nabari zen, non oinak ezin ziren finkatu. Horretaz gain, erreka-aren beste aldean, sasiak betetzen zuten lurzorua, eta nekez ihes egin zitekeen agudo oztopoz jositako paraje horretan zehar. Han zegoela ohartu orduko, amorruz jazarri, berehala inguratu, eta Mikel Strogoff zaldizko tatariarren atzaparretan eroriko zen nahitaez.

Aukera bakarra zegoen, beraz, aukera bakar-bakarra: bide nagusian barrena joatea. Baso izkinari jarraituz bideraino ailegatu, eta, arreta bereganatzeke, versta laurden bat egin soldaduak ezertaz konturatu aurretik, gero zaldiari azken indarrak eskatu, hilik eroriko balitz ere Obiko ibai bazterrera iristean, eta, azkenik, zela igerian,

zela gabarraz, beste erarik ezean, ibai garrantziko hori zeharkatu; horixe egiten saiatu behar zuen Mikel Strogoffek.

Haren kemena, haren adorea hamar aldiz handitu zen arriskuaren aurrean. Bizitza bera zuen jokoan, eta bere eginkizuna, eta bere herriaren ohorea, eta bere amaren salbamena beharbada. Ezin zalantzatan ibili eta egitekoari ekin zion.

Astirik ez zuen alferrik galtzeko. Halako mugimendua sumatu zuen destakamenduko gizonen artean. Zaldizko batzuk atzera eta aurrera zebiltzan bidearen ezpondan, basoaren mugaren aurretik. Gainerakoak etzanda zeuden oraindik zuhaitzen oinetan, baina zaldiak biltzen ari ziren pixkaka-pixkaka basoaren erdialdera.

Mikel Strogoffek zaldi horietako batez jabetzeko burutazioa izan zuen lehenik, baina berea bezain nekatuak egongo zirela pentsatu zuen ondotik, arrazoi osoz. Hobe zuen, bada, berearekin fidatzen segitzea, lan ederra egin baitzion ordu arte. Abere bihoztun hori txilarrezko sasi handi baten atzean zegoen ezkutaturik, uzbeken begiradetatik kanpo. Soldaduak, bestalde, ez ziren basoan hondoratu atze-atzeraino.

Mikel Strogoff, belar gainean narrasean, zaldiarengana hurbildu zen. Lurrean etzanda zegoen. Eskuz laztandu zuen, goxo-goxo hitz egin, eta altzaraztea lortu zuen hotsik atera gabe.

Une hartan, zuziak itzali ziren, osorik ahiturik, eta iluntasuna beltz samarra zen artean, aler-tzeen aterpean, behinik behin.

Mikel Strogoffek zaldiari aho-burdina jarri, zelako zingila tenkatu, estribuen uhalak aztertu, eta emeki-emeki hasi zitzaion tiraka bridatik. Abere burutsua, bere aldetik, zer egin behar zuen ulertu balu bezala, otzan joan zen nagusia- ren atzetik, irrintzi txikienik ere egin gabe.

Alabaina, zaldi uzbek batzuek burua tentetu eta baso izkina aldera jo zuten poliki-poliki.

Mikel Strogoffek errebolberra zeukan eskui- neko eskuan, hurreratzen zitzaion lehenengo zaldiko uzbekari burua lehertarazteko prest. Baina, zorionez, alarmarik ez zuten jo, eta oihan- txoak eta bideak eskuin aldean eratzen zuten angeluraino iristeko modua izan zuen.

Ahalik beranduena igo nahi zuen zela gaine- ra, destakamendukoek ikus ez zezaten, eta basotik berrehun pausora zegoen bihurgunea pasa arte ez zuen asmorik zaldiz ibiltzen haste- ko.

Damurik, basoaren muga zeharkatu behar zuen unean, uzbek baten zaldiak usain egin, irrintzia bota eta bidera irten zen antxintxika.

Nagusia zaldiarengana joan da korrika, berreskuratu nahian, baina, egunsentiaren lehen argitan irudi bat nabarmentzen dela ikusirik:

—Nor da hor? —oihu egin du.

Garrasia entzun, eta kanpamentuko gizon guztiak altxatu dira eta bide aldera egin.

Mikel Strogoffek zaldi gainera igo eta lauoinka ihesi joatea beste aukerarik ez du.

Destakamenduko bi ofizialak aurrera etorri dira eta beren gizonak akuilatzen hasi.

Baina Mikel Strogoff zaldi zelan eserita dago jadanik.

Orduan tiro baten eztanda hotsa entzun, eta bala batek zamarra zulatzen diola sentitu du.

Burua biratu gabe, erasoari erantzun gabe, zaldia ezproiez jo, eta, oihantxoaren muga jauzi izugarri batez gurutzaturik, Obi aldera oldartzen da lasterka bizi-bizian.

Zaldi uzbekak ez zeuden prestaturik, eta Mikel Strogoffek alde pixka bat kendu zien destakamenduko zaldizkoei; baina luze gabe abiatuko ziren haren arrastoaren atzetik, eta, izan ere, ez ziren joan bi minutu basotik irten zenetik, eta

hainbat zaldiren hotsa entzun zuen pixkaka-pixkaka beregana hurbiltzen.

Eguna argitzen hasi zen orduan, eta gauzak inguru zabalago batean ari ziren bistara azaltzen.

Mikel Strogoffek burua biratu eta zaldizko bat agudo hurbiltzen ari zaiola ikusi du.

*Deh-baschia* da. Ofizial hura, zaldi bikain baten gainean, lehen-lehena dator, eta iheslaria harrapatzeko ez du asko falta.

Gelditu gabe, Mikel Strogoffek errebolberra harengana luzatu, eta, dardararik ez eskuan, destatu da istant batez. Tiroak bular betean jo, eta ofizial uzbekak zaldi gainetik erori eta pirripitaka dabil lurrean.

Baina gainerakoek hurbiletik jarraitzen zioten, eta, *deh-baschiren* ondoan atzeratu gabe, oihuka elkar suspertuz, zaldien saihetsetan ezproia sartuz, murrizten ari ziren gutxika-gutxika Mikel Strogoffenganainoko tartea.

Ordu erdi batean, ordea, arma tatariarren tiro bidetik kanpo iraun zuen, baina zaldia ahultzen ari zela ohartu, eta beldurrez zegoen une oro trabaren batean estropezu egin eta lurrera jausiko ote zen sekula ez altxatzeko.

Argitu samartua zen eguna ordurako, zerumugatik gora eguzkia oraindik agertu ez arren.

Handik bi verstara gehienez ere, lerro hits bat luzatzen zen, ertzean han-hemenka zuhaitz batzuk zeuzkana.

Obi ibaia zen. Hego ekialdetik ipar ekialdera zihoan lur arrasetik ia nabarmendu gabe, estepa bera zuela haran bakar.

Zenbait aldiz tiro egin zioten fusilekin, baina asmatu gabe, eta, zenbaitetan ere, errebolberra hustu behar izan zuen hurbil-hurbil jartzen zitzaizkion zaldizkoen gainera. Aldi oro, soldadu uzbek bat pirripitaka zihoan lurtean barrena, lagunak amorratiozko garrasien artean.

Baina jazarpen hura ezin ongi bukatu Mikel Strogoffentzat. Haren zaldia den-dena emanda zegoen, eta, hala ere, ibaiaren hegiraino eramantzen ahal izan zuen.

Uzbeken destakamendua berrogeita hamar pausora baizik ez zegoen harengandik, une hartan.

Obi ibaian, arimarik ez, txaluparik ez, ontziririk ez, beste aldera pasatzeko.

—Adore hartu, zaldi paregabe hori! —oihu egin zuen Mikel Strogoffek—. Aurrera! Azken ahalegina!

Eta ibaira bota du bere burua.

Leku hartan, ibaia versta erdi zen zabal. Ur lasterrari eustea zaila zen oso, eta Mikel Strogoffen zaldia ezin zuen hanka inon paratu. Batere bermerik gabe, hortaz, igerian zeharkatu behar ur bizi-bizi haiek, mendiko uharren parekoak. Aurre egiten saiatzeari berari kemenezko miraria irizten zion Mikel Strogoffek. Zaldi hura aparta zen benetan.

Zaldizko tatariarrak ibai ertzean gelditu eta zalantzan zeuden uretara jauzi egin edo ez.

Baina, memento horretan, *pendja-baschiak* fusila hartu du eta iheslariaren aldera destatu kontu handiz. Tiroa bota, eta Mikel Strogoffen zaldia, saihetsean zauriturik, hondora joan da nagusiaren azpian.

Mikel Strogoffek estribuak arin askatu ditu, aberea ibaiko uretan desagertzen den unean. Gero, murgiltzera egin du bala andana baten erdian, eta, ur azpitik ibaiaren eskuineko ertzera iritsita, Obiko hegia betetzen duten kanaberen artean galdu da.

# XVII

## BIBLIA-TXATALAK ETA ABESTIAK

Mikel Strogoff leku seguruan zegoen nolabait ere. Alabaina, haren egoera ikaragarria zen oraindik.

Hain adore handiz zerbitzatu eta gero, zaldi zintzoa hilik zegoen ibaiko uretan, eta, hura gabe, nola segituko aurrera?

Oinez joan behar, jakirik gabe, inbasioak errausturiko lurralde batean zehar, emirraren armadako lehenengo taldeak saihestuz, eta arrunt urruti zegoela oraindik, lortu behar zuen helburutik.

«Iritsi egingo nauk, handik edo hemendik! — oihu egin zuen, instant batez kikiltzeko agertu zitzaizkion arrazoi guztiei erantzuna emanetz—. Jainkoak gorde dezala Errusia santua!»

Mikel Strogoff zaldizko uzbeken eskumenetik at zegoen. Soldadu horiek ez ziren ausartu haren atzetik ibaira sartzen, eta, gainera, zaldiarekin batera ito zela usteko zuten, ezinezkoa izan bai-

tzitzaian Obiko eskuineko hegira nola iritsi zen ikustea, uretan desagertu ondoren.

Baina Mikel Strogoff, ibai ertzeko kanabera itzelen artetik iraganez, ur bazterreko alderdi garaiago batera igo zen, eragozpen handiz, ur goraldiaren sasoian lokatza lodia pilatzen baitzen ibai ertz hartan.

Behin lurzoru gogorrangoan, Mikel Strogoffek ea zer komeni zitzaion pentsatu zuen. Tomsk alde batera utzi nahi zuen batez ere, tatariarren tropen mendean egonik. Baina derrigorrean herrixkaren batera joan beharra zeukan, edo posta etxe batera, zaldi bat eskuratzeko. Zaldia aurkitu ondoren, bide urratuetatik kanpo ibiliko zen, eta Krasnoiarsk parean egon arte ez zuen Irkutskeko bidea hartuko berriro. Hortik aurrera, oztoporik ez topatzea espero zuen, eta hegoekialderantz joan ahalko zen, Baikal aintzirako probintzietarantz.

Lehenengo eta behin, Mikel Strogoffek orientatzeari ekin zion.

Bi versta aurrerago, Obi ibairen ibilbideari jarraituz, hiri txiki ikusgarri bat ageri zen, tontor apal batean. Etxeak mailaz maila igotzen ziren gain horretarantz, eta zenbait eliza eta haien

kupula bizantziarrak, berdez eta urrez koloreztatuak, nabari ziren zeruaren atzealde grisean.

Kolivan zen hiri hori. Hara biltzen dira udan Kamskeko eta beste hirietako funtzionario eta enplegatuak Barabako eguraldi osasun-galgarriaren ihesi. Tsarraren mandatariak jasotako berrien arabera, Kolivan ez zegoen oraindik inbaditzaileen esku. Tropa tatariarrek, bi zutabetan zatiturik, ezkerretara jo zuten Omsk aldera, eta eskuinetara, Tomsk aldera, Erdiko eskualdeari jaramonik egiteke.

Mikel Strogoffek egitasmo erraz eta logikoa erabaki zuen. Kolivanera iritsi nahi zuen zaldizko uzbekak baino lehen, zeintzuk Obi ibaian gora zihoazen ezkerreko aldean barrena. Hiri horretan, hamar aldiz garestiago ordainduta ere, jantziak eta zaldia bereganatuko zituen, eta Irkutskeko bidea hartuko zuen berriz hegoaldeko estepan zehar.

Goizeko hirurak ziren. Kolivan hiriaren ingurumaria lasai-lasai zegoen, erabat abandonaturik, antza. Baserriko jendea, jakina, inbasiotik ihesi, hari kontra egin ezinean, iparrera joana zen, Jeniseisk aldeko probintzietara.

Mikel Strogoff Kolivanerantz zihoan urrats biziz, eta, bat-batean, urruneko eztanda batzuen hotsa iritsi zen harengana.

Gelditu egin zen eta burrunba isil bat eguratsa astintzen ari zela entzun zuen argiro, eta beste soinu lehorrago bat bereizi zuen haren gai-netik, txinpartena bezalakoa. Ongi zekien zein zen haien jatorria.

—Kanoia duk! Fusilen desarra! —esan zuen bere artean—. Soldadu talde errusiar txikia borrokan ari duk, hortaz, armada tatariarrarekin! A! Zeru goiak nahiko ahal dik ni Kolivanera horiek baino lehen iristea!

Mikel Strogoff zuzen zebilen. Berehala ez-tandak ozenago bihurtzen hasi ziren, eta, atzeko aldean, Kolivan hiriaren ezkerrean, lurrinak metatu ziren zerumugaren gainean. Ez ziren ke hodeiak, artilleriaren desarrek zeruan sortzen zituzten kiribil zurixkak baizik.

Obi ibaiaren ezker aldean, zaldizko uzbekak geldirik zeuden gatazkan garaile nor gertatuko zain.

Alde horretatik, Mikel Strogoffek deusen bel-durrik ez zuen izango aurrerantzean. Halatan, lehen baino bizkorrago segitu zuen hiri aldera.

Eztandak, ordea, areagotzen ari ziren eta hurbiltzen. Ez zen jadanik orro nahaspilatsu bat, kanoikada garbien sail bat baizik. Horrekin batera, kea, haizearen bultzaz, zeruan gora zihoan, eta borrokalariak hegoaldera agudo mugitzen ari zirela adierazten zuen nabarmen. Kolivani iparraldetik egin behar zioten eraso inondik ere. Baina errusiarrek defentsan ziharduten Feofar Khanen soldadu tatariarren aurka, edo hiria berreskuratu nahian? Ezin jakin. Eta biziki atsekabetzen zuen horrek Mikel Strogoff.

Kolivanetik versta erdira baino ez zegoela, sugar handi bat lehertu zen hiriko etxeen artean, eta eliza bateko kanpandorrea lurrera erori zen hauts eta garrezko luizien erdian.

Kolivanen bertan ari ziren, bada, borrokan? Baietz pentsatu zuen Mikel Strogoffek, eta, hala izatera, errusiarrek eta tatariarrek karriketari ariko ziren gudukan noski. Hirian babesa bilatze-ko une egokia ote zen? Harrapatua izateko arriskuan ez zen, bada, jarriko, eta lortuko al zuen Kolivanetik ihes egitea, Omsketik egin zuen bezala?

Galdera horiek guztiak etorri zitzaizkion gogora. Duda egin zuen, gelditu egin zen lipar batean. Ez zuen merezi hegoaldera edo ekialde-

ra egin eta herrixkaren batera sartzea, Diatxins-  
kera edo beste batera, eta han zaldi bat eskura-  
tzea kosta ahala kosta?

Ezin besterik erabaki, eta, Obi ibaiaren ibilbi-  
dea atzean utzirik, Kolivan hiriaren eskuineta-  
rantz jo zuen segituan.

Une hartan, eztrandak arras bortitzak eta  
gogorak ziren. Hiriaren ezker aldean sugarrak  
sortu ziren berehala. Sutea Kolivango auzune  
oso bat erretzen ari zen.

Mikel Strogoff lasterka zihoan estepan barre-  
na, babes bila han-hemenka barreiatu-  
rik zeuden  
zuhaitzetan, eta, halako batean, tatariarren zal-  
diteriako destakamendu bat agertu zen eskuin  
aldean.

Ezin, jakina, alde horretara ihesi segitu. Zal-  
dizkoak arin zihoazen hirirantz, eta Mikel Stro-  
goffek nekez egingo zuen hanka haiengandik,  
ikusten bazuten.

Behingoan, zuhaitz multzo sarri baten alda-  
menean, etxe isolatu bat begiztatu zuen, eta sol-  
daduak ohartu aurretik bertara iristen ahalko  
zela bururatu zitzaion.

Harantz korrika joan, bertan ezkutatu, eta  
zerbait eskatu edo hartu, indarrak berritzeko,  
neka-neka eginda baitzegoen eta goseak amo-

rratzen, horixe Mikel Strogoffek egin zezakeen gauza bakarra.

Oldartu egin zen, beraz, etxe hartarantz. Versta erdira zegoen, gehienez ere. Hurbildu ahala, etxea telegrafo bulego bat zela konturatu zen. Hari bat irteten zen handik mendebaldera, beste bat ekialdera, eta hirugarren bat Kolivane-rantz luzatzen zen.

Telegrafo etxe hura bertan behera utzirik egongo zen egoera honetan, pentsatzekoa zenez, baina, zegoen moduan zegoela, Mikel Strogoff bertan gorde zitekeen azkenik, eta gauera arte han itxaron, estepan aurrera ihesi segitu baino lehen, besterik ezin-eta tatariarren esploratzaileak nonahi egonik.

Mikel Strogoffek etxeko ate aldera jo zuen berandu gabe eta ireki egin zuen kolpe batez.

Lagun bakar bat zegoen mezu telegrafikoak bidaltzeko aretoan.

Enplegatu bat zen, lasaia, patxadatsua. Bost axola hari kanpoan zer gertatzen zen. Tinko bere postuan, leihatilaren atzean zegoen eserita, bezeroek bere zerbitzuak noiz eskatuko.

Mikel Strogoffek arineketan egin zuen haren-gana, eta nekearen nekez hautsitako ahotsez:

—Zer dakizu? —galdetu zion.

—Ezer ez —erantzun zion enplegatuak irribarratsu.

—Errusiarrak eta tatariarrak ari dira borrokan?

—Hala omen.

—Baina nor dira garaileak?

—Ez dakit.

Halako patxada gertaera izugarri haien erdian, halako axolagabekeria, zaila zen sinestea.

—Eta haria ez dago etena? —galdetu zion Mikel Strogoffek.

—Kolivandik Krasnoiorskera bai, etena dago, baina badabil oraindik Kolivandik Errusiako mugara.

—Gobernuarentzat?

—Gobernuarentzat, komenigarria irizten diorean. Jendearentzat, ordaintzen duenean. Hamar kopek hitzeko. Nahi duzunean, jauna!

Bidaltzeko mezurik ez zuela erantzun behar zion Mikel Strogoffek enplegatu bitxi hari, ogia eta ura besterik ez zuela nahi, baina, hartan, etxeko atea zabaldu zuten supituki.

Tatariarrak telegrafo bulegoa inbaditzen ari zirelakoan, leihotik kanpora jauzi egiteko prestatu zen Mikel Strogoff, baina aretoan bi lagun

baino sartu ez zirela ohartu zen, eta haiek ez zuten batere antzik soldadu tatariarren.

Haietako batek mezu bat zeukan eskuan, arkatzez idatzirik, eta, besteari aurre hartuz, korrika joan zen enplegatu sorgorraren leihatilara.

Mikel Strogoffek, harriduraren harriduraz, aise uler daitekeenez, nor topatu kinka hartan, eta zeharo ahaztuta zeuzkan bi pertsonaia, inondik inora berriro ikustea espero ez zituen bi gizon ezagutu zituen bi lagun haiengan.

Harry Blount eta Alcide Jolivet berriemaileak ziren. Ez ziren jada bidelagunak, kontrarioak baizik, edo, are gehiago, etsaiak, gerraren jokalekuan zeudenez gero.

Mikel Strogoff baino ordu batzuk geroago atera ziren Ixin hiritik, eta, Kolivanera hura baino lehen iritsi baziren, bide berari jarraiturik aurre ere hartu bazioten, Mikel Strogoffek hiru egun galdu zituelako izan zen, Irtish ibaiaren bazterretan zauritu zutenean. Errusiarrek eta tatariarrek Kolivan aurrean izandako borrokak ikusi zituzten, eta, ospa egin zuten hiritik, liskarrak karriketaraino zabaldu zirelarik.

Eta orain, telegrafo etxera inguratu ziren biak, Europara beren kontrako mezuak bidaltze-

ko asmotan, azken gertaerei buruzko lehen berriak bata bestearen aurretik eman nahirik.

Mikel Strogoff zoko batean geratu zen, itzale-tan, eta handik dena ikusi eta entzun zezakeen, han zegoela inor jabetu gabe. Azken albisteak entzuteko parada izango zuen —interes handiko-ak beretzat—, eta Kolivanen sartu behar zuen ala ez jakingo.

Harry Blountek, bere lankide frantsesa baino biziago ibiliz, leihatila bere egin eta mezua luzatu zion funtzionarioari. Alcide Jolivetek, bitar-tean, ostikoka ziharduen lurraren kontra, pazien-zia galdua, bere ohituren kontra.

—Hamar kopek hitzeko, jauna —esan zion enplegatuak, mezua hartzen ziola.

Harry Blountek errublo pila bat laga zuen leihatilaren aurreko apalean, eta haiei begira geratu zen haren lankidea txunditu samar.

—Ongi —esan zion enplegatuak.

Eta, lur bira guztiko odol hotzik handienaz, mezu hau telegrafiatzeari ekin zion:

«*Daily Telegraph, Londres*  
*Kolivan, Omsk probintzia, Siberia, abuztuak*

*Borroka latza tropa errusiarren eta tataria-  
rren artean...»*

Enplegatua mezua bidali ahala ahots ozenez irakurtzen ari zen, eta, hortaz, Mikel Strogoffek kazetari ingelesak bere egunkarira igorritako guztia entzuten zuen.

*«Tropa errusiarrek atzera egin galera handiekin. Tatariak gaur bertan sartuko Kolivanen...»*

Hitz horiekin amaitzen zen mezua.

—Nire txanda da orain! —oihu egin zuen Alcide Jolivetek, Montmartre auzoko bere lehengusinari zuzenduriko mezua funtzionarioari eman nahi izan ziola.

Baina hori ez zen komenigarria kazetari ingelesarentzat, eta batere asmorik ez zuen azaldu leihatila libre uzteko. Horrela beti izango zuen egokiera albisteak gertatu bezain laster egunkarira bidaltzeko. Leihatilan iraun zuen, bada, bere lankideari lekua utzi gabe.

—Baina zuk bukatu duzu! —esan zion garra-sika.

—Ez dut bukatu —bota zion motz Harry Blountek.

Eta hitz sorta bat idazten jarraitu zuen. Gero, enplegatuari eman eta honek ozen irakurri zituen ahots lasaiaz:

«*Hasieran, Jainkoak zeru-lurak egin zituen...»*

Bibliaren txatalak ari zen Harry Blount telegrafiatzen, denbora pasatzen utzi eta bere lankideak lekua ken ez ziezaion. Errublo mila batzuk kostako zitzaizkion beharbada bere egunkariari, baina bere egunkaria izango zen lehenengoa berriak jasotzen. Frantziak zain egon behar!

Amorru biziak astindu zuen Alcide Jolivet, aise asma daitekeenez. Bestelako egoera batean bidezkoa begitanduko zitzaion horrela jokatzeari, baina hartan ezin eraman, eta enplegatu bere mezua hartzera eta bere lankidearena bazter uztera behartzen ere saiatu zen.

—Jaun honek eskubidea du —erantzun zion lasai enplegatuak, irribarre atsegina eskainiz, eta Harry Blount seinalatzen ziola.

Eta liburu santuaren lehenengo txatala *Daily Telegraphera* zintzo bidaltzen segitu zuen.

Horretan ziharduen bitartean, Harry Blount leihora joan zen patxada ederrean, eta, largabista begietan jarririk, Kolivan inguruan zer gertatzen ari zen begiratu zuen, bere albisteak osatzeko asmoz.

Handik pixka batera, leihatilara itzuli eta hauxe gehitu zion bere telegramari:

*«Bi eliza garretan. Sutea eskuinetara zabal-tzen. Lurra nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gain ilunpea...»*

Alcide Jolivetek *Daily Telegraphe*ko berrie-maile ohoragarriari lepoa bihurritzeko gogo basatia izan zuen, sinpleki.

Beste behin argibideak eskatu zizkion enple-gatuari, baina horrek, trankil eta bare beti, hau erantzun zion huts-hutsik:

—Eskubidea du, jaun hori, eskubidea du... hamar kopek hitzeko.

Eta Harry Blountek emandako berri hau tele-grafiatu zuen:

*«Errusiarrak hiritik ihesi doaz. Eta Jainkoak esan zuen: "Izan bedi argia". Eta izan zen argia...»*

Alcide Jolivet sumindu zen erabat.

Bien bitartean, Harry Blount leiho ondoan zegoen barrukoei bizkar emanaz, baina, aldi honetan, begien aurreko ikuskizun interesgarriak arreta guztia bereganatu eta apur bat luzatu zen behaketan. Halatan, enplegatuak Biblia-ren hirugarren txatala telegrafiatzetik bukatu zuenean, Alcide Jolivetek haren lekua hartu zuen leihatilaren aurrean soinurik atera gabe, eta, bere lankideak egin zuen legez, errublo pila eder bat apal gainean leun-leun ipini, eta bere mezua eman zion enplegatuari. Horrek ahots ozenez irakurri zuen:

*«Madeleine Jolivet*

*Montmartre auzoa 10 (Paris).*

*Kolivan, Omsk probintzia, Siberia, abuztuak*

6.

*Soldaduak hiritik ihesi. Errusiarrak galtzaile.*

*Jazarpen ankerra tatariarren zalditeriaren alde-tik...»*

Harry Blount itzuli zelarik, Alcide Jolivet isekazko ahotsez kantuan ari zela entzun zuen. Bere telegrama osatzen ari zen abesti batekin.

*Badago Parisen  
gizon txiki bat  
grisez jantzia!...*

Gauza sakratuak sakratu ez direnekin nahastea egokia ez zelakoan, Alcide Jolivet ez zen ausartu, Harry Blountek egin bezala, Bibliaren txatalak bidaltzera, eta Bérangerren lelo alai bat aukeratu zuen telegrama luzatzeko.

—Hara! —garrasi egin zuen Harry Blountek.

—Horrelaxe dira kontuak —erantzun zion Alcide Jolivetek.

Egoera, bitartean, larriagotzen ari zen Koli-van inguruetan. Borroka gero eta hurbilago zegoen, eta eztrandak bortitz lehertzen ziren handik ez oso urruti.

Une hartan, astinaldi batek telegrafo etxea dardarazi zuen.

Obus batek pareta zulatu, eta hauts hodei bat hedatu zen transmisio aretoan, den-dena lausotuz.

Alcide Jolivet bertso hau bukatzen ari zen orduan:

*Masailak sagarra bezain gorri*

*sosik batere gabe...*

Baina, gelditu, obus aldera lasterka joan, bi eskuekin hartu, leihotik kanpora bota eta leihatilara itzultzea dena bat izan zen.

Bost segundo geroago, obusak eztanda egin zuen kanpo aldean.

Eta Alcide Jolivetek odol hotzik handienaz telegrama osatzen segitu zuen, hauxe idatziz:

*«Sei hazbeteko obusak telegrafo bulegoko pareta suntsitu du. Kalibre bereko beste batzuen zain...»*

Mikel Strogoffentzat ez zen zalantzazkoa errusiarrek Kolivan galdu behar zutela. Hegoaldeko estepan zehar abiatu beharko zukeen ezinbestez.

Baina orduan fusil desarra ikaragarri bat lehertu da telegrafo bulegotik hurbil, eta bala zaparrada batek leihoetako kristalak txikitu ditu.

Harry Blount, sorbaldan zauriturik, lurrera erori da.

Alcide Jolivetek mezu gehigarri hau bidaltzerara doa:

«*Harry Blount, Daily Telegrapheko berriemai-  
lea, nire ondoan erori da, metraila puska batek  
jota...»*

Baina enplegatu sorgorak zera esan dio beti-  
ko lasaitasunez:

—Jauna, haria etenda dago.

Eta, leihatila utzirik, kapelua patxadaz hartu,  
ukondoaz garbitu, eta, irribarrea ezpainetan,  
Mikel Strogoffek ordu arte ikusi ez duen ate txiki  
batetik irten da.

Soldadu tatariarrek inbaditu dute bulegoa,  
eta ez Mikel Strogoffek, ez kazetariak, ezin dute  
deus egin atzera joateko.

Alcide Jolivetek, alferreko mezua eskuan,  
Harry Blounten aldera jo du, eta, bihotz bipila  
erakutsiz, lurretik altxatu eta lepoan kargatu du,  
bizkarrean eramanda ihesi joateko... Berandue-  
gi, ordea!

Preso hartu dituzte bi kazetariak, eta, haiekin  
batera, Mikel Strogoff, ustekabeen harrapatua,  
tatariarren atzaparretan erortzen da, leihotik  
jauzi egin behar duen mementoan.

# **BIGARREN ZATIA**

## KANPAMENTU TATARIAR BAT

Kolivandik egun beteko bidean, Diatxinsk herrixkatik versta batzuk aurrerago, lautada zabal bat hedatzen da, non zuhaitz handi batzuk nagusi ageri diren, pinuak eta zedroak batik bat.

Esteparen alderdi horretan artzain siberiarrek ibiltzen ohi dira urtaro beroan, nahiko larre baitago han haien abere talde ugarienezat. Baina garai hartan alferrik bilatuko zenuen artzain nomada horietako bakar bat ere. Eta ez lautadan inor ez zegoelako. Aitzitik, jendea erruz bildua zen ordoki hartara.

Izan ere, bertan altxatzen ziren tatariarren dendak, hantxe zegoen kanpatua Feofar Khan, Bukharako emir ankerra, eta hara eraman zituzten biharamunean, abuztuaren 7an, Kolivanen harrapaturiko gatibuak, armada errusiarraren talde txikia birrindu ondoren. Bi mila gizon haiek etsaien bi zutabeen artera sartu ziren, eta, tatariarrek, bai Omsk bai Tomsk bereganatuta, erdira egin eta suntsitu eta azpiratu egin zituzten, bizirik lauhun edo bostehun soldadu errusiar

baino gelditzen ez zirela. Gertaerak itxura txarra hartzen ari ziren, eta gobernu inperiala Uraleko mugaz harantz arriskuan zegoela zirudien, oraingoz behinik behin, zeren errusiarrek lehenago eta geroago atzeraraziko zituzten inbaditzaileen osteak. Baina inbasioa Siberiako erdialdera iritsia zen azkenik, eta matxinaturiko herrialdean zehar hedatu egingo zen, mendebaldeko probintziatarantz ez bazen, ekialdekoetarantz. Irkutsk hiriak ez zuen komunikaziorik Europarekin une hartan. Amurreko tropak eta Jakutsk probintziakoak garaiz iritsi ezean, Asia aldeko Errusiako hiriburua tatariarren eskuetan geratuko zen, bertako soldaduak ez baitziren aski Feofar Khanen armadari aurre egiteko. Eta, horrela gertatuz gero, hiria berreskuratu baino lehen, Ivan Ogareffek ase egingo zuen duke handiaren kontra, enperadorearen anaiaren kontra itotzen zuen mendeku egarria.

Zer egingo zuen Mikel Strogoffek? Kikildu egingo zen azkenean, horrenbeste ezbehar ezin pairaturik? Amore emango zuen Ixingo abenturaren ondotik nozituriko zoritxar sorta gero eta latzagoa zela bide? Jokoa galdua zuela pentsatuko zuen, bere zeregina ezin burutuz, eman zioten agindua ezin betetz?

Mikel Strogoff hilik erori arte gelditzen ez diren gizon horietakoa zen. Eta bizirik zegoen, zauririk ere ez zeukan, tsarraren gutuna aldean zeraman artean, eta han inork ez zekien egiatan nor zen. Beste gatibu bat zen, tatariarrek basapiztia okerren gisan herrestan zeramatzaten milaka eta milaka koitaduren artean; baina, Tomskera hurbildu ahala, Irkutsjera hurbiltzen ari zen. Batera edo bestera, Ivan Ogareffen aurretik zihoan oraindik ere.

«Iritsiyegingo nauk!» —errepikatzen zion bere buruari.

Eta, Kolivanen jazotakoaren ostean, haren bizitza guztia pentsamendu bakar horretan bildu zen: askatasuna lortzea! Nola ihes egin, ordea, emirraren soldaduei? Ikusiko zuen abagunea egokitzerakoan.

Feofar Khanen kanpamentuak ikuskizun paregabea eskaintzen zuen. Ezin konta ahala dendak, larruz, feltroz edo zeta oihalez eginak, dirdai egiten zuten eguzki printzen argitan. Haien goiko mutur konikoetatik mortxilak eta borlak kulunkatzen ziren banderatzu, gidoin eta estandarte koloretsuen erdian. Dendarik aberatsenak *seida* eta *khodja* agintarienak ziren, khanerriko jaun nagusienak, alegia. Bandera berezi

batek, zaldi isats batez apaindurik, buruzagi tatariar horien goiko maila adierazten zuen, eta banderaren tantaia gailen ageri zen batzuk besteekin trebeki loturiko makila zuri-gorrien multzo batetik gora. Aurrerago, *karaoi* izeneko denda turkoman milaka batzuk hedatzen ziren ordokian azkengabe, gameluen bizkarrean haraino garraiatuak izan eta gero.

Ehun eta berrogeita hamar mila soldadu baziren gutxienez kanpamentu hartan, oinezkoak nahiz zaldizkoak, denak *alaman* deituraren pean hara elkaturik. Haien artean, eta Turkestanen herri nagusia izanik, tadjikak nabarmentzen ziren lehenengo. Hazpegiak neurrizkoak zituzten, azala zuria, begiak eta ilea beltza, gorputza lerdena. Armada tatariarren zati handiena osatzen zuten, eta kasik Bukharako khanerriak bezainbeste bidali zituzten Kokand eta Kunduzekoak ere. Tadjik haiekin beste leinuetako jendeak nahasten ziren, Turkestandik edo hurbileko herrietatik etorriak. Baziren uzbekak, garaiera txikikoak, bizar-gorriak, Mikel Strogoffen atzetik oldartu zirenen antzekoak. Baziren kirgizak, begitarte laua zutenak, kalmukak bezala, sarekotaz estalirik, batzuek lantza, arku eta gezi asiarrak aldean, eta beste batzuek sablea,

metxako fusila eta *txakana*, gider laburreko aizkora txikia, zauri hilgarriak baino egiten ez dituenena. Baziren mongoliarrak, ez txiki ez handi, ile beltza mototsean bildu eta bizkarrean zintzilik zeramatenak. Aurpegia biribila zuten, larruazala beltzarana, begiak zuloan sartuak eta bizi-biziak, bizarra bakana. Soinean, nankin urdinezko jantzi luzeak zituzten jantzirik, peluxe beltzez edertuak eta larruzko gerrikoez gerruntzean estutuak; oinetan, txirikorda ikusgarriez apaindutako botak; eta, buruan, zetazko txanoak, larruzko ertzarekin eta haizeak dantzarazten zituen hiru xingolekin. Baziren, azkenik, afgano azal-ilunak, arabiar ederrak, arraza semitikoen eite antzina-koari eusten ziotenak, eta turkoman begi-zabalak, betazal gabeak ziruditenak. Eta den-denak emirraren banderapean elkaturik, su emaile eta bazter suntsitzaileen bandera haren azpian bat eginik.

Soldadu aske horien ondoan, hainbat soldadu esklabo zebiltzan, persiarrak batez ere, jatorri bereko ofizialen aginduetara; eta gerlari jopu haiek ez ziren inondik ere estimu gutxienekoak Feofar Khanen armadan.

Gehi diezazkiogun zerrenda horri juduak, morroi lanetan zihardutenak, tunika soinean,

soka batez gerrian estutua, oihal ilunezko txano txikerra buruan, durbantea debekatua baitute; nahas ditzagun talde horiekin *kalender* ehunka batzuk, eskeko fraide antzekoak, zarpail jantziak, lehoinabarraren larruaz estaliak; eta zelai zabal haietako tribu eta jende samalda ikaragarri handi haien irudi osatu samarra begiztatuko dugu. Haien guztiek osatzen zituzten armada tatariarrek zeritzatenak.

Berrogeita hamar mila gerlari zalditeriakoak ziren, eta haien zaldietan mota askotakoak zeuden, gizonetan arraza adina. Abere horiek hamarnaka zeuden jarriak, bi soka paralelotan loturik; isatsa korapilo eginda zuten, eta bizkar atzea zeta beltzezko saretxo batekin babestuta. Haien artetik, turkomanak bereizten ziren, hanka finak, gorputz luzea, larru dirdaitsua, lepo bikaina; uzbekak, iraupen handi-handikoak; kokandarrak, zaldizkoaz gain, bi denda eta sukaldeko tresneria guztia eramateko gauza direnak; kirgizak, ile-argiak, Enba ibaiaren bazterretatik ekarriak, non *arkan* izeneko lakio tatariarrez harrapatzen diren; eta arraza gurutzatuko beste anitz, kalitate eskasagoak.

Zamariak ugari baino ugariagoak ziren. Milaka gamelu txiki zeuden, ongi osatuak, ile luzea

gorputzean, zurda lodiak lepaginean, abere otzanak, eta dromedarioa baino errazago prestatzen direnak; konkor bakarreko *nar* izenekoak ageri ziren, ilajea gorria kiribiletan kizkurtua zutenak, sugarren pare; eta mandoak, lanerako gogorrek bezain okela gozokoak, tatariarrek gustura jaten zituztenak.

Gizon eta animalien multzo haren guztiaren gainean, sekulako denda pilaketa haren gainean, zedroek eta pinuek, talde trinkoetan bildurik, itzal atsegina ematen zuten, han eta hemen eguzki printzez zulatua. Deus ez ikusgarriagorik margolan hura baino. Bere paletako kolore guztiak agortuko zituen koloristarik kartsuenak, hura islatu nahian.

Kolivango gatibuak Feofar eta khanerriko agintari handien denden parera iritsi zirelarik, danborrak eta turutak jo zituzten, eta soinu ikaragarri horiekin mosketeen tiro zoliak nahasi ziren, bai eta emirraren artilleria osatzen zuten seiko eta lauko kanoien eztanda hots apalagoak ere.

Feofar Khanen kanpamentua militarra zen huts-hutsik. Etxe zibila dei zitekeena, bere harema eta bere aliatuena Tomsken zeuden, tatariarren mendean ordurako.

Kanpamentua jasotzean, Tomsk izango zen emirraren egoitza, handik ekialdeko Siberiako hiriburura eraman bitartean.

Feofarren denda nabarmen azaltzen zen inguruko denden artetik. Zetazko mihise handi dirdaitsuak zeuzkan estalgarri, eta urrezko ertzekoak ziren mihiseak gora altxatzen zituzten lokarriak. Goi aldean borla lodi batzuk haizeak jo eta paumaren isatsaren antzera geratzen ziren zabalik. Dendak soilgune nasai baten erdi-erdia hartzen zuen, urki zoragarriak eta pinu eskergak inguruan. Aurrealdean, harribitxiz txertaturiko mahai lakatu baten ganean, Koran liburu sakratua zegoen zabal-zabal. Orrialdeak meheak zituen, urrezkoak, eta xaloki grabatuak. Gain-ganean, tatariarren bandera mugitzen zen haizearen indarraz, emirraren armarrria erakusten zuela.

Soilgunearen jiran Bukharako goi funtzionarioen dendak eraikiak zeuden erdi zirkuluan. Han bizi ziren agintari handiak: zalditegiko burua, emirraren jauregiko patioraino joan daitekeena zaldi gaintetik jaitsi gabe; belatz-zain nagusia; *husch-beguia*, errege zigiluaren eramailea; *toptschi-baschia*, artilleriako maisu nagusia; *khodja*, kontseiluko burua, printzeak musu ema-

ten diona eta haren aurrean gerrikoa estutu gabe aurkez daitekeena; *ulemen* buruzagia, apaizen ordezkaria; *cazi-askeva*, militarren arteko tirabira guztien epailea, emirra kanpoan dagoenean; eta, azkenik, aztien burua, zeinaren zeregin handia izarrak aztertzea den Feofar Khanek norabait joan nahi duen aldi bakoitzean.

Emirra denda barruan zegoen gatibuak kanpamentura garraiatu zituztenean. Ez zen agertu. Eta zorionean, zeren hark keinu bat egin, hitz bat esan eta presoak akabatzen hasiko ziren haren gerlariak, sarraski odoltsu batean. Baina isolamendu horretan babestu zen, bakardade hori baita sortaldeko erregeen handitasunaren parte handi bat. Agerian ez dagoenak mirespena sortzen du, eta, bereziki, beldurra eragin.

Gatibuei zegokienez, itxitura batean sartu zituzten, eta hantxe egon behar, zaindari ugarien begiradapean, gupidarik gabe trataturik, ia janaririk ez, estalperik ere ez eguraldi txarretik gordetzeko, Feofarrek haiekin zer egin gura zuen agindu arte.

Denetan esanekoena, jasankorrena Mikel Strogoff zen, dudarik gabe. Eraman zezaten uzten zuen, nahi zuen lekura zeramatelako; eta aske ibilita baino hobeki zihoan, gainera, halako

segurtasuna ez baitzuen aurkituko Kolivandik Tomskera bakarrik joanez gero. Ez zuen merezi ihes egitea hiri honetara iritsi aurretik. Esplora-tzaileak zebiltzan estepa arakatuz, eta haien eskuetan eror zitekeen berriz ere. Tropa tataria-rrek ekialdean hartua zuten punturik urrunena ez zegoen laurogeita hamabigarren meridianotik hara. Tomsk dago meridiano horretan, hain zuzen; eta, beraz, hiri hori atzean uztean etsaien eremutik kanpo izango zela pentsatzen zuen Mikel Strogoffek. Hartara, Jenisei ibaia arriskurik gabe zeharkatu eta Krasnoiarskera helduko zen, Feofar Khanek probintzia konkistatu aurretik.

«Behin Tomsken —esan eta esan ari zen bere artean, zenbaitetan gainezka egiten zion ezine-gonari eutsi nahirik—, minutu gutxi batzuetan abangoardiako postuetatik harago izango nauk, eta hamabi ordu kendu Feofarri, hamabi ordu kendu Ogareffi, eta nahikoa izango diat haien aurretik Irkutskera sartzeko!»

Ivan Ogareff kanpamentuan egoteak beldur-tzen zuen Mikel Strogoff denaren gaintetik. Bene-tan nor zen agerrarazteko arriskuaz gain, batez ere traidore horri aurre hartu behar ziola senti-tzen zuen, halako sen berezi batengatik. Ivan Ogareffen soldadu osteak Feofarren tropekin bat

egin eta armada inbaditzailea osaturik geldituko zela ohartzen zen, eta, batu eta gero, armada horrek ekialdeko Siberiako hiribururantz joko zuela oso-osorik. Horrela bada, alde horretatik zetozkion beldur guztiak, eta, une oro, belarria luzatzen zuen ea doinu militarren batek iragaritzen zuen emirraren gudalburua zettorrela.

Gogoeta horri amaren oroitza elkartzen zitzaion, bai eta Nadiarena ere, bata Omsken atxikia, bestea Irtisheko txalupetan bahitua, eta gatibu, inondik ere, Marfa zegoen bezala! Deus egiterik ez haien alde! Ikusiko ote zituen inoiz? Bihotza izugarri estutzen zion galdera horrek, erantzuna ematen ausartzeke.

Mikel Strogoffekin eta beste hainbat gatiburekin batera, Harry Blount eta Alcide Jolivet eraman zituzten halaber kanpamentu tatariarrera. Bazekien haien bidelaguna izandakoak itxitura hartan zeudela preso, batera atzeman zituzten eta telegrafo bulegoan, baina, hala ere, ahaleginak egin zituen haiengana ez hurbiltzeko. Bost axola hari, memento hartan behinik behin, berrari buruz zer usteko zuten Ixingo gertakizunaren ondotik. Eta, bestalde, bakarrik egon nahi zuen, bakarrik jarduteko, egokiera suertatuz gero. Bazter batera geratu zen, bada.

Alcide Jolivetek, bere lankidea ondoan erori zitzaionetik, kontu handiz zaindu zuen, ardurarik saihestu gabe. Kolivandik kanpamentura, hau da, ordu batzuetako bidean, Harry Blountek bere aurkariaren besoan berme hartuz jarraitu ahal izan zion gatibuen ilarari. Bera herritar ingelesa zela aldarrikatu zuen, baina alferrik. Ezertarako ez zion balio izan barbaro haien aurrean, lantza edo sable ukaldiz baino ez baitzekiten erantzuten. *Daily Telegraph*eko kazetariak, beraz, gainerakoak bezala sufritu behar. Saiatuko zen aurrerago horrelako tratu txarraren ordaina eskatzen, bai eta eskuratzen ere. Baina ibilbide hura ez zen batere samurra izan harentzat. Zauriak min ematen zion, eta, Alcide Joliveten laguntzarik gabe, ez zen beharbada kanpamenturaino iritsiko.

Alcide Jolivetek ez zuen sekula galtzen bere filosofia praktikoa, eta eskueran zeuzkan modu guztiak baliatu zituen bere lankidearen gorputza zein gogoia suspertzeko. Itxituraren barruan behin betiko utzi zituztela ikustean, Harry Blounten zauria aztertzeko ardura hartu zuen lehen-lehenik. Gerritik gora erantztea lortu zuen antze handiz eta, beharrik, metraila puskak sorbalda ukitu besterik ez ziola egin ikusi zuen.

—Hau ez da ezer —esan zion—. Urratu txiki bat besterik ez! Bizpahiru aldiz sendaketa egin eta arrastorik ere ez, nire lankide maite hori!

—Baina sendaketa horiek?... —galdetu zuen Harry Blountek.

—Neuk egingo dizkizut!

—Medikuntzaz ere zerbait badakizu, hortaz?

—Frantses guztiok dakigu mekikuntzaz zerbait!

Eta hori esanik, Alcide Jolivetek musuzapia tarratatu, zati batetik hariak atera, beste batekin puskak egin, ura hartu barruti erdian zulatutako putzu batetik, zauri arin hura garbitu, eta zapi puska bustiak ipini zituen trebeki Harry Blounten sorbaldan.

—Urarekin egingo dizut tratamentua —esan zion—. Ez dago ura bezalakorik zauriak gozatzeko, sendabide eraginkorrena da eta gaur egun gehien erabiltzen dena. Medikuek sei mila urte eman dituzte aurkitu arte! Bai! Sei mila urte, zenbakiak biribilduz!

—Estimatzen dizut, Jolivet jauna —erantzun zuen Harry Blountek, lankideak urki baten gerizpean prestaturiko orbel iharraren gainean etzanda jarririk.

—Bo! Ez da zerik! Gauza bera egingo zenuke nire tokian bazeunde!

—Ez dakit, bada... —erantzun zion Harry Blountek on-onez.

—Bai zera, ez adarrik jo! Ingeles guztiak dira eskuzabalak!

—Dударik gabe, baina frantsesak...?

—Frantsesak? Frantsesak onak dira, baita inozoak ere, nahi baduzu! Baina frantses izanda barkatuta daude! Eta ez dezagun horretaz hitz egin, eta, are gehiago, ez dezagun ezertaz ere hitz egin. Atsedena hartu behar duzu.

Harry Blountek, ostera, batere gogorik ez zuen isilik egoteko. Zaurituak, zuhurtziaz, atsedena eduki behar du buruan, baina *Daily Telegraph*eko berriemailea ez zen gai bere buruari baizik ez entzuteko.

—Jolivet jauna —galdetu zion—, gure azken mezuek Errusiako muga pasatuko zutela uste duzu?

—Eta zergatik ez? —ihardetsi zion Alcide Jolivetek—. Ziur nago tenore honetan nire zorioneko lehengusinak badakiela zertan den Kolivango auzia!

—Zenbat aletan inprimatzen ditu berriak zure lehengusina horrek? —bota zion Harry Blountek,

galdera hori zuzen-zuzen lehenengo aldiz bere lankideari eginez.

—Tira, tira! —erantzun zion Alcide Jolivetek barrez—. Nire lehengusina hori oso pertsona zuhurra da; ez zaio atsegin jendeak bera ahotan hartzea, eta etsipenak joko luke behar duzun loaldia aztoratuko balizu.

—Ez dut lo egin nahi —erantzun zion ingelesak—. Zer pentsatuko du zure lehengusinak Errusiako auzi hauetaz?

—Oraingoz bide txarrean doazela, antza denez! Baina, ba! Moskuko gobernu ahaltsua da, ezin da egiatan asaldatu barbaroen inbasio bat dela-eta, Siberiari eutsiko diote.

—Gehiegizko askonahiak galdu ditu beti inperiorik handienak! —esan zuen Harry Blountek, halako jelsia «ingelese» alde batera utzi ezinik Errusiak Asiaren erdialdean zituen asmoen aurrean.

—Oi! Politika ez, mesedez —garrasi egin zuen Alcide Jolivetek—. Debekatua dago medikuaren aginduz! Ez dago ezer txarragorik sorbaldako zaurietarako!... Lokartzeko ez bada, behintzat!

—Hitz egin dezagun, bada, hemendik aurrera egiteko dugunaz —esan zion Harry Blountek—.

Jolivet jauna, ez dut inolako gogorik tatariarren gatibu behin betiko izateko.

—Ezta nik ere, alajaina!

—Ihes egingo dugu lehenengo egokieran?

—Bai, beste biderik ez bada askatasuna berreskuratzeke.

—Badakizu beste bat? —galdetu zuen Harry Blountek, lagunari begira-begira.

—Bai, noski! Gu ez gara ez alderdi batekoak ez bestekoak, neutralak gara, eta protesta egingo dugu!

—Feofar Khan basati horren aurrean?

—Ez! Hark ez luke ulertuko —esan zuen Alcide Jolivetek—, baina bai Ivan Ogareff haren gudalburuak.

—Gizatxar zital halakoa!

—Zalantzarik gabe, baina gizatxar zital erru-siarra. Badaki ez dela jolasean ibili behar jendezuzenbidearekin, eta ez du inongo interesik gu atxikitzeke, bestetara baizik. Ez dut oso gogoko, ordea, jaun horri ezer eskatzea!

—Baina jaun hori ez dago kanpamentuan. Nik, behintzat, ez dut ikusi —ohartarazi zuen Harry Blountek.

—Etorriko da! Ezin hutsik egin. Beharrezkoa da emirra eta hura elkartzea. Siberia bitan moz-

tuta dago orain, eta, ziur egon zaitez, haren zain baino ez dago hemen Feofarren armada, Irkutski erasotzeko.

—Eta askatu eta gero, zer egingo dugu?

—Askatu eta gero, tatariarrei jarraituko diegu, gertakizunek beste aldera pasatzen uzten diguten arte. Ez da amore eman behar, zer arraio! Hasi besterik ez dugu egin eta. Zuk, lankide maitea, Daily Telegraphen zerbitzuan zauritua izateko zortea izan duzu dagoeneko, eta nik, berriz, ez dut ezer ere izan nire lehengusinare zerbitzuan. Tira, tira! —esan zuen Alcide Jolivetek berekiko xuxurla batean—. Lokartzen ari da. Ordu batzuk lotan eman eta ur hotzezko zapi batzuk sorbaldan, hori baizik ez da behar ingeles bat zutik jartzeko. Jende horiek burdina galdatez eginak daude!

Eta Harry Blountek atsedean hartzen zuen bitartean, Alcide Jolivetek gaua beilan eman zuen haren aldamenean. Koaderno atera eta oharrak eta oharrak idatzi zituen, berriak bere lankidearekin partekatzerantz guztiz erabakirik, *Daily Telegraph*eko irakurleen poztasunerako. Gertaerek elkarganatu zituzten. Jelosia gehiagorik ez aurrerantzean.

Hortaz, bada, Mikel Strogoff gehien beldur-  
tzen zuena, hain zuten ere, irrikaz desiratzen  
zuten bi kazetariak. Ivan Ogareffen etorrera onu-  
ragarria izan zitekeen haientzat, aske utziko  
zituzten-eta ia seguru, berriemaile atzerritarrak  
zirela agerian jarritakoan. Emirraren guda-  
buak jakingo zuen Feofar ezagueran sarrarazten,  
honek, bestela, espioi gisa tratatuko baitzituen  
bi berriemaileak. Alcide Joliveten eta Harry  
Blounten interesa Mikel Strogoffenaren kontra-  
koa zen, beraz. Ongi ulertu zuen honek zein ata-  
katan zegoen, eta hori beste arrazoi bat izan  
zuen, hainbaten artean, bere bideko lagun zaha-  
rrengana ez inguratzeko. Moldatu egin zen,  
bada, han zegoela kontura ez zitezen.

Lau egun joan ziren, eta gauzek zeuden zeu-  
denean segitu zuten. Gatibuek deus ez zuten  
entzun tatariarrak kanpamentua lekuz aldatzeko  
asmotan zeudela pentsarazteko. Zorrotz zain-  
tzen zituzten gau eta egun. Ezinezkoa zitzaien  
soldaduek oinez eta zaldiz osatzen zuten lerroa  
gainditzea. Jatekorik ozta-ozta ematen zieten.  
Hogeita lau orduan bi aldiz, ahuntz heste puska  
bat botatzen zieten, ikatz gainean errea, edo  
ardi esne garratzez egindako *krut* gazta pixka  
bat, zeinarekin *kumis* izeneko platera prestatzen

duten kirgizek, behor esnetan beretzen ipinita. Eta besterik ez. Eguraldia, gainera, gaiztotu zen erabat. Zerua belztu zen, eta haizeak eta euriak astindu zituzten bazterrak. Dohakabeek, aterperik gabe, aire zabalean nozitu behar ekaitz zitaila. Ezer ere ez zieten eman beren zoritxarra arintzeko. Zauritutako batzuk hil ziren, emakume eta haur batzuk ere bai, eta gatibuek berek lurperatu zituzten gorpuak, haien zaindarien ez baitzieten lur eman nahi.

Egoera latz hartan, Alcide Jolivet eta Mikel Strogoff eginahal guztian aritu ziren, nor bere aldetik, honi eta hari laguntzen etengabe. Askok eta askok baino jipoi txikiagoa harturik, osasuntsu eta kementsu, hobeki eutsi behar zioten ezbeharrari, eta aholkuak eman ez eta sendaketak eginez, mesede handiak egin zizkieten hainbeste sufrimenduz itxaropena galdua zutenei.

Gauzek horrela iraun behar zuten? Feofar Khanek, pozik lehenengo garaipenekin, nahiago zuen aldi batez itxarotea Irkutsk aldera joan baino lehen? Beldur izatekoa zen, baina ez zen hala jazo. Alcide Jolivetek eta Harry Blountek irrikitzen zutena, Mikel Strogoff beldurrez betetzen zuena, abuztuaren 12ko goizean gertatu zen.

Egun hartan, turutek soinua jo zuten, danborrek arrada egin, mosketeek tiro bota. Hauts hodei ikaragarri bat hedatzen zen Kolivango bidean.

Ivan Ogareff kanpamentu tatariarrera sartu zen, gizon milaka batzuk atzetik zituela.

## II

# ALCIDE JOLIVETEN MUZINA

Armada sail oso bat zekarkion Ivan Ogareffek emirrari. Omsk hiriaz jabetuak ziren zaldizko eta oinezko gerlari haiek. Ivan Ogareffek ezin izan zuen goiko hiria azpian hartu, non, ez da ahaztu behar, gobernadorea eta goarnizioa babestu ziren, baina, hala ere, aurrera jarraitzera deliberratu zuen, ez baitzuen nahi ekialdeko Siberia konkistatzeko egin beharreko lanak atzeratzerik. Omsken soldadu talde nahiko ugaria utzi zuen, hortaz. Eta gero, bere tropak atzean zituela, bidean Kolivango garaileekin elkaturik, Feofarren armadarekin bat egitera zetorren.

Ivan Ogareffen soldaduak kanpamentuko aurre-postuetan gelditu ziren. Dendak eraikitze-ko agindurik ez zuten jaso. Haien buruzagiaren asmoa ez zen han gelditzea, bistan zenez, aurrera egitea baizik, Tomschera lehenbailehen iristeko. Tomsk hiri garrantzitsua da, eta, noski, hura bihurtu nahi zuen hurrengo erasoak antolatze-ko gune.

Bere soldaduekin batera, Ivan Ogareffek gati-  
bu errusiar eta siberiar multzo bat zekarren,  
Omsken zein Kolivanen atzemanak. Zoritxarreko  
horiek ez zituzten itxituran sartu, txikiegia bai-  
tzen baita bertan zeudenentzat ere, eta aurre-  
postuetan geratu behar izan zuten, aterperik  
gabe, kasik mantenurik gabe. Zer gordeko zien  
Feofar Khanek koitadu horiei? Tomskera era-  
mango zituen ala bertan hilko triskantza odoltsu  
batean, buruzagi tatariarren artean ohikoa  
zenez? Emir apetatsuaren sekretua zen.

Armada sail hura ez zen etorri Omsk eta Koli-  
vandik segizio moduan hamaika eskale, litxarre-  
ro, salerosle eta buhame ekarri gabe, bidean  
dabilen armada baten atzealdea osatzen ohi  
dutenak. Zeharkatzen zituzten lurraldeetatik  
ateratzen zuen bizimodua jende mordo hark eta  
lapurtzeko gutxi uzten zuten beren atzetik. Hori  
dela-eta, aurrera segi behar, tropa konkistatzaile-  
leen hornikuntza ziurtatzeko, behinik behin. Ixin  
eta Obi ibaien arteko eskualde osoa hondatu eta  
erraustua zegoen erabat, bitarteko bat ere  
eskaintzen ez zuela. Tatariarrak igaro eta basa-  
mortua baizik ez atzean. Errusiarrek neke latza  
hartu behar, gurutzatuko bazuten.

Mendebaldeko buhame ugari horien artean, Permeraino Mikel Strogoffekin batera joandako ijito taldea zegoen. Han zen Sangarre. Espioi basatia, Ivan Ogareffekin hezur eta mami uztartua, beti bere nagusiaren aldamenean. Errusian bertan ikusi ditugu biak, Nijni Novgorod probintzian, azpijokoak prestatzen. Ural mendiak zeharkatu ondoren, bereizi egin ziren, baina egun batzuetan baino ez. Ivan Ogareff Ixiner sartu zen agudo-agudo, eta Sangarrek eta haren taldeak Omsk aldera jo zuten probintziaren hego aldean barrena.

Aise ulertuko da emakume horrek nolako laguntza ematen zion Ivan Ogareffi. Haren buhame dantzariak leku guztietara barneratu, dena entzun eta dena kontatu egiten zioten. Ivan Ogareff jakitun zegoen baita probintzia inbaditutako bazterrik ezkutuenean zer gertatzen ari zen ere. Ehun begi ziren, ehun belarri, beti erne, beti adi, beren xedearen alde. Eta, gainera, eskuzabal ordaintzen zien espioitza lan hori, hain etekin ederra ematen ziona.

Sangarre auzi larri-larri batean nahasia egon zen aspaldi, eta ofizial errusiarrek salbatu zuen. Mesede hori ez zitzaion ahaztu eta haren alde jarri zen gorputz eta arima, Siberian erbestera-

tua eman zuen garaitik. Ivan Ogareff okerbidean abiatu eta berehala ohartu zen nolako onura ateratzen zela emakume harengandik. Edozein agindu eman, eta Sangarrek bete egiten zuen. Sen ulertezin batek, esker ona baino biziagoak, bultzatu egiten zuen traidorearen esklabo izatera. Isilmandatari eta gaizkide, Sangarre, aberrik gabe, familiarik gabe, bere bizitza noragabea eskaintzen zuen atseginez Ivan Ogareffek Siberiara bidali behar zituen inbaditzaileen zerbitzuan. Haren arrazakoek berezkoa duten azerikeria liluragarriaz gain, adore hezigabeaz horniturik zegoen. Ez zekien zer zen barkamena edo errukia. Basatia zen, apatxe baten *wigwamean* edo andamandar baten txabolan bizi zitekeena.

Sangarre Ivan Ogareffen ondoan zegoen aldendu gabe Omskera iritsi zenez geroztik, non bere dantzari taldearekin elkartu zen berriro ere. Bazekien Mikel Strogoff eta Marfa Strogoff elkarren aurrean suertatu zirela. Ivan Ogareffen beldurren berri ere bazuen, tsarrak mandatari bat bidali ote zuen; eta uste horretan zegoen hura ere. Indio larrugorriak bezain trebea zen torturatzen, eta gogoan zuen Marfa Strogoff gatibuari haren sekretua barrutik erauzteko. Baina tenorea ez zen iritsia. Ivan Ogareffek ez zuen nahi

oraindik andre zahar siberiarra mintzarazi. Sangarrek zain egon behar, eta zain zegoen, emakume hura begien aurretik galdu gabe, haren atzetik ezkutuka, imintziorik txikienak eta berbarik ñimiñoenak zelatatuz, gau eta egun hari so, ea «seme» hitza ezpainetaraten zitzaion, baina esku hutsik ordu arte, ezerk ez baitzuen asaldatzen Marfa Strogoffen sorgortasuna.

Bien bitartean, doinu militarren lehenengo notekin batera, artilleriako maisu handia eta emirraren zalditegiko burua, zaldizko uzbeken segizio bikaina atzetik zeramatela, kanpamentuko aurealdera joan ziren Ivan Ogareffi harrera egiteko asmotan.

Harengana heldu zirenean, eman ahala ohore eskaini zioten eta Feofar Khanen dendara joateko gonbidatu.

Ivan Ogareffek, sor eta gor beti bezala, hontasunez erantzun zien haren bila bidalitako goi funtzionarioen adeitasunei. Txit apal zegoen jantzirik, baina, halako harrokeria zantarrez, soinean ofizial errusiarraren uniformearen zeraman artean.

Zaldiari brida laxatu zion kanpamentuko sarrera gurutzatzeko, eta, une horretantxe, Sangarre, segizioko zaldizkoen artetik igaroz, haren-

gana hurbildu eta geldirik geratu zitzaion alboan.

—Ezer ez? —galdetu zion Ivan Ogareffek.

—Ezer ez.

—Hago, Sangarre!

—Hurbil dago atsoa mintzarazteko tenorea?

—Hurbil zagon.

—Noiz mintzatuko da?

—Tomsken gaudenean.

—Eta noiz egongo gara han?

—Hiru egunen buruan.

Distira izugarria piztu zen haren begi beltz handietan, eta lasai-lasai alde egin zuen handik.

Ivan Ogareffek zaldiari saihetsak estutu, eta emirraren denda aldera egin zuen, ofizial tatariarrez osaturiko bere buruzagitza nagusiak atzetik jarraitzen ziola.

Feofar Khan bere gualburuaren zain zegoen. Errege zigiluaren eramaileak, *khodjak*, eta kontseiluko beste goi funtzionarioek beren lekuak hartuak zituzten dendaren barruan.

Ivan Ogareff zaldi gaintetik jaitsi, sartu, eta emirraren aurrean aurkitu zen.

Feofar Khan berrogei urteko gizasemea zen, garaia, aurpegiera zurbil samarrekoa. Begiak asmo gaiztokoak zituen, eitea bihozgabea. Biza-

rraren kizkur txiki beltzak mailaka-mailaka jais-  
ten zitzaizkion bularreraino. Guda janzkera zera-  
man. Urrezko eta zilarrezko sare-kota soinean;  
sable kakotua, jataganaren antzekoa, harri biziz  
jositako galtzarbe-uhale liluragarri batetik zintzi-  
lik, bitxi preziatuzko zorro dirdaitso baten  
barruan; urrezko ezproiak bota orpoetan; dia-  
mantez jositako gandorra kaskoan ñir-ñir. Haren  
itxura xelebrea zen, ikaragarria baino gehiago.  
Sardanapalo tatariar baten irudia ageri zuen,  
goien-goieneko subiranoa, gauza guztien gaine-  
koa, bere mendekoen bizitzak eta ondasunak  
bere erara erabiltzen dituen, ahalguztiduna,  
eta Bukharan pribilejio bereziaz emir izendatzen  
dutena.

Ivan Ogareff denda barruan azaldu zenean,  
agintari handiek eserita segitu zuten beren kuxin  
urrez oxkarratuetan, baina Feofar dendaren  
atzealdeko diban aberats batetik jaiki eta, Buk-  
harako alfonbra baten moketa lodia zapalduz,  
Ivan Ogareffengana gerturatu zen. Musu bat  
eman zion, eta han ziren guztiek ulertu zuten  
haren esanahia. Musu hark traidorea kontseiluko  
buru bihurtu zuen, *khodja* bera baino gorago  
jarriz aldi baterako.

Gero, Feofarrek honela hitz egin zion Ivan Ogareffi:

—Galdetzekorik ez diat batere. Hitz egin ezak, Ivan. Hemen belarri guztiak prest zaudek esan behar duana entzuteko.

—Takhsir —erantzun zion Ivan Ogareffek—, hona zer jakinarazi behar diadan.

Ivan Ogareff tatarieraz mintzo zen, eta ekialdeko jendeen hizketak bereizgarri duen molde adierazkorra ematen zien bere esaldiei.

—Takhsir, ez gaudek alferrik hitz egiteko sasoian. Hire tropen burutzan egin dudana bada-kik. Ishim eta Irtish ibaien lerroak gure esku zaudek gaur egun, eta zaldizko turkomanek tatariar bilakaturiko ur horietan edanaraz zitzaketek zaldiak. Kirgizen leinuak altxatu egin dituk Feofar Khanen esanera, eta Siberiako bide nagusia hirea duk Ixindik Tomskeraino. Heure armada sailak bai ekialderantz bai mendebalderantz bidal ditzakek, bai eguzkiaren sorlekura, bai haren etzatokira.

—Eta neure bidea eguzkiarekin batera egiten badut? —galdetu zuen emirrak, belarria erne, baina begitarteak zer pentsatzen zuen agertu gaberik.

—Eguzkiarekin batera joanda —ihardetsi zion Ivan Ogareffek—, Europa aldera oldartuko haiz, eta agudo konkistatuko dituk Tobolskeko probintzia siberiarrak Ural mendietaraino.

—Eta zeruko suaren bila joanez gero?

—Irkutsk jarriko duk tatariarren mende, bai eta Asiaren erdialdeko eskualderik oparoenak ere.

—Baina, Petersburgeko sultanaren armadak? —esan zuen Feofar Khanek, titulu bitxi horren bidez Errusiako enperadorea izendatzen zuela.

—Ez duk zertan beldurturik harengatik, ez sortaldean ez sartaldean —erantzun zion Ivan Ogareffek—. Inbasioa berehalako batean hedatu duk, eta, armada errusiarrak laguntzeko aukera izan aurretik, hire eskura eta hire oinpera izango dituk Irkutsk edo Tobolsk. Tsarraren tropak azpiratuak izan dituk Kolivanen, eta hala izango dituk mendebaldeko soldadu burugabe horiek hire tropekin borrokan egiten duten alderdi guztietan.

—Eta zer aholku iradokitzen dik kausa tatarriarren alde azaltzen duan atxikimendu sutsuak? —galdetu zion emirrak, une batez isilean egon eta gero.

—Nire aholkua —erantzun zion bizi Ivan Ogareffek— eguzki aldera joatea duk! Ekialdeko estepetako belarra irents dezatela zaldi turkomanek! Irkusk hartzea duk nire aholkua, eta, sortaldeko probintzien hiriburuarekin batera, duke handia bahitzea, lurralde oso batek baino gehiago balio baitu. Tsarra atzeman ezinean, haren anaiak erori behar dik gure eskuetan.

Horixe zen Ivan Ogareffek bilatzen zuen xede gorena. Hari entzuterakoan, Stepan Razine pirata ospetsuaren ondorengotzat jotzea bazegoen, den-dena txikitu nahi baitzuen, gaizkile hark XVIII. mendean Errusiaren hego aldea txikitu zuen legez. Duke handia harrapatu eta erruki gabe jipoitu arteko onik ez zuen izango! Horrela baizik ezin ase osoki haren gorrotoa! Eta, bestalde, Irkusk hartu bezain laster, ekialdeko Siberia osoa geldituko zen tatariarren mendean.

—Horrela egingo diagu, Ivan —izan zen Feofarren erantzuna.

—Zein dira hire aginduak, Takhsir?

—Gaur bertan Tomskera eramango diagu kuartel nagusia.

Ivan Ogareffek burua makurtu eta, *huschbeguia* atzetik zuela, dendatik irten zen emirrarren aginduak betearaztera.

Zaldi gainera igotzekotan zegoela kanpamentuko aurre-postuetara itzultzeko, iskanbila sortu zen handik ez oso urruti, gatibuak zeuden aldean. Garrasiak entzun ziren eta bizpahiru tiro bota zituzten. Errebolta edo ihes saio bat ote zen, laster baino lasterrago zapalduko zutena?

Ivan Ogareffek eta *husch-beguiak* urrats batzuk egin zituzten aitzina, eta, behingo batean, bi gizon agertu ziren haien aurrean, soldaduen zainketatik ospa eginda.

*Husch-beguiak*, gehiago jakin gabe, biak bertan hiltzeko agindu zuen keinu batez, eta, bi presoen buruak lurrera erortzeko zorian zeudela, Ivan Ogareffek hitz batzuk esan eta gelditu egin zen sablea, haien gainera erori baino lehen.

Errusiarra gatibu haiek atzerritarrak zirela konturatu, eta beregana ekartzeko agindu zuen.

Harry Blount eta Alcide Jolivet ziren.

Ivan Ogareff kanpamentura iritsi zenez geroztik, eskatu eta eskatu aritu ziren haren aurrera eraman zitzaten. Soldaduek ezetza eman, ordea. Hargatik, borroka, ihes saioa eta fusil tiroak, zorionez jomugan asmatu ez zutenak. Baina ber-bertatik hilko zituzten bi kazetariak, emirraren gudalburuak esku hartu izan ez balu.

Labur aztertu zituen, baina ez zituen inondik inora ezagutzen. Biak egon ziren Ixingo posta etxean Ivan Ogareffek Mikel Strogoff jo zuenean, baina bidazti ankerrak jaramonik batere ez zien egin areto hartan zeuden lagunei.

Harry Blountek eta Alcide Jolivetek, berriz, ederki ezagutu zuten, eta azken honek zera esan zuen ahopetik:

—Hara! Agi danean, bat bera dira Ogareff koronela eta Ixingo pertsonaia zakar hura.

Gero, lankidearen belarrira urreratu eta gehitu zuen:

—Azal ezazu zuk gure auzia, Blount. Mesede egingo didazu. Nazka ematen dit koronel errusiar bat kanpamentu tatariarraren erdian ikusteak, eta, hari esker burua sorbalda gainean eduki arren, begirada bestera kenduko nuke mesprezios, begiz begi so egin aurretik.

Eta hori esanik, Alcide Jolivet harro-harro jarri zen, batere kasurik ematen ez ziola.

Ulertu ote zuen Ivan Ogareffek zer iraingarria zen harentzat gatibu haren jarrera? Nolanahi ere, ez zuen deus aditzera eman.

—Nor zarete zuek, jaunak? —galdetu zien errusieraz hotz-hotzik, baina ohiko zakarkeriarik gabe.

—Bi berriemaile, ingelesa bata eta frantsesa bestea —erantzun zion Harry Blountek motzean.

—Paperak izango dituzue noski zuen nortasuna egiaztatzeko?

—Hona gure frogagiriak, kantzelaritza ingelesak eta frantsesak emanak.

Harry Blountek eskuratu zizkion agiriak hartu eta arretaz irakurri zituen. Gero:

—Baimena eskatzen duzue —galdetu zien— Siberian egiten ari garen erasoaldiaren lekuko izateko?

—Aske uzteko eskatzen dugu, besterik ez —erantzun zuen gordin kazetari ingelesak.

—Hala zaudete, jaunak —jaulki zien Ivan Ogareffek—. Gogoia dut zuen kronikak Daily Telegraphen irakurtzeko.

—Jaun hori —esan zion Harry Blountek patxadarik aztoragaitzenaz—, sei penny dira aleko, posta gastuak aparte.

Eta, segidan, bere lankidearengana bihurtu zen. Egokia begitandu zitzaion hari azken erantzuna, irudi zuenez.

Ivan Ogareffi gihar bakar bat ere ez zitzaion mugitu. Zaldi gainera igo, bere segizioaren buruan jarri, eta aurki galdu zen hautsezko hodei batean.

—Eta, Jolivet jauna, zer deritzozu Ivan Ogareff koronelari, tropa tatariarren gudalburu nagusiarri? —galdetu zion Harry Blountek.

—Lankide maite hori —esan zion Alcide Jolivetek irribarrea ahoan—, oso ederra deritzat *husch-begui* horrek burua moztu diezagutela agintzeko egin duen keinuari!

Nolanahi ere, eta Ivan Ogareffek bi kazetariekin zergatik jardun zuen horrela alde batera utzirik, aske zeuden biak eta beren gogara ibil zitezkeen gerraren jokalekuan zehar. Noski, joko bertan behera uzteko asmorik ez zuten inola ere. Hasieran halako ezinikusi moduko bat sentitu zuten bata bestearekiko, baina hura aspaldiko kontua zen, eta orain egiazko adiskidetasunak lotzen zituen. Gertaerek elkarrengana bildu, eta gogorik ez orain elkarrengandik bereizteko. Norgehiagoka kontu doilor haiek itzali ziren behin betiko. Harry Blountek ezin ahaztuko zuen inoiz zenbat zor zion bere lagunari. Hark, ordea, ez zuen inolako ahaleginik egiten hura oroitarazteko, eta, azken batean, elkarganatze horrek kazetaritza lana erraztu eta haien irakurleen mesederako izango zen.

—Eta orain —galdetu zuen Harry Blountek—, zer egingo dugu geure askatasun honekin?

—Neurritz kanpo erabili, jakina! —erantzun zion Alcide Jolivetek—. Tomsjera joango gara lasai-lasai, han zer gertatzen ari den ikustera.

—Eta espero dezagun laster topo egitea soldadu errusiarrekin!

—Arrazoi duzu, Blount maitea! Ez da komeni gehiegi tatariartzea! Armak zibilizatzeko darabiltenei dagokie oraindik ere egiteko ederrena, eta nabaria da Asiaren erdialdeko herriek dena galtzeko dutela eta deus ez irabazteko, inbasio honekin. Azpian hartzen asmatuko dute errusiarrek. Zain egon behar, besterik ez!

Baina Ivan Ogareffen etorrerak, hain bozkariozkoa bi kazetari askatu berrientzat, arrisku handia zekarkion Mikel Strogoffi. Patuak tsararren mandataria eta Ivan Ogareff aurrez aurre ipiniz gero, honek inondik ere ezagutu egingo zuen harengan Ixin-go posta etxean hain anker tratatu zuen bidaztia, eta, Mikel Strogoffek irainari bestelako kasuetan bezala erantzun ez bazion ere, arreta hartuko zion, eta horrela zaildu egingo zen haren egitasmoak betetzea.

Kalterako zitzaion Ivan Ogareff han egotea, alde horretatik. Baina, hala eta guztiz, ondorio mesedegarria ere izan zuen haren etorrerak, kanpamentua egun hartan bertan jaso eta kuar-

tel nagusia Tomschera aldatzeko agindu baitzuten.

Hori besterik ez zuen desiratzen Mikel Strogoffek grina biziz. Haren asmoa, dakigunez, Tomschera iristea zen beste gatibuen artean nahasirik, horrela hiri garrantzitsu horretara sartuko baitzen haren alderrietan hara eta hona zebiltzan aitzindari tatariarren atzaparretan erortzeko arriskutan jarri gabe. Hala ere, Ivan Ogareff bertan egonik, ezagutuko zuen beldurrez, bere buruari galdetu behar izan zion ea ez zuen hobe bidaian ihes egiteko egitasmo hura ez bazterreratzea.

Ihesaldia geroko uztea ala ez gogoetan ari zela, Feofar Khan eta Ivan Ogareff, zaldizko milaka batzuen buru jarririk, hiri aldera abiatuak zirela jakin zuen.

—Zain egongo nauk, bada —esan zuen bere artean—, ihesi joateko parada aparta aurkezten ez bazait, behintzat. Aukera handirik ez Tomsketik hona, baina Tomsketik ekialdera, berriz, ez diat egokiera faltarik izango. Ordu batzuk aski izango ditiat tatariarren posturik aurreratuenak atzean uzteko. Beste hiru egun eraman isil-isilik, eta Jainkoak lagun nazala!

Izan ere, hiru eguneko bidaiak egin behar zuten gatibuek estepan barrena, makina bat soldadu tatariarren begiradapean. Ehun eta berrogeita hamar versta zeuden kanpamentutik hiri-ira. Txango samurra emirraren soldaduentzat, deusen gabeziarik gabe, baina nekeza estutasunek ahuldutako preso zorigaiztoko haientzat. Gorpu batek baino gehiagok mugarriztatuko zuen Siberiako bidearen tarte hura.

Abuztuaren 12an, arratsaldeko ordu bietan, *toptschi-baschiak* abian jartzeko agindua eman zuen. Eguna bero samarra zen eta oskarbi zegoen zerua erabat.

Alcide Jolivet eta Harry Blount zaldiak erosi eta Tomskeko bideari lotuak ziren ordurako. Hiri horretara bultzatzen zituen gertaeren logikak istorio honen pertsonaia nagusiak.

Ivan Ogareffek kanpamentu tatariarrera ekarritako gatibu talde handian bazen andre zahar bat bere atsekabeko lagunaren artetik bereiz irudi zuena bere goibeltasun isilarengatik. Ez kexarik ez aienerik ez zen irteten haren ezpainetatik. Oinazeko estatua bat ematen zuen. Geldi-geldirik zegoen ia beti, eta beste gatibuak baino zorrotzago zaintzen zuten. Sangarre buhameak begirik ez zion kentzen, baina ez zuen irudi ezer

susmatzen zuenik edo hargatik kezkatzen zenik. Bere zahar guztian, oinez joan behar beste gati-  
buekin batera, zoritxarra eztitzekorik inon aurki-  
tu gabe.

Dena dela, goikoaren burubideren batek izaki  
eskuzabal adoretsua, ongi ulertzen eta artaz  
laguntzen ziona, ekarri zion aldamenara. Ezbe-  
harreko lagun haien artetik, neska gazte batek  
hura zaintzeko ardura hartu zuela zirudien. Eder-  
ederra zen eta siberiar zaharra bezain jasanko-  
rra eta izukaitza. Hitzik ez zen trukatu bi gati-  
buen artean, baina gaztea behar orduan beti  
agertzen zen zaharraren ondoan, laguntza pre-  
mian zegoelarik. Honek hasieran mesfidati baino  
ez zituen onartu ezezagun mutu haren zainke-  
tak. Pixkaka-pixkaka, ordea, neska gazte haren  
begirada zuzen garbiak, gauzak ganoraz eta  
nabarmendu gabe egiteko zuen erak, oinazez  
berdindutakoan artean sortzen den begikotasun  
harrigarriak urtu eta leundu egin zioten Marfa  
Strogoffi bere hoztasun harroa. Nadiak —hura  
baitzen neska gaztea— amari itzultzen ahal ziz-  
kion horrela, ezagutu gabe baina, semeak bera-  
ri eskainitako ardurak. Haren berezko onberata-  
sunak bi aldetik gidatu zuen ongi. Hari zerbitza-  
tuz, Nadiak gatibu zaharraren babes adintsua

jasotzen zuen bere gaztetasun eta edertasunerako. Bi emakume isil haiek, amona-bilobak irudi, halako errespetua ematen zuten sufrikarioak saminduriko dohakabe saldo haren erdian.

Nadia, esploratzaile tatariarrek Irtish ibaiko txalupetan bahitu ondoren, Omskera eraman zuten. Hiri horretan gatibu, Ivan Ogareffen soldaduek ordu arte atxilotutako guztien zori gogorra nozitu zuen, eta, beraz, baita Marfa Strogoffena ere.

Nadia makalagoa izatera, etsi egingo zuen halako bi kolpe hartuta. Bidaia bertan behera utzi behar, eta Mikel Strogoff hilik. Batean itxaropenik gabe sentitzen zen, bestean suak iraultzen zion barrena. Aitarengandik betiko urrundurik beharbada, harengana hurbiltzeko hainbeste ahalegin ongi burutu eta gero, eta, zorigaitz horretaz gain, bere bidelagun kementsuaren ondotik bereizirik. Den-dena galdu zuen batera, kolpe bakar batez. Ezin ezabatu gogotik Mikel Strogoffen irudia, nola jo zuen lantzak haren begien aurrean eta nola galdu zen Irtish ibaiaren urretan. Jainkoak haren bidean ipini zuela irudi zuen, helburua onik erdiets zezan, eta orain hila zegoen. Era horretan hil zitekeen horrelako gizon bat? Norentzat gordetzen ditu Jainkoak

mirariak, gizon zintzo hori, xede handi batek bul-tzatzen zuena, bidean hain modu ziztrinean gel-diarazi bazen? Amorruek oinazea garaitzen zion zenbaitetan. Ixingo posta etxeko iraina etorri zitzaion burura, eta nola bere bidelaguna geldirik geratu zen harrigarriro, ordaina eman behar-rean. Odola irakitan jartzen zitzaion hartaz oroiturik.

—Nork mendekatuko du hildako hori, berak ezin-eta? —zioen bere artean.

Eta bihotz-bihotzetik oihu egiten zion Jainko-ari berari:

—Jauna, ni izan nadila haren mendekatzai-lea!

Baldin, hil aurretik, bere sekretua kontatu izan balio! Baldin, emakume izanda ere, neska izanda ere, haren nebaren egiteko amaitu gabeari buru emateko aukera izan balu! Zertara-ko eman zion Jainkoak neba hura, hain laster kendu behar bazion?

Gogoeta horietan murgildurik, ulertzeko da Nadia sorgor agertzea gatibutasunaren ezbeharrekiko.

Eta orduan patuak Marfa Strogoffekin elkartu zuen, susmorik mendreena ere izan gabe. Nola pentsatuko zuen Nadiak andre zahar hura, bera

bezala preso zegoena, ama izango zuela bere bidelagun jatorrak, beretzat Nikolas Korpanoff merkataria baizik izan ez zen hark? Eta, beste aldetik, nola asmatuko zuen Marfak esker oneko lokarri batek estekatzen zituela bere semea eta gazte ezezagun hura?

Marfa Strogoff ikusi zuenean, haren egonariak hunkitu zuen lehenik Nadiaren bihotza. Nor bere aldetik, berdintsu zeramaten biek egoera latz hura, halako adostasun ezkutuko batengatik edo. Andre zahar hark axolagabetasun estoikoz erantzuten zien eguneroko bizimoduen nahigabe materialei. Gorputzeko mina arbuiatzen zuen, eta erdeinu horretarako indarra barneko min batetik baino ezin zuen atera Marfa zaharrak, berea bezalako min moral batetik baino ez. Horretan zegoen Nadia, eta ez zebilen oker. Atsekabeturik bizi ziren, baina atsekabe agertu gabe. Jarrera horrek berezko begikotasuna piztu zion Nadiari eta harengana bultzatu. Gaitzari aurre egiteko modu hori gogoko zuen gaztearen arima harroak. Ez zion laguntza eskaini, eman egin zion. Marfak ez zuen adierazi behar izan uko egiten zion ala onartzen zuen. Bideko pasabide zailtan, neskatxa han zegoen eta besoa jartzen zuen, berme har zezan. Mantenua banatzeko

tenorean, zaharra ez zen mugitzen, baina Nadiak harekin partekatzen zituen bere jaki urriak, eta horrelaxe egin zuten bidaia nekoso hura bata bestearekin. Bidelagun gazte hari esker, Marfa Strogoffek gatibu taldearen zaindareiei jarraitzen ahal izan zien, eta ez zuten herrestan eraman zaldi zelaren atzealdeari loturik, oinaze bide hartan beste andre errukarri askorekin egin zuten legez.

—Jainkoak zero zabalean hartuko ahal hau, alaba, nire urte zaharren alde egiten dunan guztiarengatik! —esan zion behin Marfa Strogoffek, eta horixe izan zen bi emakume gaixoen artean ahoskaturiko esaldi bakarra aldi batez.

Mendeak bezain luze iraun zuten egun labur haiek, eta, andre zaharra eta neska gaztea elkarrekin hitz egiten hasi zirenean, batak besteari bere egoeraren zergatia kontatuko ziola irudizuen. Baina Marfa Strogoff, mesfidantza handiz, aise uler daitekeenez, bere buruaz baino ez zen mintzatzen, eta motzean. Ez zuen inola ere aipatu ez semea, ezta ere biak aurrez aurre jarri zituen topaketa malapartatu hura.

Nadia ere luzaro, mutu ez, baina bai hitz alferretan urri agertu zen guztiz. Hala ere, egun batean, arima xume eta jaso baten aurrean

zegoela igarririk, bihotzak gainezka egin zion, eta gertatutako guztia kontatu zion, deus gorde gabe, Vladimirren trenera igo zenetik Nikolas Korpanoff hil zen arte. Haren bidelagun gazteaz esandakoak siberiar zaharraren interesa piztu zuen biziki.

—Nikolas Korpanoff! —esan zuen—. Hitz egin ieztadan Nikolas horretaz! Harritzekoa dun horrela jokatzeari garai hauetako gazteen artean. Gizon bat besterik ez dinat ezagutzen, gizon bakar bat baino ez, horrelakoak egiteko gauza dena. Nikolas Korpanoff, hori zuen izena? Ziur hago, alaba?

—Zergatik sartuko zidan ziria izenarekin —erantzun zuen Nadiak—, bestelakoetan hain jator jardun zuenak?

Baina Marfa Strogoffek galdera galderaren hurren egiten zion Nadiari, halako bihozkada batek eraginik.

—Ausarta zela esan didan, alaba! Eta frogatu egin didan halakoa zela! —esan zuen.

—Bai, ausarta! —erantzun zion Nadiak.

—Horrelakoa izango zen bai nire semea —errepikatzen zuen Marfa Strogoffek berekiko.

Eta beste galdera bat.

—Esan didan baita ere ezerk ere ez zuela gerarazten, ezerk ere ez zuela harritzen, nebaz

gain ahizpa ere izan huela harengan eta ama batek bezala zaindu hinduela!

—Bai, bai! —zioen Nadiak—. Neba, ahizpa, ama, hori guztia izan da niretzat!

—Bai eta lehoa ere hi defendatzeko?

—Lehoa, zinez! —ihardetsi zion Nadiak—. Bai, lehoa, heroi bikaina!

—Nire semea, nire semea! —pentsatzen zuen andre zahar siberiarrak—. Baina esan dun, hala ere, irain latza egin ziotela Ixingo posta etxe hartan eta ez zuela erantzun?

—Ez zuen erantzun! —esan zion Nadiak burua makurtzen zuela.

—Ez zuen erantzun? —xuxurlatu zuen Marfa Strogoffek dardara batean.

—Ama! ama! —garrasi egin zuen Nadiak—. Ez kondenatu. Ezkutuko zerbait gordetzen zuen! Jainkoak baino ezin epaitu haren sekretua une honetan!

—Eta irain egin ziotenean —galdetu zion Marfak, burua goratuz eta Nadiari begira-begira, haren arimaren sakonean irakurri nahi izan balu bezala—, arbuiatu egin huen Nikolas Korpanoff hura?

—Miretsi egin nuen, zergatik ez nekiela! —  
erantzun zion neskatzak—. Inoizko errespeturik  
handiena sentitu nuen harenganako!

Andre zaharra isildu zen istant batean.

—Handia zen? —galdetu zion Nadiari.

—Oso handia.

—Eta eder-ederra, ezta? Ea, esan, alaba  
nirea.

—Oso ederra zen —erantzun zion, koloreak  
gorritzen zitzaizkiola.

—Neure semea zunan! Esaten dinat neure  
semea zela! —esan zuen oihuka andre zaharrak,  
Nadia besarkaturik.

—Zure semea! —erantzun zion Nadiak harri  
eta zur—. Zure semea!

—Ea, neskatzak nirea! —bota zuen Marfak—.  
Segi bukaeraino. Hire bidelagunak, hire adiski-  
deak, hire babesleak, bazinan ama! Ez zinan  
sekula bere amaz hitz egin?

—Bere amaz? Bere amaz hitz egin zidan nik  
hari neure aitaz bezala, oso maiz, beti! Arras  
maite zuen bere ama!

—Nadia, Nadia! Nire semeari gertatutakoak  
kontatu berri dizkidan —esan zion andre zaha-  
rrak.

Eta zera gehitu zuen oldarka:

—Omsken barrena igarotzean ez zuen bere ama ikusi behar, hain biziki maite zuena?

—Ez —erantzun zion Nadiak—, ez zuen ikusi behar.

—Ez? Ezetz esatera ausartzen haiz?

—Egia da, baina gehiago esan behar dizut. Gauza ororen gainetik zeuden arrazoiengatik, nik ez dakizkidan motiboengatik, Nikolas Korpanoffek guztiz ezkutuan egin behar zuen bidaia. Hil edo bizikoa zen harentzat, eta, are gehiago, eginbeharra eta ohorezko auzia.

—Eginbeharra, hori dun, premia larriko eginbeharra, beste guztia bazterrera utzarazten duena, gainerako denari uko egitera behartzen duena, amari musu ematea ere, ama zaharrari beharbada azken musua ematea ere galarazten duena! Hik ez dakinan guztia, Nadia, nik neuk ere ez nekiena, ulertu dinat une honetan! Hik jarri naun jakinaren gainean! Argia jaurti dun nire bihotzeko ilunpe sakonetara! Nik, berriz, ezin dinat argi hori hirera eman! Nire semearen sekretua, Nadia, hark esan ez eta, nik ere gorde beharra dinat! Barka nazan, Nadia! Ezin dinat itzuli eman didanan poza!

—Ama, ez dizut ezer eskatzen —erantzun zion Nadiak.

Den-dena zegoen argi zahar siberiarrarentzat, den-dena, baita semeak Omskeko ostatuan haren aurrean eta lekuko ugariekin izan zuen jokaera ulergaitza ere. Zalantzarik ez zegoen. Neskatxaren bidelaguna Mikel Strogoff zen eta isileko egitekoren batek, lurralde inbadituetan zehar eramane beharreko mezu garrantzizkoren batek eragozten zion tsarraren mandataria zela esatea.

—A! Nire seme bipila —pentsatu zuen Marfa Strogoffek—. Ez! Ez haut galduko, eta torturak ez zidak sekula aitorraraziko hi hintzela Omsken benetan ikusi nuena!

Marfa Strogoffek hitz bat esanez ordaina eman ziezaiokeen Nadiari bere aldeko ardura guztiengatik. Aski zuen esatea haren bidelaguna, Nikolas Korpanoff, edo Mikel Strogoff, hobeki esanda, ez zela hil Irtish ibaiaren uretan, handik egun batzuetara harekin topo egin zuela Omsken, eta hitz egin ziola!...

Baina eutsi egin zion mingainari, eta hauxe besterik ez zuen esan:

—Hago, ume hori! Ez haute beti joko zoritxarrak eta atsekabeak. Hire aita ikusiko dun, bihotzak zioetan, eta, beharbada, arreba deitzen zinan hori ez zagon hila! Jainkoak ezin din onar-

tu hire lagun kementsua hiltzea!... Hago, alaba!  
Hago! Egin ezan nik bezala! Ez zaramatzenat  
semearengatik doluzko jantzi hauek!

### III

## HAR EZAK ORDAINA

Horretan zeuden Marfa Strogoff eta Nadia bata bestearen aurrean. Siberiar zaharrak dena ulertu zuen, eta neska gazteak bere lagun mai-tagarria artean bizirik zegoela ez bazekien ere, bazekien, behinik behin, gizon zintzo hura bere amatzakoaren semea zela, eta eskerrak ematen zizkion Jainkoari andre gatibu haren ondoan seme galdua ordezkatzeko poza eman ziolako.

Baina ez batak eta ez besteak ezin jakin zezakeen Mikel Strogoff, Kolivanen atzemanda, haien preso talde berean zegoela eta haiek bezala Tomschera zihoala.

Gatibu guztiak multzo berean elkartu zituzten, bai Ivan Ogareffek ekarritakoak, bai emirrak kanpamentu tatariarren zaintzen zituenak. Zorigaitzoko haiek, errusiarrak edo siberiarrak, militarrek edo zibilak, milaka batzuk ziren, eta osatzen zuten andanak hainbat verstako luzera zeukan. Haien arteko arriskutsuenak katea bati girgiluz loturik zihoazen. Baziren emakumeak, baziren umeak, zaldi zelatik zintzilik edo loturik,

gupida gabe herrestan eramanak bideetan barrena! Bultzaka zerabiltzaten guztiak, giza azienda balira bezala. Zaindarien eta gidarien nolabaiteko ordenaz ibiltzera behartzen zituzten zaldi gainerik, eta inor ez zen atzean geratzen, lurrera erori eta berriz altxatzen ez zirenak izan ezik.

Modu hartan, Mikel Strogoff, kanpamentu tatariarretik irtendako presoek lehenbiziko lerroetan kokatua, hau da, Kolivango gatibuen artean zihoala, ezin zen nahasirik agertu azken orduan Omsketik ekarritakoekin. Ezin, beraz, susmatu konboi hartan bere ama eta Nadia zeudela, haiek bera zegoela susmatu ezin zuten era berean.

Kanpamentutik Tomskerako bidaiak latza izan zen denentzat, hilgarria asko eta askorentzat. Estepan barrena zihoazen, soldaduen zartailuen pean, bide zikin batean aurrera, emirrak eta haren abangoardiak harrotutako hautsa arnastuz. Agudo ibiltzeko agindua emana zuten. Gutxitan gelditzen ziren, eta aldi labur-laburrez baino ez. Ehun eta berrogeita hamar versta eguzki galdatan, amaiezinak iruditu behar, ahalik lasterrena eginda ere!

Eskualde antzua da Obi ibaiaren eskuinetik ekialdera zabaltzen dena, lur elkorrak Saian mendietatik iparrera ateratzen den gailur segidaren oinetara iritsi artekoak. Lautada mugagabearen monotonia sasi banaka batzuek ozta-ozta hausten dute, iharrak, kiskaliak. Han ez dago sororik, urik ez baitago, eta uraren falta zen gatibuek gehien nozitzen zutena, ibilaldi nekezak egarriturik. Erreka bat aurkitzeko, berrogeita hamar bat versta ekialdera ibili behar, urak Obi eta Jenisei arroen artean banatzen dituen gailur segidaraino. Han, hegotik iparrera doazen mendi horien oinetan, Tom ibaia ageri da, Obiko adar txikia, Tomsk zeharkatzen duena Siberiako ur lasterrik handienetako batean isuri eta galdu baino lehen. Han, ura nasai da nonahi, estepa hezeagoa, temperatura epelagoa. Baina agindu zorrotzak emanak zizkieten konboiko buruei Tomskera biderik laburrenez joateko, arriskua baitzegoen beti ere errusiarrek iparraldeko probintzietatik jaitsi, albo bateatik eraso egin eta emirraren armada bitan zatiturik geratzeko. Eta Siberiako bide nagusiak Tom ibaiaren bazter urtsuak alde batera uzten bazituen ere, bai behintzat Kolivandik Zabediero ize-

neko herrixkaraino, bide nagusi horri jarraitu beharra zuten.

Alferrik da hainbeste gatibu urrikgarriren sufrikarioa behin eta berriz aipatzea. Ehunka batzuk lurrera erori ziren, eta hantxe gelditu gorpu, negua etorri eta otsoek haien azken hezurak irentsi arte.

Nadia, esan bezala, prest zegoen beti andre siberiar zaharrari laguntza emateko, eta horrelaxe jokatzeko zuen Mikel Strogoffek ere bere zorigaitzeko lagunekin. Ez zeramaten loturik, eta ahal zuen guztian laguntzen zien ingurukoei, bera baino ahulagoak izaki. Hangoei bihotz ematen zien, hemengoei eutsi egiten zien eror ez zitezela, hara eta hona zebilen giza ilara luze hartan atsedetik hartu gabe, harik eta zaldizko baten lantzak bere lekura itzularazi zuen arte.

Zergatik ez zuen ihes egiten? Bada, asmo sendoa hartua zuelako ihesa segurua ez zen bitartean estepan barrena ez saiatzeko. Setati zegoen Tomskeraino «emirraren bizkar» joateko, eta, arrazoi zuen, azken batean. Destakamendu ugari zebilen lautada arakatzeko konboiaren bi aldeetan, orain hegoaldean, orain iparraldean, eta hura ikusita garbi zegoen ezin zirela bi virsta egin berriz ere harrapatua izan gabe. Zaldizko

tatariarrez josia zegoen alderdi osoa, eta, batzuetan, lur azpitik sortzen zirela zirudien, euri erauntsiak lur azalera erruz ateratzen dituen zomorro kaltegarrien pare. Beraz, gauzak zeuden bezala, ihesa zaila zen oso, ezinezkoa ez bazen. Eskoltako soldaduak adi eta zurt zebiltzan, presoegi begirik kendu gabe, burua galduko baitzuten zainketa lanean huts eginez gero.

Azkenik, abuztuaren 15ean, arrats apalean, konboia Zabedieroko herrixkara iritsi zen, Tomsketik hogeita hamar bat verstara. Toki hartan, bideak eta Tom ibaiak bat egiten zuten.

Gatibuak ibai hartako uretara joango ziren lasterka lehen-lehenik; baina zaindariak ez zieten utzi errenkadak desegiten geldialdia antolatu arte. Tom ibaiko urak mendiko erreka bizia zirudien urtaro hartan, jauzika eta bortxaz aurrea zihoala, baina gatiburen batek ihesari eman ziezaiokeen, ausardiaz edo etsi gaiztoz, eta zainketa neurri gogorak hartu beharrean zeuden aurrea. Zabedieron txalupak konfiskatu eta finko jarri zituzten bata bestearekin amarratuz, gainditu ezineko oztopo pila eratzen zutela. Eta kanpamentuko muga, herri txikiaren lehenengo etxeetan berme harturik, eten ezineko zaintzaile lerro baten ardurapean gelditu zen.

Mikel Strogoffek estepan zehar abiatzea pentsa zezakeen une hartatik aurrera, baina, egoera zertan zen ongi begiztatu ondoren, handik ihesi joatea ezinezkoa zela ulertu zuen, eta, inolako estutasunean gertatzeko gogorik gabe, zain geratu zen.

Presoek gau osoa Tom ibaiaren ur ertzetan eman behar zuten. Emirrak, izan ere, hurrengo egunerako atzeratu zuen tropak Tomsken sartzea. Jaialdi militar bat antolatu zuten hiri garrantzizko hartan tatariarren kuartel nagusia inauguratuko zela ospatzeko. Feofar Khan gotorlekuan kokatua zen bezperatik jada, baina armada gehien-gehiena harresietatik kanpo zegoen, ospe handiz noiz sartuko zain.

Ivan Ogareff, emirra Tomsken utzirik, Zabe-dieroko kanpamentura itzuli zen. Handik abiatzekoa zen biharamunean armada tatariarraren atzealdearekin. Etxe bat atondu zioten, bertan gaua igarotzeko. Egunsentian, zaldizkoak eta oinezko soldaduak, haren buruzagitzapean, Tomsk aldera irtengo ziren, non emirrak ekialdeko subiranoen ohiko hotsandiaz egin nahi zien harrera.

Geldilekua antolatu eta gero, gatibuek, hiru eguneko bidaiarengatik leher eginak, egarriz

erretako eztarria busti ahal izan zuten azkenean eta atsedean pittin bat hartu.

Eguzkia sartua zen ordurako, baina zerumuga argitsu zegoen artean ilunabarreko azken printzekin, Nadia Tom ibaiaren ertzera iritsi zenean, Marfa Strogoffi eutsika. Ordu arte ezin uretara hurbildu ibai bazterra mukuru betetzen zuten preso lerroak zirela-eta, eta orain edateko txanda iritsi zitzaien azkenik.

Andre zaharra ibai ertzerantz makurtu, eta Nadiak eskua ur fresko hartan sartu zuen eta Marfaren ezpainetara eraman. Gero, bere burua freskatzeari ekin zion. Bizia berreskuratu zuten zaharrak eta gazteak ur onuragarri haiek edanda.

Halako batean, ur ertza uztera doazelarik, Nadia tente-tente jarri da. Garrasi bat ihesi joan berri zaio nahi gabe.

Mikel Strogoff dago hantxe, pauso batzuk harago!... Bera da!... Eguneko azken izpiek argitzen dute oraindik!

Nadiaren oihua entzunik, bihotza dardaraz ipini zaio Mikel Strogoffi... Baina bere buruaren jabetza erabat galdu ez, eta mingainari eutsi dio estualdian jarriko duen hitzik ez ahoskatzeko.

Eta, halere, Nadiarekin batera, bere ama ere ikusi du!...

Mikel Strogoff, ezusteko topaketak eraginda eta senetik kanpo sentitzen dela, eskua begietara eraman eta segituan urrundu da handik.

Nadia harengana oldartu da barruak agindurik, baina siberiar zaharrak belarrira hitz egin dio xuxurla batean:

—Geldi, alaba!

—Bera da! —erantzun dio Nadiak, bihotzeko zartadak hitzak etenaraziz—. Bizirik dago, ama! Bera da!

—Neure semea dun —esan dio Marfa Strogoffek—, Mikel Strogoff dun, eta ez dun ikusten pausorik ez dudala ematen haren aldera? Alaba, egin ezan nik bezala!

Gizon batek har dezakeenik eta zirrara ikaragarrienak astindu berri zuen Mikel Strogoff goitik behera. Ama eta Nadia han ziren. Bi gatibu haiek, bihotzean kasik nahasi egiten zitzaizkion bi emakume haiek, bata bestearengana bultzatu zituen Jainkoak ezbehar hartan! Nadiak jakingo ote nor zen zinez? Ez, argi ikusi zuen nola Marfa Strogoffek geldiarazi zuen keinu batez harengana abiatzekotan zela. Marfa Strogoffek bazekien

guztiaren berri eta gorde egiten zuen bere sekretua.

Gau hartan, Mikel Strogoff hogeia aldiz egon zen bere amaren bila joateko zorian, baina ongi baino hobeki ulertu zuen eutsi egin behar ziola ama besoetan hartzeko grina biziari, lagun gaztearen eskua berriz estutzeko gogo bortitzari. Arinkeriarik txikienak ere galbidean jar zezakeen. Gainera, ama ez ikustea zin egin zuen... eta ez zuen ikusiko, ez nahita, bederen. Behin Tomskera iritsita, gau hartan bertan ezin eta, ihesi joango zen estepan aurrera bi gizaki haiek besarkatu ere egin gabe, hantxe utziko zituen arrisku larrien mende bere bihotz guztia hartzen zioten bi emakumeak!

Mikel Strogoffek arrazoiz pentsa zezakeen Zabedieroko kanpamentuko topaketa hark ondorio txarrik ez zuela izango ez bere amarentzat, ezta beretzat ere. Ez zekien, ordea, Sangarre, Ivan Ogareffen espioia, eszena haren xehetasun batzuez ohartu zela, dena aitaren batean gertatu bazen ere.

Buhamea han zegoen, ur bazterrean, siberiar zaharra aldetik aldera zelatatzen betiko antzera, hura konturatu gabe. Ez zuen Mikel Strogoff ikusi, jendearen artean aienatua baitzen burua

alde hartara jiratu zuenerako; baina bai erreparatu zion amak Nadia geldiarazteko eginiko keinuari, eta Marfaren begien distirak dena ulertarazi zion.

Zalantza izpirik gabe, Marfa Strogoffen semea, tsarraren mandataria, Zabedieron zegoen une hartan, Ivan Ogareffen gatibu ugarien artean!

Sangarrek ez zuen ezagutzen, baina han zela bazekien! Haren bila ez zen saiatu, ordea, alferrik izango zen-eta hango itzaletan eta jendetza handi haren erdian.

Eta alferrik izango zen, era berean, Nadia eta Marfa Strogoff zelatatzen segitzea ere. Nabaria zen bi emakumeek begiak zabalik egongo zirela eta inola ere ez zutela esango edo egingo ezer tsarraren mandataria arriskuan jartzeko modukorik.

Beraz, pentsamendu bakar batek bete zuen buhamearen gogoia: Ivan Ogareffi ohartaraztea. Horretarako irten zen kanpamentutik berehalako batean.

Ordu laurden bat geroago, Zabedierora iritsi eta emirraren gudalburuaren etxera eramán zuten.

Ivan Ogareffek etxean sartu orduko hartu zuen.

—Zer behar dun, Sangarre? —galdetu zion.

—Marfa Strogoffen semea kanpamentuan zagok —erantzun zion.

—Preso?

—Preso!

—Ez da izango? —oihu egin zuen Ivan Ogareffek—. Jakingo dinat...

—Ezin duk ezer ere egin —esan zion buhameak—, ez baituk ezagutzen!

—Baina hik bai, hik ezagutzen dun! Ikusi egin dun, Sangarre!

—Ez diat hura ikusi. Haren amak egindako keinu bat ikusi diat, eta horrek azaldu zidak gutia.

—Begiak ez din huts eman?

—Ez zidak huts eman.

—Hik badakin nolako garrantzia ematen diodan mandatari horren atxiloketari —esan zuen Ivan Ogareffek—. Moskun eman dioten gutuna Irkutskera iritsiz gero, duke handiaren eskuetan utziz gero, zain eta erne jarriko dun, eta ezin izango naun harenganaino heldu! Gutun hori kosta ahala kosta eskuratu behar dinat! Eta hi etorri, eta gutun horren eramailea nire mende

daukadala esaten didan! Berriz esango dinat, Sangarre, begiak ez din huts eman?

Ivan Ogareffek bihotza pilpilka egin zuen berba. Gutuna bereganatzeari sekulako garrantzia ematen ziola adierazten zuen haren zirrarak. Sangarre ez zen batere artegatu Ivan Ogareffek galdera berriro ere errepikatu ziolako.

—Begiak ez zidak huts eman, Ivan —erantzun zion.

—Baina, Sangarre, milaka gatibu zauden kanpamentuan, eta Mikel Strogoff ezagutzen ez dunala esaten dun!

—Ez —esan zion buhameak, begietara poztasun basatia ageri zitzaiola—, ez diat ezagutzen, baina bere amak bai! Ivan, haren ama mintzara zi beharra zagok!

—Bihar mintzatuko dun! —esan zuen Ivan Ogareffek garrasi eginez.

Buhameari eskua luzatu, eta hark muin eman zion, ezer umiliagarririk ez zegoela iparraldeko leinuen artean hain arrunta den begirunezko ekintza horretan.

Sangarre kanpamentura itzuli zen. Nadia eta Marfa Strogoff non zeuden aurkitu, eta haiei begira igaro zuen gaua. Andre zaharra eta neska gaztea ez ziren lokartu, birrin-birrin eginda egon

arren. Kezka larregi loa ez galtzeko. Mikel Strogoff bizirik, baina gatibu, haiek bezala! Ba ote zekien Ivan Ogareffek, eta, jakin ezean, ez zuen ikasiko azkenean? Nadiak pentsamendu bakarra zuen, hildakotzat hartutako bere bidelaguna bizirik zegoela! Baina Marfa Strogoff harantzago zegoen begira, etorkizunerantz, eta, bere buruaz ardura gutxi izanik ere, beldur zen, arrazoi handiz, semeari zer gertatuko.

Sangarre, ezari-ezarian bi emakumeengana joana zen ilunpetan, eta haien aldamenean gelditu hainbat orduz, belarria adi... Baina ezin deus ere entzun. Barrenak zuhurtzia eskatu, eta Nadiak eta Marfa Strogoffek hitzik ez zioten egin elkarri.

Biharamunean, abuztuak 16, goizeko hamar-rak inguruan, turuta zaratatsu batzuk durundi egin zuten kanpamentuko mugan. Soldadu tatarriarrak prest agertu ziren segituan, armak eskue-tan.

Ivan Ogareff, Zabedierotik atera ondoren, kanpamentura iristen ari zen bere buruzagitza nagusiko ofizial tatariar ugarien erdian. Begitar-tea inoiz baino ilunagoa zeukan, eta amorru ito batek osoki hartua zuela adierazten zuten haren

hazpegi uzkurtuek. Lehenbiziko egokieran bor-  
txaz lehertuko zitzaion haserre bizi hura.

Mikel Strogoffek, gatibu talde batean galdu-  
rik, gizon hura pasatzen ikusi zuen. Zerbait ika-  
ragarria gertatzekotan zegoela eman zion biho-  
tzak, Ivan Ogareffek ongi baitzekien Marfa Stro-  
goff Mikel Strogoffen ama zela eta Mikel Strogoff  
tsarraren mandatarigoaren kapitaina.

Ivan Ogareff kanpamentuko erdigunera aile-  
gatu zen. Zaldi gainetik jaitsi eta haren eskolta-  
ko zaldizkoek zirkulu handi bat osatu zuten  
haren jiran.

Orduan Sangarre hurreratu eta hauxe esan  
zion:

—Zaharrak berri, Ivan!

Ivan Ogareffek ofizialetako bati agindu motz  
bat emanez erantzun zuen.

Berehalakoan, soldaduek gatibuen taldeak  
miatu zituzten zakarkeriaz. Dohakabe haiek, zar-  
tailu kolpez akuilaturik edo lantzen makilaz bul-  
tzaturik, arin bai arin altxatu eta kanpamentuko  
bueltan paratu ziren. Lau lerro soldadu, zutik edo  
zaldi gainean, atzean jarri zitzaizkien, ihesaldia  
guztiz oztopatzeko.

Isiltasuna nagusitu zen, eta, Ivan Ogareffek keinu bat egin zionean, Sangarrek Marfa Strogoff zegoen taldera jo zuen.

Siberiar zaharrak nola zetorren ikusi eta zer gertatuko zen ulertu zuen. Mespreziosko irribarrera ezpainetaratu zitzaion. Gero, Nadiarenganatz makurtuz, ahopeka hitz egin zion:

—Alaba, hemendik aurrera hik ez naun eza gutzen! Gertatzen dena gertatzen dela, eta den gogorrena izanda ere, hitzik ez, keinurik ez! Hura salbatzea dun kontua, eta ez ni.

Une hartan, lipar batez begiratu eta gero, Sangarrek eskua jarri zuen siberiar zaharraren sorbaldan.

—Zer nahi naun? —galdetu zion Marfa Strogoffek.

—Hator! —erantzun zion Sangarrek.

Eta zirkuluaren erdira eraman zuen bultzaka, Ivan Ogareffen aurrera.

Mikel Strogoffek betazalak ia itxian zeuzkan, haren begien distira inork ez ikusteko.

Marfa Strogoff, Ivan Ogareffen parera iristean, gorputza tentetu, besoak gurutzatu eta zain gelditu zen.

—Zu zara Marfa Strogoff? —bota zion Ivan Ogareffek.

—Bai —erantzun zion siberiar zaharrak patxadaz.

—Atzera egiten duzu ala orain dela hiru egun Omsken esandakoari eusten diozu?

—Esandakoari eusten diot.

—Beraz, ez dakizu zure semea, Mikel Strogoff, tsarraren mandataria, Omsken izan zela?

—Ez dakit.

—Eta posta etxean semetzat hartu zenuen gizona, ez zen benetan zeure semea?

—Ez zen neure semea.

—Eta gero, ez duzu ikusi preso hauen artean?

—Ez.

—Eta erakutsiz gero, ezagutuko zenuke?

—Ez.

Erantzunak deus ez aitortzeko erabaki irmoa hartua zuela frogatzen zuen, eta marmar bat sortu zen jendearen artetik.

Ivan Ogareffek ezin eutsi zion mehatxuzko imintzio bati.

—Entzun ezazu —esan zion Marfa Strogoffi—, zure semea hemen dago, eta zuk oraintxe bertan hatza luzatu eta nor den esango diguzu.

—Ez.

—Omsken eta Kolivanen atzemandako gizon hauek guztiak zure begien aurrean pasako dira,

eta Mikel Strogoff nor den esaten ez baduzu, zure aurretik pasa diren gizonak adina kolpe hartuko dituzu knutez jota!

Ivan Ogareff konturatuta zegoen, mehatxuak mehatxu, torturak tortura, andre siberiar hezi-gaitz hura ez zela mintzatuko. Jai zuen harekin, tsarraren mandataria nor zen aurkitzeko, baina Mikel Strogoffek berak bere buruari traizio egingo ziola espero zuen. Barne indar batek biak galduko zituelakoan zegoen, ama-sumeak bata bestearen aurrean egoterakoan. Jakina, gutun inperialaz jabetu besterik nahi izan ez balu, gatibu guztiak arakatzeko agindua emango zuen eta kito; baina gutuna irakurri eta mila zatitan pusaturik bazterren batera botea egon zitekeen ordurako. Estalkia kendu behar zioten Mikel Strogoffi, bestela Irkutsjera iritsiko zen, eta Ivan Ogareffen asmoak huts emango. Gutuna ez ezik, haren eramailea ere harrapatu behar zuen traidoreak, beraz.

Nadiak guztia entzun eta Mikel Strogoff egiatan nor zen jakin zuen, nor zen eta zergatik nahi zituen Siberiako probintzia inbadituak gezurrezko nortasunaz zeharkatu!

Ivan Ogareffek agindua eman eta gatibuak banan-banan pasa ziren Marfa Strogoffen aurre-

tik. Andre zaharrak estatua bat bezain geldirik so egiten zien, erabateko axolagabekeria begiradan.

Haren semea azkenekoen artean zegoen. Txanda iritsi eta bere amaren aurretik pasa zenean, Nadiak begiak itxi zituen ez ikusteko!

Mikel Strogoff sentimendurik azaleratu gabe igaro zen, itxuraz, baina esku azpiak odoletan zituen, azazkalak haragian sartu-sarturik.

Porrot eginda geratu ziren Ivan Ogareffen asmoak!

Sangarrek, haren alboan ipinita, hitz bakar bat baino ez zuen jaulki:

—Knuta!

—Bai! —garrasi egin zuen Ivan Ogareffek senetik aterea—. Knuta atso alproja honentzat, eta jo ezazue hil arte!

Soldadu tatariar bat Marfa Strogoffengana inguratu da, tortura tresna ikaragarri hori eskuan daramala.

*Knuta* hainbat uhal dauzka, larruzkoak, eta, haien muturretan loturik, burdin hari bihurritu bana. Ehun eta hogeit kolpeko zigorrak heriotza omen dakar. Marfak badaki hori, baina badaki orobat inolako torturak ez duela mintzaraziko, eta bere burua eskaintzeko gertu dago.

Bi soldaduk oratu eta lurrera bota dute, belauniko jarraraziz. Soinekoa urratu eta bizkar biluzia agerian geratu da. Sable bat ipini diote bularraren aurrean, oso hurbil. Mina ezin pairaturik etsiz gero, erdiz erdi zeharkatuko lioke bihotza punta zorrotz horrek.

Tatariarra zutik geratu da.

Zain dago.

—Hasi! —esan du Ivan Ogareffek.

Zartailuak txistu egin du airean...

Baina, bizkarra jo aurretik, esku batek kendu egin dio tatariarrari indarrez.

Hantxe zegoen Mikel Strogoff! Ezin geldirik egon eszena lazarri hura ikusita, eta jauzi egin zuen aurrera! Ixingo posta etxean eutsi egin zion bere buruari, Ivan Ogareffen zartailuak jo zuelarik; baina, hantxe, haren amari kolpea eman beharrean zeudela, ezin bere burua mendean eduki.

Ivan Ogareff zen garailea.

—Mikel Strogoff! —oihu egin du.

Gero, aurrera eginez:

—A! Ixingo gizona? —galdetu du.

—Hura bera! —esan dio Mikel Strogoffek.

Eta, *knuta* gora altxaturik, urratu egiten dio aurpegia Ivan Ogareffi alderik alde.

—Har ezak ordaina! —esan dio. Eta deiadar bat irten zaio Ivan Ogareffi eztarritik, oinazez eta amorruz betea.

—Ongi emana! —garrasi egin zuen ikusleren batek, eta hango jendetzan galdu zen, zorionez.

Hogei soldadu oldartu ziren Mikel Strogoffengana, eta hiltzekotan zeuden.

Baina Ivan Ogareffek geldiarazi zituen keinu batez.

—Emirraren justiziak zigortuko du —esan zuen—. Araka ezazue!

Arma inperialez zigilaturiko gutuna aurkitu zuten Mikel Strogoffen bularraldean, suntsitzeko betarik ez baitzuen izan, eta Ivan Ogareffi esku-ratu zioten.

«Ongi emana» garrasi hura nork botako zuen, eta Alcide Jolivet kazetariak. Bi berriemai-leak Zabedieroko kanpamentuan gelditu eta hantxe zeuden ikuskizunari begira.

—Alajaina! —esan zion Harry Blounti— Iparraldeko jende hauek ongi gizon gogorrak dira! Aitor ezazu azalpenen bat zor diogula geure bidelagunari! Korpanoff edo Strogoff, batek hainbat balio du besteak! Ederra ordaina lxingo auzian!

—Bai, ongi halere —erantzun zion Harry Blountek—, baina horrenak egin du. Hobe zuen Strogoffek hartaz oraindik oroitu ez izana.

—Eta bere ama knutaren kolpez hiltzen utzi?

—Zorte hobea eman al die amari eta arrebari beroaldi horrekin? Horretan zaude?

—Ni ez nago ezertan, nik ez dakit ezer —erantzun zion Alcide Jolivetek—, baina nik gauza bera egingo nuen haren lekuan izanez gero! Hura sastakoa! Eta, zer arraio! Odola irakitan utzi behar noizean behin! Ura jarriko zigun Jainkoak zainetan odolaren ordeztan, beti eta nonahi lasai eta bare nahi izan bagintu!

—Pasadizo ederra kronika baterako! —esan zuen Harry Blountek—. Ivan Ogareffek gutunean zer jartzen duen esango baligu, besterik ez bada!...

Gutun horren zigilu lakratua hautsi berria zuen Ivan Ogareffek, aurpegia zikintzen zion odol jarria geldiarazi ondoren. Irakurri eta irakurri jardun zuen luzaro, haren eduki guzti-guztia barrendu nahi izan balu bezala.

Gero, aginduak eman zituen Mikel Strogoff estu lotzeko eta gainerako gatibuekin Tomskera bidaltzeko, eta, Zabedieroko tropen buru jarririk, hiri aldera abiatu zen, danbor eta turuten soinu

burrumbatsuaz lagundurik, emirra haren zain  
zegoen eta.

## IV

# GARAIPENA OSPATZEN

Tomsk 1604an sortu zuten, Siberiako probintzien muin-muinean ia. Garrantzi handiko hiria da, eta Tobolsk, 60. paralelotik gora kokatua, Irkutsk, 100. meridianotik hara eraikia, eta Errusia asiarreko gainerako biziguneez handitzen ikusi dute beren kaltean.

Hala eta guztiz, Tomsk ez da probintzia zabal horretako hiriburua, gorago esan legez. Omsken bizi da probintziako gobernadore nagusia eta hara biltzen da mundu ofiziala. Tomsk da, ordea, lurralde honetako hiririk behinena. Hurbil ditu Altai mendiak eta khalkhen herrialdea, Txinako muga, alegia. Eta mendi horietan barrena gurdia etengabe doaz mazela Tom ibaia-  
ren haran aldera, platinoa, urrea, zilarra, kobrea eta berun urrea garraiatuz. Eskualdea aberatsa da, eta hiria ere bai, ustiategi oparoen erdigunetan egonda. Hango etxeen luxua, hango altzariena, hango zalgurdiena, Europako hiri handien parekoa duzu. Dirudunak bizi dira hiri horretan, pikotx eta palarekin aberastutakoak,

eta, tsarraren ordezkariaren bizileku izateko ohorea ez izan arren, beren artean daukate hiriko merkatarien burua, behintzat, zeina gobernu inperialeko meategien emakidadun nagusia den.

Behinola, Tomsk munduaren azkenean zegoela irudi zuen. Haraino joan nahi zuenak bidaia luzea egiteko prestatu beharra zeukan. Orain, aitzitik, ibilalditxo bat besterik ez da, bidea inbaditzaileen oinpean ez dagoenean, behinik behin. Eta laster burdinbidea egingo dute Permekin lotzeko, Ural mendikatea gurutzatuz.

Hiri polita ote da Tomsk? Horretaz bidaztiak bat ez datozela aitortu behar. Bourboulon andreak egun batzuk eman zituen bertan, Shanghaitik Moskura egin zuen bidaiari, eta ez zitzaion oso ikusgarria iruditu. Haren deskripzioa ontzat hartuz gero, hiri kaskar bat baino ez da. Harrizko eta adreiluzko etxeak, karrika meharak, eta guztiz bestelakoak Siberiako hiri handietan zabaltzen direnen aldean, auzune zikinak, gehienbat tatariarrez mukurru, eta mozkorrak erruz han eta hemen lasai-lasai, «zeinen mozkorkeria bera geldoa eta epela den, iparraldeko herri guztietan bezala!».

Henry Russel-Killough bidaztia, berriz, miretsirik eta liluraturik utzi zuen Tomskek. Negu

gorrian atorra zuria jantzirik ikusi zuelako ote, Bourboulon andreak udan baizik bisitatu ez zuen bitartean? Baliteke, eta gainera halako uste hedatua berrestera letorke, zenbait herrialde hotz sasoi hotzean ikustekoak direla, zenbait herrialde bero sasoi beroan ikustekoak diren gisan.

Dena dela, Russel-Killough jaunak dioenez, Tomsk Siberiako hiririk politena ez ezik, munduko politenetako bat ere bada. Zutabez eta peristiloz apainduriko etxeak, egurrezko espaloiak, karrika zabal erregularrak, hamabost eliza, bikain-bikainak, Tom ibaiaren uretan islaturik, zeinaren zabalerak parerik ez duen Frantziako ibaien artean.

Egia bi iritzi horien artekoa da. Tomsk, hogeita bost mila lagunengatik bizilekua, modu ikusgarrian hedatzen da mailaka-mailaka hegal aldapatsu samarreko mendixka batean gora.

Baina munduko hiririk politena hiririk zatarrena bihurtzen da, inbaditzaileek hartzen dutelarik. Nork nahiko zuen miretsi garai hartan? Goarnizio finkoko soldaduak defendatzen saiatu ziren, baina zaldirik gabeko kosako batailoi gutxi haiek ezin inola ere aurre egin emirraren soldadu sailen erasoari. Jatorri tatariarreko biztanleek

ez zieten batere abegi txarrik egin soldadu andanei, haiek bezala tatariarrak izanik, eta, denbora hartan, Tomsk hiria Kokand edo Bukharako khanerrien bihotzera aldatua zela ematen zuen, Errusian edo Siberian egon beharrean.

Tomsken egin behar zien harrera emirrak bere tropa garaileei. Jai handia antolatua zuten haren omenez; kantariak, dantzariak, zaldi lasterketa iskanbilatsuak izango ziren, eta jarraian orgia eta zalaparta.

Goi lautada zabal bat hautatu zuten ospakizun horretarako, eta gustu asiarraren arabera prestatu. Mendixkaren zati horretatik ehun bat oineko jauzia zegoen Tom ibairaino. Ikuspegi aparta ageri zen gain hartatik. Bistara azaltzen zen lurralde eremu hartan etxe dotoreak eta eliz dorreko kupula sabel-handiak nabarmentzen ziren aurrena; harago, ibaiaren jira-bira ugariak, eta, eszenaren atzealdean, lanbro beroaz bustitako oihanak. Pinu eta zedro erraldoiek, multzo zoragarrietan baturik, berdetasun marko xarmantean biltzen zuten ikuskizun hura guztia.

Goi lautadaren ezker aldean, halako dekoratu liluragarri bat eraikia zegoen terraza handi batzuetan. Arkitektura bitxiko jauregi bat irudikatzen zuen, Bukharako monumentu erdi-mairu

erdi-tatariar horietako bat, inondik ere. Jauregi horretatik gora, haren gain guztiak betetzen zituzten minareteen muturretan, lautadari itzala ematen zioten adar garaien artean, amiamoko bezatuak pilatzen ziren ehunka. Armada tataria-rrarekin batera etorri ziren Bukharatik, eta bata bestearen kontra estutzen ziren, mugitzeari utzi gabe.

Terraza haietan emirraren gortea kokatuko zen, eta, haren ondoan, khan aliatuak, khane-rietako goi agintariak eta Turkestango subiranoen haremak.

Sultanen emazte haietatik gehienak Transkaukasiako eta Persiako merkatuetan erositako esklaboak baino ez ziren. Batzuek aurpegia agerian zeukaten, eta beste batzuek, aldiz, belo batez estalia, begiradetatik ezkutatzeko. Guztiguztiak sekulako luxuaz zeuden jantzirik. Soingaineko dotore finak zeramatzaten, mahukak atzera jasoak eta polisoi europarraren antzera lotuak, beso biluziak agertzen zituztela. Haietan, besokoak ugari, bata bestearekin harribitxizko kateen bidez elkaturik, eta, esku txikien hatzetan, henna zukuz tindatutako azazkalak nabarmentzen. Soingaineko batzuek zetazko forradura zuten, armiarma sarea bezain fina, eta beste

batzuk *aladja* leunaz eginak ziren, marra txikiko kotoi ehun horretaz. Soingainekoak apur bat mugitu eta fru-fru hots alai hori sortzen zuten, hain atsegina ekialdekoen belarrirako. Lehenengo jantzi horren azpian, brokatuzko gona dirdaitsuak, zetazko galtzen estalgarri. Galtzek, bota finetatik pixka bat gora loturik, oinetakoen irekidura airosak eta perlaz jositako brodatuak ikusten uzten zituzten. Eder-ederrak ziren beloz gorderik ez zeuden emakumeen begitarteak. Txirikorda luzeak zihoazkien ihesi durbante kolore-anitzetatik, begiak zoragarriak zeuzkaten, hortzak paregabeak, larruazala liluragarria. Bekain beltz-beltzak batzen zizkien ukendu batez eginitako marra arinak, eta betazalak grafito pittin bat emanda lausotuak zituzten, berezko edertasuna areagotuz.

Estandarte eta bandera esekiek babesten zituzten terrazak, eta haien oinetan emirraren zaindari bereziak zebiltzan batetik bestera, sable bikoitz gakotua aldean, labana gerrikoan, hamar oineko lantza eskuan. Tatariar haietako batzuek makila zuri bana zeramaten, eta alabarda itzel bana beste batzuek, zilarrezko eta urrezko hariz egindako borlekin apainduak.

Inguru osoan, goi lautada zabalaren atzealde-  
detik Tom ibaian amaitzen ziren ezponda mal-  
kartsuetaraino, kolore eta itxura askotako jende-  
tza pilatzen zen, Asiaren erdialdeko herri guztie-  
tatik etorria. Baziren han uzbekak, txano han-  
diak buruan, arkume beltzaren larruz eginak,  
bizarrak gorri, begiak gris, tatariarren moldean  
jositako tunika antzeko bat jantzita, *arлакuk* ize-  
nekoa. Hara metatu ziren turkomanak ere, jantzi  
nazionala soinean, galtza luze koloretsua, game-  
lu zurdez ehunduriko jaka eta zamarra, txano  
gorri konikoak edo kanpai formakoak, bota  
altuak, Errusiako larruz eginak, eta sable labu-  
rra eta ganibeta gerrikoan, uhal batetik zintzilik.  
Harago, haien jaunengandik hurbil, emakume  
turkomanak ageri ziren, ileetatik dilindan ahuntz  
ile txirikordatuak zeramatzatela adats luzagarri,  
soinean mantarra zabalik, urdinez, purpuraz edo  
berdez marraturiko *djuba* baten azpian, hanke-  
tan bildurik koloretako xingola gurutzatuak goi-  
tik behera, eta larruzko oskiak oinetan. Eta han-  
xe mantxuak ere, Errusiaren eta Txinaren arte-  
ko mugako herri guztiak emirraren esanetara  
altxatu izan balira bezala, kopeta eta lokiak ile-  
moztuak, adatsa zintzilik mototsean bildua, tuni-  
ka luzea, gerrikoa zetazko atorraren gainean

gerruntzea estutzen, txano arrautza formakoa, gerezi-koloreko satinez egina, ertzak beltz, zerrenda gorri. Eta haien alboan Mantxuriako emakume eredu miragarriak zebiltzan, apain-  
apain orraztuak, lore artifizialak jarriaz, urrezko orratzekin josirik, eta pinpilinpauxak xamur tar-  
tekatuaz ile beltzen artean. Eta, azkenik, mongo-  
liarrek, bukhararrek, persiarrek, Turkestango txi-  
natarrek osatzen zuten festa tatariar hartara gonbidatutako jendetza ikaragarri hura.

Siberiarrak baizik ez ziren falta, inbaditzai-  
leen ongi etorrian. Ihesi joateko aukerarik izan  
ez zutenak etxean sarturik zeuden, beldurrez,  
Feofar Khanek ez ote zuen aginduko haien onda-  
sunak arpilatu eta errausteko, garaipenaren  
ospakizunari bukaera duina eman nahian.

Lurak arte ez zen emirra plazan sartu, turu-  
ten eta dunbalen zalapartaren erdian, kanoien  
eta mosketeen desarraren artean.

Feofar Khan bere zaldi kuttunaren gainean  
zeterren, aberearen burua diamantezko gando-  
rrez apaindurik. Emirrak gudako janzkera zera-  
man artean. Haren alboetan Kokand eta Kundu-  
zeko khanak zihoazen, bai eta khanerrietako goi  
agintariak ere, eta atzean haren buruzagitzako  
ofizial ugariak.

Hartan, Feofarren lehenengo emaztea agertu zen terrazan, erregina, halako izendapena ematea balego Bukharako estatuetako sultanen andreei. Baina, erregina edo esklabo, jatorri persiarreko emakume hura eder-ederra zen. Musulmanen ohituraren kontra eta emirraren apetaz dudarik gabe, ez zuen ezkututzen aurpegia. Adatsa lau txirikordetan jaitsi eta ferekatu egiten zion sorbalda ezinago zuria, zetazko oihal batek ozta-ozta estalia. Urrez ehundutako oihal hori txanoan sartzen zen atzealdetik, zeina harri bizi garestienez izarturik zegoen. Gona zeta urdinezkoa zeukan, kolore ilunagoko marra zabalekin. Haren azpian, *zir-djameh* zeraman, zetazko gazaz egina, eta gerruntze ganean *pirahn* izeneko mantarra, oihal berekoa, ireki egiten zitzaiona alai lepo aldera igo ahala. Baina, burutik oinetara, txanotik txinal persiarretara, hainbeste bitxi zeuzkan, hainbeste urrezko txanpon, zilarrrezko harian sartuak, hainbeste katea ttiki, turkesez eginak, hainbeste *firuzeh*, Elburzeko meategi entzutetsuetatik aterreak, hainbeste lepoko, kornalinez, agatez, esmeraldez, opaloez, zafiroez bete-beteak, ezen haren blusa eta gona harribitxiz ehunduak zeudela zirudien. Eta milaka eta milaka ziren haren lepoan, haren beso eta

eskuetan, haren gerrian, haren oinetan ñir-ñir egiten zuten diamanteak. Milioika errublo emanda ere doi-doia ordainduko zenuen haien balioa, eta, jaurtitzen zuten distira biziari begira, uste izatekoa zen argindarren batek eguzki printzez egindako arku voltaiko bana pizten ziela barrualdean.

Emirra eta khanak zaldi gainetik jaitsi ziren, bai eta haien segizioko jaun gorenak ere. Horiek guztiak lehenengo terrazara joan eta han altxatua zegoen denda bikain baten azpian jarri ziren eserita. Dendaren aitzinaldean, beti bezala, Koran liburua ipinia zuten mahai sakratu baten gainean.

Feofarren gudalburuak ez zien luzaro itxaronarazi, eta, bostak baino lehen, turuta zoliek iristen ari zela iragarri zuten.

Ivan Ogareff, —*masaila-urratua* deitua ordu-rako—, ofizial tatariarren uniformeaz jantzirik oraingo honetan, zaldiz inguratu zen emirraren dendaraino. Zabedieroko kanpamentuko soldadu sail bat harekin batera etorri eta plazaren bi aieketan hedatu ziren lerroz lerro, jostaketa lekua baino utzi ez zutela erdialdean. Urradura baten orbain zabalak ebakitzen zion begitartea zehar.

Ivan Ogareffek bere ofizial nagusiak aurkeztu zizkion emirrari, eta Feofar Khanek, hoztasunez, bere gorentasunari datxekion gisan, harrera egin zien pozik uzteko moduan.

Horrela ulertu zuten, behintzat, Harry Blountek eta Alcide Jolivetek, bata bestearen ondoan beti, albiste ehizan elkar harturik, lehen ez bezala. Zabedierotik irten eta Tomschera sartuak ziren agudo. Asmo sendoa hartua zuten tatariarren ondotik alde egiteko agurrik esan gabe, lehenbailehen soldadu errusiarrekin biltzeko, eta, ahal izanez gero, haiekin Irkutschera joateko. Inbasioaren suteak, arpilatzeak eta hilketak ikusiak zituzten nazkaz eta gorrotoz, eta presa zuten armada siberiarraren lerroen artean egoteko.

Hala ere, Alcide Jolivetek ez zuen Tomsk utzi nahi tropa tatariarren garaipen sarrera hura zenbait marrazkitan jaso gabe, bere lehengusinarekin jakin-mina asetzeko besterik ez bazen ere, eta hala ulertarazi zion bere lankideari. Harry Blount bat etorri zen ordu batzuk han ematearekin. Baina Irkutskeko bidetara lotuko zitzaizkion biak arratsalde hartan bertan, eta, zaldi egokien gainean zamalkatuz, emirraren esploratzaileak atzean uztea espero zuten.

Alcide Jolivet eta Harry Blount, beraz, jendearen artean zebiltzan hara eta hona denari begira, jaialdiaren xehetasun bakar bat ere galdu gabe, ehun bat lerro eder emango baitzien beren kroniketarako. Feofar miretsi zuten bere handitasunean, eta miraz ikusi zituzten haren emazteak, haren ofizial eta zaindariak, eta ekialdeko arrandia hura guztia, zerikusirik batere ez duena Europako ospakizunetan agertzen denarekin. Baina mesprezios biratu zuten burua Ivan Ogarreff emirraren aurrera etorri zelarik; eta zain geratu ziren festa noiz hasiko, halako ezinegon baten mende.

—Ikusten, Blount maitea? —esan zuen Alcide Jolivetek—. Goixko etorri gara! Burges zintzoak ematen dugu, sarrera-txartelaren diruari probetxu guztia atera nahian! Oraingo hau atarikoak besterik ez da, eta baleta hasi aurretik ez iristea eskatzen du gizalegeak.

—Zein balet, ordea? —galdetu zion Harry Blountek.

—Derrigorrezko baleta, arraioa! Baina antzerki oihala gora doala uste dut.

Alcide Jolivet operan balego bezala hitz egiten ari zen, eta, largabistak zorrotik aterata,

«Feofarren konpainiako lehenengo aktoreak» ikusteko prest jarri zen, zale aditu gisa.

Baina usadio atsekabetsu batek aurre hartuko zien jostaketei.

Izan ere, irabazlearen garaipena ezin oso-osoan izan garaituak plaza agerian makurrarazi gabe. Hori dela-eta, gatibu ehunka batzuk eraman zituzten soldaduek zartailupean. Feofar Khanen eta haren aliatuen aurretik desfilatu behar, gainerako presoekin hiriko espetxeetan pilatu baino lehen.

Gatibu horien artean Mikel Strogoff zegoen aurreneko errenkadan. Ivan Ogareffen agindua betez, soldadu pelotoi batek zaintzen zuen bereziki. Hantxe ziren haren ama eta Nadia ere.

Siberiar zaharra, kementsua beti, kontuak berari zegozkionean, begitarte zurbil-zurbila zuen, ikara emateko modukoa. Gertakizun latza espero zuen. Bazen nahiko arrazoi haren semea emirraren aurrera eramateko. Dar-dar egiten zuen harengatik. Ivan Ogareffek ez zuen barkatuko andre zaharraren kontra altxatutako *knut* harekin jendaurrean hartutako kolpea, eta haren mendekua gupidarik gabekoa izango zen. Asiarren erdialdeko barbaroek gustuko duten tormentu izugarri horietako batek egiten zion mehatxu

Mikel Strogoffi inondik ere. Ivan Ogareffek ongi baino hobeki zekien zertan ari zen harengana oldartu ziren soldaduak geldiarazi eta emirraren justiziarako gorde zuenean.

Gainera, ama-seekek ezin izan zuten elkarrekin hitz egin Zabedieroko kanpamentuko eszena zoritxarrekoaren ondotik. Errukirik gabe bereizi zituzten bata bestearengandik. Hura zen ezbeharraren larriagotzea, penak elkarri arindu ezinean gatibu eman zuten egun haietan! Barkamena eskatu nahi zion Marfa Strogoffek semea-ri, nahi gabe sorturiko kaltearengatik, errua bere buruari egozten baitzion bere ama sentimenduak mendean hartu ez zituelako! Harengana joateko grinari eutsi izan balio Omskeko posta etxe hartan, aurrez aurre topatu zuelarik, Mikel Strogoffek aurrera segituko zuen inor konturatu gabe, eta zenbat nahigabe ez ziren saihestuko!

Eta Mikel Strogoffek, bere aldetik, biei tormentu bera jasanaraziko zietela pentsatzen zuen; horregatik zegoen han bere ama, horregatik jarri zuen Ivan Ogareffek bere aurrean. Tormentu bera, eta beharbada heriotza lazgarri bera ere eman nahi zien traidore horrek nola amari hala semea-ri.

Nadia, berriz, bere buruari galdezka ari zen ea zer egin zezakeen bata zein bestea salbatzeko, ea nola laguntza eman ama-seei. Ezin deus ere asmatu! Baina halako sentimendu zehazgabe batek inoren arretarik ez bereganatzeko eskatzen zion, ezer nabarmentzekorik ez egiteko, txiki-txikia bihurtzeko, ikusezina izateraino! Horrela beharbada aukera izango zuen lehoia ixten zuen kaiola marraskatzeko. Nolanahi ere, jarduteko egokiera etorri gero, jardungo zuen, nahiz bere bizitza eskaini behar Marfa Strogoffen semearenaren truke.

Bien bitartean, preso gehienak igaro ziren emirraren aurretik, eta, haren parera iristean, ahuspez jarri behar izan zuten, kopeta lurrean, morrontzaren seinale. Era umiliagarri horretan hasten zen haientzat esklabotasuna. Koitadu haiek burua motelegi makurtzen bazuten, zaindarien esku zakarrak lurrera botatzen zituen bortizki.

Alcide Jolivet eta haren laguna ezin egon ikuskizun hari begira guztiz haserretu gabe.

—Doilorkeria hutsa da! Goazen! —esan zuen Alcide Jolivetek.

—Ez! —erantzun zion Harry Blountek—. Dendena ikusi beharra dago!

—Den-dena ikusi!... A! —oihu egin zuen bat-batean Alcide Jolivetek, lagunari besotik oratzen ziola.

—Zer duzu? —galdetu zion.

—Begira, Blount, nor dagoen han!

—Nor?

—Gure bidelagunaren arreba! Bakarrik eta gatibu! Zer edo zer egin behar dugu...

—Lasai egon zaitetz —esan zion Harry Blountek hotz—. Haren alde zerbait egiten saiatu eta kalte gehiago ekartzen ahal diogu mesede baino.

Alcide Jolivet aurrera jotzeko prest zegoen, baina gelditu egin zen, eta Nadia, ezertaz ohar-tzeke, bere ileak aurpegi erdia estaltzen baitzion belo baten antzera, emirraren aurretik pasa zen txanda etorri zitzaionean, arretarik bereganatu gabe.

Gero, Nadiaren ondotik, Marfa Strogoff iritsi zen. Bere burua lurrera azkar bota ez, eta zaindarien basakeriaz bultzatu zuten.

Marfa Strogoff erori egin zen.

Haren semeak suminaldi ikaragarria izan zuen, soldadu zaindarien kasik ezin menderatze-koa.

Baina Marfa zaharra jaiki zen, eta handik zeramatenean, Ivan Ogareffek esku hartu zuen.

—Gera bedi hemen andre hori! —esan zuen.

Nadia, aldiz, beste gatibuen artera bota zuten. Ivan Ogareffen begiak ez zion erreparatu.

Mikel Strogoff emirraren aurrera ekarri zuten orduan, eta hantxe geratu zen zutik, begiak apaldu gabe.

—Kopeta lurrera! —oihu egin zion Ivan Ogareffek.

—Ez! —erantzun zion Mikel Strogoffek.

Bi zaindarik makurrarazi nahi izan zuten, baina haiek erorarazi zituen lurrera gizon gazte indartsuaren eskuak.

Ivan Ogareff harengana aurreratu da.

—Hiltzera hoa! —esan dio.

—Hilko nauk —ihardetsi dio harro Mikel Strogoffek—, baina hiri sekula ez zaik joango traidore aurpegi horretatik knutaren seinale laidogarrria!

Ivan Ogareff zurbildu da modu beldurgarrian, erantzuna entzutearekin batera.

—Nor da gatibu hori? —galdetu du emirrak ahots lasai bezain mehatxagarritz.

—Errusiarren espioi bat —esan dio Ivan Ogareffek.

Mikel Strogoffi espioi lana leporaturik, baze-  
kien haren kontrako epaia izugarria izango zela.

Mikel Strogoff Ivan Ogareffenganantz joan  
zen.

Soldaduek geldiarazi zuten, ordea.

Emirrak keinu bat egin eta jendetzak bizkarra  
okertu zuen. Gero, Koran liburua eskuz seinalatu  
eta ekarri egin zioten. Liburu sakratua zabaldu  
eta hatza ipini zuen haien orrialderen batean.

Halabeharrak erabakiko zuen Mikel Strogoff-  
fen etorkizuna; halabeharrak edo Jainkoak,  
hobeki esanda, ekialdekoen pentsamoldeari  
jarraituz. Asiaren erdialdeko herriek *fal* esaten  
diote ohitura horri. Epaiaren hatzak ukituriko  
txatalaren esanahia argitu eta epaia betearazten  
dute, edozein izanik ere.

Emirrak hatza Koranen orrialde batean ipinia  
zuen. *Ulemen* burua hurreratu eta ahots goraz  
irakurri zuen txatala, honelako hitzekin amaitzen  
zena:

—Eta ez du berriro ikusiko lurreko gauzarik.

—Errusiarren espioia —esan zuen Feofar Kha-  
nek—, tatariarren kanpamentuan zer gertatzen  
den ikusteko asmoz etorri haiz! Begira, bada,  
begira ezak begiak zabal-zabalik! Begira!

## V

# BEGIRA EZAK, BEGIRA, BEGIAK ZABAL-ZABALIK

Mikel Strogoff emirraren tronuaren parean eduki zuten, terrazaren oinetan, eskuak loturik.

Haren ama, hainbeste tortura fisiko eta moralek azpiratua azkenik, lurrera eroria zen, begiratzera ausartu gabe, entzutera ere ausartu gabe.

—Begira ezak, begira, begiak zabal-zabalik!  
—esan zion Feofar Khanek, eskua Mikel Strogoffengana luzatuz mehatxuka.

Zalantzarik gabe, Ivan Ogareffek, tatariarren azturen jakitun, esaldi haren edukia ulertu zuen, ezpainak laxatu baitzitzaizkion instant batean irribarre anker bat agertuz. Gero, Feofar Khanen aldamenean paratu zen.

Tronpetek deia jo zuten segidan. Jostaketak hasteko seinalea zen.

—Hona baleta —esan zion Alcide Jolivetek Harry Blounti—, baina, usadio guztien kontra, dramaren aurretik taularatu behar dute barbaro hauek!

Begiratzeko agindu zioten Mikel Strogoffi. Eta begira zegoen.

Neska dantzari tropel bat sartu zen orduan plazara. Eta musikari taldeak lanari ekin zion. Batzuek *dutara* jotzen zuten, masustondoeko gider luzeko mandolina, zeta bihurrituzko bi hari besterik ez duena eta tonu laurdenetan gozatua dagoena; beste batzuek *kobiza*, biolontxelo antzekoa, irekia aurrealdean, zaldi zurdez hornitua eta arku batez igurtzitzen dena; besteek *tschibizga*, kanaberazko txirula luzea; eta gainerakoek tronpetak, danborrak, dunbalak. Instrumentu tatariar haien hotsak eta abeslariak ezta-rriz kantatzen zituzten doinuek harmonia bitxia osatzen zuten. Eta aire orkestra baten akordeak ere gehitu behar, hamabi bat kometari, erdialdetik sokez tenkatuta, haize leunak durundi eragiten baitzien harpa eolikoak balira bezala.

Berehala hasi ziren dantzan.

Dantzari haiek jatorri persiarrekoak ziren guztiak. Eta ez ziren esklaboak; askatasunez ziharduten beren lanbidean. Behinola, Teherango gortearen ospakizunetan parte hartzen zuten modu ofizialean; baina, azken errege familia tronura iritsi zelarik, erresumatik deserritu zituzten kasik, eta beste leku batzuetara joan behar ira-

bazpide bila. Janzkera nazionala zeramaten, eta bitxiz apaintzen ziren erruz. Urrezko hiruki txikiak eta arrakada luzeak belarrietatik dilindan, zilarrezko uztai nielatuak lepoaren bueltan, harribitxizko katea bikoitzak beso-hanken inguruan, perlez, turkesez eta kornalinez nahasitako zintzilikario aberatsak txirikorda luzeen muturretan dar-dar. Gerrikoa kisketa dirdaitsu batek ixten zuen gerruntzearen jiran estu, Europako ordena handien domina baten pare.

Emakume persiar haiek grazia handiz dantzatu ziren, bakarka batzuetan, taldean bestee-tan. Begitarte agerian zuten, baina, noizean behin, belo arin bat zekarten aurpegi aldera, eta haien begi bizien aurretik gasazko hodei bat pasatzen zela esan zitekeen, zeru izartsuaren aurretik lurrina pasatzen den legez. Dantzari batzuek perlez brodatu-rikoko galtzarbe-uhalekin larruzko bana zeramaten bularrean zeharka, eta handik zintzilik hiruki-formako xorro bat, punta beherantz zuena. Xorroak urrezko filigranaz ehunduta zeuden, eta une batean ireki eta zeta gorri-bizizko zerrenda luze meharrak atera zituzten, Koranaren txatalekin brodatuak. Beren artean zabaldu ziren zerrendak, esparru bat osatuz, non beste dantzariak lerratzen ziren pausoa

gelditu gabe, eta, txatalen aurrean igarotzean, zein zen haietan jasotzen zen araua, edo ahuspez jartzen ziren lurrean, edo hegan zihoazen jauzi txiki batez, Mahomaren paradisuko *hurien* artean leku hartu nahian bezala.

Baina aipagarriena, Alcide Jolivet gehien harritu zuena, dantzari persiar haiek odolgabe aritzea zen, eta ez kartsu. Grina falta zuten, *furia*, eta bai dantzen motagatik bai dantzatzeko eragatik, Indiako baiadera lasai zintzoak oroitarazten zituzten, eta ez Egiptoko almea sutsuak.

Lehenengo jostaketa amaitu eta ahots lodi bat entzun zen:

—Begira ezak, begira, begiak zabal-zabalik!

Tatariar handi batek errepikatzen zituen emirraren berbak. Feofar Khanen borrheroa zen, haren epaiak betearazteko ardura zuena. Mikel Strogoffen atzean paratu zen, xafla zabaleko sable kako bat eskuan, arma zuri damaskinatu horietako bat, Karxiko eta Hissarreko armagin entzute handikoek gogor-malgutua.

Handik hurbil, zaindarien hiru oineko sutontzi bat laga zuten, non ikatz koskor gori batzuk erretzen ari ziren batere kerik atera gabe. Lurrun arin bat zerien, baina ikatz gainera gai erretxina-

tsu eta usaintsu bat botatzen zutelako, intsen-  
tsua eta benjuia nahasiz sortutakoa.

Bien bitartean, persiarrak joan eta beste dan-  
tzari talde bat sartu zen plazara, arraza oso des-  
berdinekoa. Mikel Strogoffek berehala ezagutu  
zituen.

Eta pentsatu beharra dago bi berriemaileek  
ere ezagutu zituztela, Harry Blountek hauxe  
esan baitzion bere lankideari:

—Nijni Novgorodeko buhameak dira!

—Haiexek berak! —garrasi egin zuen Alcide  
Jolivetek—. Begiek diru gehiago emango diete  
espioi hauei hankek baino!

Eta badakigu Alcide Jolivet ez zela tronpatu  
emirraren soldatakotzat hartu zituenean.

Buhameen aurreneko ilaran Sangarre ageri  
zen, soineko bitxi ikusgarri bat jantzita, haren  
edertasuna handiagotzen zuena.

Sangarre ez zebilen dantzan, baina mimo bat  
bezala jarri zen bere dantzarien erdian, eta  
pauso zoragarriak egin zituzten haren inguruan,  
Bohemia, Egipto, Italia, Espainia eta European  
bisitatzen zituzten beste herrialdeetako dantze-  
tirik ikasiak. Beren burua berotu egiten zuten  
eskuetako zinbalekin kriskitinak joz eta pandero

moduko batzuk, *daire* izenekoak, hatz puntaz astinduz.

Sangarrek ere *daire* horietako bati dar-dar eragiten zion eskuen artean, egiazko koribante talde hura suspertu gurarik.

Orduan mutil buhame gaztetxo bat aurreratu zen. Hamabost urte zituen gehienez, eta *dutara* bat zeraman eskuan, laute itxurako instrumentua. Azazkalez doi-doia ukiturik dardarazten zituen haren hariak, eta kantuan hasi zen. Arras erritmo xelebrenko abesti haren kopletan dantzari bat zetorkion ondora eta hantxe geratzen zen geldi-geldirik, entzuten; baina, koplak bukatu eta leloa berriz errepikatzean, dantzan hasten zen berriro, *dairea* mutilaren ondo-ondoan astinduz eta zinbalen kriskitinekin gortzen zuela.

Gero, azken leloaren ondotik, dantzariak mutila korapilatu zuten beren dantzen mila jirabirekin.

Une hartan, urre zaparrada bat erori zen emirraren eta haren aliatuen eskuetatik, armadako ofizial maila guztietakoen poltsetatik, eta txanponek dantzarien zinbalak jotzean sortzen zuten soinuarekin nahasten ziren oraindik ere *dutara* eta panderoen azken marmarrak.

—Eskuzabalak lapurrak bezala! —esan zion Alcide Jolivetek bere lagunari ahotik belarrira.

Eta ebatsitako dirua zen, izan ere, barra-barra erortzen zena, *toman* eta *sekin* txanpon tatariarrekin batera, dukat eta errublo moskutarrek ere amiltzen baitziren dantzarien gainera.

Gero denak isildu ziren instant batean, eta borreroak, Mikel Strogoffen sorbaldan eskua ipinita, betiko hitzak errepikatu zituen ahots gero eta maltzurragoaz:

—Begira ezak, begira, begiak zabal-zabalik!

Baina, aldi honetan, Alcide Jolivetek ez zuen ikusi sable biluzia borreroaren eskuan.

Bitartean, eguzkia zeru ertzetik behera abiatu eta erdi iluntasun bat hasia zen estepaz jabetzen. Zedro eta pinuen multzoa gero eta beltzagoa zen, eta Tom ibaiko urak, itzalpetan jadanik urrutian, gauaren lehenengo lanbroekin nahasten ari ziren. Itzala berandu gabe labainduko zen hiriaren gaineko goi lautadarantz.

Baina, memento hartan, esklabo ehunka batzuek plaza hartu zuten zuzi piztuak eskuetan zituztela. Sangarrek gidaturik, dantzari buhame eta persiarrak azaldu ziren berriz emirraren tronuaren aurrean eta beren dantzen berezitasunak nabarmendu ziren elkarren arteko berdin-

ezaz. Orkestra tatarriaren instrumentuek harmonia basatiagoa atera zuten, kantarien ezarrizko oihuen laguntzaz. Kometak, lurrera jaitsiak ordurako, hegan aireratu ziren berriro, argi koloreanitz pila bat gora altxatuz, eta, haize hotzagoak eraginda, haien harpek indar handiagoz egin zuten durundi aireko argitzapen haren erdian.

Gero, eskuadroi tatarriar bat etorri, gudako janzkerarekin, eta dantzarien artean nahasi zen. Dantzen grina gero eta biziagoa zen, eta orduan eskuadroiak lasterketa iskanbilatsu bati ekin zion, zaldiz egiten ohi dutenen irudira, ondorio ezin bitxiagoa sortuz.

Soldadu haiek, sable biluzia esku batean, pistola luzea bestean, akrobazietan aritzen ziren, eta, batera, sekulako burrunba egiten zuten airean, eztanda eta tiro zaratatsuak etengabe boteaz, danborren arrada, *daireen* orroa eta *dutaren* kurrinka itzaltzeraino. Haien armek, bolbora koloreztatuaz kargaturik txinatarren eran, turrusta gorri, berde, urdin handiak jaurtitzen zituzten zero aldera, eta talde haiek guztiak su artifizial baten erdian inarrosten ari zirela irudizuen orduan. Alde batzuetatik, jostaketa hark antzinakoen zibistika zekarren gogora, dantza militar moduko bat, ezpata eta labanen puntuen

artean egiten dena; eta baliteke tradizio hura Asiaren erdialdeko herriek jaso izana. Baina zibistika tatariarra apartagoa zen, kolorezko suak dantzarien gainean kurubilka, eta soinekoen xafla txikiek milaka gar ñimiñoetan islatuz. Txinpartezko kaleidoskopio bat ematen zuen, ezin konta ahala konbinazio eskaintzen zituen dantzarien higitze bakoitzarekin.

Kazetari paristar batek zeharo jarria egon behar eszenografia modernoaren trikimailu guztietara, baina Alcide Jolivetek ezin izan zion eutsi buruko mugimendu bati, zeinak, Montmartreko bulebarraren eta Madeleine elizaren artean eginenez gero, «ez dago gaizki! ez dago batere gaizki!» esan nahiko zukeen.

Gero, bat-batean, agindu izan balie bezala, soldaduen suak itzali, dantzak gelditu eta dantzariak aienatu ziren. Ospakizuna amaitua zen, eta zuziek baino ez zuten lautada argitzen, ares-tiko txinpart eta distira guztiak desagerturik.

Emirrak keinu bat egin eta Mikel Strogoff eraman zuten plazaren erdira.

—Blount —esan zion Alcide Jolivetek lagunari—, baduzu gogorik honen bukaera ikusteko?

—Ezta inondik inora ere —erantzun zion Harry Blountek.

—Daily Telegrapheko zure irakurleei, espero dut, ez zaizkie atsegin izango hilketa tatariar baten xehetasunak, ezta?

—Ez zure lehengusinari baino gehiago.

—Mutil gizajoa! —gehitu zuen Alcide Jolivetek, Mikel Strogoffi so—. Guda zelaian hiltzea merezi du soldadu ausartak!

—Zer edo zer egin dezakegu salbatzeko? —galdetu zuen Harry Blountek.

—Ezer ere ezin dugu egin.

Gogoan zuten bi berriemaileek nolako esku-zabaltasunez jokatu zuen Mikel Strogoffek berekin, orain bazekiten zer-nolako probak gainditu behar izan zituen, haren betebeharraren esklabo, eta ezin zuten ezer ere egin haren alde, errukia ezagutzen ez zuten tatariar haien erdian.

Zoritzarreko harentzat zer tortura gordea zuten ikusteko gogorik gabe, hirira itzuli ziren.

Handik ordubetera, lasterka zihoazen Irkutskeko bidean aurrera, Alcide Jolivetek aurretiaz «errebantxaren kanpaina» deitzen zuena errusiarren artean segitzeko asmotan.

Bien bitartean, Mikel Strogoffek, zutik, harrotasunez begiratzen zion emirrari, mesprezios Ivan Ogareffi. Heriotzaren zain zegoen, eta, hala

ere, nekez aurki zitekeen harengan ahulezi zantzurik.

Plaza inguruetan gelditutako ikusleak, bai eta Feofar Khanen buruzagitza nagusiko agintariak ere, hilketaren esperoan zeuden, haientzat beste jostaketa bat besterik ez baitzen tortura hura. Gero, jakin-mina aserik, mozkorkerian murgilduko zen samalda basati hura guztia.

Emirrak keinu bat egin zuen. Mikel Strogoff terrazara hurbildu zen zaindarien bultzakadaz, eta orduan, ongi ulertzen zuen hizkuntza tatariar hartaz, Feofar Khanek hitz egin zion:

—Ikustera etorri haiz, errusiarren espioi hori. Ikusi duk ba azkeneko aldiz. Berehala argitasunerako betiko itxita geratuko dituk hire begiak!

Ez zen heriotza izango, itsutasuna baizik, Mikel Strogoffen kondenazioa. Ikusmena galtzea, heriotza bera galtzea baino izugarriagoa beharbada! Itsutu egin behar zuten gizajo hura.

Hala eta guztiz, emirrak ezarritako zigorra entzun zuelarik, Mikel Strogoff ez zen kikildu. Sor eta gor geratu zen, begi handiak zabalik, bere bizitza osoa azken begirada batera bildu nahi izan balu bezala. Alferrik zen gizon anker haiei erreguka hastea, eta ezta duina ere, gainera. Burutik pasa ere ez! Pentsamendura haren egi-

tekoa etorri zitzaion, erremediorik gabe huts  
egina; ama etorri zitzaion, eta Nadia; ez bata eta  
ez bestea berriz ikusiko ez zituena! Baina ez  
zuen utzi batere azaleratzen sentitzen zuen  
zirrara hori.

Gero, ase gabeko mendeku baten sentimen-  
duak hartu zuen goitik behera. Ivan Ogareffen-  
gana itzuli zen.

—Ivan —esan zuen mehatxuka—. Ivan traido-  
rea, nire begien azken mehatxua hiretzat izango  
duk!

Ivan Ogareffek sorbaldak jaso zituen.

Baina oker zegoen Mikel Strogoff. Bere  
begiak ez zitzaizkion betiko itzaliko Ivan Ogaref-  
fi begira zegoela.

Marfa Strogoff zutitu zen haren aurrean.

—Ama! —oihu egin zuen—. Bai! bai! Zuretzat  
nire azken begirada eta ez madarikatu horren-  
tzat! Geldi zaitex hortxe, nire aurrean! Ikus deza-  
dala oraindik zure aurpegi maitea! Zuri begira  
itxi daitezela nire begiak!

Siberiar zaharra hurbildu zen, deus esan  
gabe...

—Bota hemendik andre hori! —agindu zuen  
Ivan Ogareffek.

Bi soldaduk bultzatu eta Marfa Strogoffek atzera egin zuen, baina zutik iraun zuen, bere semearengandik hurbil.

Borreroa agertu da. Aldi honetan, sable biluzia darama eskuan, eta sable gori-gori hura ikatz usaintsuak erretzen diren sutontzitik hartu berria du.

Ohitura tatariarrari jarraituz itsutu behar dute Mikel Strogoff, galda-galdan dagoen sable bat begien aurrean pasatuz!

Mikel Strogoff ez da saiatu kontra egiten. Bere ama baizik ez du begietan, eta irentsi egiten du begiradaz. Haren bizitza osoa dago azken ikuskari honetan!

Marfa Strogoffek, begiak ezin irekiagoak, besoak harengana luzatuak, so egiten dio!...

Sablearen xafla gorria Mikel Strogoffen begien aurrean pasatzen da.

Etsipenezko garrasi bat egin dute. Marfa zaharra lurrera erori da korderik gabe.

Mikel Strogoff itsu dago.

Aginduak beterik, emirrak alde egin zuen bere segizio guztiarekin. Segituan Ivan Ogareff eta eskuan zuzi bana zeukaten soldadu batzuk baizik ez zeuden plaza hartan.

Zer nahi zuen gizon zital hark? Bere biktima berriz ere iraindu eta borreroaren ondotik azken kolpea eman?

Ivan Ogareff pixkaka-pixkaka urreratu zen Mikel Strogoffen aldera. Hau, bazetorrela sentiturik, tente jarri zen.

Ivan Ogareffek gutun inperiala atera zuen sakelatik, ireki, eta, isekarik krudelena eginez, begi itzalien aurrean ipini zion tsarraren mandataritari.

—Irakur ezak orain, Mikel Strogoff, irakur ezak eta segi Irkutskera zer irakurri duan kontatzera! Tsarraren egiazko mandataria Ivan Ogareff duk!

Hori esanik, traidoreak gutuna bularrean gorde eta, burua atzera itzuli gabe, plaza utzi zuen, zuzidun soldaduak berekin eramanez.

Mikel Strogoff bakarrik gelditu zen, bere amarengandik urrats batzuetara. Ama korderik gabe zegoen, hilik agian.

Urrunean deiadarrak, kantuak, orgiaren zarata guztiak aditzen ziren. Tomskek festetan dagoen hiri baten pare distiratzten zuen, argiz betebeterik.

Mikel Strogoffek belarria ernatu zuen. Plaza isilik zegoen eta inor gabe.

Bere ama jausi zen lekurantz joan zen narra-sean, haztamuka. Eskuarekin aurkitu zuen. Harengana makurtu, aurpegia hurbildu eta haren bihotzaren taupadak entzun zituen. Gero, apal-apal hitz egiten ziola esan zitekeen.

Bizirik ote oraindik Marfa zaharra? Entzuten al zituen bere semeak esaten zizkionak?

Nolanahi ere, zirkinik ez zuen egin.

Mikel Strogoffek musu eman zion kopetan eta ile zurietan. Gero, jaiki eta, oinekin haztamuka, eskuak aurrera luzatzen saiatuz non zen jakiteko, plazaren muturrera joan zen astiro-astiro.

Nadia agertu zen supituki.

Bere bidelagunarengana jo zuen zuzen. Aldean zeraman labana batez baliatu zen Mikel Strogoffen besoetako sokak ebakitzeko.

Honek, itsuturik, ez zekien nork jaregin zuen, Nadiak ez baitzuen tutik ere esan.

Baina loturak askatu ondoren:

—Neba! —esan zion.

—Nadia! —xuxurlatu zuen Mikel Strogoffek—

. Nadia!

—Hator, neba! —erantzun zion—. Nire begiak izango dituk ikusteko hemendik aurrera, eta neuk eramango haut Irkutskeraino!

## VI

# LAGUN BAT BIDE NAGUSIAN

Ordu erdi bat geroago, Mikel Strogoff eta Nadia Tomsketik irten ziren.

Gau hartan, ofizialak eta soldaduak gehiago zein gutxiago denak mozkortu ziren orgia zela-eta, eta gatibu dezente, egokiera hartaz baliaturik, Zabedieroko kanpamentuan nahiz konboien ibilaldietan ez bezala, tatariarren ihesi joan ziren azkenean. Nadia herrestan atera zuten plazatik beste presoekin batera, jostaketei ekin zietelarik, baina ihes egin eta goi lautadara itzultzea lortu zuen, Mikel Strogoff emirraren aurrera eramanean zuten unean.

Han, jendetzaren artetik, dena ikusi zuen. Oihurik ez zitzaion jalgi, sable goriaren xafla haren lagunaren begien aurretik pasatu zutenean. Aski indarra izan zuen geldirik eta mutu irauteko. Zorioneko sen batek itxaroteko esan zion, aske izanik helbururaino gidatu ahalko zuela Marfa Strogoffen semea eta lagundu bere zina betetzen. Taupadarik ez zuen egin haren bihotzak une batean, siberiar zaharra korderik

gabe erori zenean, baina pentsamendu batek bere kemen guztia berreskuratu zion.

—Itsu aurreko txakurra izango naiz! —esan zuen bere artean.

Ivan Ogareff joan eta gero, itzalpean ezkutu zen Nadia. Plaza jendez hustu arte egon zen bazterrean. Mikel Strogoff bakarrik zegoen, inor beldurtzeko gai ez den izaki ziztrin bat bezala abandonaturik. Nola hurbildu zen amarengana ikusi zuen, nola makurtu zen haren aldera, nola musu eman zion, eta nola altxatu zen, haztamuka ihesi joateko...

Handik pixka batera, elkarri eskutik oraturik, ezponda malkartsuan behera jaitsi ziren, eta, Tom ibaiaren ertzean barrena hiriaren mugaraino joanda, harresiaren zulo bat zeharkatzeko zoria izan zuten.

Irkutskeko bidea baizik ez zegoen ekialdean barneratzeko. Ezin huts egin. Nadiak bizi-bizi gidatu zuen Mikel Strogoff. Bazitekeen biharamunean, orgian ordu batzuk eman eta gero, emirraren aitzindariak estepan barrena zabaldu eta komunikazio guztiak etetea. Haiei aurre hartu behar, bada, derrigorrean; lehenago iritsi behar Krasnoiarskera, Tomsketik hara dauden bostehun verstak eginda (533 kilometro), bide

nagusitik kanpo ahalik beranduena abiatzeko. Urratutako bidea uztea segurtasuna eza zen, ezustekoen lurraldean sartzea, heriotza epe laburrean.

Nolatan pairatu zituen Nadiak abuztuaren 16tik 17rako gau hartako nekeak? Non aurkitu zuen halako tarte luzea egiteko behar zen indar fisikoa? Nola eraman zuten haraino bere oinek, odoletan atsedetik gabe ibiltzeagatik? Gaitza da ulertzen. Baina kontua da hurrengo goizean, Tomsketik atera eta hamabi ordu geroago, Mikel Strogoff eta Nadia Semilowskoeko herrian sartu zirela, berrogeita hamar verstako bidea ibili ondoren.

Mikel Strogoffek ez zuen hitzik esan. Bidean hark eraman zuen Nadiaren eskua, eta ez Nadiak harena. Baina esku txiki haren dardarek gidatu zuten aurrera, eta bere betiko abiadan ibili zen hari esker.

Semilowskoe huts-hutsik zegoen kasik. Bertakoak Jeniseisk probintziara itzuri joan ziren tatariarren beldurrez. Bizpahiru etxetan izan ezik, ez zen inor han bizi. Erabilgarria zen guztia, baliotsua zen guztia gurdietan kargatu eta herri-tik garraiatu zuten.

Nadiak, ordea, ordu batzuetan han geratzeko premia zeukan. Jana eta atsedena behar zuten biek.

Neska gazteak, beraz, herriaren beste aldera gidatu zuen bere laguna. Han bazen etxe huts bat, atea zabalik. Sartu ziren. Egurrezko banku kaskar bat zegoen gelaren erdian, Siberiako etxe guztietan aurkitzen den berogailu handiaren ondoan. Eseri egin ziren.

Nadiak aurrez aurre begiratu zion orduan bere lagun itsuari, ordu arte inoiz begiratu ez zion bezala. Bazen zerbait begirada hartan estimazioaz harago, errukiaz harago. Mikel Strogoffek ikusteko aukera izanez gero, haren atxiki-mendua eta samurtasuna azkengabeak zirela irakurriko zuen begirada eder hartan.

Itsuaren betazalek, xafla goriaz gorriturik, erdizka baino ez zituzten estaltzen haren begi lehor-lehorrak. Esklerotika apur bat zimurtua zegoen, eta gogortua, antza; ninia nabarmen zabaldua; irisaren urdina lehen baino ilunagoa; betileak eta bekainak pixka bat erreak; baina, itxuraz behinik behin, gizon gaztearen begirada sarkor hura ez zela batere aldatu zirudien. Erretinaren eta begiko nerbioaren sentsibilitatea, ordea, errotik suntsitu zituen altzairu galdatua-

ren beroak, eta horregatik ez zen deus ikusteko gauza, horregatik zegoen erabat itsu.

Memento hartan, Mikel Strogoffek eskuak luzatu zituen.

—Hor hago, Nadia? —galdetu zuen.

—Bai —erantzun zion neskatzak—, hire ondolan nagok eta ez haut bakarrik utziko sekula, Mikel.

Bere izena Nadiaren ahoan lehenengo aldiz entzutean, Mikel Strogoff asaldatu egin zen. Bere lagunak denaren berri bazekiela ulertu zuen. Bazekien nor zen eta zer lotura zuen Marfa zaharrarekin.

—Nadia —esan zion—, banandu beharra zaukanagu!

—Banandu? Zergatik, bada, Mikel?

—Ez dinat oztopo izan nahi hire bidaiari! Aita zain daukan Irkutsken! Harekin elkartu behar dun!

—Aitak madarikatu egingo nindikek, Mikel, bertan behera utziko bahindut, niregatik egin duana egin eta gero!

—Nadia, Nadia! —erantzun zion Mikel Strogoffek, neska gazteak haren eskuaren gainean jarritako eskua estutzen zuela—. Hire aitarengan baino ez dun pentsatu behar!

—Mikel, hik behar nauk aitak baino gehiago!  
Alde batera utzi behar duk Irkutskera joateko  
asmoa?

—Inola ere ez! —oihu egin zuen Mikel Stro-  
goffek, batere adorerik ez zuela galdu eraku-  
tsiaz.

—Hala ere, gutun hori ez duk aldean!...

—Gutun hori Ivan Ogareffek lapurtu zidan!...  
Ongi dun! Hura gabe moldatuko naun, Nadia!  
Espioitzat hartu naiten! Espioi ibiliko naun!  
Irkutskera joango naun ikusi dudan guztia,  
entzun dudan guztia kontatzera, eta, Jainkoa  
zeruan dagoen bezala, traidore hori topatuko  
dinat berriz ere bekoz beko! Baina, horretarako,  
hura baino lehen iritsi behar dinat Irkutskera.

—Eta banantzeaz hitz egiten duk, Mikel?

—Nadia, den-dena kendu zidaten malaparta-  
tu horiek!

—Niri, berriz, errublo batzuk eta begiak geldit-  
zen zaizkidak! Nik ikusiko diat hire partez,  
Mikel, eta nik eramango haut bakarrik joan ezin  
haizen lekura!

—Eta nola joango gara?

—Oinez.

—Eta nola biziko gara?

—Eskean.

—Goazen, Nadia!

—Hator, Mikel.

Bi gazteek ez zioten neba eta arreba izena eman elkarri gehiagotan. Atsekabea erdibanaturik, are eta estuago lotuak sentitzen ziren bata bestearekin. Ordubeteko atsedena hartu eta etxetik irten ziren. Nadiak, karrikaz karrika ibilita, *tchornekheleb* puska batzuk bildu zituen, bai eta Errusian *meod* deitzen duten ezti ur horretatik pixka bat ere. Ezer ere ez zioten kostatu, eskale lanbide berrian hasia baitzen. *Tchornekheleb* hori garagarrez egindako ogi moduko bat da, eta hura janez eta ezti ura edanez, nola edo hala ase ziren Mikel Strogoffen gose-egarriak. Nadiak harentzat gorde zuen mantenu urri hartatik gehiena. Neskak banan-banan ematen zizkion ogi puskak eta hark jaten. Ezpainetara hurbiltzen zion ur ontzia eta hark edaten.

—Jaten ari haiz, Nadia? —galdetu zion behin baino gehiagotan.

—Bai, Mikel —erantzuten zion beti neska gazteak, bere lagunaren hondarrekin askietsita.

Mikel eta Nadia Semilowskoetik atera eta Irkutskeko bide nekosoari lotu zitzaizkion berriro. Neskak adoretu eusten zion nekeari. Mikel Strogoffek ikusi izan balu, urrutiago joate-

ko bihotzik ez zuen izango beharbada. Baina Nadiak ez zuen kexarik ematen, eta Mikel Strogoff, hasperenik ere ez baitzen entzuten, menderatu ezineko presaz zebilen aurrera. Eta zergatik? Espero ote zuen, beraz, tatariarrei aurre hartzea? Oinez zihoazen, dirurik ez zuten, itsu zegoen, eta Nadia gabe, bere gidari bakarra gabe, bide bazter batean etzan eta itxuratxarki hil besterik ezin egin! Baina kemenaren kemenaz Krasnoiarskera iritsiz gero, beharbada ez zen oro galdua izango: gobernadorearengana joan, nor zen azaldu, eta Irkutskera joateko baliabideak eskuratuko zizkion dudarik gabe.

Mikel Strogoff aurrera zihoan, bada, ia berbarik esan gabe, bere pentsakizunetan murgildurik. Nadiaren eskua zeraman. Etengabe zeuden biak harremanetan. Hitzik ez zutela behar irudi zuen, pentsamenduak elkarren artean trukatzeko. Noizean behin, Mikel Strogoffek esaten zion: —Hitz egidan, Nadia.

—Zertarako, Mikel? Biok berdin eta batera pentsatzen diagu! —erantzun zion neska gazteak ahots sendoz, akitua zegoela ez sumarazteko.

Baina, zenbaitetan, bihotzak lipar batean taupadak emateari utzi izan balio bezala, belau-

nak makurtzen zitzaizkion, ibilera mantsotzen, eta atzean gelditzen zen, besoa luzaturik. Orduan Mikel Strogoff gelditu eta begiz begi so egiten zion neskari, barruan zeukan iluntasun horretan zehar ikusteko ahaleginetan, nonbait. Birrikak puztu, eta gero, bere lagunari irmoago eusten ziola, bidean aurrera segitzen zuen.

Hala ere, amaierarik gabeko nahigabe haien guztien erdian, egun hartan zorioneko gertaera bat jazoko zen, biei neke handiak kenduko zizkiena.

Bi ordu inguru paseak ziren Semilowskoetik atera zirenez geroztik, eta, bat-batean, Mikel Strogoff gelditu egin zen.

—Ez dago inor bidean? —galdetu zuen.

—Ezta inor ere —erantzun zion Nadiak.

—Ez dun soinuren bat entzuten?

—Bai, entzuten diat.

—Tatariarrak baldin badira, ezkutatu egin behar dinagu. Begira ongi.

—Hago, Mikel! —esan zion Nadiak, bidean eskuinetara zegoen bihurtune hurbilerantz igo-tzen ari zela.

Mikel Strogoff bakarrik geratu zen une batean, belarria adi.

Berehala bueltatu eta esan zion:

—Gurdi bat duk. Gizon gazte batek gidatzen dik.

—Bakarrik dator?

—Bakar-bakarrik.

Mikel Strogoff zalantzan egon zen istant batez. Bere burua ezkutatu behar zuen? Edo, aitzitik, saiatu behar zuen ibilgailu hartan lekurik bilatzen, beretzat ez bazen, Nadiarentzat gutxienez? Berak aski zuen esku bat gurdian jartzea, eta, are gehiago, gurdia bultzatu ere egingo zuen, beharrean izanez gero, hankek ez baitzioten huts egingo; baina ongi zekien Nadia, oinez Obi ibaitik hona etorria, hau da, zortzi egun jarraian ibilita, indarrez husteko zorian zegoela.

Zain geratu zen.

Gurdia laster iritsi zen bidearen bihurtunera. Ibilgailu zahar hondatu bat zen, gehienez hiru lagun eraman zitzakeena, eta bertakoek kubitka izendatzen dutena.

Hiru zaldikoa izaten da kubitka eskuarki, baina honek bat bakarra zeukan, ile-luze, isats-luze, indar eta adore handikoa odol mongoliarren kariaz.

Gizon gazte bat zuen gidari, eta txakurra zebilkion ondoan.

Gaszte hura errusiarra zela ohartu zen Nadia. Begitarte gozoa zuen eta patxadatsua, fidatzeko modukoa. Gainera, ez zirudien inolako presarik zuenik. Lasai zebilen, zaldia ez behartzeko, eta, hura ikusirik, inork ez zuen sinetsiko bide hura tatariarrek noiz baino noiz mozteko beldurrez egoteko motiborik bazegoela.

Nadiak, Mikel Strogoffi eskutik oraturik, bide bazterrera egin zuen.

Kibitka gelditu zen, eta gidariak neskari begiratu zion irribarretsu.

—Baina nora zoazte, gisa horretan? —galde-tu zien, samur so egiten ziela begiak biribil-biribil.

Ahots hura aditu eta Mikel Strogoffek nonbait entzuna zuela pentsatu zuen bere artean. Eta nahiko izan zitzaion inondik ere kibitkaren gidaria ezagutzeko, haren kopeta baretu baitzen bertatik.

—Baina nora zoazte, bada? —errepikatu zuen gizon gazteak, Mikel Strogoffi zuzenduz oraingo honetan.

—Irkutskera goazak —erantzun zion honek.

—Ene, aita txiki hori! Ez dakik verstak eta verstak eta versta gehiago daudela hemendik Irkutskeraino?

—Bazakiat.

—Eta oinez hoa?

—Oinez.

—Hi, tira! baina andereñoa?...

—Nire arreba duk —esan zuen Mikel Strogoffek, zuhurtziaz Nadiari berriz horrela deituta.

—Bai, hire arreba, aita txiki hori! Baina, sinets iezadak, inoiz ez duk Irkutskera iritsiko!

—Lagun hori —erantzun zion Mikel Strogoff harengana gerturatzen zela—, tatariarrek ezer gabe utzi gaitiztek, kopek bakar bat ere ez diat eskaintzeko; baina nire arreba hire ondoan hartzen baduk, ni oinez joango nauk gurdiaren atzetik, lasterka, behar baldin bada, ez haut atzeratuko ezta ordubetez ere.

—Neba! —esan zuen Nadiak aho goraz—... Ez diat nahi... ez diat nahi! Jauna, nire neba itsua duzu!

—Itsua! —erantzun zion gidari gazteak hunkiturik.

—Tatariarrek begiak erre dizkiote! —azaldu zuen Nadiak, eskuak harengana luzatuz, erruki eske edo.

—Begiak erre? Ene, nire aita txiki gizajoa! Ni Krasnoiarskera niak. Tira, zergatik ez zarete igoko hi eta hire arreba kibitkara? Hirurak sartu-

ko gaituk, pixka bat estutuz gero. Gainera, txakurra ez duk kexatuko oinez joan behar badu. Agudo ez noak, hori bakarra; ez diat nahi zaldia gehiegi nekatzea.

—Lagun hori, nola duk izena? —galdetu zion Mikel Strogoffek.

—Nikolas Pigassof.

—Sekula ez diat izen hori ahaztuko —erantzun zion Mikel Strogoffek.

—Ongi, bada. Igo hadi, nire aita txiki itsua. Hi eta arreba bata bestearen ondoan joango zarete gurdiaren atzean, eta ni aurrean, gidari lana egiteko. Urki azal ederra eta garagar lastoa baduzue atze alde horretan. Habia ematen dik. Ea, Serko, utz ezak tokia!

Txakurra gurditik jaitsi zen, erreguka ibili gabe. Arraza siberiarrekoa zen, ile grisekoa, tamaina erdikoa. Burua handia zuen, laztantzeko modukoa, eta bere jabeari oso atxikia zegoela irudi zuen.

Mikel Strogoff eta Nadia instant batean kokatu ziren kibitkaren barruan. Mikel Strogoffek eskuak luzatu zituen Nikolas Pigassofenenak bilatu nahian, antza.

—Nire eskuak hartu nahi dituk! —esan zuen Nikolasek—. Hona hemen, aita txiki hori! Haritzak atsegin zaian guztian!

Kibitkak bideari ekin zion berriro. Zaldiak ibilera berezia zeukan, lehenbizi eskuin aldeko bi hankak aurrera, gero ezker aldekoak. Nikolasek behin ere ez zuen jotzen. Mikel Strogoff oinez baino agudoago ez zebilen, baina akabo oraingoz, behinik behin, Nadiaren nekeak.

Neskatxa lur jota zegoen erabat, eta, kibitkaren mugimendu beti-berdinak kulunkaturik, loak laster hartu zuen eta zerraldo utzi. Mikel Strogoffek eta Nikolasek etzanda ipini zuten urki orbelen gainean, ahal zutenik eta ongien. Gazte errukiorra hunkiturik zegoen arras, eta, Mikel Strogoffen masailean behera malko tantorik isuri ez bazen, burdina goriak azken-azkeneraino idortu zizkiolako baizik ez zen izan.

—Polita duk! —esan zuen Nikolasek.

—Bai —ihardetsi Mikel Strogoffek.

—Indartsu izan nahi ditek, aita txiki nirea, eta kementsuak dituk, baina baita ahulak ere, neska pinpirin hauek! Urrutitik zatozte?

—Urruti-urrutitik.

—Zoritxarrekoak! Oinaze handia emango ziaten, begiak erre zizkiatenean!

—Handia —erantzun zion Mikel Strogoffek, Nikolasenganarantz eginez, ikusi izan balu bezala.

—Negar egin huen?

—Bai.

—Nik ere negar egingo nian. Maite dituanak ezin ikusi sekula! Pentsatze hutsarekin! Baina tira, haiek ikusten haute. Kontsolatzeko balio dik beharbada!

—Bai, beharbada! —erantzun zuen Mikel Strogoffek, eta ondotik galdetu—. Esaidak, lagun hori, ez nauk inon ikusi orain baino lehen?

—Hi ikusi, aita txiki hori? Ez, inoiz ez.

—Bada, niri ezaguna egiten zaidak hire ahotsaren soinua.

—Hara bestea berriz! —esan zion Nikolas Pigassofek irribarrea ezpainetan—. Ahotsaren soinua dela-eta ez nauk, bada, ezagutzen! Beharbada nondik natorren jakiteko galdetu didak hori. Ederki! Esango diat. Kolivandik natorrek.

—Kolivandik? —esan zuen Mikel Strogoffek—. Bada, orduan, hantxe egin nian topo hirekin. Ez hengoen telegrafo etxean?

—Balitekek —erantzun zion Nikolasek—. Han bizi ninduan eta lan egin. Transmisioen ardura-duna ninduan.

—Eta azken unera arte gelditu hintzen heure postuan?

—Jakina! Batez ere une horretan egon beharra zagok!

—Egun hartan ingeles bat eta frantses bat ez ziren, bada, borrokan ibili hire leihatilaren aurrean, errubloak eskutan, eta ingelesak ez zituen, bada, Bibliaren lehenengo txatalak telegrafiatu?

—Balitekek, aita txiki hori, balitekek, baina ez nauk oroitzen!

—Halakorik! Ez haiz oroitzen?

—Inoiz ez zieat jaramonik egiten bidaltzen ditudan mezuei. Nire betebeharra ahaztea duk, eta batere kasurik ez egitea duk errazena.

Ongi margotzen zuen erantzun hark Nikolas Pigassofen izaera.

Bitartean, kibitka poliki-poliki zihoan aurrera, Mikel Strogoffek aukeran biziago joatea nahiago bazuen ere. Baina Nikolas eta zaldia abiadura horretara jarriak zeuden, eta ez batak ez besteak ezin zuten utzi ibilera patxadatsu hura. Zaldiak, hiru orduz ibili ondoren, ordubetez atsedean

hartzen zuen, gau eta egun. Geldialdian, abera bazkan aritzen zen, eta kibitkaren bidazteik mokadu bat jaten zuten Serko txakur leiala ondoan zeukatela. Kibitkan hogeitaz lagunentzat adina janari bazen gutxienez, eta Nikolasek eskuzabal jarri zituen elikagaiak bere gurdian apopilo hartutako bi neba-arreben eskura.

Egun oso batean atsedean harturik, Nadia indarrak berreskuratzen hasia zen. Nikolas arta handiaz saiatzen zen ahal zen hobekien egon zedin. Bidaia ez zen oso gogorra; poliki zihoazen, dudarik gabe, baina erritmo jarraian. Batzuetan, lozorroak hartzin zuen Nikolas gauetan, gidari zihoala, eta haren zurrunga beteek kontzientzia lasaia zuela ematen zuten aditzera. Horrelakotan adi begiratzuz gero, bazegoen ikustea nola Mikel Strogoffen eskuak zaldiaren gidak bilatzen zituen eta nola azkarrago ibilarazten zuen, Serkoren harridurarako, ezer esan ez arren, hala ere. Gero, trosta hori ohiko ibilerara itzultzen zen, Nikolas itzartzen zelarik, baina kibitka vesta batzuk aurreratua zen bere arauzko lastertasunaren gaineratik.

Horrela ibiliz, Ishimsk ibaia zeharkatu zuten, eta Ishimskoe, Berikylskoe eta Kuskoe herrixkak, eta Mariinsk ibaia, izen bereko herria, Bogos-

towlskoe, eta Txula erreka, azkenean, mende-  
baldeko Siberia eta ekialdekoa bereizten ditue-  
na. Bidea zelai neurrigabeetan aurrera hedatzen  
zen batzuetan, begiari ikuspegi zabal irekia  
eskainiz, eta pinu oihan mugagabeen azpitik,  
beste batzuetan, itzalpetik behin ere ez zirela  
aterako pentsatzen zutela.

Lurralde mortua zen. Inor ez inon. Herrixkak  
huts-hutsik ia. Nekazariak Jeniseiz bestaldera  
joanak ziren ihesi, ibaiaren zabalerak beharbada  
tatariarrak geldiaraziko zituelakoan.

Abuztuaren 22an, kibitka Atxinsk herrira  
heldu zen, Tomsketik hirurehun eta laurogei  
verstara. Ehun eta hogeitazko tartea orain-  
dik Krasnoiarskeraino. Ezbeharririk ez zuten izan  
bidaia horretan. Elkarrekin igarotako sei egu-  
nean, Nikolasek, Mikel Strogoffek eta Nadiak nor  
berean segitu zuten, patxada asaldakaitzean  
babestua lehenengoa, urduri beste biak, eta  
zain, lagun zintzo hura noiz berengandik alden-  
duko.

Esan liteke Mikel Strogoffek eskualde haiek  
guztiak ikusi egiten zituela Nikolasen eta neska  
gaztearen begien bitartez. Txandaka ziharduten  
biek inguruko parajeak harentzat margotzen,  
kibitka pasatu ahala. Jakinaren gainean zegoen

beti oihanean ote zeuden ala zelaian, txabolarik ageri ote zen estepan, siberiarrik azaltzen ote zen zerumugan. Nikolas ez zen isiltzen. Gustuko zuen berba egitea, eta, gauzak begiratzeko zera-bilen ikuspegia hau zela edo hura zela, atseginez entzuten zitzaion beti.

Egun batean, Mikel Strogoffek zer eguraldi modu zen galdetu zion.

—Hainbestekoa, aita txiki —erantzun zion—, baina udako azken egunak ditiagu hauek. Udaz-kena laburra duk Siberian, eta laster dituk sumartzekoak neguko lehen hotzak. Tatariarrek urtaro hotza kanpamentuetatik atera gabe emateko asmoa ote dute?

Mikel Strogoffek burua astindu zuen zalantza adieraziz.

—Ez hago horretan, aita bitxi hori —segitu zuen Nikolasek—. Irkutsjera joango direlakoan hago?

—Horren beldur nauk.

—Bai... arrazoi duk. Baditek beren artean gizon maltzur bat bidean hozten utziko ez ditue-na. Ivan Ogareff izena entzun duk inoiz?

—Bai.

—Badakik norbere herria saltzea ez dagoela ongi?

—Ez... ez zagok ongi... —erantzun zion Mikel Strogoffek, sentimenduei eusteko ahaleginetan.

—Aita txiki hori —jaulki zion Nikolasek—, ez haiz aski haserretzen Ivan Ogareffez hire aurrean hitz egiten denean! Bihotz errusiar guztiek salto egin behar ditek izen hori entzutean!

—Sinets iezadak, lagun hori, gorroto diat hik sekula gorrotatuko ez duan eran —esan zion Mikel Strogoffek.

—Ezin litekek —kontra egin zion Nikolasek—, ez, ezin litekek! Ivan Ogareff gogora etorri, gure Errusia santuari sortzen dion kaltea gogora etorri, eta amorrak hartzen naik, eta harrapatuko banu...

—Harrapatuko bahu?

—Hilko nukeela uste diat.

—Bada, ni, berriz, ziur nagok, guztiz ziur, egon ere —erantzun zion lasai-lasai Mikel Strogoffek.

## VII

# JENISEI IBAIAREN IGAROALDIA

Abuztuaren 25ean, ilunabarrean, *kibiktaren* ikusmiran jarri zen Krasnoiarsk herria. Zortzi egun joanak ziren Tomsketik atera zirenez geroztik. Lehenago iritsi ez baziren, Mikel Strogoffen ahaleginak gorabehera, Nikolasek lo gutxi egin zuelako izan zen. Hori zela-eta, ezin zaldia-  
ren ibilera biziagotu eta tarte hura hirurogei bat orduan egin, beste gidari baten eskuetan gertatuko zen legez.

Beharrik, arazo gehiago ez zuten izan tataria-  
rrekin. Ez zen esploratzailerik edo aitzindaririk agertu *kibiktaren* bidean. Ulertezin samarra zen hori, eta zerbait larria baino ezin izan emirraren tropak Irkutsk aldera berandu gabe oldartzea galarazten zuena.

Eta zerbait larria jazo zen, izan ere. Armada sail bat osatu zuen arrapatakan Jeniseiskeko gobernuak eta Tomsquera bidali, hiria berreskuratzeko asmotan. Baina, ahulegia izanik emirraren tropei aurka egiteko, denak elkaturik baitzeuden oraindik, atzera egin behar izan zuen. Feofar

Khanek berrehun eta berrogeita hamar mila gizon zituen agindupean, bere soldaduak eta Kokand eta Kunduzeko khanerrietakoak kontaturik, eta gobernu errusiarrak ezin bildu oraindik nahikoa indar haiei aurre egiteko. Ez zirudien inbasioa berehalako batean geldiaraz zitekeenik, eta tatariarren olde guztiak oztoporik ez zeukan Irkutsk aldera abiatzeko.

Tomskeko guda abuztuaren 22an izan zen — horixe ez zekien Mikel Strogoffek—, eta horrek azaltzen zuen zergatik emirraren abangoardia ez zen agertu oraindik Krasnoiarsken hilaren 25ean.

Hala eta guztiz, eta Mikel Strogoffek bere irteeraren ondotik gertatu zenaren berri ez bazuen ere, zerbait bazekien behintzat: hainbat egunetako aldea kentzen ziela tatariarrei, eta ez zuela etsi behar, oraindik ere Irkutskera haien aurretik iristeko abagunea zuen-eta, zortziehun eta berrogeita hamar versta falta baziren ere (900 kilometro).

Gainera, Krasnoiarsken, hamabi mila arima inguruko hiri horretan, ibilgailuak erruz izango ziren, haren ustez. Nikolas Pigassofek hantxe geratzeko asmoa zuenez gero, beharrezkoa zen haren ordeztu beste gidari bat bilatzea, eta haren

kibitkaren ordeaz beste ibilgailu arinago bat lortzea. Mikel Strogoffek, hiriko gobernadorearengana joan, nor zen eta zertan ari zen azaldu — aise egingo zuena—, eta zalantzarik ez zeukan Irkutskera eperik laburrenean iristeko baliabideak eskura jarriko zizkiotela. Orduan Nikolas Pigassof prestuari eskerrak eman eta lehenbailehen abiatu besterik ez zuen egin beharko, Nadia berekin eramanez, noski, ez baitzuen harengandik bereizi nahi haren aitaren besoetan utzi arte.

Dena dela, Nikolasek Krasnoiarsken gelditzea erabaki zuen, baina «bertan enplegu bat aurkitzeko baldintzapean», haren hitzez esateko.

Izan ere, funtzionario eredugarri hark, azkeneko minutura arte Kolivango posta etxean iraun eta gero, administrazioaren zerbitzuan jarri nahi zuen bere burua atzera ere.

—Zer dela-eta jaso behar dut soldata bat, irabazteko lanik egin ezean? —errepikatzen zuen.

Hortaz, bada, Krasnoiarsken haren zerbitzuez ezin baziren baliatu, nahiz eta hiri hori Irkutskekin telegrafoz komunikaturik egon segur aski, asmoa hartua zuen sendo: Udinskeko posturaino joango zen, edo baita Siberiako hiribururaino bertaraino ere. Kasu horretan, beraz, neba-arrebekin jarraituko zuen bidaian, eta nor topatuko

zuten haiek hura baino gidari zuhurragorik, nor hura baino lagun arduratsuagorik?

Krasnoiarsketik versta erdira baino ez zegoen kibitka. Eskuin-ezkerretan egurrezko gurutzeak ageri ziren ugari, aldirietako bide bazterrean tente ipinita. Arratsaldeko zazpiak ziren. Zeru garbian elizen eta etxeen soslaiak marrazten ziren, Jenisei ibaitik gora altxatzen zen amildegia-aren ertzean. Ibaiko urek dir-dir egiten zuten eguratsean barreiatu-riko azken printzen argipean.

Kibitka gelditu egin zen.

—Arreba, non gaude? —galdetu zuen Mikel Strogoffek.

—Lehenengo etxeetatik versta erdira, gehie-  
nez jota —erantzun zion Nadiak.

—Hiri lokartua ote da? —bota zuen Mikel Strogoffek—. Soinurik ez dun iristen nire bela-  
rrietara.

—Eta nik ez diat ikusten argirik itzaletan, ezta kerik ere airean gora igotzen —gehitu zuen Nadiak.

—Aparteko hiria! —esan zuen Nikolasek—. Inork ez dik zaratarik ateratzen eta denak goiz oheratzen dituk!

Parte gaiztoko bihozkada batek erdirik erdi zeharkatu zuen Mikel Strogoff. Deus ez zion esan Nadiari Krasnoiarsken jarrita zituen itzaropenez. Han espero zuen bidaia segurtasunez bukatzeko eskuarteak aurkitzea. Beldur handia zuen bere esperantza ez ote zen berriz ere zapuztuko! Nadiak, ordea, pentsamendua igarri zion, nahiz ez ulertu zergatik bere lagunak presa zuen Irkutskera iristeko, gutun inperiala kendu ziotenez geroztik. Egun batean, horretaz galdetu ere egin zion zeharka.

—Irkutskera iritsiko naizela zin egin dinat —besterik ez zion erantzun.

Baina, bere eginkizuna betetzeko, lokomozio modu arin bat bereganatu behar zuen Krasnoiarsken.

—Tira, lagun —esan zion Nikolasi—, zergatik ez goaz aurrera?

—Beldurrak nagok ez ote ditudan hiriko biztanleak iratzarriko neure gurdiaren kirrinkarekin!

Eta zartailu ukaldi txiki bat jota, Nikolasek zaldiari eragin zion. Serkok zaunka egin zuen pixka batean, eta kibitka trosta txikian jaitsi zen Krasnoiarskeko bidean beheara. Handik hamar minutura karrika nagusian sartu ziren.

Krasnoiarsk huts-hutsik zegoen! Atenastarrik ez zegoen «Iparraldeko Atenas» hartan, Bourboulon andreak deitu zion bezala. Zalgurdirik ez zebilen, zaldi ederrez horniturik, karrika garbi zabal haietan. Oinezkorik ez zen igarotzen espaloietan barrena, egurrezko etxe handi zoragarri haien oinetan. Andre siberiar dotorerik, Frantziako azken modaren arabera jantzirik, ez zen paseatzen Jeniseiko hegietaraino, urkidi baten erdian moldaturiko parke miragarri hartan zehar. Katedralaren kanpai handiak mutu zirauen, elizetako ezkila multzoak isilik zeuden; eta oso bitxia zen, alajaina, Errusiako hiri bat kanpai soinuaz beterik ez izatea! Baina, hemen, mortua zen nagusi. Bat ere bizidunik ez zen hiri honetan, hain bizia oraindik orain!

Tsarraren kabinetetik haria moztu aurretik bidalitako azken telegramak agindua eman zien gobernadoreari, goarnizioari eta biztanleei, zirenak zirela, Krasnoiarsk bertan behera utzi, gauza baliotsuak edo tatariarentzat onuragarriak izan zitezkeenak eraman, eta Irkutsken babesa hartzeko. Eta manu bera eman zieten probintziaren herrietako biztanleei. Basamortua utzi nahi zuen gobernu moskutarrak inbaditzaileen aurrean. Rostoptxinen irudira emandako agindu haiek

inork ez zituen eztabaidatu, ezta unetxo batean ere. Konplitu egin zituzten, eta horregatik ez zegoen izaki bizidun bakar bat ere Krasnoiarsken.

Mikel Strogoff, Nadia eta Nikolas isilean ibili ziren hiriko karriketan barrena, harridurazko zirrara bat nabaritzen zutela nahi gabe ere. Haiek sortua zen hiri hil hartan entzun zitekeen hots bakarra. Mikel Strogoffek sentimendurik azaleratu ez bazuen ere, amorru gorriak beteko zion bihotza beti atzetik zuen zoritxarraren kontra, haren itxaropenak hutsean gelditu baitziren berriz ere.

—Alajainkoa! —oihu egin zuen Nikolasek—. Soldata gutxi irabaziko diat basamortu honetan!

—Lagun hori —esan zion Nadiak adiskidantzaz—, Irkutskeko bidea hartu beharko duk berriz ere gurekin.

—Beharko, bai, benetan! —erantzun zion—. Haria ibiliko dun oraindik Udinsketik Irkutskera, eta hantxe... Zer, aita txiki hori, abiatuko gara?

—Egon gaitezen bihar arte —erantzun zuen Mikel Strogoffek.

—Arrazoi duk —esan zion Nikolasek—. Jenisei zeharkatu behar diagu, eta argia beharko, ikusi nahi badugu!...

—Ikusi nahi! —xuxurlatu zuen Nadiak, bere lagun itsua buruan.

Nikolasek entzun, eta, Mikel Strogoffen alde-  
ra eginez, esan zion:

—Barka ezak, aita txiki! Ai! Eguna eta gaua  
biak dituk ilunak hiretzat!

—Ez zagok zer barkaturik, lagun hori —ihar-  
detsi zion Mikel Strogoffek, eskua begietatik  
pasatzen zuela—. Hi haut gidari, eta aurrera  
segitzen ahal diat horrela. Atsedean har ezak ordu  
batzuetan. Eta Nadiak ere har dezala atsedean.  
Bihar ere argituko dik eguna!

Mikel Strogoffek, Nadiak eta Nikolasek ez  
zuten luzaro bilatu behar izan, gaua emateko  
leku bat aurkitu arte. Pairean gertatu zitzaien  
lehenengo etxeko atea bultzatu eta barrura.  
Hutsik zegoen, gainerako guztiak bezala. Orbel  
sorta batzuk besterik ez zeuden. Hoberik ezean,  
zaldia bazka urri horrekin etsi behar. Kibitkaren  
elikagaiak ez ziren ahitu oraindik, eta nork bere  
parte hartu zuen. Gero, paretan zintzilik zegoen  
Panaghiaren irudi xumearen aurrean belaunika-  
tu, eta Nikolas eta neska gaztea lokartu ziren,  
Mikel Strogoff beilan zegoen bitartean, lo egin  
ezinik.

Biharamunean, abuztuak 26, egunak argia eman baino lehen, kibitkari zaldia lotu eta urki-diaren parkea gurutzatu zuten Jenisei ibaiaren ertzera ailegatzeko.

Mikel Strogoff kezka bizitan zegoen. Nola egingo zuen ibaia gurutzatzeko, txalupa eta gabarra guztiak, itxura zuen bezala, puskatu eta suntsitu egin bazituzten tatariarren ibilia atzertzeko? Mikel Strogoffek bazuen Jeniseiren berri, hainbatetan zeharkatua baitzuen ordurako. Bazekien zabala dela oso, eta ur laster bortitzak dituela uharteen artean zulatutako ibilgu bikoitzean. Egoera normalean, eta bidaztiak, zalgurdiak eta abereak garraiatzeko gabarra berezien bidez, hiru ordu behar dira Jenisei ibaiaz bestaldera pasatzeko, eta zailtasun handiak gaindituz baizik ez dute lortzen gabarrek eskuineko hegira heltzea. Ontzi bat ere gabe, beraz, nola joango zen kibitka ertz batetik bestera?

—Pasako nauk edonola ere! —esaten zuen Mikel Strogoffek behin eta berriz.

Eguna zabaltzen ari zelarik, kibitka ezkerreko ibai ertzera iritsi zen, parkearen ibiltoki ederretako bat amaitzen zen lekura. Toki hartatik, ibaia- ren ibilbidea ageri zen ehun bat oineko distan-

tzian, eta, hortaz, ikuspegia zabal-zabala zen guztiz.

—Gabarrarik ikusten duzue? —galdetu zien Mikel Strogoffek, ohartu gabe begiak alde bate-tik bestera zeramatzala, bera ere ikusteko gai izan balitz bezala.

—Ozta-ozta hasi dik argia urratzen —erantzun zuen Nadiak—. Lanbro lodia zagok oraindik ibaiaren gainean eta ezinezkoa duk ura bereiztea.

—Haren orroa entzuten dinat, ordea! —esan zuen Mikel Strogoffek.

Izan ere, lanbroaren beheko geruzetatik marru gor iskanbilatsua ateratzen zen korronteek eta kontrakorronteek elkar jotzean sortua. Ibaiak ur handia zekarren urte sasoi hartan, eta mendiko uhar baten indarrez isurtzen ari zen, nonbait. Hirurak entzuteari lotu ziren, lanbrozko errezel hura noiz altxatuko zain. Eguzkia arin zihoan zerumugatik gora, eta lehenbiziko izpiek berandu gabe uxatuko zituzten lurrinak.

—Eta zer? —galdetu zuen Mikel Strogoffek.

—Eguzkia lanbroa uxatzen hasi duk, neba —erantzun zion Nadiak—, gero eta zulo gehiago zaudek.

—Ibaiaren maila ez dun ikusten oraindik, arreba?

—Oraindik ez.

—Epe pixkatxo bat har ezak, aita txiki hori —esan zion Nikolasek—. Ezereztu egingo duk-eta laino hori guztia! Begira! Puzka hasi duk haizea! Zuhaitz lerroak agertzen hasi dituk beste hegiko laino altuetan! Dena airean doak! Eguzki errainu ongileek ur bihurtu ditek lurrun pila hori! A! Zein ederra den, nire itsu gizajoa, eta zer zoritxarra hiretzat ezin begiztatzea honelako ikuskizuna!

—Ikusten duk ontzirik? —galdetu zion Mikel Strogoffek.

—Ezta alerik ere —erantzun zion Nikolasek.

—Begira ezak ongi, lagun hori, ibai bazter honetan eta beste aldekoan, begia iristen zaianik eta urrutienara! Ontzi bat, txalupa bat, enbor azalez egindako kanoa bat!

Nicolasek eta Nadiak, amildegiko azken urkietan berme harturik, ibaiaren gainetik atera zuten gorputza, hobeki begiratzeko. Ikusmira izugarri handia agertu zitzairen begien bistan. Jenisei ibaia versta eta erdi zabal da leku hartan, eta bi adar nagusi ditu, bata bestea baino handiagoa. Urak bizi-bizi zihoazen bi adar horietatik aurrera, haltz, sahats eta makalen artetik, eta

hainbat uharte inguratzen zituzten, beste hainbeste itsasontzi berdexka irudi zutenak, ibaian ainguraturik. Harago, ekialdeko hegiaren muino altuak nabarmentzen ziren mailaka, oihanez koroatuak. Zuhaitz lerden haien adaburuak gorriz koloreztatuak zeuden orduko argia zela-bide. Uretan gora eta uretan behera, Jenisei ibaia begietatik galtzen zen urrunean.

Baina ontzirik ez, ez ezkerreko ibai ertzean, ez eskuinekoan, ezta uharteen hegietan ere. Den-denak eraman zituzten edo suntsitu, agindutakoa betez. Ezbairik gabe, tatariarrek puska batean gelditu beharko zuten Jenisei ibaiaren hesian Irkutskera hurbildu ezinik, txalupa zubi bat egiteko materiala hegoaldetik ekartzen ez bazuten, behinik behin.

—Oraintxe gogoratu zaidak —esan zuen Mikel Strogoffek—. Gorago bazagok portu txiki bat, Krasnoiarskeko azken etxeetan. Hor lehorre-ratzen dituk gabarrak. Lagun hori, goazen ibaian gora eta begira ezak ez ote duten txaluparen bat ahaztuta utzi ur izkinan.

Nikolas arin abiatu zen esandako lekurantz. Nadiak Mikel Strogoffi eskutik oratu eta pauso azkarrez gidatu zuen haren atzetik. Txalupa bat, txanel xume bat, zernahi, kibitka sartzeko adina-

koa edo, bestela, gurdian haraino iritsitakoak eramateko tamainakoa, eta Mikel Strogoff beste aldera pasatzen saiatuko zen zalantzarik gabe!

Hogei minutu geroago, portu txiki hartara iritsi ziren hirurak. Herritxo bat ematen zuen, Krasnoiarsk azpian kokatua, eta haren azken etxeak ibaiaren mailaraino beheratzen ziren.

Baina ez zegoen ontzirik hondar gainean, ezta txanelik ere ontziralekuaren oholetan. Deus erabilgarririk ez, hiru lagunentzako almadia bat egiten ahalegintzeko.

Mikel Strogoffek Nikolasi itaundu zion, eta honek gogoia kentzeko moduko erantzuna eman zion. Haren ustez, ibaia ezin zen inola ere zeharkatu.

—Pasako gaituk! —ihardetsi zion Mikel Strogoffek, ordea.

Eta bilatzen segitu zuten. Ibai ertzeko etxe batzuk miatu zituzten. Aski zen ateari bultza egitea. Jende apalen txabolak ziren, eta Krasnoiarskeko guztiak bezain huts eta ezer-gabe zeuden. Nikolasek hau aztertzen zuen, Nadiak beste hura arakatzen. Mikel Strogoff bera ere honetan eta hartan sartzen zen, eta zerbait baliagarria aurkitzen saiatzen zen bere eskuez dena ukituta.

Nikolasek eta neskatzak, nork bere aldetik, alferrik zokomiratu zituzten txabola guztiak, eta bilaketa bertan behera uztekotan zeudela, Mikel Strogoff haiei deika zegoela aditu zuten.

Ur izkinara itzuli eta Mikel Strogoff ikusi zuten ate baten alartzean.

—Zatozte! —garrasi egin zien.

Nikolas eta Nadia berehala bertaratu eta txabolan sartu ziren haren atzetik.

—Zer da hau? —galdetu zuen Mikel Strogoffek, biltegi baten bazterrean pilaturiko gauza handi batzuk eskuez ukitzen zituela.

—Zagiak dituk —erantzun zion Nikolasek—, eta dozena-erdia bazagok, alafede!

—Beteak daude?...

—Bai, *kumyssez* bete-beteak, eta zeinen ederki etorriko zaigun geure elikagaiak berritze-ko!

*Kumyss* hori behor eta gamelu esnez eginda-ko edari bat da, edari bizigarria, baita mozkorgarria ere, eta Nikolas biziki poztu zen aurkikuntza-rekin.

—Zagi bat gorde ezak —esan zion Mikel Strogoffek—, baina hustu itzak gainerakoak.

—Oraintxe bertan, aita txiki.

—Ibaia zeharkatzen lagunduko zigutek.

—Eta ontzia?

—Kibitka bera izango duk, nahikoa arina duk-eta ez hondoratzeko. Gainera, eutsi egingo zioagu zagi hauen bidez, eta baita zaldiari ere.

—Ongi pentsatua, aita txiki —esan zuen Nikolasek oihuka—, eta, Jainkoa lagun, osorik iritsiko gaituk portura... nahiz eta beharbada zuzen-zuzen ez joan, ur lasterra hain bortitza izaki!

—Bost axola! —erantzun zuen Mikel Strogoffek—. Pasa egingo gaituk lehenik; eta gero asmatuko diagu Irkutskeko bidea aurkitzen ibaiaren beste aldean.

—Ekin diezaiogun lanari! —esan zuen Nikolasek, eta segituan hasi zen zagiak husten eta kibitkara garraiatzen.

Zagi bat *kumyss* gorde, eta besteak airez puztu zituzten eta arduraz itxi, flotagailu gisa erabiltzeko. Haietako bi zaldiaren saihetsetan lotu zituzten, zaldia ibai azalean urpera gabe eduki zezaten, eta beste bi kibitkaren endaitzetan ipini, gurpilen artean, gurtetxearen flotazio marrari eusteko.

Gurdia txalupa bihurtu zuten laster batean.

—Beldurrez hago, Nadia? —galdetu zion Mikel Strogoffek.

—Ez, neba —erantzun neskatxak.

—Eta hi, lagun?

—Ni? —oihu egin zuen Nikolasek—. Neure ametsetako bat burutuko diat azkenean: gurdiaz nabigatzea!

Leku hura egokia zen kibitka uretaratzeko, ibai bazterra aldapatsu samarra izanik. Zaldiak herrestan eraman zuen uren ertzeraino, eta aurki zeuden aparailua eta haren motorea ibai azalean igeri. Serko ondoan zihoan, igerian ausart.

Hiru bidaztiak zutik zihoazen gurtetxean. Oinetakoak erantzi zituzten badaezbada, baina, zagiei esker, urak orkatilak ere ez zizkien busti.

Mikel Strogoffek zaldiaren gidak zeramatzan, eta, Nikolasek egiten zizkion oharren arabera, zehar gidatzen zuen zaldia, baina behartu gabe, ez baitzuen nahi erabat nekatzea, korrontearen kontra egin beharrez. Kibitka uren bideari jarraitzen zion bitartean, dena ongi zihoan, eta, minutu batzuen buruan, Krasnoiarskeko kaiak utzi zituen atzean. Ipar aldera lerratzen zen, eta nabarmena zen beste aldean ez zela lehorreratu tuko hiriaren parean, askozaz ere beherago baizik. Baina axola gutxi horrek.

Jenisei zailtasun handirik gabe pasatuko zuten, baita ontzi xelege hartan ere, ur lasterra

erregularra izanez gero, baina, zoritxarrez, hainbat zurrunbilok ur zalapartatsu haien azala zultzen zuten, eta, kibitka laster harrapatu zuen inbutu haietako baten eraginak, Mikel Strogoffek handik urruntzeko erakutsitako adore guztia gorabehera.

Arriskua latza zen. Kibitka ez zihoan jada ekialdeko ur bazterrerantz, aurrera ere ez zihon; biraka ziharduen berebiziko abiaduraz, zurrunbiloaren erdigunera makurtuz, zaldiko bat zirkuaren pistan bezala, gero eta agudoago. Zaldia zurrunbiloan itotzeko zorian zegoen, burua uretatik kanpo ezin edukiz. Serkok euskarri bat bilatu zuen kibitkan.

Mikel Strogoffek zer ari zen gertatzen ulertu zuen. Lerro biribil batek nola erakartzen zituen senti zezakeen, eta nola lerro hori kiribil gero eta txikiagoetan biltzen ari zen. Hitzik ez zuen esan. Haren begiek arriskua ikusi nahi zuten, hobekia-go saihesteko... baina ezin!

Nadia ere isilik. Eskuak gurtesietan ipinita, ontziaren mugimendu bihurriei eusten zien, baina gurdia gero eta gehiago makurtzen ari zen enbutuaren erdira.

Eta Nikolas? Ohartzen ote zen egoeraren larriaz? Lasaitasunez jokatzeko ote zuen, ala

arriskuarekiko mesprezios, kemenez ala axolagabekeriaz? Bizitza zer ote zen haren begietan, hutsaren hurrengoa, edo «bost eguneko ostata», ekialdeko jendeek diotenez, seigarrenean utzi behar duzuna nahi eta nahi ez? Nolanahi ere, instant batean ere ez zitzaion ilundu bere begitarte irribarretsua.

Kibitkak zurrunbiloaren mende segitzen zuen, eta zaldia ezin gehiago iraun. Tupustean, Mikel Strogoffek, enbarazu egingo dioten arropak erantzi, eta uretara bota du bere burua; gero, zaldi izutuaren brida ukabilaz hartuta, tiraldi ikaragarria eman dio eta erakarpen eremutik askatzea lortu. Kibitka, berriz ere korronte biziak bultzaturik, ibaian behera doa arin bai arin.

—Hori duk eta! —bota zuen Nikolasek.

Bi ordu besterik ez ziren igaro ontziralekua utzi zutenetik, eta kibitka, ibaiaren adar nagusia zeharkaturik, uharte baten hegian lehorreratu zen, uretan behera sei versta baino gehiago egin eta gero.

Hantxe, zaldia uretatik atera zuen gurdia, eta ordubeteko atsedenaldea eman zioten abere bihoztunari. Gero, urki bikainen itzalpean uharte osoa gurutzatu eta Jenisei ibaiaren adar txikira heldu ziren.

Errazago zeharkatu zuten bigarren ur adar hori. Zurrunbilorik ez zegoen horretan, baina ur lasterra oso-oso azkarra zen, eta kibitka eskuineko aldera iritsi zenerako, beste bost versta eginak zituzten ibaian behera. Urak hamaika verstaz eraman zituen herrestan, guztira.

Siberiako ibai handi hauek, gaurdaino inolako zubirik ezagutu ez dutenak, oztopo latzak dira batetik bestera aise mugitzeko. Adur txarrekoak izan ziren guztiak Mikel Strogoffentzat. Irtishen, tatariarrek haren gabarrari eraso egin eta lantza kolpe batez zauritu zuten. Obin, bala batek zaldi gabe utzi ondoren, mirariz baino ez zien ihes egin atzetik zetozkion zaldizko uzbekei. Labur esateko, Jeniseiren igaroaldi hau izan zen dene-tan samurrena.

—Ez zuan hain jostagarria izango —jaulki zuen Nikolasek, eskuak batatz bestea igurtzika, ibaiaren eskuin aldean lehorreratu zelarik—, hain zaila gertatu izan ez balitz!

—Ea guretzat zaila baino izan ez den hori —erantzun zion Mikel Strogoffek—, guztiz ezinezkoa den tatariarrentzat.

# VIII

## ERBI BATEK

### ZEHARKATU DU BIDEA

Irkutskeraino bidea libre zuela zuela zezakeen azkenik Mikel Strogoffek. Tatariarrei aurre hartu zien, Tomsken geldiaraziak baitzeuden, eta, emirraren soldaduak Krasnoiarskera iristen zirelarik, hiri abandonatu bat baizik ez zuten aurkituko. Han ez zegoen inolako modurik Jenisei ibaiaren alde batetik bestera laster batean igarotzeko. Beraz, egun batzuetako atzerapena izango zuten, harik eta txalupa zubi batek igarotzen uzten zien arte, eta horrelako lanak kostata baino ezin ziren egin.

Lehenengo aldiz, Ivan Ogareffekin topaketa gaizto hura izan zuenetik, tsarraren mandataria lasaiago zegoen eta helmugaren eta bere artean traba gehiagorik ez zela sortuko espero zezakeen.

Kibitka, hego-ekialderantz hamabost bat versta atzera egin ondoren, estepan barrena urratutako bide luzera iritsi eta hari ekin zion.

Bidea ona zen, ordu arteko onena. Halakotzat jotzen dute, behintzat, Krasnoiarsk eta Irkutsk lotzen dituen tarte hau. Zulo gutxiago lurrean eta astinaldi gutxiago bidaztientzat, itzalgune zabalak eguzki galdatik babesteko, zenbaitetan pinu edo zedro oihan itzelak, ehun versta luze. Akabo zen estepa mugagabe hura, etengabea, zeruarekin bat egiten zuena. Baina huts-hutsik agertzen zen orduan lurralde oparo hura. Herriak bertan behera utziak nonahi; nekazari siberiar bakar bat ere, zeinen artetik arraza eslabiarra nagusi den. Mortua zen hura, baina ez berezko mortua, dakigunez, agindu bidez egindakoa baizik.

Eguraldi ederra zegoen, baina haize hotza zebilen gauean, eta eguzkiak nekez lortzen zuen giroa berotzea. Izan ere, irailaren atarian zeuden, eta latitude altuko eskualde hartan nabarmena da eguzkiak egunez egiten duen arkua gero eta hurbilago igarotzen dela zero ertzetik. Udazkena laburra da alderdi haietan, nahiz Sibiariako eskualde hori ez egon berrogeita hamabosgarren paralelotik gora, hau da, ez Edinburgo eta Kopenhage baino garaiago. Eta, gainera, zenbaitetan uda bukatu orduko hasten da negua, bitartekorik gabe. Goiztiarrak bide dira Asia aldeko

Errusiako neguak, eta arras hotzak ere bai, maiz jaisten baita termometroaren hodia merkurioaren izozte punturaino, eta eramateko moduko temperaturatzat hartzen baitira zero azpitik hogeit hamar gradu zentigraduko batez bestekoak.

Eguraldiak, hortaz, bidaztien alde jokatu zuten. Ez ekaitzik, ez euririk. Beroa neurrikoa, gauak hozkirriak. Nadiaren osasunak eta Mikel Strogoffenak sendo zirauten, eta, Tomsketik irten zirenez geroztik, indarberritzen ari ziren pixkaka-pixkaka lehengo nekeak ahazturik.

Nikolas Pigassof, aldiz, sekula baino sasoi hobean zegoen. Paseo bat zen harentzat bidaiaria hura, txango atsegina bat. Ezin bururatu zeregin hoberik funtzio gabeko funtzionario hari opor egunak emateko.

—Dudarik gabe —zioen—, nahiago diat bizimodu hau egunean hamabi orduz aulki batean pausatu eta traste txiki bati eragin eta eragin jardun baino!

Bien bitartean, Nikolasek zaldiaren ibilera azkartu zuen. Hori erdiesteko, Mikel Strogoffek Nadia eta bera aitarekin elkartzera zihoazela esan zion. Irkutsken atzerriraturik zegoela eta presa handia zutela haraino iristeko. Ezta pentsatu ere zaldia behartzea, esan zion orobat,

zaila baino zailagoa baitzen beste batekin aldatzea; baina, sarritan gelditzen utziz gero, hamabost versta egin aldi oro, esate baterako, aise egingo zituzten hirurogei versta hogeita lau orduko. Gainera, zaldi hark indar handia zuen eta, haren arrazagatik beragatik, gauza zen inondik ere neke handiak pairatzeko. Bidea ez zen larre ederrik gabekoa; belar ugari eta hezea izango zuen bazkatzeko. Horrela bada, lan gehixeago eskatzea bazegoen.

Nikolasek amore eman zuen arrazoi haiek entzunda. Biziki hunkitu zuen aitaren erbestealdia partekatzeraz zihoazen bi gazte haien egoerak. Deus gutxi, hura baino zirrarragarriagorik. Bihotza samur-samur eginik, Nadiari hitz egin zion irribarretsu:

—Zeruko loria! Zer poza hartuko duen Korpanoff jaunak bere begien aurrean ikusten zaituztenean, nolako alaitasunez zabalduko dituen besoak zuek biok besarkatzeko! Irkutskera baldin banoa, eta hala egingo dudala iruditzen zaidan orain, utziko didazue ikusten nola elkartzen zareten aitarekin? Bai, ezta?

Baina gero, kopetan kolpea jo, eta gehitu zuen:

—Baina, bestalde, zer-nolako oinazea bere seme gizajoa itsu dagoela konturatzean! Ai ene! Nolako nahasmendua mundu honetakoa!

Horren guztiaren ondorioa kubitka agudoago ibiltzea izan zen, eta, Mikel Strogoffen kalkuluen arabera, hamar-hamabi versta orduko egiten zuen orain.

Hortaz, bada, abuztuaren 28an Balaiskeko herria igaro zuten bidaztiek, Krasnoiarsetik laurogei verstara; eta 29an, Ribinsk, Balaisketik berrogei verstara.

Biharamunean, hogeita hamabost versta aurrerago, Kamskera iritsi ziren. Aurreko herriak baino handiagoa da, eta izen bereko ibaiak zeharkatzen du Saian mendietatik jaitsi eta Jeniseira isuri baino lehen. Hiri txiki bat besterik ez da. Ikusgarri margotutako etxe zurezkoak, plaza baten inguruan pilaturik, eta, goian gailen, katedralaren kanpandorre garaia, gurutze urreztatua ñir-ñir eguzkipean.

Etxeak hutsak, eliza inor-gabe. Posta etxerik ez, ostatu irekirik ere ez. Zaldi bakar bat ere ez ukuiluetan. Abere bakar bat ere ez estepan. Moskuko gobernuaren aginduak zorrotz-zorrotz bete zituzten. Eraman ezin zena suntsiturik zegoen.

Kamsketik irten eta Irkutskera baino lehen garrantzizko herri bakarra aurkituko zutela jakinarazi zien Mikel Strogoffek bere lagunei, Nijneudinsk izeneko hiri txikia. Nikolasek bazuen haren berri, telegrafo etxea baitzegoen bertan. Eta Kamsk bezain hutsik baldin bazegoen, ekialdeko Siberiako hiribururaino joan beharra izango zuen zeregin bila.

Kibitkak ibi bat igaro zuen erraz aski, Kamsketik harago bidea mozten zuen ibaia zeharkatzeko. Beste alde batetik, ur bide handien beldur ez zuten izan behar Jeniseitik aurrera. Nekeza izan zitekeen Dinka igarotzea, beharbada, baina beste eragozpenik ez zegoen Angara ibairaino iritsi arte, eta Irkutsk hiria Jeniseiren ibaiadar horren eskuin hegian zegoen, hain zuzen.

Ibilaldi luzea izan zen oso Kamsketik hurrengo herrixkaraino, ehun eta hogeita hamar versta ingurukoa. Esan beharrik ez da arauzko geldialdiak egin egin zirela, zeren «horrela egin ezean—Nicolasek zioenez—, zaldiak bidezko erreklamazioren bat aurkezteko eskubidea zuen». Hamabost versta ibili ondoren, atsedena. Akordio hori adostu zuten abere adoretzarekin, eta, kontratu bat egiten denean, animaliekin izanik

ere, kontratuaren klausulak betetzera behartzen du zuzentasunak.

Birusa erreka gurutzatu eta gero, kubitka Birusinsken sartu zen, irailaren 4ko goizean.

Han, zorion handiz, Nikolasek dozena bat *pogatxa* aurkitu zuen labe abandonatu batean, bai eta uretan egositako arroz pila bat ere. *Pogatxa* pastel antzeko bat da, arkume koipez prestatzen dena, eta, dozena hura, arrozarekin batera, bidaiaren hasierako elikagai kasik ahituak ordezkatzeko gorde zuten gurdian, Krasnoiarsken harturiko zagi *kumyssaren* ondoan.

Indarrak berritzeko geldialdi luze bat egin ondoren, bideari lotu zitzaizkion irailaren 5ean, afal ondoan. Bostehun versta baizik ez ziren falta Irkutskera iristeko. Tatariarren abangoardiaren arrastorik ez zegoen haien gibelean. Bere bidaiari traba gehiagorik ez zuela izango pentsa zezakeen azkenik Mikel Strogoffek funtsez. Zortzi egunean, hamar egunean gehienez ere, duke handiaren aurrean egongo zen.

Birusinsketik irtetean, erbi batek zeharkatu zuen bidea, kubitkatik hogeita hamar pausora.

—Ai ene! —oihu egin zuen Nikolasek.

—Zer duk, lagun hori? —galdetu zion bizi Mikel Strogoffek, soinurik txikienak ere erne ipintzen zuela, itsu guztiak bezala.

—Ez duk ikusi?... —esan zion Nikolasek, begitarte irribarretsua supituki goibeldurik.

Eta gehitu zuen:

—Ez, bada! Ez! Ezin izan duk ikusi, eta zorionekoa haiz horregatik, aita txiki hori!

—Baina nik ere ez diat ezer ikusi —esan zuen Nadiak.

—Hainbat hobe, hainbat hobe! Baina, neuk bai ikusi dinat!...

—Zer ikusi duk, ordea! —galdetu zion Mikel Strogoffek.

—Erbi bat, gure bidean gurutzatu dena! —erantzun zion Nikolasek.

Errusian, erbi bat bidazti baten bidean gurutzatzea ezbeharren bat hurbil dagoen seinale da, herri sineste baten arabera.

Nikolasek, sineskeriatsua errusiar gehienen antzera, kibitka gelditu zuen.

Mikel Strogoffek bere lagunaren duda-muda ulertu zuen, nahiz haren sinesberatasunarekin bat ez egin inola ere pasatzen diren erbiak direla-eta, eta lasaitzen saiatu zen.

—Hor ez zagok ezer beldur izatekorik, adiskidea —esan zion.

—Ez, hiretzat ez, ezta Nadiarentzat ere, bazakiat, aita txiki —erantzun zuen Nikolasek—, baina bai niretzat!

Gero gaineratu zuen:

—Halabeharra duk...

Eta zaldia trostan jarri zuen berriro ere.

Hala eta guztiz, eguna ezustekorik gabe joan zen, zantzu gaiztoaren kontra.

Biharamunean, irailaren 6an, eguerdian, kibitka Alsalevskeko herrian gelditu zen. Inguruko eskualde osoa bezain inor-gabe zegoen.

Han, etxe baten alartzean, Nadiak xafla gogorreko bi ganibet aurkitu zituen, ehiztari siberiarrek erabiltzen ohi dituztenetakoak. Bat Mikel Strogoffi eman eta hark arropen artean ezkutatu zuen, eta bestea beretzat gorde zuen. Kibitkari hirurogeita hamabost versta baizik ez zitzaizkion falta Nijneudinskera iristeko.

Nicolasek ezin izan zuen bere betiko umore ona berreskuratu bi egun haietan. Parte txarreko seinale hark lur jota utzi zuen, ez sinesteko moduan, eta haraino ordubete isilik egoteko gauza izan ez zena mututurik geratzen zen luzaro, Nadiak ahaleginez hitz eragiten zion arte.

Haren jokamolde guztiak bihotzean zirrara larria hartua zuela azaltzen zuen, eta hori ez da harritzekoa iparraldeko arrazako gizonengan, haien arbaso aztikeri zaleek sortu baitzuten mitologia hiperboreala.

Jekaterinburgetik aitzina, Irkutskeko bideak latitudeko 55. graduari jarraitzen dio ia paraleloan, baina, Birusinsk pasata, hego-ekialdera jaisten da nabarmen, eta zeharka ebakitzen du 100. meridianoa. Erarik laburrena hartzen du sortaldeko Siberiako hiriburura iristeko, Saian mendien azken maldak gaindituz. Mendi horiek Altai katea handiaren adarrak baino ez dira, zeina berrehun verstako distantziaz ageri den begien bistan.

Kibitka lasterka zihoan, bada, bide hartan aurrera. Lasterka, bai! Nabari zen Nikolasek ez zuela zaldia zaintzen lehen bezala eta hark ere presa zuela lehenbailehen heltzeko. Patua aldatzea gaitza zela etsita egon arren, Irkutskeko harresi barruan baizik ez zuen bere burua segurutzat jotzen. Errusiar anitzek hark bezala pentsatuko zuten, eta batek baino gehiagok zaldia- ren gidei tira egin eta atzera buelta emango zuen, erbia bere bidea gurutzatzen ikusi orduko!

Bien bitartean, han eta hemen gertatzen ari ziren zenbait xehetasunez ohartu, eta zuzen-zuzenak zirela frogatu zen Nadiak Mikel Strogoff jakinaren gainean jarri zuenean. Nahigabeen saila beharbada ez zen haientzat bukatu.

Izan ere, Krasnoiarsketik hona lurraldearen ondasun naturalak beren horretan bazeuden ere, orain oihanek suaren eta burdinaren arrastoa erakusten zuten, bidearen bi aldeetako zelaiak hondatuta zeuden, eta ezagun-ezagun zen tropa handiren bat igaro zela han barrena.

Nijneudinsk baino hogeita hamar versta lehenago, berriki egindako hondamendiaren aztarnak garbi-garbiak ziren, eta tatariarrei baino ezin leporatu.

Orain ez ziren soilik zaldien apoez zanpazanpa egindako zelaiak edo aizkoraz zauritutako oihanak. Bidean zehar sakabanaturiko etxe urriak hutsik ez ezik, batzuk erdi eroriak zeuden, beste batzuk erdi erreak. Bala zuloak ikus zitezkeen haien paretetan.

Aise ulertzekoa da Mikel Strogoffen larritasuna. Zalantzarik ez zegoen, tatariarren andana bat berriki igaro zen bidearen alderdi hartan aurrera, eta, hala ere, ezin inola ere izan emirra- ren soldaduak, ez baitzen posible hari aurrera-

tzea konturatu gabe. Baina, orduan, zein ziren, bada, beste inbaditzaile hauek, eta esteparen zein bide ezkututan barrena iritsi ziren Irkutskeko bide nagusira? Zein etsai mota berriri aurre egin beharko zion oraindik ere tsarraren mandatariak?

Errezelo horien berri Mikel Strogoffek ez zien eman ez Nikolasi ez Nadiari, kezkatu ez zitezten. Bestalde, bere bidaia segitzea erabakia zuen, oztopo gaindiezin batek geldiarazten ez bazuen, behinik behin. Geroago ikusiko zer komeni zen.

Hurrengo egunean gero eta nabariago zen zaldizkoen eta oinezkoen tropa handi bat igaro berria zela. Kea agertu zen han-hemenka zeru ertzean. Kibitka kontuz aurreratzen zen. Herri abandonatuetako etxe batzuk sutan zeuden oraindik, eta sute haiek azken hogeita lau orduen barruan piztuak ziren inondik ere.

Azkenean, irailaren 8an, kibitka gelditu egin zen. Zaldiak ez zuen aurrera jarraitu nahi. Serko intzirika hasi zen.

—Zer dugu? —galdetu zuen Mikel Strogoffek.

—Hildako bat! —erantzun zuen Nikolasek, kibitkatik behera jauzi egiten zuela.

*Mujik* baten gorpua zen. Hotza zegoen, eta moztua eta zauritua ikaratzeko moduan.

Nikolasek aitaren egin zuen. Gero, Mikel Strogoffen laguntzaz, bidearen erlaizera baztertu zuten gorpua. Behar bezala ehortzi nahiko zuen, zulo sakon batean lurperaturik, esteparen sarraskijaleek haren hezur dohakabeak grinaz irents ez zitzaaten, baina Mikel Strogoffek ez zion betarik eman.

—Goazen, adiskidea, goazen! —oihu egin zion—. Ezin gaituk atzeratu ezta ordubetez ere! Eta kibitka abian jarri zen berriz ere.

Dena den, Nikolasek ez zuen behin ere aski egingo, ordutik aurrera Siberiako bide nagusian topatu behar zituzten hildako guztiekin azken egitekoak bete nahi izatera. Nijneudinskeko aldirietan hogeinaka zeuden lurrean barreiatuak.

Bide horri jarraitu behar zioten, harik eta erabat ezinezkoa gertatu arte, inbaditzaileen atzaparretan erori gabe. Ez zuten, bada, ibilbidea aldatu, eta hondamenak eta hondakinak pilatzen ikusi zuten herri orotan. Bizigune haiek guztiak, atzerritar poloniarrek sortuak haien izenei erreparatuz gero, arpilatu eta erraustu egin zituzten gupidarik gabe. Hildakoen odola guztiz gatzatu gabe zegoen oraindik. Eta zoritxarreko gertakari horiek nola jazo ziren jakin nahi izanez gero,

erantzunik ezin inon aurkitu, ez baitzen inor bizi-rik gelditzen galdera egiteko.

Egun hartan, arratsaldeko laurak aldean, Nikolasek Nijneudinskeko elizen kanpandorre garaiak erakutsi zituen hatzez. Haien gainak lurrun kiribil lodiek estaltzen zituzten, eta ez zuen ematen hodeiak zirenik.

Nicolasek eta Nadiak so egin eta ikusitakoaren berri ematen zioten Mikel Strogoffi. Erabakia hartu beharra zeukaten. Hirian inor ez baldin bazegoen, arriskurik gabe zeharka zezaketen, baina, tropa mugimendu ulergaitz batengatik, tatariarrak bertan baldin bazeuden, inguratu egin behar zuten kosta ahala kosta.

—Goazen aurrera! —esan zuen Mikel Strogoffek—. Kontu handiz, baina aurrera!

Beste versta bat egin zuten.

—Ez dituk hodeiak, kea baizik! —esan zuen Nadiak garrasi batean—. Neba, hiria erretzen ari dituk!

Izan ere, begi bistakoa zen. Kedar distiratsuak ageri ziren lurrun haien erdian. Ke zurrunbilo haiek gero eta lodiago bihurtzen ari ziren, eta gora zihoazen zeruan. Bestalde, iheslaririk ez. Beharbada su emaileek hiria hutsik aurkitu eta erretzen ari ziren. Baina, tatariarrak ote

horrela jokatzeko zutenak? Errusiarrak ote, duke handiaren aginduetara? Tsarraren gobernuak erabaki ote zuen Krasnoiarsketik aurrera, Jeniseitik aurrera ez hiririk ez herrixkarik ez uztea emirraren soldaduek aterpe hartzeko modukorik? Eta Mikel Strogoffek zer egin behar zuen? Bertan gelditu ala bidean jarraitu?

Zalantzan zegoen. Hala eta guztiz, aldekoak eta kontrakoak aztertu ondoren, gogoeta bat nagusitu zitzaion. Estepan bidaiatzea neketsua izango zen oso, urratu gabeko bideetan barrena ibiliz gero, baina aukeran nahiago hori tataria-  
rren eskuetan bigarrenez erortzeko arriskuan jartzea baino. Beraz, bide nagusitik ateratzeko proposatu behar zion Nikolasi, eta, bestela ezin bazen, Nijneudinsk atzean utzi arte hartara berriz ez itzultzeko; baina, behingoan, tiro baten desarra entzun dute eskuin aldean. Bala batek txistu egin eta kibitkaren zaldia zerraldo erori da, buruan joa.

Une hartan bertan, hamabi bat zaldizkok bidera oldartu eta kibitka inguratu dute. Mikel Strogoff, Nikolas eta Nadia atzeman eta herrestan daramatzate Nijneudinsk aldera.

Mikel Strogoffek ez zuen batere galdu bere odol hotza, bat-bateko eraso hartan. Etsaiak

ikusi ezinean, pentsatu ere ez bere burua defendatzea. Begien ikusmena galdu gabe ere, ez zen saiatuko. Sarraskia sustatzea izango zatekeen. Baina, ikusi ez arren, entzun eta ulertu egiten zuen zer esaten ari ziren.

Hizkuntzarengatik soldadu haiek tatariarrak zirela ezagutu zuen, eta, berbengatik, armada inbaditzailearen aurretik zihoazela.

Horretaz gain, hona zer jakin zuen Mikel Strogoffek, bai haren aurrean memento hartan esandakoarengatik, bai geroago ustekabeen aditutako elkarrizketa zatiengatik.

Soldadu haiek ez zeuden zuzenean emirraren aginduetara, hura Jenisei ibaiaren atzean gelditua baitzen oraindik. Hirugarren zutabe batekoak ziren, Kokand eta Kunduzeko khanerrietako tatariarrek osatzen zutena gehienbat, eta Irkutskeko inguruetan bat egitekoak ziren Feofarraren armadarekin.

Ivan Ogareffen aholkuz, eta inbasioak ekialdeko probintzietan arrakasta izan zezan ziurtatzeko, armadaren zutabe hau Semipalatinsk probintziaren muga zeharkatu, Balkash aintziraren hegoaldean barrena igaro, Altai mendien oinen ertzetik pasa eta Jenisei ibaiaren goiko aldera iritsi zen, bazter guztiak arpilatzen eta errausten

zituela. Kunduzeko khanerriko ofizial batek egiten zuen buru, eta hark, tsarraren aginduz Krasnoiarren gertatutakoa ez berritzeko eta emirren tropek ibaia erraz gurutzatzeko, txalupa pila bat uretaratu eta ibaian behera jitoan joaten utzi zuen. Haiekin aise igaroko ziren ibaiaren eskuin aldera, bai ontzi gisa erabiliz, bai zubi bat eginda. Gero, hirugarren zutabe hark, mendien oinak inguraturik, Jenisei ibarrean behera jo eta bide nagusia hartu zuen Alsalevsk parean. Hori zela-eta, hondamendi ikaragarria ageri zen nonahi hiri txiki horretatik aurrera, tatariarrek gerra egiteko eraren ezaugarri. Nijneudinsk hiriak jasan berri zuen haien suntsitzeko grina, eta, erraustu ondoren, berrogeita hamar mila tatariarrek hiria bertan behera utzi eta Irkutsk aldera egin zuten, haren aurrean lehenengo tokiak hartzeko. Luza-ro gabe, emirren tropak haiekin batuko ziren.

Halakoa zen egoera garai hartan. Egoera latza ekialdeko Siberiako alderdi hartarako, zeharo isolatua baitzegoen, bai eta haren hiriburuaren defendatzaileentzat ere, banaka batzuk baino ez baitziren.

Hona, bada, laburturik Mikel Strogoffek zeren berri jaso zuen: tatariarren hirugarren zutabea Irkutskeko ateetan zegoela eta berandu gabe

emirraren eta Ivan Ogareffen armada eta hura elkargana bilduko zirela. Horren ondorioz, Irkutsken setioa eta errendizioa denbora kontua besterik ez zen, eta denbora laburreko kontua beharbada.

Erraz asmatzekoa da nolako gogoetak zetozkion burura Mikel Strogoffi! Nor harrituko baldin eta ataka hartan adoreaz erabat gabetzen bazen, itxaropena guztiz galtzen bazuen? Baina ez zen horrela izan, ordea, eta haren ezpainen hitz hauek baizik ez zituzten xuxurlatu:

—Iritsi egingo nauk!

Zaldizko tatariarrek eraso egin eta handik ordu erdira, Mikel Strogoff, Nikolas eta Nadia Nijneudinsken sartu ziren. Txakur leiala atzetik joan zitzaien, baina urrutixko, badaezpada ere. Gaua ez zuten bertan eman behar, hiriari sua eta garra zerion-eta, eta azken taldeak handik irteteko zorian zeuden.

Gatibuak zaldi gainera igoarazi eta agudo eramane zituzten indarrez. Nikolas, etsi-etsian zihoan, beti bezala; Nadia, Mikel Strogoffengana-ko fede dudagabea galtzeke; eta Mikel Strogoff, arduragabe itxuraz, baina ihes egiteko aukerez baliatzeko prest.

Tatariarrak gatibuetako bat itsua zela konturatu orduko, haren bizkar barre egiteko gogoaz piztu zien beren basakeria berezkoak. Arin zebiltzan. Mikel Strogoffen zaldia, gidaririk gabe nora ezean, orain hona orain hara egiten zuen eta destakamendu osoa nahasten. Eta iraindu egiten zuten; zakarkeriaz bultzatzen. Nadiari bihotza erditzen zitzaion, Nikolas sutan jartzen zen. Baina zer egin zezaketen? Ez zekiten tatariarren hizkuntzan, eta batere errukirik gabe erabiliko zituzten zerbaitetan saiatuz gero.

Segidan, gainera, soldadu haiek, beren basakeria zorroztez, Mikel Strogoffen zaldia zaldi itsu batekin aldatzeko burutazioa izan zuten. Zaldizko baten hausnarketak ekarri zuen aldaketa. Honela zioela entzun zuen Mikel Strogoffek:

—Baina ikusi egingo dik beharbada errusiar honek!

Nijneudinsketik hirurogei verstara gertatzen zen hura, Tatan eta Txibarlinskoe herrixken artean. Zaldi itsuaren gainean ipini zuten, bada, Mikel Strogoff, eta bridak eskuratu zizkioten adarra joz. Gero, zartailu kolpeka, harrika, garrasika, ahalik lasterrena korrika eragin zioten zaldiari.

Aberea, haren zaldizko itsuak zuzen ezin gidaturik, noiz zuhaitz bat jotzen zuen, noiz bide-

tik kanpo oldartzen zen. Talkak, baita erorikoak ere, izan zituzten, arras zorigaiztoko ondorioak izan zitzaketenak.

Mikel Strogoffek, ordea, kexarik ez. Saminik agertu ez. Zaldia lurrera erori, eta zain egoten zen noiz altxatuko zuten. Eta altxatu egiten zuten, izan ere, baina jolasarekin segitzeko.

Nikolas, tratu txar haiek ikusita, amorruari ezin eutsirik zegoen. Bere adiskideari laguntzera joan nahi zuen. Baina geldiarazi egiten zuten, eta jipoitu.

Jostaketa hark luzaro iraungo zuen noski, tatariarren gozamenerako, istripu larriago batek bukatu izan ez balu.

Halako batean, irailaren 10ean, zaldi itsua zoratu egin zen. Bide bazterrera atera eta zuzen-zuzen jo zuen lasterka bizian hogeita hamarberrogei oinako zokogune baterantz

Nikolasek atzetik joan nahi izan zuen! Gelditu zuten. Zaldia, gidaririk gabe, zokogunean behera erori zen bere zaldizkoarekin.

Nadiak eta Nikolasek ikarazko oihua bota zuten!... Horrela erorita, beren laguna jo eta txikitua geratuko zela uste zuten, antza.

Baina Mikel Strogoffek salto egin zuen zelatik eta ez zuen zauririk. Zaldia, berriz, bi hanka hau-

tsiak zituela ikusi zuten, altxatzera joan zirenean. Ez zen ibiltzeko gauza.

Hantxe hiltzen utzi zuten, azken tiroa ere eman gabe, eta Mikel Strogoffek, tatariar baten zelatik loturik, oinez jarraitu behar izan zion destakamenduari.

Arrankurarik ez, ordea, kexa bakar bat ere ez! Ibilera arinez zebilen, estekatzen zuen sokak ia tiratzen ez ziola. «Burdinazko gizona» beti ere, Kissoff jeneralak tsarrari esan legez!

Biharamunean, irailak 11, destakamenduak Txibarlinskoe herri txikia igaro zuen.

Orduan oso ondorio larriko gertakari bat izan zen.

Eguna gautu zuen. Zaldizko tatariarrek geldialdi bat egin, eta batzuk gehiago besteak gutxiago, denak mozkortu dira. Bideari berriz ekiteko agindu diete.

Ordu arte soldaduek Nadia errespetatu dute, mirariz, egia esateko. Baina hartan soldadu batek irain egin dio.

Mikel Strogoffek ez du ez iraina ez iraintzaila ikusi, baina Nikolasek bai.

Orduan, lasai-lasai, batere pentsatu gabe, zertan ari zen jabetu gabe agian, Nikolas soldadu horrengana joan, eta, geldiarazteko mugi-

mendurik egin aurretik, haren zelako zorrotik pistola bat atera eta tiro egiten dio bularrean bete-betean.

Destakamenduko burua berehala etorri zen, tiro hotsa entzutean.

Zaldizkoek txiki-txiki egin behar zuten Nikolas dohakabea, baina, ofizialak keinua egin, eta, ongi lotu ondoren, zaldi baten gainean ezarri zuten trabeska. Gero, lauoinka abiatu zen destakamendua.

Mikel Strogoffen lokarria, hark berak marraskatua ordurako, hautsi egin zen zaldiak ezustean tenk egin zuelarik, eta zaldizkoa, mozkorturik, deusi ere ez zion erreparatu, lasterka bizi-bizian handik abiatuta.

Mikel Strogoff eta Nadia bakar-bakarrik gelditu ziren bidean.

## IX ESTEPAN

Mikel Strogoff eta Nadia aske zeuden berriro ere, Permetik Irtysh ibaiaren ur ertzeraingo egon ziren gisan. Baina bai bestelakoak oraingo eta orduko egoerak! Orduan tarantas bat zuten, eroso, zaldiak maiz aldatzen zituzten, eta ongi hornituriko posta etxe batetik bestera zebiltzan, bidaia azkar eta seguru eginez. Orain, oinez joan behar, lokomozio moduren bat lortu ezinik, eskuarterik gabe, eguneroko premiei nola aurpegi eman jakiteke, eta laurhun versta zituzten oraindik egiteko! Eta, gainera, Mikel Strogoffek ez zuen ikusten Nadiaren begien bitartez ez bazen.

Patuak emandako lagun horri dagokionez, kinka gaiztoan galdu berria zuten.

Mikel Strogoff bidearen erlaiz aldera oldartu zen. Nadia, zutik, haren hitz baten esperoan zegoen bideari berriz lotzeko.

Gaueko hamarrak ziren. Hiru ordu eta erdi lehenago sartua zen eguzkia zerumugaren atzealdean. Begi bistan ez etxerik, ezta txabola-

rik ere. Azkeneko tatariarrak galtzen ari ziren urrun-urrunean. Mikel Strogoff eta Nadia bakar-bakarrik zeuden.

—Zer egingo diote gure lagunari? —deiadar egin zuen neskatxak—. Nikolas gizajoa! Zorigaitzera eraman dik gurekin topo egin izanak!

Mikel Strogoffek ez zuen erantzun.

—Mikel —jarraitu zuen Nadiak—, ez dakik hire defentsan atera dela tatariarren jostailu hintzenean, niregatik jarri duela bizitza arriskuan?

Mikel Strogoff isilik beti. Geldi-geldirik, burua eskuen artean, zer zerabilen buruan? Nadiari ez zion erantzuten, baina entzun egin zion berba egiten zionean?

Bai! Entzuten zion, zeren neskak beste galde-  
ra bat egitean:

—Nora eramango haut, Mikel?

—Irkutskera —erantzun zuen.

—Bide nagusian barrena?

—Bai, Nadia!

Mikel Strogoff helburura edonola ere iritsiko zela zin egindako gizon berbera zen oraindik ere. Bide nagusian barrena joatea biderik laburrena hartzea zen. Feofar Khanen armadaren aitzindariak agertuz gero, garaia izango zen bidetik kanpo saiatzeko.

Nadiak Mikel Strogoffi eskutik berriro oratu eta abian jarri ziren.

Biharamunean, irailaren 12an, hogeitaz hamar urrunago, Tulunovskoeko herrian, geldialdi txiki bat egin zuten biek. Errea zegoen, eta inor ere gabe. Gauean, Nikolasen gorpua bidean utzi ote zuten bilatu zuen Nadiak, baina alferrik miatu zituen hondakinak, alferrik begiratu hildakoen artean. Ordu arte Nikolas bizirik zegoela zirudien. Baina, ez ote zeukaten horrela, Irkutskeko kanpamentura iristean tormentu ankerra noziazteko?

Biak goseak zeuden. Mikel Strogoffi urdailak gogor estutzen zion, eta Nadia akiturik zegoen ahora zer eraman gabe. Baina zoria aldekoa izan zuen, eta okela lehor pixka bat aurkitu zuen herriko etxe batean, bai eta *sukari* batzuk ere, lurruntzez idorturiko ogi zatiak, elikadura gaitasuna behin ere galtzen ez dutenak. Mikel Strogoffek eta neskatxak eraman ahal guztia hartu zuten. Jana ziurtatua zeukaten, behintzat, hainbat egunetarako; eta, ura zela-eta, faltarik ez zen izango Angara ibaiaren mila adar txikiek ureztatutako eskualde hartan.

Bidean berriz ere. Mikel Strogoff urrats ziu-  
rrez zebilen eta bere bidelagunarengatik baino

ez zuen ibilera moteltzen. Nadiak atzean gelditu nahi ez eta ahalegin handiak egiten zituen. Beharrik, haren lagunak ezin zuen ikusi nolako egoera tamalgarrian ipini zuen nekeak.

Mikel Strogoff ohartu egiten zen, hala ere.

—Leher eginda hoa, ume gaixo hori —esaten zion noizetik noizera.

—Ez —arropostu eman hark.

—Ibiltzeko gai ez bahaiz, nik eramango haut, Nadia.

—Bai, Mikel.

Egun hartan Oka erreka zeharkatu behar izan zuten, baina ibi eroso bat aurkitu eta zailtasunik batere ez zien eman.

Goi estalia zegoen, temperatura epela. Beldur izatekoa zen, hala ere, eguraldiak ez zuen euritara egingo, zorigaitza areagotuz. Zaparrada batzuk ere bota zituen, baina ez zuten luze iraun.

Aurrera zihoazen beti, eskua elkarri oraturik, ia mintzatu gabe, Nadia aitzina eta gibelera begira. Egunean bi aldiz gelditzen ziren. Gauean sei orduz hartzen zuten atsedean. Txabola batzuetan, Nadiak arkume okela apur bat aurkitu zuen. Oso okela arrunta zen alderdi haietan,

eta librak ez zuen balio bi kopek eta erdi baino gehiago.

Baina, beharbada Mikel Strogoffek espero zuenaren kontra, zamari bakar bat ere ez zegoen eskualde guztian. Zaldiak, gameluak, denak akabatuak edo lapurtuak. Oinez segi behar derri-gorreetan estepa amaigabe hartan aurrera.

Hirugarren zutabe tatariarraren arrastoak ez ziren falta. Hemen zaldi bat hila, han gurdi bat bazterrean botea! Irkutsk aldera zihoan soldadu andana, eta zoritxarreko siberiar ugariren gorpuek markatzen zuten haien bidea. Herrien sarreretan pilatzen ziren hildakoak batez ere. Nadiak, nazkari gaina harturik, hilotz haiek guztiak begiratzen zituen!...

Labur esanda, arriskua ez zegoen aurrean, atzean baizik. Emirraren armada nagusiaren abangoardia noiznahi ager zitekeen, Ivan Ogarreffin buruzagitzapean. Jenisei ibaiaren goialdetik bidalitako txalupak Krasnoiarsken egongo ziren horrezkero, eta segidan igaroko zuten ibaia, haiek erabiliz. Bidea libre zegoen inbadi-tzaileentzat. Errusiarren armadak ezin ezer egin haien ibilaldia eteteko Krasnoiarsketik Baikal aintziraraino. Lehenengo esploratzaile tataria-

rrak noiz baino noiz agertuko zirela espero zuen, beraz, Mikel Strogoffek.

Hortaz, bada, geldialdi guztietan Nadia gainen batera igo eta adi-adi begiratzen zuen mendaldera, baina inolako hauts hodeirik ez zen agertzen zaldizko tropak hurbiltzen ari zirela iragartzeko.

Gero, bidean jartzen ziren berriro, eta Mikel Strogoffek, Nadia gaixoa herrestan zeramala sentitzen zuenean, ibilera mantsotzen zuen pixka bat. Gutxitan mintzatzen ziren, eta Nikolasez baizik ez. Neska gazteak ongi itsatsita zuen gogoan egun batzuetako lagun hark beren alde egindako guztia.

Erantzuterakoan, Mikel Strogoff saiatzen zen Nadiari itxaropen pittin bat ematen, berak ñimiñoena ere ez bazuen ere, ongi baino hobeki baitzekien koitadu hura ez zela heriotzatik libratuko.

Egun batez, Mikel Strogoffek zera esan zion neska gazteari:

—Ez didan sekula hitz egiten neure amaz, Nadia?

Haren amaz! Nadiak ez zuen nahi. Zertarako biziagotu oinazea? Hilik ez zegoen bada siberiar zahar hura? Semeak ez zion bada azken musua

eman Tomskeko goi lautadan etzanik zegoen amaren gorpuari?

—Hitz egin iezadan amaz, Nadia —esan zuen Mikel Strogoffek, ordea—. Hitz egin! Atsegin emango didan!

Eta orduan Nadiak ordu arte egin ez zuena egin zuen. Marfaren eta bere artean gertaturiko guztia kontatu zion. Nola egin zuten topo Omsken lehenengo aldiz. Nola sen ulertezin batek bultzatu zuen gatibu zahar harengana inondik inora ezagutu gabe. Nola zaindu zuen, eta nola-ko adorea jasotzen zuen trukean. Garai hartan, Mikel Strogoffen azpian Nikolas Korpanoff baino ez zegoen harentzat.

—Hobe niken hala segitu izan banu! —erantzun zuen Mikel Strogoffek, kopeta ilun.

Geroago gehitu zuen:

—Ez dinat nire zina bete, Nadia. Ama ez ikusteko zina egin ninan!

—Baina hi ez hintzen haren bila joan, Mikel! —esan zion Nadiak—. Halabeharrak baino ez hinduen jarri haren aurrean!

—Neure nortasuna ez nuela agertuko zin egin ninan, gertatzen zena gertatzen zela!

—Mikel, Mikel! Zartailua hire amaren kontra nola altxatzen zuten ikusi eta geldirik egongo

hintzen? Ez! Inolako zinak ezin dik galarazi semeak amari laguntzea!

—Ez dinat neure zina bete, Nadia —berriz Mikel Strogoffek—. Barka nazatela Jainkoak eta Aitak!

—Mikel —esan zion Nadiak orduan—, badiat galdera bat egiteko. Ez erantzun, hala egin behar duala uste baduk. Ez diat minik hartuko, hiregandik etorriz gero.

—Esan ezan, Nadia.

—Zergatik duk orain horrenbesteko presa Irkutskera iristeko, tsarraren gutuna kendu badiate?

Mikel Strogoffek indartsu estutu zuen bere bidelagunaren eskua, baina erantzunik ez zion eman.

—Bahekien, bada, zer jartzen zuen gutun horretan Moskutik atera baino lehen? —itaundu zion Nadiak.

—Ez, ez nekinan.

—Pentsatu behar dut, Mikel, nire aitaren besoetan utzi nahi naualako bahoala Irkutskera, beste arrazoirik gabe?

—Ez, Nadia —erantzun zion Mikel Strogoffek serio—. Iruzur egingo ninake horrelakorik sines-ten utziko banin. Betebeharrak agintzen didan

tokira noan! Eta hi Irkutskera eramateaz, Nadia, orain ez haiz heu ni naramana? Ez dut ikusten hire begien bitartez, ez nau hire eskuak gidatzen? Ez dizkidan ehun aldiz itzuli hiregatik egin bide nituenak? Ez zakinat zoritxarrak inoiz utziko gaituen bakean, baina hire aitaren besoetan utzi izana eskertzen didanan egunean, nik Irkutskera eraman izana eskertuko dinat!

—Mikel gizajoa! —esan zion Nadiak hunkiturik—. Ez hitz egin horrela! Ez duk hori eskatzen diadan erantzuna. Mikel, zergatik duk orain horrenbesteko presa Irkutskera iristeko?

—Ivan Ogareff baino lehen iritsi behar dudalako! —garrasi egin zuen Mikel Strogoffek.

—Baita orain ere?

—Baita orain ere. Eta iritsi egingo naun!

Eta, hitz horiek ahoskatzerakoan, Mikel Strogoff ez zen mintzo traidorearekiko gorrotoz bakarrik. Nadiak ulertu zuen bere lagunak ez ziola den-dena esaten, bai eta den-dena ezin ziola esan ere

Handik hiru egunera, irailaren 15ean, Kuitunskoeko herrixkan sartu ziren, Tulunovskoetik hirurogeita hamar verstara. Neska gaztea ahiturik zebilen. Bere oin minberatuek ozta-ozta eusten zioten zutik. Baina aurrera egiten zuen,

nekearen aurka borrokan, eta hauxe zuen pentsamendu bakarra:

«Ikusi ezin nauenez, aurrera segituko dinat erortzen naizen arte!»

Beste alde batetik, trabarik ez zegoen bat ere bidearen tarte hartan, arriskurik ere ez, tatariarrek joan zirenetik. Nekea nekearen gainean besterik ez.

Hurrengo hiru egunean, horrela izan zen. Nabarmena zen inbaditzaileen hirugarren zutabea gero eta urrunago zegoela ekialdean. Atzean lagatako hondakinetan ezagun zen hori: kerik ez zerien errautsei, jada ustelduak zeuden lurrean zeutzan gorpuak.

Mendebaldean ere, deus ez. Emirraren abangoardia ez zen ageri. Mikel Strogoffek aierurik sinesgaitzenak zerabiltzan buruan atzerapen hura azaltzeko. Errusiarrek mehatxu egiten ote zieten tatariarrei Tomsken edo Krasnoiarsken zuzenean eta nahiko kopuruan? Arriskua ote zuen hirugarren zutabeak beste bietatik bakar-turik gelditzeko? Horrela izatera, aise defendatuko zuen duke handiak Irkutsk, eta, inbasio baten kontra irabazitako denbora lehenengo urratsa da hura behin-betiko azpian hartzeko.

Mikel Strogoffek batzuetan itxaropen horiek bere burua kulunka zezaten uzten zuen, baina segituan konturatzen zen ameskeriak baino ez zirela, eta bere buruarengan baizik ez zuen konfiantzarik ezartzen, duke handiaren salbazioa haren eskuetan baino egon izan ez balitz bezala.

Hirurogei versta zeuden Kuitunskoetik Kimilteiskoeko herrixkara, eta handik oso hurbil igarotzen da Dinka ibaia, Angararen adarra. Mikel Strogoffek errezelo txarra hartzen zuen ur bide handi samar horrek bidean jartzen zien eragozpenaz pentsatzen zuela. Ez gabarrarik ezta txaluparik ere ezin inola ere aurkitu, eta gurutzatze-ko ibirik apenas zuela oroitzen zen, sasoi zoriontsuagoetan zeharkatua baitzuen zenbaitetan. Baina, ibai horren beste aldera pasaturik, ez ibairik ez errekarik ez zuen topatuko handik Irkutskeraino falta ziren berrehun eta hogeita hamar verstako bidean.

Hiru egun eman behar Kimilteiskoera iritsi arte. Nadia arrastaka zebilen. Gogoia kementsua zuen, izan ere, baina gorputza nekepean. Mikel Strogoff ederki jabetzen zen haren egoeraz.

Itsu egon ez balitz, Nadiak esango zion:

—Segi, Mikel, utz nazak txabolaren batean!  
Irits hadi Irkutskera! Bete ezak heure egitekoa!

Ikus ezak nire aita! Esaok non nagoen! Esaiok haren zain nagoela, eta bien artean jakingo duzue ni aurkitzen! Segi! Ez nauk beldur! Tata-riarrek ez naitek harrapatuko! Aitarentzat gordeko nauk; hiretzat! Segi, Mikel! Ezin diat gehiago!...

Behin baino gehiagotan, Nadiak gelditu behar izan zuen. Orduan besoetan hartzen zuen Mikel Strogoffek, eta, berak eramanda neskatxaren nekeaz arduratu beharrik gabe, agudoago ibiltzen zen, bere pauso nekagaitzaz.

Irailaren 18an, gaueko hamarretan, Kimilteiskoera heldu ziren azkenean. Muino baten gainetik, Nadiak lerro argixeagoa begiztatu zuen zeru ertzean. Dinka ibaia zen. Tximista batzuk islatzen ziren uretan, trumoirik gabe, eta eguratsa argiztatzen.

Nadiak bere laguna gidatu zuen herrixkaren hondakinen artetik. Suteen errautsak hotz zeuden. Bospasei egun joanak ziren gutxienez azken tatariarrak han barrena pasa zirenez geroztik.

Herriko azken etxeetara iristean, Nadiak harrizko banku batean bota zuen bere burua.

—Geldituko gara pixka batean? —galdetu zion Mikel Strogoffek.

—Gaua duk, Mikel —erantzun zion Nadiak—. Ez duk atsedeen hartu nahi ordu batzuetan?

—Dinka igaro nahi ninan. Ibaia emirraren abangoardiaren eta gure artean jartzea nahi ninan. Baina hi ezin haiz ezta arrastaka ere ibili, Nadia gaixoa!

—Hator, Mikel —erantzun zion Nadiak, bere lagunari eskutik oratu eta aurrera eramanez.

Handik bizpahiru verstara mozten zuen Dinka ibaiak Irkutskeko bidea. Bere bidelagunak eskaturiko azken ahalegina egin nahi izan zuen neska gazteak. Hara abiatu ziren, bada, tximisten argipean. Basamortu azkengabeen zihoazen aurrera, non erreka hura erdi galduan isurtzen zen. Zuhaitzik ez, tontorrik ez, lautada zabal hartan gailen. Han hasten zen berriz ere Siberiako estepa. Haize zantzurik ez eguratsean. Giroa barebare, soinurik txikiena lau aldetara hedatuko zen oztoporik gabe.

Bat-batean, Mikel Strogoff eta Nadia bertan gelditu ziren, hankak lurreko pitzadura batean sartu eta ezin atera balituzte bezala.

Zaunka batek zeharkatu berri du estepa.

—Entzun duk? —esan zuen Nadiak.

Gero, intziri bat, atsekabezko txilio bat, hil hurren dagoen gizaki baten azken deia irudi.

—Nikolas, Nikolas! —oihu egin du neska gazteak, bihozkada makur batek eraginda.

Mikel Strogoffek, belarria erne, burua astindu du.

—Hator, Mikel, hator —esan dio Nadiak.

Arestian pausorik ezin egin bazuen ere, neskak indarrak bildu ditu supituki, asalda-asalda eginda.

—Bidetik atera gara? —galdetu dio Mikel Strogoffek, hautsez beteriko zoruaren ordeztan belar motza zapaltzen ari dela oharturik.

—Bai... beharrezkoa duk!... —erantzun Nadiak—. Handik, eskuin alde horretatik etorri duk garrasia!

Minutu batzuk geroago, ibaitik versta erdira baino hurbilago daude biak.

Beste zaunka bat entzun da, baina, ahulagoa izan arren, hurbilagotik dator inondik ere.

Nadia gelditu egin da.

—Bai! —esan du Mikelek—. Serko ari dun zaunkaka!... Nagusiari jarraitu zion!

—Nikolas! —oihu egin du neskatxak.

Baina erantzunik ez.

Hegazti harrapari batzuk aireratu dira baka-rik, eta zero goietan galdu.

Mikel Strogoffek belarria zorroztu du. Nadia lautada hartara begira dago. Argizko isuriak nonahi ageri dira dir-dir, ispilu batean legez, baina ez du ezer ikusi.

Baina ahots bat goratu da berriz ere, eta doinu urrikgarriaz xuxurlatu:

—Mikel!

Gero, txakur batek jauzi egin du Nadiarengana, guztiz odoldurik. Serko da.

Nikolas bertan egon behar! Hark baizik ezin xuxurlatu Mikelen izena! Non dago? Deitzeko indarrik ere ez du Nadiak.

Mikel Strogoff eskuaz bilatzen ari da, narra-sean.

Halako batean, Serkok zaunka egin eta lur arrasetik hegan doan hegazti erraldoi baten kontra oldartu da.

Putre bat da. Serkok haren kontra egitean, gora joan da hegan, baina, atzera itzuli eta txakurra zauritu du! Honek jauzi berriz putrearengana!... Baina mokokada izugarri batek buruan jo eta Serko hilik erori da lurrera.

Horrekin batera, oihu lazgarri bat ateratu da Nadiaren eztarritik.

—Hortxe... hortxe! —esan du.

Buru bat irteten da lur arrasetik! Harekin estropezu egingo zuen, zeruak esteparen gainera jaurtitzen duen argitasun biziarengatik ez balitz.

Nadia belauniko jarri da buru haren aldamean.

Nikolas leporaino lurperatua dago, tataria-  
rren usadio basatiari jarraituz. Esteparen erdian  
utzi zuten, goseak eta egarriak hiltzeko, edo  
otsoen letaginek eta hegazti harraparien moko-  
ek akaba zezaten. Tortura ikaragarria zoruan  
sartua dagoen errukarriarentzat, lurrak sakatu-  
rik, askatu ezinean, besoak gorputzean lotuta,  
gorpua hilkutxan bezala! Torturatuak, bizirik  
buztinezko molde hautsezin horren barruan,  
herioa lehenbailehen etortzeko eskatu besterik  
ezin egin, baina beti iristen da motelegi!

Hantxe lurperatu zuten tatariarrek beren pre-  
soa hiru egun lehenago!... Hantxe eman zituen  
Nikolasek hiru egun laguntza zain, baina beran-  
duegi iritsi zitzaion!

Putreek lur arraseko buru hari erreparatu, eta  
ordu batzuk paseak ziren txakurra bere nagusia  
hegazti anker haien kontra defendatzen hasi  
zenetik!

Mikel Strogoffek lurra zulatu zuen ganibeta-  
rekin izaki bizi hura hobitiko ateratzeko.

Nikolasen begiak, itxiak ordu arte, ireki egin  
ziren berriz ere.

Mikel eta Nadia ezagutu zituen. Gero:

—Adio, lagunak —xuxurlatu zuen—. Pozik  
nago zuek berriz ikusita! Otoitz egin nire alde!

Eta horiek izan ziren haren azkeneko hitzak.

Mikel Strogoffek lurra zulatzen segitu zuen.  
Zanpa-zanpa eginda zegoen, harkaitza bezain  
gogor. Hala ere, koitadu haren gorputza atera-  
tzea lortu zuen azkenik. Bihotzak taupada egiten  
ote zuen entzun... baina bat ere soinurik ez zen  
bular hartan!

Ehortzi nahi izan zuen orduan, estepan age-  
riz egon ez zedin, eta Nikolas bizirik lurperatze-  
ko egindako zulo hura bera zabaldu eta handitu  
egin zuen hilik etzanda jartzeko! Eta haren ondo-  
an Serko txakur leiala kokatuko zuen!

Une hartan, iskanbila handia izan zen bidean,  
handik versta erdira gehienez ere.

Mikel Strogoffek entzun egin zuen.

Zaldizkoen destakamendu bat bazetorren  
Dinka aldera.

—Nadia! Nadia! —deitu zion ahopean.

Nadia otoitzean zegoen, eta haren ahotsa entzutean, tente jarri zen.

—Begira ezan! begira ezan! —esan zion.

—Tatariarrak! —erantzun zion xuxurla batean.

Emirraren abangoardia zen, izan ere, eta bizi-bizi zihoan Irkutskeko bidean aurrera.

—Ehortzi egingo dinat! Ez zidaten eragotziko!  
—esan zuen Mikel Strogoffek.

Eta lanean segitu zuen.

Nikolasen gorputza, eskuak bularrean bata bestearen gainean, etzanda gelditu zen hilobi hartan. Mikel Strogoffek eta Nadiak, belauniko, otoitz egin zuten azken aldiz izaki dohakabe, bakezale eta on haren alde, zeinak bizitzaz ordaindu zuen haienganako atxikimendua.

—Eta orain —esan zuen Mikel Strogoffek, lurra botatzen zuela—, estepako otsoek ezin izango dituen irentsi!

Gero, eskua mehatxuka luzatu zuen igarotzen ari ziren zaldizkoen troparantz.

—Aurrera, Nadia! —esan zuen.

Mikel Strogoffek ezin bideari jarraitu, tatariarrek hartzen baitzuten. Estepan barrena oldartu behar eta Irkutskera itzulinguruka iritsi. Kezkatu beharrik ez, beraz, Dinka zeharkatzeagatik.

Nadia arrastaka ere ez zen gauza ibiltzeko, baina ikusi egiten zuen haren partez. Besoetan hartu zuen eta probintziaren hego-mendebaldean barneratu zen.

Ehun verstatik gora gelditzen zitzaion ibiltzeko. Nola egin ote zuen? Nola ez zuen nekeak abaildu? Nola elikatu zen ibilaldi hartan? Nondik bildu zuen halako kemen egundokoa Saian mendien lehenbiziko maldak gainditzeko? Ez Nadiak ez berak ezin esango zizuten!

Eta, hala eta guztiz, hamabi egun geroago, urriaren 2an, arratsaldeko seietan, urezko hedadura mugagabe bat zabaltzen zen Mikel Strogoffen oinetan.

Baikal aintzira zen.

# X

## BAIKAL ETA ANGARA

Baikal aintzira mila eta zazpiehun oineko garaieran dago itsas mailatik gora. Bedera-tziehun bat versta da luze eta ehun bat zabal. Zenbateko sakonera duen inork ez daki. Bourboulon andreak kontatzen duenez, hango mari-nelen arabera, «itsaso amandrea» dei diezaioten nahi du. «Aintzira jauna» deituz gero, ernegatu egiten da berehala. Hala ere, elezaharrak dioenez, sekula ez da bertan errusiarrik ito.

Ur gezazko putzu izugarri handi horri mendi bolkaniko sorta aparta batek jartzen dio markoa. Hirurehun ibaiek baino gehiagok hornitzen dute aintzira, eta gainezkabide bakarra du, Angara ibaia, zeina, Irkutsk gurutzatu eta gero, Jeniseira isurtzen den. Tunguz mendien adar bat eratzen dute inguruko tontorrek, Altai sistema orografiko zabalaren parte bat osatzen dutela.

Jadanik sasoi hartan eguraldia hotzetik zen. Eskualde hartan gertatzen ohi denez, negu goiz-tiarrak udazkena beretzat hartu behar zuela irudi zuen, hango giro berezia zela bide. Urriaren

lehenengo egunak ziren. Eguzkia arratsaldeko bostetan sartzen zen zerumugan eta gau luzeek zero azpitik jaitsarazten zuten termometroen temperatura. Lehenengo elurrek zurituak zituzten ordurako Baikalen ondoko mendi gailurrak, udara arte horrela iraungo zutenak. Negu siberiarrean, lerek eta karabanek zeharkatzen dute lehorreko itsaso hori, hainbat oinetako izotz geruzaren gainean ibiliz.

Dela norbaitek gizalegea ahaztu eta «aintzira jauna» deitzen diolako, dela arrazoi meteorologikoago batengatik, Baikalen ekaitzak bortitzak izaten dira. Haren olatuak laburrak dira mediterraneo guztietan bezala, eta beldurra sortarazten diete udan nabigatzen duten almadia, txalupa eta *steam-boatei*.

Aintziraren hego-mendebaldeko muturrera iritsi zen Mikel Strogoff, Nadia besoetan zeramala. Neskaren bizitasun osoa begietan bildurik zegoen, nolabait esateko. Zer espero zezaketen biek probintziaren paraje basa hartan, nekez eta gosez hiltzea besterik? Eta, bestalde, zenbateko tartea falta zitzaion tsarraren mandatariari helmugara iristeko sei mila verstako ibilbide luze hartatik? Hirurogei baino ez, aintziraren ertzean barrena Angarako ahorraino, eta beste laurogei,

Angarako ahotik Irkutskeraino: guztira, ehun eta berrogei versta, hau da, hiru eguneko bidaia, gizon indartsu sasoiko batentzat, oinez joanda ere.

Mikel Strogoff, ordea, gizon hori izan zitekeen oraindik?

Zeruak, inondik ere, ez zion proba hori pasarazi nahi izan. Behingoz samur tratatu zuen harekin ordu arte hain anker jokatu zuen halabeharrak. Baikaleko mutur hura, inor gabe zegoela uste zuen estepa alde hura, ez zegoen hutsik une hartan.

Berrogeita hamar bat laguneko talde bat zegoen aintziraren hego-mendebaldeko punta eratzen duen angeluan.

Nadiak talde hura ikusi zuen lehenengoz, Mikel Strogoff, neskaxa besoetan, mendien arteko mehakatik irten zelarik.

Neska gaztea izutu egin zen instant batean, talde hura ez ote zen destakamendu tatariar bat, Baikaleko ur izkinak miatzeko bidalia. Hala izate-ra, ezin ihesi joan.

Baina Nadia segituan lasaitu zen hori zelata.

—Errusiarrak! —garrasi egin zuen.

Eta, azken ahalegin horren ondotik, betazalak itxi eta burua erori zitzaion Mikel Strogoffen bularraren gainera.

Baina errusiarrek ikusi zituzten. Haietako batzuk haiengana lasterka joan ziren eta hondartza txiki baten ertzeraino eraman. Almadia bat zegoen han amarratua.

Abiatzeko prest zeuden.

Errusiar haiek iheslariak ziren, mota desberdinetakoak, Baikaleko puntu hartara bildu zirenak interes berberak bultzaturik. Tatariarren esploratzaileek atzera eragin eta Irkutsken babesa bilatu nahi zuten. Lehorrez, ostera, ezin joan, inbaditzaileek Angarako bi ur bazterrak hartuak baitzituzten, eta urez iristea espero zuten, hiria zeharkatzen duen ibaian behera eginez.

Asmo hark taupadak azkartu zizkion Mikel Strogoffen bihotzari. Azken aukera sortu zen haren jokoan. Baina itxura egiteko indarra izan zuen, egiatan nor zen inoiz baino gehiago ezkuntuan eduki nahirik.

Iheslarien asmoa oso erraza zen. Baikal aintzirak badu ur korronte bat goiko hegia inguratu eta Angarako ahoraino doana. Korronte horretaz baliatu nahi zuten lehenik, Baikaleko gainezkabi-dera iristeko. Gero, ibaiaren ur lasterrek puntu

horretatik Irkutskera eramango zuten berekin, hamar-hamabi versta orduko. Egun eta erdian hiria begien bistan izan behar.

Leku hartan ontzirik ez zegoenez, ordezkoa asmatu behar izan zuten. Almadia bat osatu zuten, Siberiako ibaietan behera jaisten ohi direnen gisara. Ur bazterreko mendi kasko batean pinudia zegoen eta hark hornitu zien ur gainean irauteko materiala. Enborrek, batzuk besteekin zumez loturik, gainazal handi bat eratzen zuten ehun lagun aise hartzeko modukoa.

Almadia horren gainera eraman zituzten Mikel Strogoff eta Nadia. Neska gaztea bere senera etorria zen. Zerbait jateko eman zioten, bere lagunari bezala. Gero, orbelezko ohatze batean etzan eta aurki zegoen lo zerraldo.

Galdekatu ziotenei Mikel Strogoffek ez zien deus ere azaldu Tomsken gertatutakoez. Krasnoiarkeko biztanlea zela esan zien, eta ezin izan zela Irkutsken babestu emirraren tropak Dinka ibaiaren ezker hegira iritsi aurretik. Eta gehitu zien tatariarren armada Siberiako hiriburuaren aurrean finkaturik egongo zela segur aski.

Alferrik galtzeko astirik ez, beraz. Gainera, giroa gero eta hotzago zegoen. Tenperatura zero azpira jaitsi zen gauean. Izotz puska batzuk sor-

tuak ziren Baikaleko ur gainean. Almadia bat erraz mugitzen da aintziran hara eta hona, baina ezin era berean egin Angararen ur ertzen artean, izotz puska horiek bidea oztopatuz gero.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, bada, lehenbailehen abiatu behar zuten iheslariek.

Gaueko zortzietan amarrak askatu eta, ur korrontearen eraginez, almadia ur izkinatik hurbil hasi zen nabigatzen. Zenbait *mujik* mardulek haga handi bana zuten eskuetan, eta hura aski zen norabidea zuzentzeko.

Baikaleko marinel zahar batek hartu zuen almadiaren agintea. Hirurogeita bost urte inguruko gizona zen, aintzirako haizeak beltzaran-dua. Bizar zuri itxi-itxia bularrean behera jaisten zitzaion. Larruzko txanoak burua estaltzen. Itxura latza zuen eta serioa. Bere hupelanda zabal luzea, gerruntzean estuturik, orpoetaraino ailegatzeko zitzaion. Agure uzkur hark, txopan eserita, keinuka agintzen zuen eta hamar ordutan hamar hitz baino gehiago ez zuen esaten. Beste alde batetik, zeregin xumea zen, almadia kosta ondoko korrontearen barruan edukitzea, besterik ez, aintziraren erdi aldera joaten utzi gabe.

Mota desberdinetako errusiarrak aurkitzen ziren almadian, arestian esan bezala. Gehienak

bertako *mujikak* ziren, gizonak, andreak, zahar-  
rak eta haurrak, baina bizpahiru erromes elkar-  
tu zitzaizkien, inbasioak beren erromesbidean  
harrapatuak, bai eta fraide batzuk eta pope bat  
ere. Erromesak kantari zihoazen, bidai makila  
eskuan, ur ontzia gerritik zintzilik. Bat Ukrainatik  
zeterren, beste bat Itsaso Horitik eta hirugarrena  
Finlandiako probintzietatik. Azken hori adin han-  
diko gizona zen, eta limosna ontzi bat zeraman  
gerrian giltzarrapoz itxia, elizetako pilareetan  
esekita daudenak bezalakoa. Ezer ez zen haren-  
tzat bidaia luze neketsu hartan biltzen zituen  
sositatik, eta katea haien giltza ere ez zeukan.  
Abiapuntura itzultzean baizik ez zen berriz ireki-  
ko.

Fraideak inperioaren ipar aldetik zetozen.  
Hiru hilabete aurretik irten ziren Arkhangelske-  
tik, non zenbait bidaztik ekialdeko hiri baten  
itxura sumatu duten arrazoi osoz. Uharte san-  
tuak bisitatu zituzten, Kareliako itsasaldetik hur-  
bil, eta Solovetskeko komentua, Troitsakoa, Kie-  
veko San Antonio eta Santa Teodosiarenak,  
azken hau Jagellontarren kutunena izandakoa,  
Moskuko Simeonofeko monasterioa, Kazangoa,  
bai eta Sinestun Zaharren eliza ere; eta orain

Irkutskera zihoazen, artile zakarrez egindako abitu, txano eta arrokekin jantzirik.

Popea, berriz, herriko apaiz xume bat zen, inperio errusiarrak dauzkan seiehun mila horietako bat. *Mujikak* bezain zirtzil jantzita zegoen, eta ez zen haiek baino gehiago, egia esateko, ez baitzuen ez kargurik ez aginpiderik elizaren barruan eta bere lursaila lantzen baitzuen nekazari bat bezala, bataioak, ezkontzak eta hiletak egiten zituen bitartean. Seme-alabak eta emaztea tatariarren ankerkerietatik urrun jarri zituen, iparraldeko probintzietara bidaliz. Bera, ostera, parrokian geratu zen azken unera arte. Gero, ihesari eman, eta, Irkutskeko bidea itxita egonik, Baikal aintziraraino egin behar izan zuen.

Elizgizon horiek almadiaren brankara bildu eta errezoan ari ziren, tarteka-marteka ahotsa goratuz gau isil haren erdian, eta «*Slava Bogu*», Aintza Jaunari, irteten zitzaiela ezpainenatik, otoitzaren txatal bat amaitzen zuten guztietan.

Ezbeharrrik ez zen izan nabigazio horretan. Nadia lozorro gogorrean zetzan. Mikel Strogoffek beilan eman zuen gaua haren alboan. Loak noizik behinka hartu zuen bakarrik, eta tarte labur horietan ere haren burua esna-esna egon zen.

Egunsentian, almadia Angarako ahotik berrogei verstara zegoen oraindik. Haize bihurriak kontra egiten zion korrontearen eraginari, eta bazitekeen arratsaldeko hirurak edo laurak baino lehen ezin iristea. Baina hori ez zen eragozpena, alderantziz baizik, zeren iheslariak gauez jaitsiko baitziren ibaian behera, eta ilunpeak lagundu baino ez zien egingo hirira sartzeko mementoan.

Marinel zaharrak beldur bakarra adierazi zuen behin baino gehiagotan: izotzak ez ote zuen ur azala estaliko. Gaua hotz-hotza izan zen. Izotz puskek labaintzen ziren ugari mendebaldera, haizearen bultzaz. Ardura gutxi haiengatik, ezin baitziren Angaran sartu, ibaiaren ahoa atzean utzia zutenez gero. Baina pentsatzekoa zen aintziraren ekialdeko aldeetatik zetozenak korronteak erakarri eta ibaiaren bi hegien artean sartuko zirela. Horiek bai zaildu zezaketen ibilerara, atzerapenak sortu, bai eta beharbada almadia geldiarazi ere, gainditu ezineko oztoporen bat ur bidean ezarriz.

Mikel Strogoffek, hortaz, interes itzela zuen aintzira nola zegoen eta izotz puskek kopuru handitan agertzen ote ziren jakiteko. Nadia esnatu ondoren, maiz galdetzen zion, eta neskak

jakinaren gainean jartzen zuen, uren azalean gertatzen zen guztiaren berri emanaz.

Izotz puskek horrela lerratzen ziren bitartean, natur gertakari bitxiak izaten ziren Baikal aintzira-  
raren gainazalean. Ur irakinezko iturburu bikai-  
nak sortzen ziren han-hemenka, izadiak aintzira-  
ren hondoa zulatutako putzu artesiak batzuetatik,  
eguzki printzek ortzadar txiki banaz apaintzen  
zituztela. Zurruta haiek ur beroa oso gora  
jaurti, lurrunetan barreiatu, eta unean bertan  
tanta txikitan kondentsatzen ziren. Ikuskizun ez  
ohiko hark liluratu egingo zituen segur aski turis-  
ta baten begiak, bake-bakean eta gogara bidaia-  
tzen ari bazen Siberiako itsaso hartan barrena.

Arratsaldeko lauretan, Angarako ahoa seinatu  
latu zuen marinel zaharrak kostaldeko haitz  
handi granitozkoen artean. Eskuineko hegian,  
Livenitxnaiako portu txikiko eliza eta etxe urriak  
nabari ziren, ur izkinan eraikiak.

Baina lehenengo izotz puskek ekialdetik eto-  
rri, Angararen bi hegien artetik sartu eta Irkusk  
aldera jaisten ari ziren, egoera larriagotuz.  
Oraingoan, hala ere, ez ziren ibaia trabatzeko  
adina, eta hotza ere ez zen batzuk besteekin  
elkartzeko bezain handia.

Almadiak portutxora hurbildu eta bertan atrakatu zuen. Marinel zaharrak ordubetez gelditzea erabaki zuen, ezinbesteko konponketa batzuk egiteko. Lokarri batzuk askatu eta enborrak bereizteko arriskuan zeuden. Tinko lotu behar ziren berriz ere, Angara ibaiaren ur laster bizi-biziari eutsiko bazioten.

Urtaro onean, Livenitxnaiako portua ontziratzeke edo lehorreratzeko gunea da Baikal aintzirako bidaztientzat, bai Kiaktara doazenentzat, hau da, Errusiaren eta Txinako mugaren azken hiria jomuga dutenentzat, bai handik datozenentzat. Beraz, sarritan ibiltzen dira han *steam-boat*ak eta aintzirako kabotaje ontzi txiki guztiak.

Baina, une hartan, Livenitxnaia abandonaturik zegoen. Hango biztanleak ezin gelditu tatariarren harrapaketen zain, Angarako bi ur bazterretan baitzebiltzan gora eta behera. Irkutsjera bidali zituzten negualdia portutxoan igarotzen zuten ontziak oro, eta, eraman ahal guztia harturik, garaiz babestu ziren ekialdeko Siberiaren hiriburuan.

Marinel zaharrak, beraz, ez zuen espero iheslari gehiago hartzea Livenitxnaiako portu hartan, eta, hala ere, almadia kaian ertzeratzen zelarik,

bi bidazti etxe batetik atera eta ur izkinara jo zuten ziztu biziz.

Nadia, txopan eserita, begira zegoen ganora gabe.

Oihu bat atera zitzaion ia. Mikel Strogoffen eskua hartu zuen, eta honek burua altxatu zuen sentitu zuenean.

—Zer dun, Nadia? —galdetu zion.

—Gure bidelagunak, Mikel.

—Nortzuk, Uraleko haitzarteetan topatu genituen frantses eta ingeles haiek?

—Bai.

Mikel Strogoffek dar-dar egin zuen. Zorrotz eusten zion bere nortasun ezkutukoari; ez zion uko egin nahi, baina arriskua zegoen argitara agertzeko.

Izan ere, ez zen Nikolas Korpanoff izango Alcide Jolivetek eta Harry Blountek orain haren gan ikusiko zutena, Mikel Strogoff tsarraren mandataria baizik. Bitan jadanik egin zuten topo harekin bi berriemaileek Ixingo posta etxean banandu zirenez geroztik; lehenengoa, Zabedieroko kanpamentuan, Ivan Ogareffen aurpegia *knut* kolpe batez ebaki zuenean, eta bigarrena, emirrak kondenatu zuenean. Ongi zekiten, bada, zertan ari zen eta nor zen egiatan.

Mikel Strogoffek erabaki bat hartu zuen agudo.

—Nadia —esan zion—, frantses eta ingeles horiek ontziratu bezain laster, eskaiezaien niregana etortzeko!

Eta bai, Harry Blount eta Alcide Jolivet ziren, hain zuzen ere, ez patuak, gertakizunen segidak baizik Livenitxnaiako portura eraman zituenak, Mikel Strogoffekin egin bezala.

Jakina da tatariarrak Tomsken nola sartu ziren ikusi zutela, bai eta jaialdiaren bukaerako zigor basatiaren aurretik abiatu zirela hiri hartatik. Ezin jakin, beraz, haien bidelagun zaharra ez zegoela hilik, eta itsutu baizik ez zutela egin emirraren aginduz.

Arratsalde hartan bertan irten ziren Tomske-tik, zaldi bana eskuratu ondoren, eta handik aurrera beren kronikak ekialdeko Siberiako kanpamentu errusiarretan idazteko asmo sendo-sendoa harturik.

Alcide Jolivet eta Harry Blount Irkutsk aldera joan ziren, ahal zen agudoen. Feofar Khani aurre hartzea espero zuten, eta hala egingo zuten, hirugarren zutabe hori bat-batean agertu izan ez balitz hegoaldetik Jeniseiko ibarrean zehar. Mikel Strogoffi legez, bidea moztu zien Dinkara heldu

baino lehen, eta Baikal aintziraraino jaitsi behar derrigorrean.

Livenitxnaiara iritsi zirelarik, portuan ez zuten inor aurkitu. Baina, bestalde, ezin ziren Irkutsken sartu, armada tatariarrek setiatua baitzuten. Hiru egun eman zituzten han, eta oso larri zeuden almadia bertaratu zenean.

Iheslariak beren asmoaren berri eman zieten. Aukera handia zegoen benetan gauzez oharkabean pasa eta Irkutsken sartzeko. Haiekin batera ahalegintzera deliberatu zuten.

Alcide Jolivet berehala hasi zen marinel zaharrenekin solasean, eta bai bera bai bere laguna almadian eraman zitzan erregutu zion. Nahi zuen prezioa jartzeko, ordaindu egingo ziotela, eskatzen ziena eskatzen ziela.

—Hemen ez zagok ordaindu beharrik —erantzun zion serio marinel zaharrak—, hemen bizitza zagok jokoan, horra guztia.

Bi kazetariak ontzira igo eta brankan nola eseri ziren ikusi zuen Nadiak.

Harry Blount beti bezalako ingeles hotza agertzen zen, Ural mendien zeharkaldi osoan hari apenas hitzik egin ez zion berbera.

Alcide Jolivetek, aldiz, ohi baino serioago zirudien, eta, aitortu behar, egoerak aski ongi azaltzen zuela seriotasun haren zergatia.

Alcide Jolivet almadiaren brankan eseri berria zen, bada; eta, supituki, esku batek besoa hartzen ziola sumatu zuen. Atzera biratu eta Nadia ikusi zuen, Mikel Strogoff tsarraren mandatariaren arreba, eta ez gezurrezko Nikolas Korpanoff harena.

Harridurazko garrasi bat egin zuen ia, baina neska gazteak hatza ezpainetara zeramala ikusi zuen.

—Zatoz nirekin —esan zion Nadiak.

Alcide Jolivetek harekin joateko adierazi zion Harry Blounti keinu batez eta neskatxaren atzetik joan zen, axolarik ez balio bezala.

Baina, ezuste handia izan bazen berriemai-leentzat Nadia almadia hartan topatzea, askozaz handiagoa Mikel Strogoff ere han ikustea, ez baitzuten uste bizirik zegoenik.

Hurbildu zirenean, Mikel Strogoff ez zen mugitu.

Alcide Jolivet neskarengana bihurtu zen.

—Ezin zaituzte ikusi, jaunak —esan zien—. Tatariarrek begiak erre dizkiote! Nire neba giza-joa itsu dago!

Erruki sentimendu bizia marraztu zitzaien Alcide Joliveti eta haren lagunari begitartean.

Geroxeago, biak ala biak Mikel Strogoffen ondoan eserita jarririk, bostekoa eman zioten eta zain gelditu ziren hark zer esango.

—Jaunak —hasi zen Mikel Strogoff ahopeka—, zuek ez duzue jakin behar ez nor naizen, ez zertara etorri naizen Siberiara. Nire sekretua gordezko eskatzen dizuet. Agintzen didazue?

—Nire ohorezko hitza duzu —erantzun zion Alcide Jolivetek.

—Bai eta nire gentleman hitza ere —gehitu zuen Harry Blountek.

—Ongi da, jaunak.

—Ezer behar duzu guregandik? —galdetu zion Harry Blountek—. Gure laguntza nahi duzu zure eginkizuna burutzeko?

—Nahiago bakarrik jardutea —erantzun zien Mikel Strogoffek.

—Baina ikusmena erre dizute doilor horiek —esan zion Alcide Jolivetek.

—Nadia daukat eta aski dut haren begiekin!

Handik ordu erdira, almadia ibaian sartu zen, Livenitxnaiako portutxoan utzi ondoren. Arratsaldeko bostak ziren. Iluntzen ari zuen. Gaua beltz-

beltza izango zen eta baita hotz-hotza ere, temperatura jadanik zero azpitik zegoen eta.

Alcide Jolivet eta Harry Blount, sekretua gordeko ziotela agindu eta gero, Mikel Strogoffen ondoan gelditu ziren. Ahopean mintzatu ziren elkarrekin, eta itsuak, ordu arte zekiena orduan kontatu ziotenarekin osaturik, gauzak zertan ziren zehatz-mehatz ikasi ahal izan zuen.

Dударик ez zen, tatariarrak Irkutsk setiatzen ari ziren une hartan, eta haien armadaren hiru zutabeak elkarganaturik zeuden ordurako. Emirra eta Ivan Ogareff hiriburuaren aurrean zeudela ezin zalantzan jarri.

Baina zergatik erakusten zuen tsarraren mandatariak hirira iristeko presa hori, gutun inperiala ezin bazion duke handiari eman eta gutunean zer jartzen zuen ez bazekien? Alcide Jolivetek eta Harry Blountek ez zuten ulertu, Nadiak lehenago ulertu ez zuen era berean.

Beste alde batetik, behin baino ez zuten hitz egin iraganaz. Alcide Jolivetek bere burua behartuta ikusten zuen Mikel Strogoffi zerbait esatera:

—Gure jokaera zuritu beharrean gaude, Ixingo posta etxetik bostekoa eman gabe joan ginelako.

—Ez, eskubidea zenuten koldarra nintzela pentsatzeko!

—Dena dela —gehitu zuen Alcide Jolivetek—, knut kolpe ederra eman zenion madarikatu hari aurpegi betean! Luzaro eramango du marka hura!

—Ez, luzaro ez! —erantzun zuen motz Mikel Strogoffek.

Livenitxnaiatik atera eta ordu erdira, Alcide Jolivet eta haren laguna jakinean jarrita zeuden Mikel Strogoffek eta neska gazteak nolako proba latzak gainditu behar izan zituzten bidean. Zabal-zabal miresten zuten neskaren adorea, bai eta neba itsuarekiko agertzen zuen atxikimendu berdingabea ere. Eta Mikel Strogoffi dagokionez, tsarrak Moskun esandako berbera gogoratu zitzaien: «Gizona da bai, gizonik bada!».

Azkar-azkar zihoan almadia, Angarako ur lasterrak herrestan zeramatzan izotz pusken artean. Ikuspegi aldakorra hedatzen zen ibaiaren bi aldeetan, eta, ikusmenak iruzur eginda, ontzia geldirik zegoela zirudien, eta paisaia ikusgarri haiek mugitzen ari zirela bata bestearen ondotik. Hemen, granitozko amildegi altuak, ertz berezi-berezikoak; han, mendi zintzur basak, erreka zabalapartatsuen pasabideak; noizean behin, ibar

zabal bat, herri ketsu baten kokaleku; gero, pinudi sarriak, sugar itsugarriak islatzen. Baina tatariarren arrastoak nonahi ageri baziren ere, ezin haiek ikusi, Irkutskeko inguruetan elkargana bilduak baitziren bereziki.

Bien bitartean, erromesek ahots goraz segitzen zuten otoitzean, eta marinela zaharrak, gehiegi hurbiltzen ziren izotz puska saihestuz, almadiari Angarako ur laster biziaren erdian eusten zion patxada osoan.

# XI

## BI UR ERTZEN ARTEAN

Arratseko zortzietan, zeruaren tankerak susmarazi bezala, iluntasun beltzak estali zuen eskualde guztia. Ilargi berria zen, eta haren argiak ez zuen gaua urratuko. Ibaiaren erditik urertzak ikusezinak ziren. Amildegia segituan nahasten ziren doi-doia mugituz zihoazen hodei astunekin. Tarteka, mendebalak bolada batzuk bidali eta Angarako ibar mehar hartan ahitzen zirela zirudien.

Iluntasuna beren asmoen alde izango zuten iheslariek neurri handi batean. Izan ere, tatariarren aurre-postuak bi hegietan mailakatuak egon arren, almadiak aukera handia zuen ohar-kabea pasatzeko. Eta ez zen uste izatekoa setiatzaileek ibaia trabatua izango zutela Irkusketik gora, ongi baitzekiten errusiarrek ezin zutela laguntzarik jaso probintziaren hegoalde-tik. Laster, gainera, naturak berak ezarriko zuen traba hori, hotzak bi ur ertzen artean pilatzen ari ziren izotz puska trinko batzen zituenean.

Almadian isiltasuna erabatekoa zen. Ibaian behera abiatu zenetik, erromesen ahotsa ez zen aditzen. Otoitzean ari ziren oraindik, baina haien otoitza marmar bat besterik ez zen, ur bazterretik ezin entzun zitekeena. Iheslariak enbor gainean etzanda zeuden, eta ozta-ozta hausten zuten uraren lerro horizontala beren gorputzen irudiekin. Marinel zaharrak, brankan etzanda bere gizonekin, izotz puskek alboratzea beste zereginik ez zeukan, eta hotsik atera gabe ari zen horretan.

Izotz pusken jitoa ere aldekoa zuten, aurrerago oztopo gaindiezina eratzen ez bazuen, behinik behin. Ez zen zaila izango enborrezko ontzi hari erreparatzea, ibaiaren ur libreetan bakarrik egonez gero, baita itzal ilunetan ere, baina nekez bereiz zitekeen neurri eta itxura guztieta-ko jela pilo mugikor haien artetik, eta, gainera, izotz puskek elkar jotzean sortutako burrunbak estali egiten zituen bestelako soinu susmagarri guztiak.

Hotz sarkorra zabaltzen zen eguratsean zehar. Iheslariak krudelkeriaz nozitzen zuten, han urki adar batzuk besterik ez baitzeukaten aterpe. Batzuk besteen kontra estutzen ziren, tenperaturaren jaitsiera hobeki eramateko. Gau

hartan hamar graduraino beheratuko zen zero azpitik. Haize pizar bat bazetorkien mendebaldek, alde hartako mendi elur zurituak axaletik ukitu ondoren, eta orratzak izan balitu bezala ziztatzten zituen almadiako bidaztiak.

Mikel Strogoffek eta Nadiak, txopan etzanda jarririk, kexarik gabe jasaten zuten gehituriko sufrikario hura. Alcide Jolivetek eta Harry Blountek, haien ondoan paratuta, ahal bezala eusten zieten negu siberiarraren lehenengo eraso haiei. Ez batzuek ez besteek ez zuten hitzik esaten, ezta ahopeka ere. Kinka larri hark hartzen zien arreta oso-osoa. Une oro zerbait gerta zitekeen, arriskuren bat, istripuren bat, eta handik ez zegoen kalterik gabe irteterik.

Mikel Strogoffek lasai-lasai zirudien, jomugara iristekotan egonda ere. Gainera, gertakizunik larrienetan ere ez zen kemenez gabetu. Azkenean bere amaz, Nadiaz, bere buruaz pentsatzeko mementoa hurbiltzen ari zela ikusten hasia zen! Deusen beldur ez zen, azken ezbehar gaizto batena izan ezik: izotz hesi batek ez ote zuen utziko almadia aurrera joan ezinean Irkutskera ailegatu aurretik. Besterik ez zuen buruan; eta azken kolpe ausart bat saiatzeko erabakia hartua zuen, beharrezkoa izanez gero.

Nadia bizkortu egin zen atsedan ordu batzuen ondotik. Zorigaitzek zenbaitetan indar fisikoa urratu zioten, baina indar morala sekula ez zioten hondatu. Hark ere erabaki sendoa hartu zuen. Mikel Strogoffek azken ahalegin bat egin behar bazuen helmugara iristeko, ondoan izango zuen gidari. Baina, Irkutsjera hurbildu ahala, bere aitaren irudia marrazten zitzaion gogoan gero eta argiago. Setiaturiko hiriaren barruan ikusten zuen, maite zituenetatik urrun, baina borrokan inbaditzaileen kontra inondik ere, bere herriarenganako grinak bultzaturik. Ordu batzuen buruan, zeruak azkenik hala nahi bazuen, amaren azken hitzak esango zizkion, eta ezerk ere ez zituen bananduko. Vasili Fedorren erbesteak bukatzerik ez bazuen, alaba ere erbestean geldituko zen haren ondoan. Gero, berezko joera batengatik, aita berriz ikustea zozion lagunarengana itzuli ziren haren gogoetak, bidelagun eskuzabal harengana, haren «nebarengana», tatariarrak menderaturik Moskuko bidea hartu eta beharbada berriz ikusiko ez zuen harengana!...

Alcide Joliveti eta Harry Blounti zegokienez, pentsamendu berbera eta bakarra zerabilten biek buruan: egoera larri-larria zela, eta, behar

bezala aurkezturik, oso kronika interesgarria idazteko egokieran zeudela. Ingelesak *Daily Telegraph*eko irakurleak zituen gogoan, eta frantsesak Madeleine lehengusinarenak. Baina halako zirrara ere sentitzen zuten biek ala biek bihotzeko txokoan.

—E! Hainbat hobe! —zioen Alcide Jolivetek bere artean—. Zirrarak sentitu gabe ez dago zirrara sentiarazterik! Eta nago badagoela bertso lerro famaturen bat horrelako zerbait aipatzen duena, baina, zer arraio! nik ez dakit nola den...

Eta ibaia inguratzen zuen itzal lodia zulatzen saiatzen zen bere begi trebatu-trebatuekin.

Bitartean, argi distira handiek ilunpeak urratzen zituzten behin edo behin, eta ur izkinetako zuhaitz multzoen profilak markatzen, ikuskari fantastikoa sortuz. Oihanen bat garretan zegoen, herriren bat erretzen oraindik; eguneko irudien kopia makurra zen, gauaren ilunak izugarriago bihurturik. Angara alde batetik bestera argitzen zen orduan. Izotz puskek ispiluak ziren, eta sugarrak islatzen zituzten angelu guztietatik, kolore guztiekin. Ur lasterrak nahierara bultzatzen zituen jelak, eta almadia, ur gaineko horma

puska haien erdian nahasita, oharkabe zihoan aurrera.

Arriskurik ez zegoen artean alde horretatik.

Baina bestelako kontu batek mehatxu egiten zien iheslariei. Ezin aurretik jakin eta ezin inola ere saihestu. Alcide Jolivet hartaz ohartzea nahi izan zuen patuak, eta hona nola konturatu zen.

Almadiaren istriborrean zegoen etzanda, eskua zintzilik uraren mailan ia-ia. Bat-batean, eskua uretan sartu zitzaion apur bat, eta harriturik gelditu zen haren ukituaz. Loditasun lirdingatsua zuela irudi zuen, olio mineral batez osatua edo.

Alcide Jolivetek, ukitu eta gero usaindu egin zuen eta susmoa egiaztatu zitzaion. Ezin zen tronpatu. Nafta likidozko geruza bat zen, Angarako uren gainazala hartzen zuena eta harekin batera zihoana.

Almadia hain erraz su hartzen duen gai horren gainean ari zen nabigatzen egiatan? Non-dik zetorren nafta hura? Naturaren gertakari batek jaurti zuen Angararen ur azalera ala tatarriarren asmazio suntziztaile bat ote zen? Sutea Irkutskeraino eraman nahi zuten hauek, gerra zuzenbideak nazio zibilizatuen artean inola ere justifikatzen ez duen modu horren bidez?

Galdera horiek egiten zizkion Alcide Jolivetek bere buruari, baina Harry Blount baino ez zuela jakinaren ganean jarri behar pentsatu zuen, eta bi kazetariak ados etorri ziren beren lagunak ez asaldatzeko beste arrisku horren berri emanaz.

Jakina da Asiaren erdialdeko lurra belaki bat bezalakoa dela, hidrogeno karburo isurkariz blaitua. Bakuko portuan, Persiako mugaren ondoan, Abtxerongo penintsulan, itsaso kaspiarraren kostaldean, Asia Txikian, Txinan, Yug-Hianen, Birmanian, olio mineralen iturriak milaka sortzen dira lurraren gainazalean. «Olioaren lurraldea» da, Ipar Amerikan izen hori bera duen eskualdearen antzera.

Hainbat jaialdi erlijiosotan, Bakuko portuan ospatzen direnetan batez ere, bertako jendeek, suaren gurtzaile direnek, nafta likidoa botatzen dute itsasora, eta isurkari hori ganean geratzen da, urak baino dentsitate txikiagoa izanik. Gero, eguzkia sartzen denean eta olio mineralaren geruza itsaso kaspiarrean zehar hedatu delarik, su eman eta ikuskizun paregabeak eskaintzen ditu suzko ozeano hark, olatuak eta sugarrak izurtzen eta lehertzen direla haizearen eraginez.

Baina Bakuko festetan ospakizun baizik ez dena, hondamen izango zen Angarako uretan.

Gogo gaiztoz edo arduragabekeriaz sua pizten bazen, begi itxi-ireki batean hedatuko zen sutea Irkutskeraino eta baita handik urrunago ere.

Nolanahi ere, almadian arduragabekeriarik ez zuen inork egingo, baina bai ziren beldurtze-koak Angarako bi ur ertzetako suteak, aski baitzen txinpart edo ilaun bat ibaian erortzea naf-tazko korronte hura guztia suak har zezan.

Alcide Joliveten eta Harry Blounten errezelo-ak aise uler ditzakegu, zehatz azaltzea zaila iza-nik ere. Ez ote zen hobe, arrisku horren aurrean, ur ertzera joan, lehorreratu eta zain gelditzea? Galdera hori zerabilten gogoan.

—Dena dela —esan zuen Alcide Jolivetek—, arriskuak arrisku, nik dakidan bat ez litzateke lehorreratuko!

Eta Mikel Strogoff zeukan buruan.

Bien bitartean, almadia agudo lerratzen zen izotz pusken artetik, batzuen eta besteen arteko tarteak gero eta txikiagoak baziren ere.

Ordu arte, destakamendu tatariarrik ez zen agertu Angarako hegotan, eta, horrek adieraz-ten zuenez, almadia ez zen oraindik iritsi lehe-nengo aurre-postuen parera. Hala ere, gaueko zortzietan, Harry Blountek gorputz beltz ugari

ikusi zuen izotzen gaintan mugitzen. Itzal haiek ziztu bizian urreratzen ari ziren saltoka.

—Tatariarrak! —pentsatu zuen.

Eta brankara herrestan joan eta marinel zaharrari erakutsi zizkion mugimendu susmagarri haiek.

Marinel zaharrak erne begiratu zuen.

—Otsoak besterik ez dituk —esan zion—. Nahiago horiek tatariarrak baino. Baina defendatu beharra zagok, eta hotsik atera gabe.

Izan ere, iheslariek borrokan egin behar izan zuten piztia odolzale haien kontra. Goseak eta hotzak probintzian zehar ibiltzera akuilatu zituzten, eta, almadia usaindu bezain laster, eraso egin zioten. Hortaz, bada, iheslariek borrokari lotu behar, baina su armarik erabili gabe, ezin baitziren urruti egon tatariarren postuetatik. Emakumeak eta haurrak almadiaren erdira bildu ziren, eta gizonak, batzuek hagak eskuetan, beste batzuek ganibetak eta gehienek makilak, erasotzaileei aurka egiten hasi ziren. Garrasi bakar bat ere ez zuten egiten, baina otsoen uluek airea urratzen zuten.

Mikel Strogoffek ez zuen ezer egin gabe egon nahi. Etzanda jarri zen pizti taldea erasoka ari zen aldean. Ganibeta atera, eta, otso bat bere

eskumenean pasatzen zen guztian, haren eskuak bazekien eztarrian hondoraino sartzen. Harry Blount eta Alcide Jolivet ere ez ziren geldirik egotekoak, eta gogor jardun zuten. Gainerako guztiak ere ausardia handiz eta erabateko isiltasunaz borrokatzen ziren, batek baino gehiagok hozkada galantak jasan zituzten arren.

Hala eta guztiz, ez zirudien borroka agudo bukatuko zenik. Otsoen taldea berritu egiten zen etengabe, eta Angarako eskuineko aldeak otsoez mukuratu egon behar.

—Ez da behin ere bukatuko! —zioen Alcide Jolivetek, odolez gorrituriko labana eskuan dantzatzen zuela.

Eta, izan ere, eraso hasi eta ordu erdia joana zenean ere, otsoak ehunka zebiltzan oraindik hara-hona korrika izotzen artean.

Iheslariak, neka-neka eginda, etsitzen ari ziren nabarmen. Borroka itxura onik ez zeukan. Orduan, hamar otso larriren talde batek, goseak amorraturik, begiak dirdai jarioka txingarren pare, almadiaren barrura egin zuen jauzi. Alcide Jolivet eta haren laguna animalia izugarri haien erdira oldartu ziren, eta Mikel Strogoff haiengana zihoan arrastaka, baina, halako batean, dena aldatu zen goitik behera.

Segundo batzuetan, otsoek almadia ez ezik, ibai gaineko izotz puskak ere utzi zituzten. Gorputz beltz haiek sakabanatu ziren guztiak, eta berehala nabaria izan zen eskuineko ur ertzeraino iritsi zirela lasterka bizioan.

Otso haiek ilunpea behar zuten beren lana egiteko, eta une hartan distira bizi bat Angararen zabalera guztia argitzen ari zen.

Sekulako sute baten argia zen. Poshkavsk herria erretzen ari zen oso-osorik. Hantxe zeuden tatariak azkenean, beren zeregina betetzen. Puntu horretatik behera bi ur ertzak hartuak zituzten Irkutskeraino eta baita Irkuts pasata ere. Iheslariak nabigazioaren tarterik arriskutsuenera iristen ari ziren, beraz; eta hiri-burutik hogeita hamar verstara zeuden oraindik.

Gaueko hamaika eta erdiak ziren. Almadiak aurrera jarraitzen zuen itzalpean, izotzen artean ikusezina; baina batzuetan argi pirrinta handiak ailegatzen ziren haraino. Gauzak horrela, iheslariak, enborren gainean etzanik, zirkinik ere ez zuten egiten, ikusiko zituzten beldurrez.

Herrixkaren sutea gogorra eta bortitza zen. Pinuz egindako etxeak garretan zeuden. Ehun eta berrogeita hamar erretzen ari ziren batera, erretxina bezala. Suaren txinpart hotsari tataria-

rren alarauak gehitzen zitzaizkien. Marinel zahar-  
rrak, almadia ondoko izotz pusketan hagak ber-  
maturik, eskuineko hegi aldera hurbiltzea lortu  
zuen, eta hirurehun-laurehun oineko aldea baze-  
goen almadiatik Poshkavsk herriaren sugarreta-  
ra.

Hala ere, iheslariei erreparatuko zieten duda-  
rik gabe, argiak tarteka jotzen baitzien, su emai-  
leak hain lanpeturik egon izan ez balira herrixka-  
ren suntsiketan. Baina aise ulertzekoak dira Alci-  
de Joliveten eta Harry Blounten beldurrak, alma-  
diaren inguruko isurkari sukoi hura gogoratzen  
zitzaielarik.

Izan ere, txinpart sorta handiak ihesi zihoa-  
zen guztiz sutan zeuden etxe haietatik, eta, kea-  
ren kiribilen artetik, zeruan gora egiten zuten  
bostehun-seiehun oineko garaiera bateraino.  
Eskuineko ur bazterrean, sutea parez pare iza-  
nik, zuhaitzak eta amildegia suak hartuak zeu-  
dela ematen zuen. Hortaz, aski zen txinpart bat  
Angararen ur azalera erortzea, sutea ur arrasetik  
zabaldurik eta hegi batetik bestera hondamena  
eramateko. Berehalako batean, almadia galdu  
egingo zen, bai eta bertan bidaiatzen ziren guz-  
tiak ere.

Baina, zorionez, gaueko haize leunak ez zuen alde hartarantz jotzen. Ekialdetik zetorren oraindik ere eta sugarrak ezker aldera bultzatzen zituen. Bazitekeen, beraz, iheslariak arrisku horretatik ere libratzea.

Eta hala izan zen, atzean utzi baitzuten azkenik kiskaltzen ari zen herri txiki hura. Pixkaka-pixkaka, sutearen distira ahulduz joan zen, garren soinua urrunduz, eta azken argiak desagertu ziren Angarako bihurgune zorrotz bateko amildegiak pasatzean.

Gauerdi ingurua zen. Itzal lodiak babesten zuen almadia berriz ere. Tatariarrak hantxe zeuden, atzera eta aurrera bi ur ertzetan barrena. Ezin ikusi, baina ederki entzuten zitzaien. Aurrepostuetako suek ñir-ñir egiten zuten bizi-bizi.

Beste alde batetik, gero eta kontu handiagoz ibili beharra zegoen izotz pusken artean, igarobi-deak estutzen ari zirelako.

Marinel zaharra zutitu, eta *mujikek* lanari ekin zioten hagak eskuetan. Den-denek bazuten zeregina, baina almadia gidatzen gero eta zailagoa zen, ibai bidea ixten ari baitzen begien bistan.

Mikel Strogoff brankaraino joan zen narra-sean.

Alcide Jolivetek jarraitu zion.

Marinel zaharraren eta haren gizonen esanak entzuten zituzten biek.

—Adi eskuin aldean!

—Kontuz ezkerreko izotz horiekin!

—Eutsi gogor! Eragiok hagari!

—Ordu baten buruan, trabaturik geratuko gaituk!...

—Jainkoak hala nahi badu! —erantzun zuen marinel zaharrak—. Haren nahiaren kontra ez zagok ezer egiterik.

—Entzuten diezu —esan zuen Alcide Jolivetek.

—Bai —erantzun Mikel Strogoffek—, baina jainkoa gurekin dago!

Alabaina, egoera larriagotzen ari zen unerik une. Almadiaren ibilia geldituz gero, iheslariak ez ziren noski Irkutskera iritsiko, baina, horretaz gain, beren ontzia bertan behera utzi beharko zuten, izotzak zanpatu eta birrindu egingo zuen eta. Zumezko lokarriak hautsiko ziren orduan, pinuen enborrak bortxaz banandu eta hormazko geruza gogortuaren azpian hondoratuko ziren, eta zorigabeko haiek beste aterperik ez zuten izango izotz puskek berak baino. Beraz, eguna

argitzean, tatariarrek ikusi eta akabatu egingo zituzten gupidarik gabe.

Mikel Strogoff txopara itzuli zen. Nadia zain zeukan. Neskarengana itzuli, eskua hartu eta betiko galdera egin zion:

—Nadia, prest hago?

Eta Nadiak betiko erantzuna eman zion:

—Prest nagok!

Beste versta batzuetan aurrera segitu zuen almadiak ur gaineko izotzen erditik. Jelak ibaia estutzen bazuen, hesia sortuko zen, eta, ondorioz, ezin inola ere ur lasterrari jarraitu. Ordurako askozaz motelago lerratzen ari ziren. Memen-to oro, danbatekoa edo itzulingurua. Hemen, abordatzea saihestu behar, han, igarobide batera sartu behar. Atzerapen kezkarriak oso.

Gauak ez zuen luzaro iraungo. Iheslariak goizeko bostak baino lehen Irkutsken ez bazeuden, hirian inoiz sartzeko itzaropena galdu beharko.

Eta ordu bat eta erdian, ahaleginak ahalegin, almadiak hesi trinko bat jo eta gelditu egin zen behin betiko. Ibaian behera zetozen izotzek kolpekatzen zuten, sakatzen zuten oztopoaren kontra eta erabat ibilgetzen, itsasoko uharri batean hondoa jo izan balu bezala.

Paraje hartan, Angara mehartu egiten zen eta haren ibilgu zabala erdira murrizten. Hori dela-eta pilatzen ziren han izotz puskek. Ezarizarian bat egiten zuten batzuek besteekin. Irizten ziren puskek aurrekoak sakatzen zituzten, eta hotzaren eragin gero eta gogorragoak junturak iltzatzen. Bostehun oin beherago, ibaiaren ibilgua zabaltzen zen berriro ere, eta izotz puskek jela banku haren beheko ertzetik bereizi eta aurrera segitzen zuten Irkutskeraino. Ur ertzen estugune hori gabe segur aski jelazko hesirik ez zen sortuko, eta almadiak bidea libre izango zuen uretan behera jarraitzeko. Baina konponbiderik ez, eta iheslariak alde batera utzi behar zuten beren helmuga erdiesteko itxaropen guttia.

Eskura izanez gero balea arrantzaleek *ice-fields* artetik ubideak urratzeko erabiltzen dituzten lanabesak, izotz banku hura ebakitzeko modurik izanez gero ibaia berriz zabaltzen zen lekuraino, ez zuten betarik izango beharbada? Baina zerrarik ez, pikotxik ez, deus ez azal hari erasotzeko, hotzaren hotzaz granittoa baino gogorrago bihurturiko gain hura apurtzeko.

Zer egin?

Une hartan, tiro hotsa entzun zen Angararen eskuineko hegitik eta bala zaparrada bat erori zen almadiaren gainera. Tatariarrek ikusi zituzten? Bai horixe, zeren desarra gehiagok eztanda egin zuten ezkerreko hegian ere. Bi aldeen erdian harrapaturik, tiratzaile tatariarren jomuga bilakatu ziren. Balek batzuk zauritu zituzten, nahiz tiroa itsu-itsuan baino ez egin iluntasun haren barruan.

—Hator, Nadia —xuxurlatu zion Mikel Strogoffek neska gazteari belarrian.

Ohar bakar bat ere egin gabe, «denetarako prest», Nadiak Mikel Strogoffen eskua hartu zuen.

—Jelazko hesia zeharkatu behar dinagu —esan zion ahopean—. Gida nazan, baina inork ez dezala ikus almadiatik bagoazela!

Nadiak obeditu egin zuen. Mikel Strogoff eta biak azkar lerratu ziren izotz bankuaren gainazalean aurrera, tiroen argiek han-hemenka baizik apurtzen ez zuten iluntasun beltz haren erdian.

Nadia Mikel Strogoffen aurretik zihoan narra-sean. Balak inguruan jausten zitzaizkien, kazkar erauntsiaren irudira, hormaren gainean zirtaka. Jelazko hesia latza zen eta ertz-zorrotza,

eta eskuak odoldu zitzaizkien. Baina aurrera segitzen zuten, ordea.

Hamar minutu geroago hesiaren beheko ertzera iritsi ziren. Han, Angarako urak libre zeuden berriro ere. Izotz puska batzuk poliki-poliki bereizten ziren jela pila hartatik. Ur lasterrera itzuli eta behera zihoazen hirirantz.

Mikel Strogoffek zer egin nahi zuen ulertu zuen Nadiak. Puska bat ikusi zuen jelazko hesiari ozta-ozta itsatsita.

—Hator —esan zion Nadiak.

Etzanda jarri ziren biak jela zati haren gainean, eta zatia kulunka txiki batez hesitik alendu zen.

Izotz puska uretan behera abiatu zen. Bidean oztoporik ez, ibaiaren ibilgua zabaldurik.

Mikel Strogoffek eta Nadiak desarrak entzuten zituzten, garrasiak, laguntza eske, tataria-rraren alarauak ibaian gora... Baina gero eta soinu gutxiago aditzen ziren, eta azkenean estutasunezko intziriak eta poz basatizko deiadarrak erabat itzali ziren urrunean.

—Gure lagun gaixoak! —esan zuen Nadiak xuxurla batean.

Ordu erdi batez, ur lasterrak bizi-bizi eramanean zuen Mikel Strogoffen eta Nadiaren izotz puska.

Noiznahi hondoratu zitekeen haien hanka azpian. Uren korrontean harturik, ibaiaren erditik zihoan, eta ez zen beharrezkoa albora eragitea, Irkutskeko kaietara hurbiltzeko tenorea iritsi artean.

Mikel Strogoffek, hortzak estaturik eta belarria erne, hitzik ez zuen esaten. Behin ere ez zen egon bere helmugatik horren hurbil. Lortuko zuela sentitzen zuen bihotzean!...

Goizeko ordu bietan, bi argi lerro piztu ziren zerumuga itzaltsuan, Angararen bi ur ertzek bat egiten zuten lekuan.

Eskuin aldean Irkutskeko argiak zeuden. Ezker aldean, tatariarren kanpamentuko suak.

Mikel Strogoff hiritik versta erdira baino ez zegoen.

—Azkenean! —murmurikatu zuen.

Baina, bat-batean, Nadiak garrasi egin zuen.

Garrasia entzutean, Mikel Strogoff zutitu egin zen izotz puska kolokaren gainean. Haren eskua Angararen goi alderantz luzatu zen. Haren begi-tartea, isla urdinez guztiz argiturik, izu-ikara emateko modukoa bihurtu zen, eta orduan, haren begiak argitara berriz zabaldu izan balira bezala:

—A! —oihu egin zuen—. Jainkoa bera dago  
gure kontra!

## XII IRKUTSK

Irkutsk da ekialdeko Siberiako hiriburua. Bertan hogeita hamar mila lagun bizi dira eskuarki. Muino altu samar batean dago, Angara ibaiaren eskuineko hegian. Mendixka horretan dituzte oinarriak hiriko elizek eta haien gaineko katedral handiak; gain horretan dituzte zimentuak etxeek eta beste eraikuntzek, nahas-mahas kokaturik ikusgarriro.

Urruntxotik ikusita, Siberiako bide nagusian hogeitaz hamar versta harago dagoen menditik, esaterako, ekialdeko hirien tankera hartzen du nolabait; kupulak eta kanpandorre txikiak ageri dira, puntetan orratz segailak zerura, minareteen antzekoak, eta domo sabel-handiak apaingarri, potiz japoniarrak irudi dutenak. Baina itxura hori galitzen da bidaztiaren begietatik, hirira barnertzen denean. Erdi bizantziarra, erdi txinatarra zirudiena europar bilakatzen da berehalaxe. Karrikak, harri zapalduak eginak, espaloiak alboetan, ubideak zeharka, urki erraldoien itzalpean. Etxeak, adreiluz eta zurez eraikiak, eta hainbat

solairutakoak bat baino gehiago. Zalgurdiak ugari hara-hona, eta tarantas eta telegak ez ezik, baita kupeak eta kalesak ere. Eta hango jendeak, zibilizazioaren garapenetan hain aurreratuak, Parisko azken modak zeintzuk diren beti ongi dakitenak.

Garai hartan, Irkutsk, probintziako siberiarren aterpe, jendez gainezka zegoen. Mota guztietako baliabide eta eskuarteak oparo zeuden han. Irkutsk biltegi handi bat da, non Txinaren, Erdialdeko Asiaren eta Europaren artean trukatzeko salgai zenbatezinak pilatzen diren. Beldurrik gabe, Angarako ibarreko nekazariak, mongol-khalkhak, tunguzak eta buretak, erakarri zituzten hirira, eta mortua zabaldu inbaditzaileen eta hiriaren artean.

Irkutsk du egoitza ekialdeko Siberiako gobernadore nagusiak. Haren agindupean gobernadore zibil bat badago, probintziaren administrazioaren ardura bere gain duena, poliziburu bat, oso lanpetua beti hainbeste atzerriratu dituen hiri honetan, eta alkate bat, merkatarien buru, pertsonaia garrantzitsua oso, bai sekulako aberastasunen jabe delako, bai bere administrazioaren gain eragin handia duelako.

Irkutskeko goarnizioan une hartan kosakoen errejimentu bat zegoen, bi mila soldadu oinezko guztira, bai eta bertako jendarme saila ere, kas-koa buruan eta uniforme urdina soinean, zilarrez galoitua.

Bestalde, jakina denez, eta arrazoi berezien-  
gatik, duke handia hiriaren barruan zegoen inba-  
sioaren hasieratik.

Argibideren bat eman behar hori dela-eta.

Garrantzi politiko handiko bidaia batek era-  
man zuen tsarraren anaia ekialdeko Asiako pro-  
bintzia urrun haietara.

Duke handiak Siberiako hiri nagusiak bisitatu  
zituen, baina militar gisa eta printzeen arrandia-  
ri uko eginez, segizioan bere ofizialak eta kosako  
talde bat baizik ez zeramala. Bidaiaren azken  
aldian, Transbaikaliako eskualdeetaraino iritsi  
zen, eta Nikolaievsk, Errusiako azken hiria,  
Okhotskeko itsasoaren ertzean kokatua, ohoratu  
egin zen hain pertsonaia handiari harrera egin-  
da.

Inperio moskutar ikaragarriaren mugaraino  
heldu eta Irkutskera itzultzen ari zen duke han-  
dia. Handik Europako bidea hartzeko asmoa  
zuen, baina orduan inbasio arriskutsu bezain  
bat-bateko haren berri eman zioten. Agudo

baino agudoago sartu zen hiriburuan. Iritsi zenerako, Errusiarekiko komunikazioak eteteko zorian zeuden. Telegrama batzuk jaso zituen, hala ere, Petersburgetik eta Moskutik, eta erantzuteko aukera ere izan zuen. Baina, gero, haria etenda geratu zen, dakigunez.

Irkutsk isolaturik gelditu zen, munduko bazter guztietatik bakartua.

Duke handiak defentsa antolatu besterik ezin egin, eta horretan jardun zuen tinko eta odol hotzean, bestelako estutasunetan erakutsia zuen legez.

Albiste txarrak banan-banan ailegatu ziren Irkutskera. Tatariarrek Ixin hartua zuten. Omsk azpiratua. Tomsk menderatua. Siberiako hiriburuak kostatuta ahala kostatuta salbatu behar okupaziotik. Laguntzarik ez zuten izango, ez aurki, behinik behin. Amur eta Jakutsk probintzietan barreiatu-rik zeuden tropa urriak ez ziren tatariarren oldeei eusteko gauza izango. Beraz, Irkutsk setiatu egingo zuten nahitaez, eta garrantzizkoena oroz gain hiria setio luze samarrari eusteko eran ezartzea zen.

Tomsk tatariarren atzaparretan jausi zen egunean ekin zieten lanei. Azken albiste horrekin batera, duke handiak jakin zuen armada

inbaditzailearen buru Bukharako emirrak berak egiten zuela bere khan aliatuen laguntzarekin, baina ez zuen jakin, ordea, buruzagi barbaro haien gudalburua Ivan Ogareff zela, ezagutzen ez zuen ofizial errusiar bat, dukeak berak behinola degradatu zuena.

Lehenengo eta behin, gorago ikusi den bezala, Irkutsk probintziaren biztanleei hiriak eta herriak uzteko eskatu zieten. Hiriburuan babestu ez zirenek harago joan behar izan zuten, Baikal aintziraz bestaldera, tatariarrek ez baitzituzten bere txikizioak alderdi haietaraino eramango segur aski. Gari eta zuhain uztak hirirako konfiskatu zituzten eta botere moskutarrak ekialde urrunean zeukan azkeneko gotorleku hura prest gelditu zen tatariarren aurka denboraldi batez borrokatzeko.

Irkutsk hiria, 1611n sortua, Irkut eta Angara ibaiak batzen diren lekuan kokaturik dago, azken honen eskuineko ur bazterrean. Zurezko bi zubi dauzka, pilote gainean eraikiak, ubidearen zabalera osoa nabigaziorako libre uzteko moduan jarriak, eta haien bidez elkartzen dira hiria eta ezker aldean hedatzen diren auzuneak. Alde horretatik defentsa erraza zen. Auzuneak abandonatu zituzten, eta etxe guztiak lurrera bota,

duke handiaren artilleriak, eskasa zoritxarrez, trabarik izan ez zezan. Bi zubiak suntsitu zituzten. Angara zabal-zabala da leku hartan, eta ezin inola ere handik igaro setiatuen desarren azpian.

Baina ibaia uretan gorago eta beherago zeharka zitekeen, eta, beraz, arriskua zegoen Irkutsk ekialdetik ere erasotzeko, han harresirik edo bestelako babesik ez zegoenez gero.

Gotortze lanetan jardun zuten, bada, beso guztiek lehenbizi; bai eta gau eta egun jardun ere. Biztanleria gogor saiatzen zen lanean, aurrerago borrokan egingo zuen legez. Soldaduak, merkatariak, atzerriratuak, nekazariak, den-denak hiriaren salbazioaren alde aritu ziren eginahalean. Tatariarrak Angaran agertu baino zortzi egun lehenago, lurrezko hesiak eraikiak zeuden. Erreten bat zulatu zuten hesiaren ezpondaren eta kontraezpondaren artean, eta Angararen urez bete zuten. Ezin hiria hartu erasoaldi bakar batean. Inguratu eta setiatu behar, derrigorrean.

Tatariarren hirugarren zutabea, Jeniseiko ibarrean gora egin zuena, irailaren 24an agertu zen Irkutsk aurrean, eta segituan jabetu ziren auzune abandonatuez.

Tatariarrak antolatzen hasi ziren, bada, emirraren eta haren aliatuen zutabeak iristen ziren bitartean.

Eta irailaren 25ean elkarganatu ziren armada hiru sailak Angarako kanpamentuan. Soldadu guztiak, konkistaturiko hirietan utzitako goarnizioak izan ezik, Feofar Khanen agintepean gelditu ziren bat eginak.

Ivan Ogareff laster ohartu zen Angara ezin zela zeharkatu Irkutsken parean, eta tropa kopuru handi bat zenbait versta ibaian behera bidali eta beste aldera igaro ziren berariaz moldaturiko txalupa zubi batzuen bidez. Duke handia ez zen saiatu igarotze hori eragozten. Atzeratu baizik ez zuen egingo, baina ez inola ere erabat galarazi, gudako artilleriarik eskuartean izan gabe; eta Irkutsk barruan geratu zen arrazoi horregatik.

Tatariarrek ibaiaren eskuineko hegia hartu zuten; gero, hiri aldera igo ziren Angara gaineko oihanetan zehar. Gobernadore nagusiak haietan zeukan udako etxea erre zuten bidean, eta, Irkutsk oso-osorik inguratu eta gero, behin betiko kokatu ziren setiorako.

Ivan Ogareff, ingeniari iaioa, ongi prestatua zegoen erazko setio baten lanak zuzentzeko; baina baliabide materialak falta zituen azkar jar-

duteko. Gainera, Irkutsk, haren ahalegin ororen helburua, ezustean harrapatzea espero zuen.

Ezagun da gauzak ez zirela joan hark nahi izan zuen bezala. Batetik, armada tatariarra atzeratu egin zen Tomskeko guda zela bide; bestetik, duke handiak oso agudo burutu zituen defentsako lanak. Bi gertaera horiek aski izan ziren haren asmoak ustel irteteko. Erazko setio bati aurre egiteko beharrea aurkitzen zen, hortaz.

Hala eta guztiz, haren aholkuari jarraituz, emirra bitan ahalegindu zen hiria bereganatzen, odoletan prezio oso handia ordaindurik ere. Lurrezko hesietarantz bidali zituen soldaduak, puntu batzuk ahulagoak irudi baitzuten; baina bi erasoaldiak atzera bota zituzten defendatzaileek ausardia biziak. Duke handia eta haren ofizialak ez ziren atzean gelditu aldi hartan. Borroka lekuan agertu ziren, eta populazio zibila haien atzetik joan zen babeskietara. Burgesek eta nekazariak gogor bete zuten beren eginkizuna. Bigarren erasoaldian, tatariarrek harresiko ate bat bortxatzea lortu zuten. Borroka latza izan zen Boltxaiako hiribidearen beheko muturrean. Baina kosakoek, jendarmeez eta herritarrek bor-

titz egin zieten aurka, eta tatariarrek kanpamentu-  
tuetara itzuli behar izan zuten.

Ivan Ogareffek azpikeriaz baliatzea pentsatu  
zuen orduan, indarrez ezin-eta. Haren asmoa,  
dakigunez, hirian sartu, duke handiarengana  
joan, haren uste onaz jabetu, eta, memento ego-  
kian, harresiko ate bat setiatzaileei zabaltzea  
zen; eta, hori egindakoa, asebeteko zuen tsa-  
rraren anaiarekiko mendekua.

Asmo hartan saiatzeko berotu zuen Sanga-  
rrek ere, Angarako kanpamentura harekin etorri  
baitzen.

Izan ere, berandu gabe ekin beharra zegoen.  
Jakutsk probintziako tropa errusiarrek Irkutsk  
hirirantz zetozen. Lena ibaiaren goi aldean bildu  
ziren eta ibar horretan gora abiatu. Sei egun  
igaro aurretik, hantxe izango ziren. Sei egun  
igaro aurretik, hortaz, Irkutsk tatariarren mende  
utzi behar traizioak.

Ivan Ogareffek ez zuen zalantza gehiago  
egin.

Arratsalde batez, urriaren 2an, gerra kontsei-  
lua izan zen gobernadore nagusiaren jauregiko  
areto handian. Hantxe bizi zen duke handia ere.

Jauregia Boltxaiako hiribidean zegoen. Karri-  
ka hori bi verstaz luzatzen da Angarako ur izki-

netaraino. Jauregia mutur batean zegoen, eta handik ibaiaren zati oso handia ageri zen bistara azpi-azpian. Fatxada nagusiaren leihoetatik tatariarren kanpamentua ikusten zen, eta, setiatzailen artilleriak tiramen handiagoa izatera, bertan ezin izango zen bizi.

Bilera hartan duke handia, Voranzoff jenerala eta hiriko gobernadorea zeuden, goi ofizialen kopuru handi samarrarekin batera. Hainbat erabaki hartu berri zituzten.

—Jaunak —mintzatu zen duke handia—, badakizue zehatz-mehatz zein den gure egoera. Itxaropen osoa dut eutsi egingo diogula Jakutsekeko tropak iristen diren bitartean. Orduan jakingo dugu ederki horda tatariar horiek uxatzen, eta nik, behintzat, ez dut galaraziko barbaro horiei garesti ordainaraztea lurralde moskutarren inbasio honegatik.

—Berorren gorentasunak badaki Irkutskeko biztanle guztiak berorrekin daudela —erantzun zion Voranzoff jeneralak.

—Bai, jenerala —esan zion duke handiak—, eta gorazarre egiten diot haien atxikimenduari. Jainkoari esker, izurriterik edo goseterik nozitu beharrik ez dute izan orain arte, eta arrazoiak baditut horrelakorik izango ez dela pentsatzeko;

gainera, borroketan ikusi eta miretsi egin dut haien kemena. Nire hitzak entzuten ari zara, merkatarien buru jauna, eta haiei helaraz die-zazkiezula erregutzen dizut.

—Eskerrak ematen dizkiot berorri hiriaren izenean —erantzun zion hiriko gobernadoreak, merkatarien buru ere egiten zuenak—. Ausartuko al naiz galdetzera ea berorren ustean zein den eperik luzeena laguntzako armada guregana iristeko?

—Sei egunen buruan, gehienez ere, hemen izango dira, jauna —ihardetsi zion duke handiak—. Mezulari trebe eta adoretzu batek hirian sartzea lortu du gaur goizean, eta berrogeita hamar mila errusiar hona datozela jakinarazi dit, Kisselef jeneralaren aginduetara. Duela bi egun, Lenako ibai bazterretan zeuden, eta, orain, ez hotzak ez elurrak ez die galaraziko honaino iristea. Berrogeita hamar mila soldaduko tropak tatariarrei alboetatik eraso eginez berehala askatuko gaitu.

—Gaineratu nahi dut —esan zuen merkatarien buruak— berorren gorentasunak hiritik atera eta kanpoan erasotzeko agintzen duenean, prest egongo garela berorren aginduak betetzeko.

—Ongi da, jauna —erantzun zion duke handiak—. Zain egongo gara geure armada-sailen buruak muinoetan agertu arte, eta orduan azpiratu egingo ditugu inbaditzaileak.

Gero, Voranzoff jeneralarengana biratuz:

—Bihar eskuin aldeko ur ertzaren lanak bisitatuko ditugu —esan zuen—. Izotz puska ugari dakar Angarak, laster jelatuko da, eta, hala gertatuz gero, tatariarrek zeharkatzea edukiko dute beharbada.

—Berorren gorentasunak utziko al dit ohar bat egiten? —galdetu zion merkatarien buruak.

—Egin ezazu, jauna.

—Behin baino gehiagotan ikusi dut tenperatura hogeita hamar gradu zero azpitik jaisten, bai eta berrogei gradu ere, eta Angarak isuri eta isuri segitu du beti erabat jelatu gabe. Ur lasterraren abiadurarengatik inondik ere. Tatariarrek urak zeharkatzeko beste modurik ez badute, berorren gorentasunari ziurtatzen diot horrela behintzat ez direla Irkutsken sartuko.

Gobernadore nagusiak berretsi egin zuen merkatarien buruaren baieztapena.

—Gure alde jokatuko du horrek dudarik gabe —erantzun zuen duke handiak—. Hala ere, prest egon behar edozein gorabeherari aurre egiteko.

Eta polizi buruarengana itzuliz:

—Niri esateko ezer ez duzu, jauna? —galdetu zion.

—Erregu baten berri eman behar diot berorren gorentasunari —erantzun zion polizi buruak—, hala eskatu didate eta.

—Norena da, bada?

—Siberiako erbesteratuena. Berorren gorentasunak dakienez, bostehun bat dira hiri honetan.

Atzerriratu politikoak probintzia guztian sakanaturik bizi ziren. Beren ogibideetan jardunez ateratzen zuten bizimodua. Batzuk sendagile ziren; beste batzuk irakasle, zela bigarren mailako ikastetxetan, zela eskola japoniarrean, zela nabigazio eskolan. Baina, inbasioa hasi zelarik, Irkutskera biltzeko agindua eman zieten, eta, beren herriak utziaz, hara jo zuten agindua betetik. Hasiera-hasieratik, duke handiak uste ona agertu zuen haiekiko, Errusia biziki maite zutelakoan baitzegoen, tsarra bezala. Armak eman eta soldadu sutsuak zirela ikusi ahal izan zuen.

—Zer eskatzen dute, bada, erbesteratuek? — itaundu zuen duke handiak.

—Berorren gorentasunari baimena eskatzen diote —hasi zen polizi burua— soldadu sail bere-

zi bat osatzeko eta borroka guztietan defendatzaileen buru jartzeko.

—Bai —erantzun zuen duke handiak, bihotzeko zirrara gordetzen saiatu gabe—, erbesteratu horiek errusiarrek dira eta eskubidea dute beren herriaren alde borrokan egiteko!

—Soldadu hoberik ez du berorren gorentasunak inon aurkituko —esan zuen gobernadore nagusiak—, ziur nago ni horretaz.

—Baina buru bat behar dute —erantzun zuen duke handiak—. Nor izango da?

—Haietako bat hainbat alditan nabarmendu da —esan zuen polizi buruak—, eta hura nahiko lukete buru, berorren gorentasunari ongi irudituz gero.

—Errusiarra da?

—Bai, probintzia baltikoetako errusiarra.

—Nola du izena?

—Vasili Fedor.

Atzerriratu hura Nadiaren aita zen.

Vasili Fedor, jakina dugunez, sendagilea zen Irkutsken. Gizon eskolatua zen eta errukitsua, eta baita kemen handikoa eta herrizaletasun zintzokoa ere. Bere gaixoei eskaintzen ez zien denbora guztia erresistentzia antolatzen ematen zuen. Hark elkartu zituen erbesteko lagun guz-

tiak eta batera jardutera bultzatu. Atzerriratuek, bertakoen ilaretan nahasirik ordu arte, ausardia handiz jokatu zuten, duke handiaren arreta berenganatzeraino. Hainbat irteeratan, odolez ordaindu zuten Errusia santuarekin zuten zorra —santua, zinez, eta bere seme-alabek gurtua!—. Vasili Fedor heroi baten irudira aritu zen. Haren izena behin eta berriz goraipatu zuten, baina sekula ez zuen ez mesederik ez abantailarik eskatu, eta, Irkutskeko erbesteratuek soldadu sail berezia osatzea pentsatu zutenean, hark ez zekien bera buru izendatzeko asmoa zutela.

Polizi buruak Vasili Fedor duke handiaren aurrean ahotan hartu, eta honek izen horren aditzea bazuela erantzun zion.

—Izan ere —Voranzoff jenerala hasi zen hizketan—, Vasili Fedor kementsua da eta ausarta. Eta eragin nabaria izan du bere lagunengan.

—Noiztik dago Irkutsken? —galdetu zuen duke handiak.

—Bi urtetik hona.

—Eta haren jokamoldea...?

—Haren jokamoldea —arrapostu eman zion polizi buruak— erbesteratuen lege bereziei beti men egiten dien gizonarena da.

—Jenerala —eskatu zion duke handiak—, jenerala, aurkeziezadazu gizon hori berehala, arren.

Duke handiaren aginduak bete ziren, eta, ordu erdia joan gabe, Vasili Fedor aretoan sartu eta haren aurrean jarri zuten.

Itxura gogor eta tristeko gizon bat zen, berrogei bat urtekoa edo zaharragoa. Ezagun zen haren bizitza osoa hitz bakar batean laburbiltzen zela: borroka. Asko borrokatua zen, eta asko sufritutakoa. Aitaren hazpegiek haren alaba Nadia Fedor gogorarazten zuten biziki.

Besteri baino gehiago, hari jo zion tatariarren inbasioak barne-muinetan, eta hari kamustu bere aita-itxaropenik biziena, sorterritik zortzi mila verstara atzerriraturik. Gutun baten bidez ikasi zuen bere emaztea hil zela, eta, horrekin batera, bere alaba bidaiari abiatu zela, Irkutsken berekin elkartzeko baimena gobernutik lortu ondoren.

Nadia uztailaren 10ean atera bide zen Riga-tik. Inbasioa uztailaren 15ean hasi zen. Nadiak ordurako muga pasea baldin bazuen, zer gertatu ote zitzaion inbaditzaileen erdian? Ulertzekoa zen zorigaitzeko aita hark kezka txarrak eta

nahigabe saminak edukitzea, bere alabaren inolako berririk ez baitzuen orduz geroztik.

Vasili Fedor duke handiaren aurrean makurtu, eta zain gelditu zen zer galdetuko.

—Vasili Fedor —esan zion duke handiak—, zure lagun erbesteratuek armada-sail berezi bat osatzeko eskatu dute. Ez dakite horrelako sailetan azken-azkenekoa erori arte egin behar dela borrokan?

—Badakite —erantzun zion Vasili Fedorrek.

—Zeu nahi zaituzte buru.

—Ni, jauna?

—Onartzen duzu haien buru jartzea?

—Bai, Errusiaren onerako bada.

—Fedor komandantea —esan zion duke handiak—, hemendik aurrera ez zara erbesteratua.

—Eskerrik asko, jauna, baina nola izango naiz buruzagia hala izaten segitzen dutenena?

—Haiek ere ez dira!

Indultua zen hura, indultua, tsarraren anaiak emana, haren lehengo erbeste kideentzat, haren oraingo arma lagunentzat!

Vasili Fedorrek hunkiturik estutu zuen duke handiak luzaturiko eskua eta aretotik irten zen.

Duke handiak bere ofizialengana biratu eta irribarrez esan zien:

—Tsarrak ez dio uko egingo haren izenean ematen dudan indultu agiria onartzeari! Heroiak behar ditugu Siberiako hiriburua defendatzeko, eta oraintxe aurkitu ditut.

Izan ere, Irkutskeko atzerriratuei hain esku-zabal emandako indultu hura ekintza egokia zen oso justiziaren eta politikaren ikuspuntutik.

Gaua gainera etorria zen ordurako. Jauregiko leihoetatik zehar ñir-ñir egiten zuten tatariarren kanpamentuko suek Angaraz beste aldera. Ibaiak izotz puskak zekartzan ugari, eta haietako batzuk gelditu egiten ziren lehengo zubi zurezkoen aurreneko piloteetan. Ur lasterraren erdian zeudenak azkar eta laster igarotzen ziren. Nabaria zen Angararen ur azal osoa nekez baino nekezago jelatuko zela, merkatarien buruak adierazi legez. Hortaz, alde hartatik erasoren bat izateko arriskua ez zen Irkutskeko defendatzaileak kezkatzeko adinakoa.

Gaueko hamarrak jo berriak ziren. Duke handia ofizialak agurtu eta bere geletara joateko zorian zegoen, baina, tupustean, halako istilua sortu zen jauregitik landa.

Iskanbila entzun bezain laster, aretoko atea zabaldu eta kanpo laguntzaile bat sartu zen. Duke handiarengana joan eta zera esan zuen:

—Jauna, tsarraren mandatari bat!

## XIII

# TSARRAREN MANDATARI BAT

Kontseiluko kide guztiak aldi berean itzuli ziren ate erdi-irekirantz. Tsarraren mandatari bat iritsia zen Irkutskera! Ofizialek apur batez gogota egin izan balute hori gertatzearen aukeraz, ezinezkoa zela erabakiko zuten inondik ere.

Duke handia bizi-bizi joan zen bere kanpo laguntzailearengana.

—Datorrela! —agindu zuen.

Gizon bat sartu zen. Ahuldua zirudien nekearen nekeaz. Nekazari siberiarren janzkera zuen. Haren arropa higatua zegoen, piltzartua kasik, eta bala zulo batzuk ageri zitzaizkion. Buruan txano moskutarra. Gaizki orbainduriko ebaki bat zeukan begitartean, alderik alde. Gizon hark bide luze neketsua ibilia zuela begi bistakoa zen. Oinez ere egin behar izan zuen bidai tarteren bat, haren zapata urratuek erakusten zuten bezala.

—Duke handia? —esan zuen ahots goraz.

Duke handia harengana joan zen:

—Tsarraren mandataria haiz? —galdetu zion.

—Bai, jauna.

—Nondik hator?

—Moskutik.

—Noiz atera hintzen handik?

—Uztailaren 16an.

—Nola duk izena?

—Mikel Strogoff.

Ivan Ogarref zen, ordea. Mikel Strogoff ezinean utzi eta haren izena eta nortasuna hartuak zituen. Ez duke handiak, ez bestek, ez zuten eza gutzen Irkutsken, eta ez zuen beharrik izan bere itxura mozorro janzteko ere. Nortasun faltsu hura egiaztatzeko modua bazuen, eta inork ez zuen zalantzan jarriko. Traizioaz eta hilketaz inbasioaren dramaren bukaera aurreratzerantz zetorren, burdinazko borondate batek bultzaturik.

Ivan Ogareffen erantzunaren ondotik, duke handiak keinu bat egin eta ofizial guztiak areto-tik irten ziren.

Gezurrezko Mikel Strogoff eta duke handia gelditu ziren aretoan, beste inor ez.

Duke handiak Ivan Ogareffi begiratu zion pixka batean, arreta handiz. Gero:

—Uztailaren 16an Moskun hengoan, ezta? —  
galdetu zion.

—Bai, jauna, eta 15etik 16rako gauean tsarra ikusi nuen jauregi berrian.

—Tsarraren gutun bat daukak?

—Hona hemen.

Eta Ivan Ogareffek paper tolestu-tolestu bat, mikroskopikoa ia, eman zion duke handiari. Hura zen gutun inperiala.

—Honela eman ziaten gutuna? —galdetu zion duke handiak.

—Ez, jauna, baina gutunazala apurtu behar izan nuen, ongi ezkutatzeko eta emirraren soldaduek ez aurkitzeko.

—Tatariarren preso egon haiz?

—Bai, jauna, egun batzuetan —erantzun zion Ivan Ogareffek—. Horregatik, nahiz Moskutik uztailaren 16an atera, gutunaren datan agertu bezala, ez naiz urriaren 2ra arte iritsi Irkutskera, hirurogeita hemezortzi egun bidean eman eta gero.

Duke handiak gutuna hartu eta haren tolesak zabaldu zituen. Tsarrak bere eskuz emandako sinadura ezagutu zuen, sakramentu formularen ondotik. Beraz, dudarik ez gutunaren egiazkotasuna zela-eta, eta ezta ere mandatariaren nortasuna zela-eta. Gizon haren itxura bihozgabeak mesfidantza piztu zion hasiera batean, horretaz

deus aditzera eman ez bazuen ere, baina orain zeharo desagertu zitzaion susmo hura.

Duke handiak isilik eman zuen une bat. Gutuna astiro irakurtzen ari zen, haren esanahi osoaz jabetu nahirik.

Hitza hartu zuen berriz ere segituan:

—Mikel Strogoff, badakik gutunak zer dioen? —itaundu zion.

—Bai, jauna. Gutuna suntsitu beharra izan nezakeen, tatariarren atzaparretan ez erortzeko, eta, hala gertatuz gero, testua zehatz-mehatz errepikatu nahi nion berorren gorentasunari.

—Badakik gutun honek hiria defendatzeko agintzen digula, eta hiltzeraino, beharrezkoa bada

—Badakit.

—Badakik, beraz, nolako tropa mugimenduak antolatu diren inbasioari kontra egiteko?

—Bai, jauna, baina mugimendu horiek ez dute arrakastarik izan.

—Zer esan nahi duk?

—Esan nahi dut Ixin, Omsk eta Tomsk hartu dituztela banan-banan Feofar Khanen soldaduek, eta hori bi Siberietako hiri txikiak alde batera utzita.

—Baina borrokan egin dute? Gure kosakoek aurka egin diete tatariarrei?

—Behin baino gehiagotan.

—Eta garaitu egin dituzte?

—Ez ziren aurre egiteko adina.

—Non izan dira aipatzen dituan borroka horiek?

—Kolivanen, Tomsken...

Ordu arte, Ivan Ogareffek egia baizik ez zuen esan; baina, Irkutskeko defendatzaileen adorea ahultzeko asmotan, emirraren tropen garaipenak puzten eta harrotzen hasi zen.

—Eta hirugarren aldian Krasnoiarsk hiriaren aurrean.

—Eta azken borroka hori?... —galdetu zion duke handiak, ezpainak estaturik, hitzak ozta-ozta ateratzen zitzaizkiola.

—Borroka baino gehiago izan zen, jauna —erantzun zion Ivan Ogareffek—, bataila bat lege-legera.

—Bataila bat?

—Hogei mila errusiarrek, Tobolskeko eta mugako probintzietatik etorriek, ehun eta berrogeita hamar mila tatariarri aurre egin zieten. Amorruez eta gogoz aritu ziren, baina suntsitu egin zituzten.

—Gezurretan ari haiz! —garrasi egin zuen duke handiak, haserrea bigundu nahi eta ezin.

—Egia da, jauna —erantzun zion hotz Ivan Ogareffek—. Krasnoiarskeko batailan izan nintzen, eta hantxe hartu ninduten preso!

Duke handia lasaitu egin zen, eta, imintzio batez sinesten ziola adierazi zion Ivan Ogareffi.

—Noiz izan zen Krasnoiarskeko bataila hori? —galdetu zion.

—Irailaren 2an.

—Eta orain tatariarren tropa guztiak daude Irkutsken inguruan?

—Guzti-guztiak.

—Eta zenbatsu dira, hire ustez?

—Laurehun mila gizon inguru.

Berriz ere handitu egin zuen Ivan Ogareffek armada tatariarren soldadu kopurua, beti helburu bera gogoan.

—Eta ez zaigu laguntzarik etorriko mendebaldeko probintzietatik? —galdetu zion duke handiak.

—Batere ez, jauna, ez negua pasa arte, behintzat.

—Bada, entzun ezak ongi, Mikel Strogoff. Nahiz batere laguntzarik ez eduki ez mendebaldetik, ezta ekialdetik ere, nahiz barbaro horiek

seihun mila izan, sekula ez diat Irkutsk haien eskuetan utziko!

Ivan Ogareffen begi gaiztoa zimurtu zen apur bat. Tsarraren anaiak traiziorik espero ez zuela adierazi nahi zuen traidoreak horrela, antza.

Duke handiak, urduria izaeraz, nekez eusten zion lasaitasunari, horren berri txarrak entzunda. Hara-hona zebilen aretoan, Ivan Ogareffen begien aurrean, zeinak piztiak harrapakinari bezala so egiten zion mendeku gosez. Leihoen parean gelditzen zen, tatariarren kanpamentuko suei begiratzen zien, soinuak hauteman nahi zituen, eta Angarako izotz pusken arteko talka hotsa entzutea ia besterik ez zuen lortzen.

Ordu laurden bat joan zen, bat ere galderarik egin gabe. Gero, gutuna hartu, pasarte bat berriz irakurri eta mandatariari hitz egin zion.

—Badakik, Mikel Strogoff, gutunean traidore bat aipatzen dela eta harekin kontuz ibili behar dudala?

—Bai, jauna.

—Mozorro jantzita Irkutsken sartzen saiatuko duk, nire uste ona bereganatzen saiatuko duk, eta, gero, une egokian, hiria tatariarrei emango ziek.

—Badakit hori dena, jauna, eta baita Ivan Ogareffek berorren kontra mendeku hartzea zin egin duela ere.

—Zergatik?

—Duke handiak degradazio iraingarriaz zigortu omen zuen ofizial hori.

—Bai... gogoan diat... Baina merezi zian, bai, doilor zikin hark. Eta orain bere herriaren kontra altxatu duk, barbaroen inbasio baten buru.

—Tsarrak Ivan Ogareffen asmo zitalen berri berorrek jakitea nahi zuen batez ere —esan zion Ivan Ogareffek.

—Bai... gutunak aipatu egiten dik.

—Eta tsarrak berak esan zidan, eta ohartarazi zidan gainera Siberia zeharkatzean batez ere traidore horrekin ibili behar nuela kontu handiz.

—Eta topatu duk?

—Bai, jauna, Krasnoiarskeko batailaren ondotik. Susmatu izan balu berorrentzako gutun bat nekarrela eta hartan haren asmoak agerian jarzzen zirela, ez zen nitaz errukituko.

—Bai, hireak egingo zian! —erantzun zion duke handiak—.Eta nola egin huen ihesi?

—Irtish ibaira bota nuen neure burua.

—Eta nola sartu haiz Irkutsken?

—Arratsalde honetan bertan sartu naiz. Irteera bat egin duzue destakamendu tatariar bati kontra egiteko. Soldadu defendatzaileekin nahasi naiz, nor naizen esan eta berehala ekarri naute berorren gorentasunarengana.

—Ongi duk, Mikel Strogoff —esan zion duke handiak—, adoretua eta saiaturia haizela erakutsi duk egiteko honetan. Gogoan hartuko diat. Mesederen bat eskatu nahi didak?

—Ez, jauna, berorren gorentasunaren ondoan borrokan egitea, besterik ez —erantzun zuen Ivan Ogareffek.

—Hala bedi, Mikel Strogoff. Neure zerbitzuan hartuko haut, eta jauregian biziko haiz.

—Eta Ivan Ogareff izen faltsuarekin agertzen bada berorren gorentasunaren aurrean, bere asmo zital hori burutu nahirik?

—Mozorroa kenduko zioagu hiri eskerrak, nor den badakik-eta, eta knut kolpez hilaraziko diat. Orain segi hemendik.

Ivan Ogareffek agur militarra egin, tsarraren mandatarigoko kapitaina zela ahaztu gabe, eta alde egin zuen.

Traidoreak oso-osoan bete zuen bere burubide zitala. Erabat eta aitzakiarik gabe bereganatua zuen duke handiaren uste ona. Komeni

zitzaion tenorean eta tokian erabiltzen ahal zuen. Jauregian bertan biziko zen. Defentsa lanen berri izango zuen. Mendean zeukan egoera, beraz. Inork ez zuen ezagutzen Irkutsken, inork ezin zion mozorroa kendu. Berandu gabe lanari ekitea erabaki zuen, bada.

Izan ere, denborak estutu egiten zuen. Iparretik eta ekialdetik errusiarrak iritsi baino lehen hartu behar hiria, eta egun gutxi batzuen kontua zen hori. Behin tatariarrak Irkutskez jabeturik, ez zen samurra izango handik botatzea. Dena dela, geroago hiria utzi beharrean suertatuz gero, ez zuten egingo goitik behera birrindu gabe, eta duke handiaren burua Feofar Khanen oinetara jira-biraka erorarazi gabe.

Ivan Ogareffek erraztasun guztiak zituen nahi zuena ikusi, aztertu edo egiteko, eta biharamunean hiriaren babeskiak bisitatu zituen. Pozik hartu zuten leku guztietan, eta zorionik beroenak eman zizkieten ofizialek, soldaduek eta herritar guztiek ere. Tsarraren mandatari hark inperioarekin lotuta zeudela sentiarazten zien berriro ere. Ivan Ogareffek, bada, bidaiaren gezurrezko pasadizoak kontatzen zizkien, ziurtasun osoz eta batere kontraesanik gabe. Gero, trebetasun handiz, hasieran gehiegi azpimarratu

gabe, egoeraren larriaz mintzaten zen, askozaz ere beltzago ipiniz, tatariarren garaipenak hartzen zituen ahotan, duke handiaren aurrean egin legez, eta barbaroen kopurua kontaezina zela esaten zien. Hark zioenez, espero zituzten laguntzak ez ziren aski izango, iristea lortzen bazuten, gainera; eta beldur izatekoa zen Irkutskeko harresi azpian bataila bat eginez gero Kolivanen, Tomsken eta Krasnoiarsken bezain amaiera zorigaiztokoa izatea.

Halako aieru ustelik, hala ere, ez zuen sarri zabaltzen Ivan Ogareffek. Zuhurtziaz botatzen zituen bere iritziak han-hemenka, Irkutskeko defendatzaileen gogoetan pixkaka-pixkaka barnera zitezen. Ez zuela hitz egin nahi irudi zuen, galdezka eta galdezka ito arte ez baitzen hasten erantzunak ematen, eta derrigortuaren plantan egiten zuen beti ere. Dena den, azken gizona erori arte defendatu beharra zegoela gehitzen zuen, eta hiria tatariarrei utzi aurretik lehertarazi behar zutela!

Kalte gehiago egingo zuen, egokiera izanez gero. Baina Irkutskeko goarnizioak eta biztanleriak biziki maite zuten beren herria eta ez ziren aise kikiltzekoak. Soldadu eta herritar haietatik bakar bati ere ez zitzaion bururatuko errendi-

tzeaz hitz egiterik, Asiako azken bazterreko hiri isolatu baten barruan atera ezinik egon arren.

Dena den, inork ez zuen susmatu ere egin Ivan Ogareff rol gorrotogarria jokatzeko ari zela, inork ezin zuen igarri tsarraren mandatari ustezko hori traidore bat besterik ez zela.

Ivan Ogareffek maiz izan zituen harremanak hiriaren defendatzaile sutsuenetariko batekin, Vasili Fedorrek, Irkutskera iritsi zen mementotik. Berez etorritako arrazoi batek hurbilarazi zituen.

Jakina da nolako kezkek erretzen zizkioten barrenak aita koitaduari. Haren alabari, Nadia Fedorri, zer gertatu ote zitzaion, Errusiatik atera baldin bazen Rigatik bidalitako azken gutunak aipatzen zuen egunean? Inbadituriko probintziak zeharkatu nahian segituko zuen oraindik, edo tatariarren preso izango zen aspalditik? Vasili Fedorrek tatariarrekin borrokan eginez baizik ez zuen arintzen bere oinazea, eta tamalez oso gutxitan egokitzen zitzaion horrelako aukera.

Hortaz, bada, Vasili Fedorrek tsarraren mandatari bat ustekabean iritsi zela jakin zuenean, usteak jo zion mandatari hark alabaren berri emango ziola. Ameskeria besterik ez zen, segur aski, baina hari eutsi zion gogor. Mandatari hori

ez zen, bada, gatibu egon, eta Nadia ez zen beharbada hala egongo une honetan?

Ivan Ogareffen bila joan zen Vasili Fedor, eta traidorea abagune hartaz baliatu zen komandantearekin egunero elkartzeko. Etekina atera nahi ote zuen harreman hartatik? Gizon guztiak bera bezalakoak zirelakoan ote zegoen? Uste ote zuen errusiar bat, erbesteraturik ere, bere herria saltzeko bezain lotsagaldua izan zitekeenik?

Nolanahi ere, Ivan Ogareffek itxura ederki egin zuen eta ardura handiz erantzun zituen Nadiaren aitak egindako galderak. Azken honek ustezko mandataria iritsi eta biharamunean bertan jo zuen gobernadore nagusiaren jauregira, Ivan Ogareffekin berba egitera. Bere alaba beharbada Europa aldeko Errusiatik irten eta tatariarren mendeko lurraldean barneratu zela jakinarazi zion, eta horrek kezka gorria ematen ziola gehitu zuen.

Ivan Ogareffek ez zuen Nadia ezagutzen, nahiz eta neska Ixingo posta etxean egon Mikel Strogoffekin, zaldiak nork eramango eztabaidatu zuten egunean. Baina batere jaramonik ez zion egin hari, han zeuden bi kazetariei egin ez zien gisan. Ezin, bada, alabaren inolako berririk eman Vasili Fedorreri.

—Baina noiztsu atera zen zure alaba Errusia-ko lurraldetik? —galdetu zion Ivan Ogareffek.

—Zu atera zinenean, gutxi gorabehera —erantzun Vasili Fedorrek.

—Ni uztailaren 16an atera nintzen Moskutik.

—Nadia ere orduan-edo aterako zen Moskutik, gutunean idatzi zidanaren arabera.

—Moskun zegoen uztailaren 16an? —galdetu Ivan Ogareffek.

—Bai, egun horretan hantxe zegoen, ziur nago.

—Bada, orduan!... —hasi zen Ivan Ogareff.

Baina atzera egin zuen eta beste zerbait esan:

—Ez, ba; ez, ba...; gaizki ari naiz. Egunak nahasten ari naiz —gehitu zuen—. Zoritxarrez, zure alaba Moskutik aterako zen segur aski, eta itxaropen bakarra eduki dezakezu, tatariarren inbasioaren berri izan eta nonbait geldituko zela!

Vasili Fedorrek burua makurtu zuen! Nadia ongi ezagutzen zuen, eta bazekien deusek ere ez zuela geldiaraziko.

Ivan Ogareffek krudelkeria handia egin berri zuen zergatiko gabe. Vasili Fedor hitz batez lasaitu zezakeen. Haren alaba Ivan Ogareffekin batera irten baldin bazen Moskutik, harekin

batera egongo zen Nijni Novgoroden ere, eta han zeudela debekatu zuen gobernadoreak dekretu baten bidez errusiarrak probintziatik kanpo joatea. Ondorio garbia aterako zuen Vasili Fedorrek: Nadia ezin zela egon inbasioaren arriskupean, eta, haren nahiaren kontra, inperioaren lurralde europarretik ez zela irten.

Ivan Ogareffek, bere izaerari men eginez, besteren sufrikarioak hunkitzen ez duen gizona izaki, hitz hori esan zezakeen... Baina ez zuen esan.

Vasili Fedor bihotza bi puska eginda joan zen jauregitik. Elkarrizketa haren ondotik, bere azken itxaropena zapuztu zitzaion.

Hurrengo bi egunetan, urriaren 3an eta 4an, duke handiak hainbat aldiz deitu zion ustezko Mikel Strogoffi eta Jauregi Berriko kabinete inperialean entzundako guztia errepikarazi. Ivan Ogareffek, galdera haientarako ongi prestaturik, behin ere zalantza egin gabe erantzun zuen. Ez zuen ezkutatu, nahita, tsarraren gobernuaren erabatek ezustean hartu zuela inbasioak, altxamenak isilgordeka antolatu zutela, tatariarrak Obiko lerroaren jabe zirela lehenengo albisteak Moskura iristerako, eta, azkenik, deus ere ez zegoela prest probintzia errusiarretan inbaditzai-

leei aurre egiteko behar ziren tropak Siberiara bidaltzeko.

Gero, Ivan Ogareff, hara-hona ibiltzeko bate-re trabarik gabe, Irkutsk aztertzen hasi zen. Babeskien egoera miatu zuen, puntu ahulak bilatzen saiatu zen. Ikusitako horietaz baliatu behar, zerbaitegatik bere traizioa ezin burutzea gertatuz gero. Boltxaiako atean gelditzen zen batez ere, hura zabaldu nahi zuen-eta tatariarrak hirira sar zitezten.

Bi aldiz joan zen ate hartako glazisera arratsean. Setiatzaileen lehenengo postuak harresitik versta batera baino hurbilago zeuden, baina tiroen beldurrik gabe paseatzen zen han barrena. Bazekien arriskurik ez zegoela, eta ezagutu ere egingo zutela. Itzal bat antzeman zuen lubeten oinetaraino narrasean zetorrena.

Sangarre ahaleginean ari zen Ivan Ogareffekin harremanetan jartzeko, bere burua hiltzeko bidean jarrita ere.

Beste alde batetik, setiatuak azken bi egunetan lasai antzean zeuden, tatariarrek erasorik ez baitzuten egiten, setioaren hasieratik ohi zutenaren kontra.

Ivan Ogareffen aginduz jokatzeko zuten horrela. Feofar Khanen guda buruak hiria indarrez

hartzeko saio guztiak bertan behera uztea erabaki zuen. Hortaz, bada, Irkutskera iritsi zirenetik, artilleria lehenengo aldiz isildu zen zeharo. Beharbada horrela setiatuen begiak ez ziren hain zorrotz ibiliko. Hala espero zuen traidoreak, behinik behin. Dena dela, aurre-postuetan tatariar milaka batzuk zeuden ezkutatuak, Ivan Ogareffek erasoaldiaren ordua noiz esango zain, defendatzailerik gabeko ate aldera oldartzeko gertu.

Ezin geroko utzi, ordea. Bukatu beharra zegoen, armada errusiarrak Irkutsk begien bistan eduki aurretik. Ivan Ogareffek erabakia hartu zuen, eta, gau hartan, glazisetik behera txartel bat erori zen Sangarreren eskuetaraino.

Biharamunean, urriaren 5etik 6rako gauean, goizeko ordu bietan, hiria tatariarren esku utziko zuen Ivan Ogareffek.

## XIV

# URRIAREN 5ETIK 6RAKO GAUA

Ivan Ogareffen egitasmoa ardurarik handienaz taxutua zegoen, eta aurrera egingo zuen, ustekabekorik ezean. Beharrezkoa zen Boltxaia-ko atea libre egotea, tatariarrei zabaltzen zien unean. Horrela bada, une horretan defendatzaileen arreta hiriaren beste lekuren batera erakarri beharra zegoen ezinbestez. Horretarako, triki-mailuzko mugimendu bat hitz hartua zuten emirrak eta biak.

Mugimendu hori Irkutskeko auzuneen aldean egingo zuten, ibaian goitik eta ibaian behetik, eskuineko hegian. Eraso latza oso, bi gune horietan; eta, horrekin batera, Angara zeharkatzen ahaleginduko ziren ezkerreko hegian. Boltxaia-ko atea abandonatu egingo zuten segur aski, alderdi hartako aurre-postuak kendu zituztela irudi baitzuen, egiatan zertxobait atzeratu baino egin ez bazituzten ere.

Urriaren 5a zen. Hogeita lau ordu gabe, ekialdeko Siberiako hiriburua emirraren eskuetan

egongo zen, eta duke handia Ivan Ogareffen mende.

Egun hartan, ohi baino joan-etorri gehiago izan ziren Angarako kanpamentuan. Jauregiko leihoetatik eta eskuin hegiko etxeetatik nabarmen ikusten zen prestamen handietan zihardutela ibaiaren beste aldean. Tatariarren destakamendu ugari kanpamentuan elkartzen ari ziren, eta emirraren tropak handituz eta indartuz zihozazen etengabe. Trikimailuzko mugimendua antolatzen ari ziren, modu nabari-nabarian.

Gainera, Ivan Ogareffek ez zion ezkutatu duke handiari beldur izatekoa zela alde hartatik erasoaldia etortzea. Bazekien, nonbait, ibaian goitik eta behetik oldartuko zirela erasotzaileak hiriaren kontra, eta duke handiari aholku eman zion zuzen mehatxaturiko bi puntu horiek sendotzeko.

Tatariarren prestalanek Ivan Ogareffen gomendioei indar ematen zieten. Kontuan hartu behar ziren lehenbailehen. Hortaz, bada, gerra kontseilua jauregian bildu eta aginduak eman zituzten defentsa Angarako eskuin hegian pila-tzeko eta hiriaren bi muturrak gotortzeko, hango lubetak ibairaino jaisten baitziren.

Horixe besterik ez zuen nahi Ivan Ogareffek. Ez zuen espero, noski, Boltxaiako atean bat ere defendatzailerik ez egotea, talde txiki bat baino ez izatea baizik. Gainera, Ivan Ogareffek iruzurrezko erasoaldiari hainbesteko garrantzia eman behar zion, ezen duke handia beharturik egongo zen bere baliabide guzti-guztiak haien kontra jartzera.

Izan ere, larritasun itzelezko ekintza bat moldatua zuen Ivan Ogareffek, guztiz eraginkorra haren egitasmoa burutzen laguntzeko. Nahiz eraso ez egin Boltxaiako atetik urrun zeuden puntuetan eta ibaiaren eskuin hegian, ekintza hura aski izango zen defendatzaile guztiak Ivan Ogareffek nahi zuen lekura eramateko. Eta horrekin batera egundoko hondamendia ere ekarriko zuen.

Den-dena alde zegoen, beraz, Boltxaiako atea, ia zaindaririk ez zeukana, esandako orduan ekialdeko oihanetan gordetako milaka tatariarrei zabal-zabalik uzteko.

Egun hura adi eta zelatan eman zuten Irkutskeko soldaduek eta herritarrek, arreta inoiz ere galdu gabe. Ordu arte borrokan ukitu gabeko babeskien kontra eraso egingo zuten aurki, eta haiek defendatzeko neurri guztiak hartuak zituz-

ten. Duke handiak eta Voranzoff jeneralak defentsa postuak bisitatu zituzten. Behar bezala gotorturik zeuden, haien esanei jarraituz. Vasili Fedorren armada-sail aparta hiriaren ipar aldean zegoen, baina agindu zorrotza zuten arriskurik biziena zegoen tokira joateko berandu gabe. Defendatzaileen artilleria apurra Angararen eskuineko ur bazterra babesteko moduan jarri zuten. Ivan Ogareffek egoki-egoki egindako gomendioei esker, garaiz hartu ziren neurriak, eta erasoak porrot egingo zuela espero zitekeen. Hala gertatuz gero, tatariarrak bihozgabetuko ziren pixka batez, eta, zalantzarik gabe, egun batzuk joango ziren hurrengo erasoan egin artean. Eta hiriari laguntzera bidalitako tropak noiznahi irits zitezkeen. Irkutsk salbatzea edo galtzea hari batetik zintzilik zegoen.

Egun hartan, eguzkia, goizeko seiak eta hogeian sortu eta seiak hogeia gutxitan sartuko zen, zerumugatik gora egunezko ibilaldi biribila eginda hamaika ordu luzez. Ilunabarrak bi orduan ibili behar oraindik gauarekin gatazkaka. Gero, ilunpe beltzez beteko ziren bazterrak, hodei lodiak ari baitziren metatzen airean, eta, ilargi berria izanik, argirik ez zeruan.

Iluntasun handi hura ezin egokiagoa izango zen Ivan Ogareffen asmoak aurrera ateratzeko.

Azken egunetako hotz izugarriak Siberiako negu zorrotza hurreratzen ari zela iragartzen zuen, eta gau hartakoa ordu arteko gogorrena zen zinez. Angararen eskuin hegian ezkutaturiko soldaduek ez zuten surik piztu, hantxe zeudela inork susma ez zezan, eta gorriak jasaten ari ziren tenperatura jaitsiera haren kariaz. Haien azpian, oin batzuetara baino ez, izotz puskek jaisten ziren, ibaiaren ur lasterrak garraiatuak. Egun oso hartan ibaian behera pasa eta pasa aritu ziren, talde estuetan, bi ur ertzen artetik. Duke handia eta haren ofizialak hartaz ohartu eta zorionekotzat jo zuten, nabari-nabaria baitzen, hala segitzera, ibaia ezin zela inola ere zeharkatu, izotzek trabatzen ez bazuten, behintzat. Tatariarrak ezin erabili ez txaluparik, ezta almadiarik ere, beste aldera iristeko. Eta hotzak izotz puska haiek itsatsi eta batu izan balitu ere, ezinezkoa izango zen pasatzea. Jelazko zubi horrek, arestian gogorturik, ezin eskaini soldadu andana bat igarotzeko behar beste trinkotasunik.

Ivan Ogareff atsekabetzeko moduko eragozpena zen, Irkutskeko defendatzaileen aldekoa

ematen zuenez gero. Baina ez. Kezkarik ñimiño-ena ere ez zion eragin! Traidoreak ongi baino hobeki zekien tatariarrak ez zirela ahaleginduko Angara igarotzen, eta, alde horretatik behinik behin, saio hura itxura egiteko besterik ez zela.

Hala ere, gaueko hamarrak aldera, ibaiaren egoera nabarmen aldatu zen, setiatuei ezusteko galanta emanaz, egoera berria haien kaltean zetorrelako. Ibaia, iraganezina ordu arte, libre gelditu zen kolpetik. Bat ere trabarik ez zegoen haren urazalean. Izotz puskak azken egunetan ausarki lerratu ondoren, desagertu egin ziren uretan behera, eta bospasei baizik ez ziren ageri bi ibai bazterren artean. Eta haien itxura, gainera, ez zen ohikoa; haiek ez ziren hotzaren eragin erregularrez sortzen diren izotz puskak, *ice-fields* batetik erauzitako zati hutsak baizik, apurtuneak garbi-garbi ebakiak zituztenak, koska larririk gabe.

Ofizial errusiarrak ibaiaren egoera aldatu zela konturatu orduko, duke handia jakinaren gainean jarri zuten. Azalpen erraza zuen, bestalde, gertatu zenak: izotz puskak Angarako mehargunereren batean metatu eta jelazko hesia eratuko zuten.

Eta halaxe izaki, izan ere.

Angara zabalik zegoen, beraz, setiatzaileen-  
tzat. Eta errusiarrak are erneago ibili behar.

Gauerdira arte deus ere ez zen gertatu. Ekial-  
dean, Boltxaiako atetik hara, lasaitasun erabate-  
koa. Surik bat ere oihan multzo hartan. Zuhai-  
tzak zerumugaraino hedatzen ziren eta hango  
hodei apalekin nahasten.

Angarako kanpamentuan argiak atzera eta  
aurrera mugitzen ziren sarritan, hango asaldura  
biziaren seinale.

Marmar isil bat entzuten zen, harresiaren  
ezpondak ibai ertza ukitzen zuen lekutik versta  
eta erdi gorago eta beherago. Tatariarrek zutik  
zirauten, erasorako prest, seinale baten espero-  
an.

Beste ordu bat joan zen. Deus berririk ez.

Goizeko ordu biak jotzekotan zeuden Irkuts-  
keko katedraleko kanpandorreen, eta inolako  
zantzuak ez zuen susmarazi setiatzaileen borro-  
ka-asmoak zein ziren.

Duke handia eta haren ofizialak beren buruei  
galdezka ari ziren ea itxurek ez ote zuten huts  
egin, eta tatariarren asmoetan sartzen ote zen  
egiatan hiriari ustekabeen eraso egitea. Aurreko  
gauak ez ziren horren lasaiak izan, ez hurrik  
eman ere. Fusilek tiro egiten zuten aurre-postue-

tatik, obusek airea zeharkatzen, eta, aldi hone-tan, berriz, deus ez.

Hortaz, duke handia, Voranzoff jenerala, haien kanpo laguntzaileak, zain zeuden denak, agindu hau edo hura emateko prest, tatariarrek batera edo bestera jokatzeko zutela ikusi bezain laster.

Ivan Ogareff jauregian bertan bizi zen, ares-tian esan legez. Beheko solairuko gela handi samar bat zen harena, leihoak alboko terraza batera zabalik zeuzkana. Aski zen terraza hartan pauso batzuk egitea Angara ibaia azpian izateko.

Ilun-iluna zegoen gela hura.

Ivan Ogareff, zutik leiho baten ondoan, zain zegoen ordua noiz iritsiko. Erasoari ekiteko sei-nalea berak egin behar zuen, noski. Behin sei-na-le hori eginda, Irkutskeko defendatzaileak eraso gunetara bilduko ziren, eta bera jauregia utzi eta bere asmoa betetzera joango zen.

Zain zegoen, hortaz, ilunpetan gorderik, harrapakinaren gainera oldartzeko prest dagoen piztia bezala.

Bitartean, ordu biak jo baino minutu batzuk lehenago, duke handiak Mikel Strogoff etorraz-teko eskatu zuen —beste izenez ezin hots egin

hark Ivan Ogareffi—. Kanpo laguntzaile bat gelaraino etorri zen. Atea itxita zegoen. Deitu zuen...

Ivan Ogareffek, leihotik hurbil geldi-geldirik eta ikusezina itzalpean, ez zuen inola ere erantzun.

Duke handiari ohartarazi zioten, bada, tsararren mandataria ez zegoela une hartan jauregian.

Ordu biak jo zuten. Tatariarrei seinale egiteko unea etorria zen, trikimailuzko erasoari ekin ziezaioten.

Ivan Ogareffek leihoa ireki, alboko terrazara irten, eta iparreko angeluan paratu zen.

Haren azpian, itzalen artean, Angarako urak igarotzen ziren, orro eginez pilareen ertzen kontra jotzean.

Ivan Ogareffek supiztekoa sakelatik atera, piztu, bolbora finez blaitutako iztupa apur bati su eman, eta ibaira bota zuen...

Haren aginduz isuria zuten olio minerala uharka Angararen ur azalera!

Nafta biltegi batzuk lehertu zituzten ibaiaren eskuin hegian, Poshkavsk herriaren eta Irkutsken artean. Ivan Ogareffek modu lazgarri hori erabiltzera deliberatu zuen, Irkutsk sutan jarri nahian. Erregai likidoz beteriko biltegi izugarriak bereganatu, eta aski izan zen pareta atal bat

lurrera botatzearekin, egundoko isuria ibaira husteko.

Gau hartan bertan egina zuten ekintza hori, ordu batzuk lehenago, eta horregatik lerratzen ziren tsarraren egiazko mandataria, Nadia eta iheslariak olio mineralezko korronte baten gainean. Biltegi haien edukiera milioika metro kubokoa zen, eta haien zuloetatik kanpora erreka baten gisa amildu zen nafta lurrazaleko maldetan aurrera ibaiaren uretaraino, non gainazalean geratu zen bere dentsitatearengatik.

Horra nola ulertzen zuen gerra Ivan Ogaref-fek! Tatariarren aliatua izanik, tatarriarren antzeria ziharduen bere herrikideen aurka!

Iztupa Angararen uretan erori zen. Istant batez, korrontea alkoholezkoa izan balitz bezala, gainalde osoa suak hartu zuen ibaian behera eta ibaian gora, argindarraren abiaduraz. Sugarrezko kiribil urdinskak hara eta hona zebiltzan bi urertzen artean. Olioeko lurrun lodiak bihurritzen ziren haien gainean. Izotz puska bakanak, jitoan ibaian behera, argizaria labe gainean legez urtzen ari ziren, suak hartutako isurkaria inguruan, eta lurrunduriko ura ihesi zihoan airean gora txistu gorgarrien erdian.

Orduantxe, tiro hotsa atera zen hiriaren ipar eta hegoan. Angarako kanpamentuko kanoiak desarra bota eta bota hasi ziren. Tatariar milaka batzuk lubeten gora abiatu ziren. Ur bazterreko etxeak, zurez eraikiak, sutan zeuden bazter guztietatik. Argitasun handi batek urratu zuen gauaren iluna.

—Azkenean! —esan zuen Ivan Ogareffek.

Eta bazuen txalo jotzeko motiborik, alajaina! Iruzurrezko erasoak ikaragarria zen. Irkutskeko defendatzaileek tatariarrei aurpegi eman behar, batetik, eta sutea itzali behar, bestetik. Kanpaiak jo zituzten, eta ibiltzeko gauza ziren herritar guztiak erasotako guneetara edo erretzen ari ziren etxeetara agertu ziren, sua hiri guztian barrena hedatzeko arriskua baitzegoen.

Boltxaiako atea libre zegoen ia. Zaindari gutxi batzuk baino ez ziren ageri. Eta gainera, traidorearen esanari jarraituz, eta han zer gertatu zen aztertzean bera bakean utz zezaten eta arrazoi politikoak baino erabili ez zitzaten, zaindari urri haiek erbesteratuen sail txiki hartatik hautatuak izan ziren.

Ivan Ogareff gelara itzuli zen. Angarako sugarrak terrazen kalostraren gainetik igo eta gela

barrua argitzen zuten beren distiraz. Gero, kanpo aldera joan zen.

Baina, atea ireki orduko, emakume bat gelara sartu da, arropa blai-blai eginda, buruko ileak kopetan behera dituela.

—Sangarre! —oihu egin du Ivan Ogareffek, harri eta zur lehen unean, eta pentsaturik emakume hura buhamea baizik ezin dela izan.

Ez da Sangarre, ordea; Nadia da.

Hura eta Mikel Strogoff izotz puska baten gainean ibaian behera zihoazela, neskatxak garrasi egin zuen bat-batean, sua Angararen gainazal osoan nola hedatzen zen ikusirik. Mikel Strogoffek besoetan hartu eta uretan murgildu zen, sugarren kontrako babesa ibaiaren hondoa bertan bilatzeko. Irkutsketik oso-oso hurbil zegoen izotz puska, beren burua uretara bota zutenean; hogeita hamar bat besabete baino ez zeuden lehenengo kairaino.

Urpean igerika, Mikel Strogoff kaian lehorretatu zen Nadiarekin batera.

Azkenik lortu zuen bere helburua! Irkutsken zegoen!

—Gobernadorearen jauregira! —esan zion Nadiari.

Hamar minutu igaro aurretik, jauregiko sarbidera iritsiak ziren biak ala biak. Angararen garluzeek haren zimentarriak berotzen zituzten, baina erre gabe.

Harago, ur bazterreko etxeak oro sutan zeuden.

Atea zabalik zegoen. Mikel Strogoff eta Nadia jauregian sartu ziren oztoporik gabe. Nahas-mahas hartan, inork ez zien erreparatu, jantziak busti-bustiak eraman arren.

Ofizial eta soldadu pila batek mukuru betetzen zuen beheko solairuko areto nagusia. Batzuk aginduak jasotzera zetozen, besteak aginduak betetzera korrika zihoazen. Han, Mikel Strogoff eta neska gaztea, jendetzaren zurrunbilo eroaren erdian, bereizi egin ziren bata bestearen ondotik.

Nadia lasterka abiatu zen, erabat aztoratuta, beheko aretoetan zehar, bere lagunari deika, duke handiaren aurrera eraman zezaten eskaka.

Ate bat zabaldu zen haren aurrean, eta argiz beteriko gela bat ikusi zuen. Sartu, eta hitzetik hortzera topo egin zuen buruz buru Ixinen ikusi zuen gizon doilor harekin, Tomsken ikusi zuen gizon anker harekin, handik pixka batera hiria tatariarrei eman behar zien traidorearekin.

—Ivan Ogareff! —esan du garrasi batean.

Bere izenaz deitu dutela entzutean, dar-dar egin du gizaseme zital hark. Egiatan nor den agerian jarriz gero, porrot egingo dute haren asmo guztiek. Gauza bakarra egin dezake: horrela deitu duen izaki hori hil, edonor dela ere.

Ivan Ogareff Nadiarengana oldartu da; baina neska gaztea, ganibeta eskuan, bizkarra paretaren kontra jarri eta defendatzeko prest agertu zaio.

—Ivan Ogareff! —garrasi egin du berriz ere, izen higuigarri horrek laguntza ekarriko duela ongi jakinda.

—A! Hago isilik! —esan dio traidoreak.

—Ivan Ogareff! —garrasi egin du hirugarren aldiz neska ausartak, ahotsaren indarra bikoizturik gorrotoaren gorrotoz.

Amorruak ito beharrean, Ivan Ogareffek labana atera gerrikotik, Nadiarengana jo eta gelako zoko batean inguratu du.

Harenak egin du ia, baina bereziko indar batek altxatu eta lurrera erori da ziplo madarikatuhori.

—Mikel! —oihu egin du Nadiak.

Mikel Strogoff da.

Mikel Strogoffek Nadiaren deia entzun du, eta ahots haren atzetik Ivan Ogareffen gelaraino etorri eta barrura sartu da ate irekitik.

—Ez egon beldurrez, Nadia —esan dio, neska— eta Ivan Ogareffen artean ipintzen dela.

—A! —oihu egin du berriz neska gazteak—, kontuz ibili, neba!... Traidorea armatua zagok!... Eta ongi ikusten dik!...

Ivan Ogareff lurretik jaiki, eta, itsua aise menderatu ustean, eraso egin dio.

Baina itsuak ikustunari besotik oratu dio esku batez, beste eskuaz labana desbideratu du, eta hortxe doa lurrera berriz ere.

Ivan Ogareff, haserrez eta lotsaz zurbil, ezpata daramala oroitu da. Zorrotik atera eta erasora itzuli da.

Hark ere ezagutu du Mikel Strogoff. Itsu bat! Itsu batekin baino ez da ari borrokan! Jokoa berea da inondik ere!

Nadia izu-laborriak hartu du orekarik gabeko borroka horretan haren lagunak nolako arriskua duen ikusita, eta ate aldera joan da arineketan laguntza eske!

—Itxi ezan atea, Nadia! —esan dio Mikel Strogoffek—. Ez iezaionala inori deitu eta utz iezean niri egiten! Tsarraren mandatariak beldurtzeko-

rik batere ez din gaur gizatxar horren aldetik!  
Datorrela nigana, ausartzen bada! Zain nagon!

Bien bitartean, Ivan Ogareffek, bere baitan bildurik tigre bat bezala, tutik ere ez du esaten. Ez du nahi bere urratsen soinurik, ezta bere arnasa-hotsik ere, itsuaren belarrira heltzerik. Kolpea jo nahi dio hurbiltzen ari zaiola ohartu aurretik, arriskuan jarri gabe. Ez du borrokan egin nahi, traidoreak erail egin nahi du Mikel Strogoff, haren izenaz jabetu ondoren.

Nadia, izu-laborrian baina konfiantzaz beterik era berean, eszena beldurgarri horri begira dago, halako mirespen bat begietan. Mikel Strogoffen lasaitasuna behingoan harenganaino ere heldu dela dirudi. Mikel Strogoffek ganibet siberiarra beste armarik ez dauka eta ezin etsaia ikusi; hark, berriz, ezpata du eskuan, horixe egia. Baina, zein goiko bedeinkaziori esker ematen du mendean hartua duela, traidorea azpiratua dagoela? Nolatan egiten dio oraindik aurre haren ezpataren puntari, mugitu gabe kasik?

Ivan Ogareffek zelatan so egiten dio bere arerio harrigarriari, larritasun handiz. Haren baretasun erabatekoak nahasi egiten du. Alferrik esaten dio bere buruak abantaila guztia bere alde dagoela oreka gabeko borroka horretan!

Itsuaren gelditasunak hormatu egiten du. Biktimari non kolpea jo bilatu du, bai eta aurkitu ere!... Zergatik ez du bukatzen behingoz?

Azkenik, jauzi egin eta ezpata kolpea jaurti du Mikel Strogoffen bular erdira.

Itsuak ganibeta pixka bat mugitu eta kolpea desbideratu du. Mikel Strogoffek ukaldirik ez, eta, lasai eta hotz, hurrengo erasoaldiaren zain jarri da, nonbait, etsaiari mehatxu ere egin gabe.

Izerdi larri hotza dario Ivan Ogareffi kopetan behera. Pauso bat atzera egin eta aurrera jo du berriz. Baina, lehenengoan bezala, bigarrean ere huts egin du kolpeak. Ganibet luzearen gelditu txiki bat aski, traidorearen ezpata kolpe alferrekoa desbideratzeko.

Honek, amorru biziz eta beldurak airean estatua bizi haren aurrean,itsuaren begi zabalzabaletan gelditu du bere begirada ikaratua. Iru-ditzen zaio bere arimaren hondo-hondoraino barneratzen zaizkiola begi haiek. Ez dute ikusten, ezin dute ikusi, baina lilura lazgarria sortarazten diote.

Supituki, Ivan Ogareffek deiadar egin du. Ustekabean argi bat piztu zaio burmuinetan.

—Ikusi egiten du —esan du garrasika—, ikusi egiten du!...

Eta zulora itzuli nahi duen piztia baten gisa, pausoz pauso, ikara latzean, atzera egin du gelaren atzealderaino.

Estatua bizitu da bat-batean, itsuak Ivan Ogareffengana jo du zuzen-zuzen, eta parez pare jarrita:

—Bai, ikusi egiten diat! —bota dio—. Knutez egin nian ebakia ikusten diat, traidore koldar hori! Eta nire ganibetak non joko dian ere ikusten diat! Zaindu ezak heure burua! Borroka garbia eskaintzen diat! Nahikoa diat neure ganibetaz hire ezpataren kontra!

—Ikusi egiten du! —errepikatzen du Nadiak bere artean—. Jaun zerukoa, nola liteke?

Ivan Ogareffek galbidean ikusi du bere burua. Baina, borondatearen astindu batez, adorea bildu eta bere arerio izukaitzarengana oldartu da ezpata aurretik daramala. Bi xafla zuriak gurutatu dira, baina ehiztari siberiarraren ganibetarekin jotzean, ezpata mila puska eginda doa airean, eta traidorea, bihotza hautsita, lurrera erortzen da hilik.

Une hartan, kanpotik bultzatu eta gelako atea zabaldu egin zuten. Duke handia eta haren ofizialetako batzuk agertu ziren alartzean.

Duke handia aitzinatu zen. Tsarraren mandatarari uste zuenaren gorpua ikusi zuen lurrean zerraldo.

Eta orduan, ahots mehatxagarritz:

—Nork hil du gizon hau? —galdetu zuen.

—Nik —erantzun zion Mikel Strogoffek.

Ofizialetako batek lokian jarri zion errebolbera, tiro egiteko prest.

—Zein da hire izena? —galdetu zion duke handiak, burua zulatzeko agindua eman baino lehen.

—Jauna —erantzun zion Mikel Strogoffek—, berorren gorentasunak galde diezadala hobeki zein den lurrean dagoen horrena!

—Gizon hori ezagutzen diat! Nire anaiaren zerbitzaria duk! Tsarraren mandataria!

—Gizon hori, jauna, ez da tsarraren mandataria! Gizon hori Ivan Ogareff da!

—Ivan Ogareff? —oihu egin zuen duke handiak.

—Bai, Ivan traidorea!

—Eta hi, nor haiz hi, bada?

—Mikel Strogoff!

## XV AMAIERA

Mikel Strogoff ez zegoen itsu, eta ez zen behin ere egon. Feofarren borreroak haren begien aurrean sable gorria jarri zuenean, giza gertakari soil bat, batera morala zein fisikoa, etorri zen erreduraren eragina ezereztera.

Gogora dezagun torturaren mementoan Marfa Strogoff hantxe zegoela, eskuak bere semearengana luzatuta. Seme batek amari azken aldiz begiratzen dion bezala begiratu zion Mikel Strogoffek. Malkoak ugari igo zitzaizkion bihotzetik begietara, betazal atzean pilatu, eta harrotasuna alferrik saiatu zen bertan itotzen. Negarrari eman zion, eta malko haiek, kornearen gainean lurrundurik, ikusmena salbatu zioten. Xafla goriaren eta begi ninien artean zabaldu zen haien lurrun geruza eta beroaren indarra deuseztatu. Gauza berbera jazotzen da galdategiko langile batek eskua uretan ongi busti eta burdinurtuzko zurrutan sartzen duenean erre gabe.

Mikel Strogoffek segituan ulertu zuen arrisku handian egongo zela, sekretu hura agerian geldituz gero. Eta konturatu zen, beste aldetik, nola-ko etekina atera zezakeen egoera hartatik bere asmoak burutzeko. Itsua zela uste zutelako utziko zuten aske. Derrigorrezkoa zen, beraz, itsua izatea guzti-guztientzat, baita Nadiarentzat ere, noiznahi eta nonahi, eta keinu bakar batek ere ezin zion inori susmarazi egiatan hala ez zela. Erabakia hartuta zegoen. Bizia bera ere arriskuan jarri behar, haren itsutasuna gezurrezkoa ez zela frogatzeko, eta badakigu nola jarri zuen.

Amak bestek ez zekien egia, Tomskeko plazan bertan esan baitzion belarrira, itzaletan harengana makurtu eta musuz bete zuelarik.

Aise ulertzekoa da, hortaz, Ivan Ogareffek, iseka krudela egin nahian, gutun inperiala begi itzali usteko haien aurrean ipini zuenean, Mikel Strogoffek irakurri egin zuela, eta modu horretan jabetu zela traidorearen helburu higuingarriez. Horrek eman zion bidaiaren bigarren aldian erakutsi zuen adorea. Horrek opa zizkion Irkutskera iristeko borondate gogorra eta duke handiari gutunaren edukia ahoz emateko asmo etsigaitza. Bazekien hiria tatariarrei eman nahi ziela! Bazekien duke handiaren bizitza arriskuan zego-

ela! Tsarraren anaiaren salbazioa eta Siberia osoarena bere eskuetan zeuzkan.

Hitz laburrez istorio hori guztia kontatu zioten duke handiari, eta gorabehera haietan Nadiak hartu zuen partea ere azaldu zuen Mikel Strogoffek, eta nolako zirraraz azaldu ere!

—Nor da neska gazte hori? —galdetu zuen duke handiak.

—Vasili Fedor erbesteratuaren alaba da —erantzun zion Mikel Strogoffek.

—Fedor komandantearen alaba —zuzendu zuen duke handiak—, jadanik ez duk erbesteratu baten alaba. Irkutsken ez zagok inor erbesteraturik!

Nadia, indartsuagoa oinazean alaitasunean baino, duke handiaren oinetan erori zen. Dukeak esku batez altxarazi zuen, beste eskua Mikel Strogoffi luzatzen zion bitartean.

Handik ordubetera, Nadia bere aitaren besoetan zegoen.

Mikel Strogoff, Nadia eta Vasili Fedor elkarrekin zeuden. Ezin bozkario eztiagorik inola ere.

Tatariarrak atzera bota zituzten hiriaren kontrako iruzurrezko bi erasoetan. Vasili Fedor eta haren soldadu talde txikia Boltxaiako atean gelditu ziren, halako sen batek alderdi hura defen-

datzeko agindu baitzion, eta, lehenengo eraso-tzaileak guztiz birrinduak eta azpiratuak izan ziren, zabalik espero zuten atetik ezin sarturik geratu zirenean.

Tatariarrek atzera egiten zuten bitartean, suteari gaina hartu zioten setiatuek. Nafta likidoa laster erre zen Angararen gainaldean, eta sugarrak, ibai ertzeko etxeetan bildurik, ez ziren heldu hiriko beste auzuneetaraino.

Eguna argitu aurretik, Feofar Khanen tropak kanpamentuetara itzuli ziren, hildako anitz utzirik babeskien beheko aldean.

Hildako haien artean Sangarre buhamea zegoen, hirian alferrik sartzen saiatu zena Ivan Ogareffekin elkartu nahian.

Hurrengo bi egunean, setiatzaileek ahalegirik ez zuten egin hiriaren kontra. Bihozgabeturik zeuden Ivan Ogareffen heriotzarengatik. Gizon hura inbasioaren arima zen, eta hura bakarrik izan zen nahikoa, aspalditik azpilanean jardunez, khanak eta haien gerlariak Asia aldeko Errusia konkistatzera bultzatzeko.

Irkutskeko defendatzaileak zain eta erne, bitartean, setioak zegoen zegoenean zirauen eta.

Baina urriaren 7an, eguneko argia urratzea-  
rekin batera, kanoi batek durundi egin zuen  
Irkutskeko inguruko gainetatik.

Laguntzako armada zetorren, Kisselef jenera-  
laren aginduetara, eta duke handiari hantxe zeu-  
dela ohartarazteko bota zuten kanoikada hura.

Tatariarrak ez ziren begira gelditu luzaroan.  
Ez zuten batailarik nahi hiriaren murrue-  
n aurrean, eta laster batean altxatu zuten Angara-  
ko kanpamentua.

Irkutsk libre zegoen azkenik.

Lehenengo soldadu errusiarrekin batera,  
Mikel Strogoffen bi lagun sartu ziren hirian.  
Blount eta Jolivet ziren, bata bestearen ondoan  
beti. Angararen eskuin hegira iritsi ziren jelazko  
hesian barrena, eta ihes egitea lortu zuten,  
almadiako gainerakoek bezala, sutearen garrak  
bazter haietaraino hedatu baino lehen. Pasadizo  
hura guztia era honetan jaso zuen Alcide Jolive-  
tek bere koadernoan:

«Limoia pontxean bezain erreka bukatu  
genuen ia!».

Poz handia hartu zuten Nadia eta Mikel Stro-  
goff onik eta osorik aurkitzean, eta bereziki  
haien bidelagun ausarta itsua ez zela jakin zute-

nean. Hori zela-eta, honako ohar hauxe idatzi zuen Harry Blountek:

«Burdina gorria nahikoa ez begi nerbioaren sentiberatasuna suntsitzeko. Sistema aldatu beharko!».

Gero, bi kazetariak Irkutsken hartu zuten ostatu, eta ikusitakoak eta idatzitakoak txukuntzen aritu ziren. Handik bi kronika oso interesgarriri atera ziren Londresera eta Parisera, tatariarren inbasioari buruzkoak, eta, harritzekoa, biak bat zetozen garrantzi gutxiko puntu batzuetan izan ezik.

Guda kanpaina, bestalde, gaizki joan zen emirrentzat eta haren aliatuentzat. Inbasio hura, alferrekoa, erraldoi errusiarrari eraso egiten dioten guztien pare, zoritxarrekoa izan zitzaien guztiz. Tsarraren tropek berehala zatitu zuten haien armada, eta banan-banan berreskuratu zituzten galduriko hiri guztiak. Negua, gainera, latza izan zen arras, soldadu andana haieetatik asko eta asko bidean hil ziren hotzak, eta kopuru txiki bat baizik ez zen itzuli Tatariako estepetara.

Irkusketik Ural mendietara doan bidea libre zegoen, beraz. Duke handiak presa zuen Moskura bueltatzeko, baina bidaia atzeratu zuen, hala

ere, zeremonia hunkigarri bat ospatu behar baitzen hirian, tropa errusiarrak sartu eta egun batzuk geroago.

Mikel Strogoff Nadiaren bila joan zen, eta, haren aitaren aurrean, hitz egin zion:

—Nadia, nire arreba oraindik, Irkutskera etortzeko Rigatik atera hintzenean, atzean oroitzapenen bat utzi huen hire amarenaz beste?

—Ez —erantzun zion Nadiak—. Bakar bat ere ez, inolakorik ez.

—Hortaz, hire bihotzetik ezer ez zen han gelditu?

—Ezer ere ez.

—Orduan, Nadia —esan zion Mikel Strogoffek—, ez dinat uste Jainkoak, bata bestearekin topo eginaraztean, hain neke handiak elkarrekin jasanaraztean, besterik nahiko zuenik gu betiko elkartzea baino.

—A! —bota zuen Nadiak, Mikel Strogoffen besoetan erortzen zela.

Eta Vasili Fedorregana itzuliz:

—Aita! —esan zuen, koloreak gorrituta.

—Nadia! —erantzun zion Vasili Fedorrek—, pozaren pozez deituko dizuet seme eta alaba!

Irkutskeko katedralean ospatu zen ezkontza. Zeremonia apala izan zen xehetasunetan, eder-

ederra bertara bildu zen jendetzarengatik, hiriko biztanle guztiek, militarrek zein zibilek, beren esker ona erakutsi nahi izan baitzieten bi gazte haiei. Haien bidaia gorabeheratsua ahoz aho zebilen, denek goratzen zutela, alegiazko bihurtu zen arte.

Alcide Jolivet eta Harry Blount ezteietan zuden, noski, denari begira, haien berri zehatza beren irakurleei emateko asmoz.

—Inbidia pixka bat ez dizute ematen? —galdetu zion Alcide Jolivetek bere lankideari.

—Bo, bo, bo! —esan zuen Harry Blountek—. Lehengusina bat banu, sikiera, zuk duzun bezala!...

—Nire lehengusinari aspaldi joan zaio ezkontzeko sasoa! —erantzun zion Alcide Jolivetek.

—Hainbat hobe —gehitu zuen Harry Blountek—, zurrumurrua dabil-eta tirabirak sortu ote diren Londresen eta Pekinen artean. Gogorik ez, alderdi horietan zer gertatzen ari den ikustera joateko?

—Arrano-pola, Blount maite hori! —oihu egin zuen Alcide Jolivetek—, zuri horixe galdetzeko-tan nengoen!

Eta horra nola bi berriemaile elkarrengandik banaezinak abiatu ziren Txina aldera!

Ezkontzatik egun batzuetara, Mikel eta Nadia Strogoff, Vasili Fedorrekin batera, Europako bidean jarri ziren. Honantzean oinazezko bidea izan zena alaitasunezkoa izan zen harantzean. Agudo baino agudoago bidaiatu zuten, Siberiako estepa hormatuetan tren espresa bezain arin irristatzen den lera horietako batean.

Hala ere, Dinkako ur bazterretara iristean, Birskoe baino lehen, egun bat eman zuten geldirik.

Mikel Strogoffek Nikolas gizagaixoaren ehortz-lekua aurkitu zuen. Gurutze bat ipini, eta Nadiak otoitz egin zuen azken aldiz sekula ahaztuko ez zuten lagun xume heroiko haren hilobia-  
ren aurrean.

Omsken, Marfa zaharra zain zeukaten Strogofftarren etxetxoan. Besoetan hartu zuen maitasunaren suaz bihotzean ehun aldiz alaba deituta zeukan hura. Siberiar kementsuak egun hartan eskubidea izan zuen semea ezagutzeko eta harengatik harro agertzeko.

Omsken egun batzuk pasaturik, Mikel eta Nadia Strogoff Europara itzuli ziren. Vasili Fedor Sant Petersburgen kokatu zen, eta ez haren semea ez haren alaba inoiz ez zitzaizkion ondo-

tik aldendu, ama zaharrari bisita egiteko ez bazen.

Tsarrak abegi egin zion mandatari gazteari jauregian, eta San Jurgiren gurutzeaz hornitu eta bere hurbileko zerbitzuan hartu zuen.

Aurrerago, Mikel Strogoff oso maila altura iritsi zen inperioan. Baina ez da haren arrakasten istorioa kontatzea merezi zuena, haren sufri-menduena baizik.